³ Gai horretan murgiltzeko ikus AGIRREAZKUENAGA J. (ed.), *La articulación político-institucional de Vasconia. Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*. Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, 1995, 2 liburuki.

⁴ DESDEVISES DU DÉZERT, Georges, "Le régime foral en Espagne au XVIIIème siècle", *Revue Historique*, Paris, T. 62, 1896, 255-256. BECERRO DE BENGÓA, Ricardo, *El libro de Álava*. Vitoria, 1877, 288.

Historiografiatzko lana eta azterketa burutzerakoan, Voltaire eta Muniberen garai ilustratuan bereizten zen bezala, alde batetik erudizio enpirikoa, datuetan oinarrituriko ezagutzak ditugu eta aldi berean edo ondoan interpretazioak, literaturak. XVII. mendean, Hobbesek *Leviathan* liburuan esan zuen bezala, gauzez (*things*) ez dago asko esaterik, baina diskurritzen hasten garenean, *speech*-ak sortzen ditugu eta, orduan bai, ona edo txarra deritzogu eskubide osoz.

Gure erudizio maila, entziklopedietan eta hiztegigintzan laburtzen duguna, XX. mendean zehar eta, bereziki, azken 20 urteotan gehiago emendatu da eta sakonago ezagutzen dugu gure iragana. Hala ere, oraindik behin-behineko azpiegiturazko lanen gabezia nabarmena da historia arloan. Ez dugu, adibidez, Euskal Herriko hiztegi biografiko sakona. Espainiako gobernua oraintsu erabaki du Espainiako Hiztegi biografikoaren proiektua burutzea. Gurean, berriz, ez dago horrelakorik, proiektua aspalditik ondo zehazturik eduki arren, eta horrela aurkeztu dut han eta hemen, baina arrakasta barik.

Lan entziklopedikoetan, aipatzerakoan baten bat, Bernardo Estornes Lasak Auñamendiko entziklopedia asmatzen eta argitaratzen egin zuena, azpimarratu behar dugu. 1970eko jakituria eta oraingo ezagutza maila desberdina dugu eta horregatik amaitzear den entziklopedia horretan lehen liburukiak eta azkenak desberdinak ditugu. Berriztu beharra dago eta Eusko Ikaskuntzak hor du erronka handia eta benetakoa.

Bestalde, berriztapen epistemologikoak eta diskurtsiboak gertatu direla Euskal Herriko historia lantzeko eran begibistakoa da eta azken 20 urteotan aski ondo eta sakon landu da euskal historia. Oro har, euskal subjektua euskal historia burutzerakoan nabarmenago asmatu dela esango nuke. Nire ustez, XXI. mendeari begira horixe dugu erronka nagusia, euskal historia burutzerakoan euskal subjektuaren ikuspegitik abiatzea euskal erreferentzi sarearen munduan zehar igarotzea geure gogoeta historikoa. Nahi eta ez, denok abiatzen gara presupuesto jakin batzuetan oinarriturik eta ona izaten da ezagutzea norberaren maparen koordenadak zeintzuk diren. Euskaraz idatziz gero errazago sortzen da Euskal Herriarekiko begiradaren zirkulua beste mundu zirkuluen biran dagoela ahaztu gabe. Baina euskal subjektua esaten dugunean orri bat delakoaren bateratasuna ez diogu erantsi behar halabeharrezkoa balitz modua. Subjektua egin eta desegin egiten baita eten gabe historian barrena eta beharbada euskal subjektuez, pluralean, hobe legoke pentsatzea.

Baina nola sortu, asmatu, garatu, gihartu eta indartu da azken mendeotan euskal historia? Berez ez dago ezer ere, beraz, Euskal Herriko historia, lantzeko esparrua sortzen doa, gaur egun euskal historia edo Euskal Herriko his-

toriaren lurraldea garbi egon ez arren. Euskal historiaren parte dira ere bai gure lurraldetik at beren bizimodua ateratzen saiatu zirenak eta direnak, munduko edozein txokotan. Euskal Herriko historia ezin dugu mugatu Pirinio inguruko lurraldeetara, Aturri eta Ebroren arteko lurraldera soilik. Hara bada, Euskal Herriko historia lantzea beti izan da gai zaila eta azken hiru mendeetan definitzen eta zehazten joan doa. Gogoeta ibilbide honetan, A. Oihenart euskal idazleak merezi du goren graduko aipamena.

Euskal historiografiaren aldi nagusiak bereizterakoan honako laburpena ikusten dut:

XVII. mendean Oihenartek indartu zuen Vasconiako ikuspegia; XIX. mende hasieran J. A. Zamakolak ere euskal nazio edo komunitateen historia landu zuen, gizartea abiapuntutzat harturik, eta XX. mendean Karmelo eta Bonifacio Etxegaraireren (abokatua), Th. Lefebvre-ren (geografoa) eta J. Caro Barojaren (historialari soziala) lanak dira lan orokor eta berritzaile nagusiak gure historia aztertzeko unean. Gizarte zientzien eragina historia lantzeko unean ageri zaigu eta aipatu ditudan azken hirurak zientzia berrietako teoriak eta metodologiak aztertu ondoren saiatu ziren euskal historia idazten.

ARNAUT OIHENART

Kongresu berezia antolatu zuen Euskaltzaindiak eta liburu mardula argitaratu⁵. Oihenart historialari gaia ipar Euskal Herriko historiografian, Manex Goihenetxek zehazki landu du.⁶

XVII. mendean bi erresuma nagusiren artean banaturik dago Euskal Herria. Oihenart Nafarroako historian murgildu zen Nafarroa Frantziako erresuman kokatzeko eta gero Vasconiakoa landu zuen⁷. Erresumako historiak lantzen ziren eta aldi berean historia nazionalak. Baina nazio kontzeptua, jaioterriarekin loturik zegoena, modernitatean lurraldeko giza komunitatea

⁵ *Oihenarten laugarren mendeurrena. Cuarto centenario de Oihenart. Quatrième centenaire d'Oyhénart*. Bilbao, Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca, 1994, 695 orrialde.

⁶ GOIHENETXE, J., *Les Basques et leur Histoire. Mythes et réalités*. Donostia-Baiona, 1993. AGIRREAZKUENAGA, J., "A. Oihenarten *Notitia Utriusque Vasconiae*: berrikuntza eta eragina euskal historiografian", *Oihenarten laugarren mendeurrena*, 643-651.

⁷ *Déclaration historique de l'injuste usurpation et retention de la Navarre par les Espagnols*. Paris, 1625

adieraztera igaroko zen. Aurrerantzean lurra eta ez ahaideak definituko zuen gizabanakoaren nortasuna

Natio gens-etik *natio* lurraldera jauzia nabarmena izango zen. Euskal Herriaren Batzar Nagusien bidez erakundetze desberdinak sortuz joango ziren eta lurralde izen nagusiak ageri zaizkigu. Horietatik bi izango ziren nagusiak: Nafarroa, alde batetik, Bizkaia, bestetik. Larramendik XVIII. mendean Bizkaia frantsesa ere aipatuko du; hara zer idatzi zuen: "Este error de llamar Vizcaya a todo el pais bascongado, ha pasado de España a Francia: pues ya modernamente los franceses llaman Vizcaya francesa a baja Navarra, Labort y Zuberoa, con ridícula acomodación, pensando que son equivalentes Cantabria y Vizcaya".⁸

Erdi Aroan historia unibertsalak burutzen ziren. Erromako eliza katolikoa erakundetze unibertsala zen, nazioartekoa, alegia. Baina historia partikularrak lantzen hasi ziren Aro Modernoan. Lurraldetasunean finkaturiko herrialde eta nazioak ageri dira. Tokian tokian jaio, bizi, hiltzen direnak kohezio zentzu finkoa hartzerantz iristen direla uste ohi da. *Hispanian* jaio, bizi, hiltzen den heinean, guzti horrek idiosinkrasia sortzen du eta *homo Hispanicus* delakoaren nabarmentasuna ageri-agerikoa bihurtzen da historiaren subjektua bihurtuz. Modu horretan historiografia nazional espainiarra gorpuzturik dago Aro Berriaren atarian eta XVI. mendez geroztik garrantzia irabaziz joango da. Diego Catalánek arazo hau ederki adierazten du, historiografia nazionalen sorreraren jatorria azaltzerakoan⁹. Arrasateko E. Garibay-k Espainiakoa eta historia unibertsala landu zuen, tartean euskal herriarena txertatuz.

Kontestu honetan kokatu behar dugu A. Oihenarteren lan nagusia: *Notitia Utriusque Vasconiae*. Ez da, ez, lan historiografiko soila. Bestalde, Euskal Herri mendebaldean Cantabriaren nortasunez jabeturik agertzen zen, nolabait ikuspegi vaskonikoari kontrajarririk.

Errenazimientu garaian, euskaldunak, frantziar eta espainiar inperio nagusien baitan ageri ziren. Nafarroa, indarraren poderioz sarturik Espainiako erresuman eta Louis XIII.a, Frantziako eta Nafarroako errege izanik, bere borondatez eta Donapaleun bildu ziren jaunek aurkako iritzia agertu arren, Nafarroa Beherea Frantziako koroako parte bihurtu zuen. Kontestu horretan bizi zen A. Oihenart eta bere *Notitia utriusque Vasconiae* histori lana,

⁸ LARRAMENDI, M., *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. San Sebastián³, 1853, XXVII.

⁹ MENÉNDEZ PIDAL, R., *Los españoles en la historia*. Sarrera Diego Catalán. Madrid, 1991. CATALÁN, D., "Contribución de la historiografía a la creación de los españoles", *Languaiak*, 8-9. Pamplona 1985, 45-57.

ikuspegi kritiko batez burutua zegoena, berez “hiritar” talde berri batentzat, erakunde desberdinetan banaturik zegoen jende multzoen komuntasun loturak azpimarratzen zituen eta, beraz, diskurtso historiko berria asmatu; subjektua, diskurtso berrian, euskaldunak ziren, hau da, Vasconiakoak, etni ikuspegi batetik euskaldunak, eta Aro Berriaren modernitateak eskatzen zuen “hiritar status” batera jauzia egiteko, bidea eta ikerlana urratu zuen. Inperio berrien baitan herri nortasuna azpimarratu zuen. Vasconia, lurralde kontzeptua, berriz, hasi zen erabiltzen, horrek definitzen baitzuen euskaldun guztien batasun esparrua, ohizko besteak, dela Nafarroa, dela Bizkaia, gaudituz. Berak ukatu egingo ditu mito tradizionalak, kantabrismoa, bereziki, eta beste elementu objektiboetan oinarrituko da, hizkuntza eta kultura amankomunean.

Vasconia-Euskal Herri kontzeptu euskaldunaren itzulpen zehatz eta egokia baino ez da erromantze hizkuntzetan eta objektiboki egokien definitzen duena gure lurraldea. Euskara ederki menperatzen zuen A. Oihenartek.

Zergatik latinez idatzia? Goi Ertaroan, historia guztiak unibertsalak ziren eta gerora unibertso horren “probintzien” historiak idazten hasi ziren. Vasconiaren *notitia* berez unibertso horren probintzia da eta unibertsaltasun horrekin komuntasuna lotu nahian edo, latinez idatziko du, berez “probintzia” soil baten historia zena. Partikularitasuna eta unibertsaltetasuna konbinatu nahi ditu modu horretan. Berez, Vasconiari, historiografian eta teoria politikoan existentzia berria eranstean zion eta lurralde horrek aurrerantzean bertakoak definitzeko gaitasuna eragingo zuen, euskaraz euskaldunak Euskal Herrikoak zirela aski nabarmena baitzen. Historia nazionalen sorrera garaian, A. Oihenartek euskaldunen historia sortarazteko oinarritzko ikuspegia eta elementuak sortzen ditu. Baina ohizko mitogintzarekin etendura sortu zuen. Kritikoa zen, XVII. mendeko libertinoen jokamoldea ere nabarmentzen zaio. Froga positiboak behar ditu eta dokumentuen kritika zorrotza eragingo zuen. M. Montaigne eta F. Bacon izango dira gizarte zientzien arloan libertino eruditoren eredu teoriko berriak eta modernitatearen aitzindariak.

Oihenartek bere kontzeptu historiografikoa finkatzerakoan herri eta hizkuntz komunitateari garrantzi sakonagoa erantsi zion bestelako gertakizun historiko eta politikoei baino. Bere gogoetaren bidez espazio bat definitzen du eta espazio horretan bizi diren gizataldeez arduratzen da, bere nortasun eta erakundetze juridiko politikoak desberdinak izan arren. Horra bere originaltasuna eta ondorioz bere *homo vasconicus*-en sorrera asmatu zuen, kanpora begira bereziki. Euskal Herriaren hizkuntz nortasuna eta berezitasuna azpimarratuz, kategoria politiko berria sortarazteko eta indartzeko argudio sendoak burutzen ditu.

ILUSTRAZIO GARAICO HERRI ADISKIDEAK

XVIII. mendeko Euskal Herriko historialari eta pentsalari ilustratuetan hain pentsamolde arrazionalistaren jabe zen Oihenartek, badirudi ez zuela izan eragin zuzenik. Dena dela, Xabier Munibek sortu zuen erakunde sozial berria eta bertako kide ziren Euskal Herrialdeetakoek gehi Ameriketara edo Europako beste erresumetan bizi zirenek "bascongado" izatearen harrotasuna eta nortasuna erakusten dute. Munibe gizon praktiko eta politiko legez ageri zaigu. *Irurac bat*, *laurak bat*, *zazpiak bat* izan dira hari bereko aldarrikapenak gaur egun mundu mundializatuan euskaldunok bat, agian izan beharko luke.

Herri Adiskideen elkartean (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País) hasieran gogoeta sozialak, historikoak eta politikoak egiten saiatu ziren, baina aurrerantzean gai hauek bazterturik ageri dira, zientzia aplikatuen eta teknologi gaien mesedetan. 1765eko apirilaren 18ko Herri Adiskideen batzarrean elkarteko idazkariak, M. Olasok memoria bat agertu zuen izenburu honekin: *Instrucciones para escribir la Historia Nacional*, hau da, txostena besteak beste *Historia de nacion vascongada* idazteko plangintza da, Euskal Herriko hiru probintzietara mugaturik, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabara. Giro berean beste txosten baten asmoa azaldu zen: *Plan del discurso previo a la Historia Nacional de las tres provincias bascongadas dividido en tres partes y un apéndice o suplemento*. Idatzi ere Landazurik idatzi zuen *Historia General del País Vascongado comprendido en sus tres Provincias, El Señorío de Vizcaya, Guipúzcoa y Álava* eta *Segunda parte de la Historia Nacional de las tres Provincias Vascongadas. Relación histórica de los sucesos ocurridos en esta región de Cantabria hasta la entrada de los moros*¹⁰. Egitasmo guztietan eta idatzi ziren testuetan, Euskal Herriko hiru probintzien esparrua zen "País Bascongado" delakoa. Testuak irakurritz, badirudi beste Euskal Herririk ez zela ageri. Egia esateko eta bere garaian garaiko ikuspegiaren murgilduz gero, probintzia soila gainditzeak eta *Irurac bat* izeneko elkarguneaz aritzeak, urrats nabarmen berria suposatzen zuen, ez baitugu ahaztu behar tokian tokiko aginteak probintzi mailakoak baino boteretsuagoak zirela. Hasieran Xabier Munibek bere Akademia proiektua Gipuzkoako Batzar nagusietan aurkeztu

¹⁰ Arabako Artxibategi Probintziala, Prestamero saila, 11. kutxa.

OLABARRI, I., " Proyectos historiográficos de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País", *I Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. San Sebastian, 1986, 461-470.

zuen¹¹. Baina handik lasterrera hiru probintzien mailan planteatu zuen, ondoren *bascongada* izendatuz. Harrezkero, hiru probintzien arteko harreman politiko instituzionalak indartu eta estutu egin ziren. Batez ere, 1793ko urteaz geroztik, hiru "komunitate" jatorrizko kategoria erabiliz, hau da, hiru probintzien arteko harremanak erakundetu egingo ziren Batzar iraunkorren bidez, *konferentzia* izenez ere ezagunak izango zirenak¹². Bergarako Herri Adiskideen egoitzan hiru herrialdeetako Batzar Nagusien ordezkariak biltzen hasi ziren, ekintzabide komunak indartzeko asmoz.

Herri Adiskideen elkartean, kantabrisimo dogmak nagusi izaten jarraituko du eta horretan Herri Adiskideak ez ziren bat ere berriztatu edo modernizatu. Kontraesana dirudi. J. H. Ozaeta et gero J. J. Landazuri izan ziren kantabrisimoaren defentsan gehien saiatu zirenak Henrique Flórez eta M. Riscoren aurka¹³. Kantabrisimoaren arazoa goitik eta behetik arakatu zuten hainbat dokumentazio sortuz. Ikasleen azterketetan, adibidez, galderatariko bat hauxe zen: *¿Que entendemos hoy por Cantabria?* Edo eta Ignacio Jose Olasok, 17 urteko ikasleak, 1766 inguruan frogatu behar zuen "*la cuestion de si las tres Provincias Bascongadas de Alava, Vizcaya y Guipuzcoa fueron o no comprendidas en la Antigua Cantabria.*"¹⁴

Beraz, Herri Adiskideen historiografi lanetan, ez da ageri etenik ez berriztapenik, ohizko historiografiaren mitoen jarraipena baizik.

XIX. MENDEKO HISTORIOGRAFIAREN ABIAPUNTUAK ETA AUKERAK

Iraultza liberalaren garaian erresumak nazio berriztatuak bihurtzen saiatu ziren eta Estatu berriztatua ere bai. Erresistentziak berriz ere ageri ziren erresumak edo estatuak ez zirelako uniformeak eta legedia erret aginduz inposatzen zen eta ondoren lehen aldiko konstituzionalismoak uniformismoan sakontzen zuen. Baina Suitzan, adibidez, kantoï bakoitzaren berezitasunak errespetatuz, Estatu nazio berria eraiki zen. Euskal lurraldeek nortasun poli-

¹¹ *Plan de una Sociedad economica o academia de agricultura ciencias y artes utiles; y comercio, adaptado a las circunstancias y economia particular dela M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa. 1763.* Donostia, Ed. J. I. Tellechea, 1985.

¹² Gipuzkoako Artxibategi Nagusia. Lehen sekzioa, 13 / 47. 1793ko urriak 31- azaroak 2.

¹³ MAÑARICUA, A. E., *op. cit.*, 242.

¹⁴ Arabakako Artxibategi Probintziala, Prestamero saila, 9. kutxa.

tiko nabarmena eta sendoa erakusten zuten Batzar Nagusien agintea argi eta sendo giharturik baitzen.

Iparraldeko eta hegoaldeko euskaldunen egoera desberdina izan zen, iparraldean erabat suntsiturik gelditu baitziren euskaldunen ohizko erakundeak eta bestelako berri bat indarrean ezarri zen tokian tokiko aginteak mugatuz, zentroko gidaritzaren arabera. Horrela batzar errepresentatiboak desagertuz, bat eta bakarra zen estatu-nazio esparrukoa aldarrikatuko zen. Hegoaldean, aldiz, ohiko Batzar Nagusiak, batzar errepresentatiboak, kultura politikoaren erakusle eta ikur bihurtu ziren. Historiografian iparraldekoak euskaldunen historiak eurrez burutzen hasi ziren, euskaldunen jatorriaz kezkatzen zen historiografia mota berri hau, baina euskaldun guztiez arduratzen zen, horra bada bere berezitasuna. Gogora ditzagun Chaho-Belzunze, Bladé, Jaurgain. Hori da beharbada iparraldeko historiografiaren konstantea, euskaldunetz orokorki ari direla, Euskal Herria bere osotasun geografikoan hartuaz. Badirudi iparraldean bertako ohizko erakundetze politiko eta juridiko propioa galdu zenean, inteligentsiaren joera hizkuntza eta herri berezitasunez gogoetak burutzerara eta histori arloan herri euskalduna lantzea bihurtu zela egitasmo berria.

Atzerrian, zegoen Hegoaldeko euskaldun liberala eta iparraldeko joera horretaz kutsaturik edo, Zamakolak histori lana Oihenarteren ildo berriz ere hartzen duela dirudi, bere *Historia de las naciones bascas* izeneko liburuan¹⁵. Zalantza barik ildo berriztatua landu zuen, gizartea eta herria hartzen du bere diskurtso historikoaren abiapuntu eta Bizkaiko historiografia eztabaida juridiko politikoan murgildurik aurkitzen zenean, foru sistemaren legitimitate historikoa frogatu nahian, Zamakolaren historia berriztatzailea da. Sabino Aranek liburuaren bigarren edizioa Amorrorturen moldiztegian argitaratzea bultzatu zuen.

A. Chahok Oihenarten *Notice sur les deux Vasconies* aipatzen du, aintzinako erromatar garaiko eta garaikideko Nafarroaren arteko harremanak aipatzerakoan. "Des sept peuplades qui composent aujourd'hui cette nation mystérieuse, dont l'origine a tant préoccupé les antiquaires, quatre -les Labourdins, les Guipuzkoans, les Alavais, les Biskaiens- appartiennent à la fami-

¹⁵ ZAMACOLA, J.A., *Historia de las naciones bascas de una y otra parte del pirineo septentrional y costas del mar cantábrico desde sus primeros pobladores hasta nuestros días con la descripción, carácter, furos usos, constumbres y leyes de cada uno de los estados Bascos que hoy existen*. Auch, 1818, 4 liburuki.

lle cantabre. Les tribus de la Haute-Navarre espagnole et de la Basse-Navarre française représentent plus particulièrement les anciens Vascons". Ageri denez, kantrabrismoaren mitoarekin jarraitzen du erabat, Oihenarten lanari buruz goraiamenak egin arren¹⁶. Jaurgaini, iparraldeaz ikertzen ari dela, Vasconia osoaren ikerketa premia sortu zitzaion, bere aintzin solasean azaldu zuenez gero. Jaurgainek onartzen du vascoiberismoa eta iparraldearen inbasioa¹⁷. Hegoaldean, aldiz, historiografia ohizko erakundetze politikoaren zerbitzuan eta defentsan burutzen zen, batez ere probintzia bakoitzekoa azpimarratuz. Nortasuna hizkuntza, herri edo etnia bereizkuntzetan oinarritu ordez, egitura eta erakundetze politikoaren bidez hartzen zuten probintzia bakoitzeko bizilagunek. Aipatu behar da historiografia errektiboa izan zela, Espainiako Historiarako Erret Akademiak hasi zuen Foruen autogobernu politikoak finkatzeko zegoen interpretazioa suntsitzen, erregearen subiratasunean soilik kokaturik. Gerora Llorentek finkatu zuen erresumako diskurtso berria eta Aranguren Sobradok, Bizkaiko Batzar Nagusietako legelari nagusiak, idatzi zuen aurkako ikuspegitik, paktismoaren teorian finkaturik subiranotasun konpartituaren printzipioa. Pedro Novia de Salcedok 1829an idatzi eta 1853an argitaratu zituen lau liburukietan Arangurenen diskurtsoari jarraitpena eman zion.¹⁸

Aldi berean, leienda eta mito historikoak oraindik bizi-bizi ezagutzen ziren ahoz aho edo idatziz eta bigarren menderdian sortu zen benetako etena euskal historiografian ere, Europan gertatzen zenekoa, hots, positibismo kri-

¹⁶ "C'est ce que le docte Oihenart a eu soin de mettre en avant dès le premier chapitre de son excellente *Notice sur les deux Vasconies*", 64; "Nous comprenons ici sous le nom de Vascons ceux aussi qu'on appelle vulgairement Cantabres... langue cantabrique"... "il ne donne nulle part le nom national et populaire, le nom véritablement ibérien, à cette langue qu'il appelle vasconne, vascongade, vascuence, biskaïne, cantabrique, de tous ses noms latins, romans, français et castillans, à l'exclusion du nom ibérique *Eskuara*". CHAHO, Augustin, *Histoire primitive des Euskariens-Basques, langue, poésie, mœurs et caractère de ce peuple, introduction à son histoire ancienne et moderne*. Madrid (Jaymebon éditeur)- Bayonne (Jaymebon éditeur), 1847, eta 65. "La Cantabrie, la Vasconie, la tierra vascongada" dira bere garaiko zazpi probintziak. BELSUNCE, Le Vicomte de, *Histoire des Basques depuis leur établissement dans les Pyrénées occidentales jusqu'à nos jours*. Bayonne, P. Lespés, 1847, II eta 3.

¹⁷ JAURGAIN, Jean, *La Vasconie, étude historique et critique sur les origines du Royaume de Navarre, du Duché de Gascogne, des comtes de Comminges, d'Aragon, de Foix, de Bigorre d'Alava & de Biscaye, de la vicomté de Béarn et des grands fiefs du duché de Gascogne*. Pau, Garet, 1898, 1902.

¹⁸ Ikus eztabaidarako MAÑARICUA, A., *op. cit.*

tikoaren eragina. Narrazioak eta diskurtso historikoaren enpirismoa erabat banatu ziren eta mende batez bi joerak elkarren aurka jarraitu zuten.

XIX. MENDE BUKAERA: 1876 GEROZTIKOA

Ohiko euskal zibilizazioa betiko desagertzearen beldurra hedatu zen. Horren aurrean zerbait egin beharra eta Iruñean *Revista éuskararen* inguruan bildu zen A. Kanpion eta beste historialari kementsuak. Gasteizen Fermín Herránek *Revista de las Provincias éuskaras* sortu eta eratu zuen eta, Donostian Manterolak *Euskal Erria* aldizkaria. Bilbon F. Sagarminagak eta lagunek Sociedad Euskal Erria delakoa eta *La Unión vasco-navarra* egunkaria. Berbizkunde historiografikoa ageri da aldizkariotan, baina sarritan ohizko mito eta leiendekin Euskal Herriko iragana interpretatuz. Mende bukaeran A. Kanpion, E. Labayruk eta K. Etxegarairen lanek historia berria landu nahi zuten, mito eta leienda gabekoa, enpiriko positiboa, non dokumentuaren jatorria eta egiaztasuna bihurtzen zen behin-behineko abiapuntua. K. Etxegarairen eta E. Labayruren historiografia berria ez da huts hutsean burutzen. Cánovas del Castillo politikariak errestituzio borbonikoa prestatu eta indartu zuen 1874 urteaz geroztik 1898 arte, Espainiako erakundetze politiko nagusia antolatu zuen, non karlista-tradizionalistak, alde batetik, eta errepublikanoak, bestetik, sistematik at gelditzen ziren. Cánovas del Castillok 1886an *Historia general de España* berri bat idazteko taldea sortu zuen eta Espainiako Historiazko erret akademia proiektu historiografiko berriaren abiapuntu nagusi ere bihurtu zen, azken batean, Cánovasek asmatu zuen sistema konstituzional berria legitimazio historiko politikoan sartzeko.

Europa mailan bigarren erdian, Ranke historialari alemanak zientzia historiko berriaren oinarriak ezarri zituen, batez ere lan egiteko tekniketari indar nagusia ezarri eta horrela zientzia historiko sorburuen kritika positiboa egiten zuen eta dokumentuen egiaztasunean oinarritzen zuen diskurtso historikoak benetakotasuna. Baina aldi berean, Ingalaterran, adibidez, historiaren lana halako espekulazio kutsua eta literaturaren atalean edo esparruan kokatzen zen. Ez da aski erudizio ona izatea historia zuzena egiteko. Nahietaezkoa da interpretaziorako zioa izatea. Azken batean, Europako herrialde bakoitzean zientzia historikoaren oinarri berrien garaipena modu diferentean eman zen. Historialari profesionalen taldea osotzen joan zen, akademiaren bidez, elkarte berezien sorreraren bidez, unibertsitateko irakasleen bidez edo eta artxibozan eta bibliotekariaren artean historialaririk sortuz. Cánovas del Castillok, Espainian, Guizotek Frantzian egin zuen antzera, unibertsitateak alde batera

utzirik, akademietan oinarritu zuen historia berria sortzeko ahalegina eta ahalmena. Giro hori ezagutzen zuen Etxegaraik eta Kanpionek ere. *Trabajos de un cronista* liburuan, 1898an argitaratuan, bere helburu historiografikoa argi eta garbi adierazten zuen¹⁹: “*la más constante y arraigada de mis aspiraciones: la de contribuir por mi parte a la renovación de los estudios históricos relativos al país vascongado, a fin de que sean cada vez menos espesas las tinieblas que pretenden ocultarnos cual era la manera de pensar, de sentir y de obrar, cual era, en suma la manera de vivir de las generaciones que en la sucesión de los siglos ocuparon el solar euskaro*” (...) “*la historia no es obra exclusiva de los grandes, de los proceres, de los caudillos, mas que de ellos, es obra de los pequeños, de los desconocidos, de los anónimos de los invisibles, de aquellos que constituyen lo que llamamos pueblo*”.

Esaldi honetan azpimarratu behar da berriztatu nahi zuela euskal historiografia. Berriztapena lortzeko, oinarrizko abiapuntua sorburu historikoak kritika zorrotzez aztertu behar ziren eta iturrien irakurketa berriak eginaz, historia berriztatua sortuko zen, dokumentuek berez ez dutelako hitzik egiten, baina, bestalde, historiarik ezin daiteke buru erudizio enpiriko gabe. Horregatik ez da mugatzen agirien positibismora edo sorburuen kritikaren teknikara. Frantziako Augustin Thierry izango zuen eredia eta, beraz, ikerketa eginez, artistaren jitea ere erakutsi behar zela aldarrikatu zuen.

Labayru Bizkaiko historia berria egiten saiatu zen. 1880an, egunkari tradizionalistetan, kazetari legez, nabarmendu zen eta horra ondoan bere ikuspegi historiografikoa: “*La patraña y la novela afearon las páginas de la historia de un pueblo singular cual ninguno*”. Beraz, helburua garbi adierazi zuen Labayruk: “*Restaurar lo verdaderamente historico, apuntar lo probable y disipar las nieblas aqui y alla espaciadas sobre la nación Euskalduna, con preferencia lo concerniente al Señorío o condado de Bizcaya, es mi intento (...) la historiografía ha de servir no solo para dar e imprimir arte al penoso estudio de la historia sino también para amenizarle*”²⁰. Hara bada, egia eta gezurraren arteko dialektika, zientzia historikoaren eremuan, asmatuiko literatura tarteko dugula.

¹⁹ ECHEGARAY, C., *Trabajos de un cronista*. Bilbao, Biblioteca bascongada de Fermín Herrán, 1898, 131. Horrez gainera bere ideia historiografikoak ezagutzeko A. Kanpioni buruzko hitzaldi baten testua ere interesgarria dugu, *Blancos y Negros (guerra en la paz)* nobelaren argitalpenaren hitzaurre gisa argitaratua, Donostian, 1934an, Zabalkunde bilduman, Beñat Idaztiak.

²⁰ LABAYRU, E, *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbao 1895, 6 liburuki argitaratu zituen 1903 bitartean Bizkaiaiko historiaz.

Giro horretan, Miguel de Unamunok Etxegarai eta Labayuren lanak kritikatu zituen eta bidenabar historiaz zuen ikuspegi teorikoa lerro laburrean bezain sakonean adierazi zuen: “*Si de los fugaces sucesos quieren sacarse los hechos permanentes, verdadero objeto científico de la historia, hay que reducir el orden cronológico del suceder al evolutivo del hacerse, y no caer en pragmatismo excesivo*”²¹. Labayrurekin ez bezala, Etxegarairen lana Euskal Herriaren egoera Erdi Aroaren bukaerari buruzkoa, goraiatu egin zuen M. Unamunok, benetako historialari zintzo bezala, imaginazio gutxikoa izan arren, lotuegia ikusten zuen garaian garaiko gertakizunetara. Horregatik, Unamunok, informazio berberean oinarrituz, bestelako interpretazio teoriko-agoak egiten ditu. Azken batean, liburuaz zera dio, “obra meritísima” dela, abiapuntu eta gogoeta berriak irekitzen zituelako historiaren arloan.

Arturo Kanpionen lan erraldoia ere testuinguru berean kokatu behar dugu. Nafarroako historiari abiatzen da, Euskal Herriko ikuspegia izanik. Teoria historiografikoan, psikologismoaren esparruan kokatuko nuke, gertakizun handien azalpena bilatzeko orduan. Adibidez, karlismoaz egin zuen interpretazioa dugu, besteak beste.

Hala ere, mitoak eta leiendak indarra zuten jenderiaren ohiko kosmoaren interpretazioan bat eginda zeudelako. Horregatik Fermín Herrán idazleak eta Biblioteca bascongada bildumako editoreak 1898an zera adierazi zuen: “¡que no facilmente se arrancan de cuajo leyendas y tradiciones acariciadas por largos siglos y que tanto enaltecen a la tierra que uno quiere!”.

Baieztapen honek erakusten digu ohiko mitologia historikoaren dogmek indarra zutela eta Sabino Arana ere delako literatura mitologioaz baliatuko da bere proposamen politikoak erakusteko unean. Baina ez ditugu nahastu behar biak. Ni neuk hemen historia zientzia bezala lantzen zutenen historiografia ibilbidea landuko dut. Beste gai bat litzateke, politikari eta fikziozko literatura idazten zutenen arteko ikuspegi historikoaren azterketa.

Dena dela, aldaketa nagusia, XX. mendearen lehen herenean gihartu zen. Gizarte zientzien esparrua aldendu eta arlo bakoitzean ikerlari berriak nabarmendu ziren. Pertsona horien bidez, euskal historiografia aberastuz eta berriztuz joan zen. *Geografía general del País Vasco-Navarro*, entziklopedia gisa asmatua, garaian garaiko jakituria historiografikoaren eredia dugu. Horrez gainera aipatu behar dira Pablo de Alzola eta J. Lazurtegi. Antropologia arloan José Miguel Barandiaranek ahozko iturrietan finkaturik, biltzen zuen lege

²¹ UNAMUNO, M., *Obras Completas*, IV. liburukia (Ed. M. García Blanco). Madrid, 1966, 223-229. Jatorrizkoak 1896an argitaratu zituen *Revista Crítica de Historia y Literaturas Españolas, Portuguesas e Hispano-americanas* aldizkarian.

zaharreko azken usadioak. Bonifacio Etxegaraik sintesi historikoa idatzi zuen Espasa Entzikopedian 1928an *Vasconia* izenpean. Baina guztien artean berritzaileena zalantzarik barik Théodore Lefebvren lana izan zen: *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*, Parisen argitaratua, 1933an.

Metodologia eta teoria berria adierazten du. Euskal historiako oinarri materialak aztertzen ditu eta ildo berriko historian dihardu. Euskaldunen azken 1.000 urteko historia zehatza idatzi zuen, inguruneak eta gizakiak sortu zituen zibilizazio desberdinak. Horregatik, demografiaz, migrazioez eta eguneroko bizitzan garatu ziren zibilizazio material guztiak ondo deskribatu zituen eta bere bilakaera azaldu. Euskal Herri ia osoa (Enkarterria eta Tuteran izan ezik) eta kasu batzuetan inguruko lurraldeak (Biarnoa) hartzen zituen aztergai. Garaiko lan historiko garrantzitsuena izan zen ezbairik gabe, gure artean gutxi ezagutu eta landu dena, tamalez. Beharbada nazitarrek Parisen kartzelan zegoela, erresistentzian sarturik baitzegoen, ez bazuten hil, euskal historiografiaren erreferentzia nagusia bihurtzeko gaitasun eta prestakuntza osoa zukeen, 1940 eta ondoko hamarkadetan.

FRANKISMO GARAI LUZEKO ARGÍ ILUNAK

1939an, gerra zela eta, aurreko urteetan bideraturiko dinamikak eten egin ziren. Eusko Ikaskuntzaren inguruan erakundetzen hasi zen azpiegitura zientifikoa desegin zen. Iparraldean J.M. Barandiaranek jarraitu zuen aldizkariak sortzen eta 1948an Biarritzten Eusko Ikaskuntzen zazpigarren kongresua antolatu zen. Iparraldean *Eusko Jakintza* aldizkariaren inguruan ikerketak landu ziren, baina 1954an Baionan antolatu zen Eusko Ikaskuntzaren 8. Kongresuak dinamika horren amaiera erakusten zuen. Bestalde, hego Ameriketara, Argentinara, Venezuelara eta Mexikora bereziki ahaleginak egon ziren. Urrunetik euskal historiaren mistifikazio politikoak errezagoak ziren, baina ikerlari finak ere izan ziren. Aipatzeko da I. Gurrutxagaren lana eta saiakera interpretatibo gisa R. Aldasororena.²²

²² Gurrutxagak hainbat artikulua zorrotz idatzi zituen, eta beste batzuen artean aipatuko nuke "Las guerras carlistas en el siglo XIX y su significación en la Historia Vasca", *150 años del Convenio de Bergara y de la ley del 25-X-1839*. J. Agirreazkuenaga eta J.R. Urquijo (ed.), Gasteiz, 1990, 105-136.

ALDASORO, R., *Las guerras civiles y el concepto de libertad en la Historia Contemporánea del País Vasco*, 1946.

Azkenik, hegoaldean, Iruñean eta Donostian *Príncipe de Viana* eta RSVAP aldizkariaren inguruan eratu ziren ikerlariak, harik eta 1960-70 hamarkadetan Unibertsitateetan historiazko ikasketa unibertsitarioak antolatu. Historia ikertzeko profesionalizazio bidea irekitzen zen unibertsitateetan. Ordura arte, artxibategi eta bibliotekariak ziren historiazko lanetan profesional gisa aritzea lortu zutenak.

Giro honetan eta Unibertsitatean ikasia izan arren, bere kabuz ikerketa lanak eginez, Eusko Ikaskuntzan eta CSIC erakundearen inguruan ibiliaz, euskal historiazko ikerketak beste pertsonaia handi bat ezagutu zuen: Julio Caro Baroja. Haren lana historialariek sarritan ez dute ezagutzen, antropologiatik hurbil dagoelako agian. Baina 1956 arte, zalantza barik, bera dugu historialari sozial garrantzitsuena. *Los Vascos* izeneko liburua, 1949an argitaratua, *Annales* aldizkarian, Parisen indartzen zegoen historiazko paradigma berriaren ispilu zena, historia egiteko modu berriaren erakusletzat aipatua izan zen.

Jakina, teoriari eta aukeraturiko ikerketa esparrura loturik du bere metodologia. J.C.B.ren lana ulertzeko Pío Barojaren ideiak eta nobelak ezagutzea premiazkoa da. Píoren mundu ikuskeraren baitan kokatzen dira lobaren hainbat kezka intelektual. Baina nobelaren bidea hartu beharrean, lobak saiakera eta ikerketa sakona erabili zuen. Berak aitortu zuenez, *La leyenda de Jaun de Alzatek* bere etnografi zaletasuna biztu zuen.

Euskal gaiak batez ere 1940tik 1956ra bitartean ikertu zituen. Ondokoak aurretik ikerturikoaz gogoetak dira. Antropologiaren kezkek jadanik bizi-bizirik zituen eta ondoko urteetan historian, historia sozialean burubelarri sartu zen. Biografia, tokian tokikoa zein baztertuen ibilbidea izango ditu gogokoen. Bere bizitzaren amaieran, aldiz, kezka teorikoez jabeturiko lanak argitaratzeari ekin zion. Benetan harrigarria dugu ikustea zenbat produzitu zuen jakintsu honek. Zelako trebetasuna, bestalde, gaztelania bizkor, zehatz eta argia erabiltzean. Saiakeraren maisutzat laster nabarmenduko dute, agian.

Dena dela, haren ikerlanak ezagutu ondoren nabari daiteke halako ikerketa egiteko ibilbidea edo metodologia jakina. Baten batzuen ustez, J.C.B.-k ez zuen metodorik. Eta beharbada egia da, metodo desberdinak erabili zituelako eta bere bizitzan zehar bere ikuspegiak aldatu egin baitzituen. Baina halako joera finkoak bere lanetan ageri dira: lehendabizirik, hizkuntzari buruz zehaztapenak egiten ditu, erabili behar dituen kategoria eta kontzeptuen erlatibotasuna azpimarratuz. Bigarrenez, kezka epistemologikoa planteatzen du, baina berehala filosofo grekoen garaian, delako kezken berri bazegoela igertzen saiatzen zen.

Ondoren bere diskonformitatea adieraziko du, nahietazko abiapuntua balitz bezala. Ikerketan aritzeko abiapuntu jakingarria berau. Azkenik datuak, informazioa modu zuzenean jasotzen ahalegindu zen, bai inguru fisikoan, artxibategietan, literatur produkzioan. Guzti honek garaian garaiko kontzeptualizazioan murgiltzeko aukera ematen zion eta ekintzabideen, kontzeptuen, usteen tenporalitatea, tempus berezia aurkitu. Bukaeran ez du nahi izango generalizazioan erori. Espiritu etnografikoak dirau bai, baina hori ez da maila teorikoan ez duelako kezkarik, erredukzionismo antzuan ez erortzeko bidea baizik. Deskribapen soila eta formalak gairatuz gelditzen da, ikerketa teorikoan aukerak eginez, ez modu abstraktuan, enpirikoan baizik, berez etorri zectorren ondorioa modu naturalean agirituz.

Soziologismo berriaren ekarpenak jasoko ditu 1950ean, aurkakoa, hurrengo hamarkadan, psikologismoan murgilduz. Pertsonen, protagonisten nundik norakoan kezkatuz agertu zen beti, heldutasun intelektuala irabazi ahala. Pertsonen grinak garrantziaz ere jabetuz zegoen. Horregatik, genero biografikoak gogoeta jakingarriak idatzi zituen bere bizitzaren azken aldiak eta modu originalean aplikatu bere buruaren azterketara.

Beraz, badugu bai zer ikasi, J.C.B.ren lanetan, ikerketa egiteko moduz.

AZKEN MENDE LAURDENA

XX. mendean paradigma interpretatibo nagusiak, funtzionalismoa, alde batetik, aldaketarena, bestetik, non marxismoa barne kokatzen baitut, egon direla esango nuke. Ikerlariok, beraz, teoria ondo eta sakon ikasi behar genuen eta gero hori aurkitu errealtatean, datuak egokitu eskema teorikora. Datu egokiak aurkitu behar ziren teoria konfirmatu edo deuseztatzeko. Baina salbuespenez jositako errealtatea eta kasuak ditugu eta horrenbestaraino iritsi direnez, azkenean, paradigma nagusien puxkaketa osoa gertatu da azken hogeita bost urteotan. Bakoitza bere aldetik ari da eta historia, iragana gaurko hizkerara azaltzeko unean, gaur egun, erlatibismo kulturean murgildu gara. Ez dago egia handirik, egia baizik eta egia horiek bakoitza bere testuinguru sozial eta espazialean argitzen saiatu behar da. Beraz, guztia ulergarria eta justifikagarria bihurtzen da testuinguruan, zapalketa arbuigarriena ere?

Dena dela, historia lantzerakoan, datuak ukatu ezinezkoak ditugu, erudizioak hortxe jarraitzen du eta beharbada tokian tokiko eta talderik taldeko teoriak lantzen dira. Baina, bestalde, zientzia konparatu ezean ez dago zientziarik, orokortasunean egiten delako zientzia.

Kultura zientifikoak beti daude aldatzen, aldakorrek dira, izan behar dira. Zientzia produkziarik probisionalena eta eztabaidagarriena gertatzen zaigu, beraz, ziurtasun laburrekoa dugu. Kultura artistikoak, aldiz, literarioak eta abar, horiek bai dutela bere indibidualtasuna eta iraunkortasuna aldaezina delako arte ederreko lan zehatza.

Giro honetan bizi gara eta historiaren esparruan lerroak aipatu beharko lirateke, historia ekonomikoan, historia sozialean, historia politikoan edo kulturegintzazkoa edo historia ekologikoan. Bestalde, mikroanaliaren garrantzia eta premia garatzen doa. Historiografia moeta ugari dugu Euskal Herrian eta arloz arlo aritzerik ez dago txosten honetan. Bestalde, Euskal Herriari buruzko historia nagusi edo orokorrak sintesi formatoan edo autore askoren artean ugaltu egin dira. Atal honek azterketa berezia merezi beharko luke autorez autore. Hala ere, zenbait gogoeta orokor azalduko ditut.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Azpiegiturazko ikerlanak burutu behar dira, oraindik gure iraganaz ezaiztuta urria dugulako Euskal Herriko ikuspegia garatuz. Euskal Herria, edozein herri bezala, anitza eta moeta askotakoa dugu eta kostaldeko herrialdeen edo barrualdekoen dinamika eta denborak ez dira berdintsuak. Historiak erakusten diguna zera da, denbora kronologikoez gain, beste denbora eta erritimoak bereiztera, arkaikoa, mitikoa, betidanikoa duguna eta erabat errotua gizarateko hainbat arlotan. Espirituzko denboran ez dago etenik, ez eperik, ez mailarik. Hala ere, subjektu kolektiboaren nortasunean, baterokatasun eta desberdintasuna ikusten eta arakutzen saiatu behar dugu. Horregatik, herri ikuspegia esaten dugunean, gizaratean islatzen zaiguna, abiapuntutzat hartu behar dugu, herri eta gizartea multzo berekoak baitira.

Badago gai bat, besteak beste, historia nazionalari buruzkoa. Estatu nazioak XIX. mendean eraiki eta antolatu zirenean, Espainian nazio politiko bakarra zegoela adierazteko historia nazionalak idazteari ekin zioten. Horra XIX. mende bukaeran Cánovas del Castillok bultzatu zuen proiektua. Egon ziren beste asmoak ere, adibidez, Pi i Margall politikari eta historialariak idatzita. 1877an argitaratu zuen bere liburu ezagunean, hara zer idatzi zuen: "*En España la cuestión de los vascos es mucho más grave que en Francia (...) Vencidos, se trata actualmente no de arrancarles sus fueros, pero sí de quitarles la exención del servicio militar y de los tributos. ¿Serán porque se los quiten más españoles? ¿Participarán más de nuestras ideas y de nuestros sentimientos? ¿No*

será resultado natural de la diversidad de razas ese antagonismo que entre ellos y nosotros existe? A poco que se combinen aquí los diversos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habría de estar por la independencia de los vascos. ¿La consentirá España?"²³

Azken urteotan aniztasunezko ikuspegia garatu da honezkero historialarion artean. Horregatik historia nazionalaren ikuspegira ezin daiteke makurtu edo soildu, ezin dugu guztia ekintza guztiak euskal abertzale versus beste abertzale ikuspegira lerrotu edo eskema dikotomikoan Espainiako historiaren ispiluan arakatu. Herri baten fenomenologia aberatsa dugu eta nire ustez ez da sinplifikatu edo ahuldu behar gizarte aberatsaren historia, dinamika interpretatzaile eta diskursibo bakarrera. Ezkutatu ere ez, ez balego bezala. Euskal Herriaren historian zehar, XVI. mendeaz geroztik berezitasun nagusienetakoa dugu, Batzar Nagusien inguruan, herrialde batzuk, nortasun politiko kolektibo landu zutela eta 1877 arte iraun zuten mendebaleko hiru herrialdeetan eta XX. mendean berriz eratu dira. Foruen inguruko kultura politikoa aberatsa eta indartsua da. Baina euskal historia ezin da horretara mugatu, historia nazionala denboraren igarobidean aldi bat baino ez delako.

Tokian tokiko historia zehatzak, komunitate jakin batzuen indarberritu da. Enpresaren historiak, historia ekonomikoaren arloan, hutsune nagusia da. Eta azkenik, biografiaren arloa deritzot, besteak beste, bai diskurtso berriak baita ere herri nortasunaren adierazle gisa, ondo laburtzen duela ikuspegi indibiduala eta kolektiboaren arteko tirabira.

Erakundetu da historiako ikerkuntza, karrera akademikoa ere bihurtu da. Editorialak historiako arloan titulu berriak argitaratzeko beldur dira eta horrela Eusko Ikaskuntza edo EHUko unibertsitate moduko erakunde instituzionaletan argitaratzeko bidea gelditzen zaigu.

Nire kezka da euskal historiaren arduratzen garenon artean ez dugula behar heineko loturarik, sarerik, Euskal Herria erreferentzi sare gisa izateko. Ahulak gara eta Espainia gertatzen da; sarritan, erreferentzi gune bakarra balitz bezala. Nire ustez, Europako ikuspegia irabazi beharko genuke, azterketa konparatiboak eginez, ikusiaz historia ez dela gertatu halabeharrez, aukeren arteko alternatibak sortuz joan dela baizik. Beraz, determinismo eta legitimazio sozial eta politiko gehiegi nabari da azterketa gaiak egiteko orduan. Bestalde, historialariok ikasi behar dugu taldeka lanean, zientzietan egiten den bezala.

²³ PI Y MARGALL, Francesc, *Las nacionalidades*, 1877. Madril, Centro de Estudios Constitucionales, 1986, 62-63.

Baina oraindik historialariok literatura ederraren kreazio indibidualetik hurbilago gaudela dirudi, zientzietako talde praktikatik baino.

XXI. mendean, Europa berriaren atalean, badaude erregionalismo transnacionalean oinarritu behar ditugun historia berriak, goi mailako laburpen politiko instituzionalak egiteko unean, ahaztu gabe Pirinioak direla gure ardatza itsasoarekin batera. Azken 500 urteotan gure historia mundializazio prozesuaren gunean kokatzen da. Euskaldunok mundializazio prozesua hasi zen gunean bizitzen jarraitzen dugu XVI. mendez geroztik. Ez da, bada, arazo berria mundializazioa geure artean eta itsasalde ikuspegiko historia landu beharra deritzot.

Azpiegieturazko ikerlanen ondoan, nahietaezkoak ditugu diskurritzeko modu kontraesankorrak, horrek egiten duelako herria. Folklorean murgildu garenok badakigu tradizioa nahaste eta borraraste guztien bilgunea dugula. Hiriguneetan ere orain gertatu da modernizazioaren ondorioz. Diferentzia bakarra da, oraingo nahasteak askoz bizkorrago gertatzen direla, abiadura handiagoak dituela belaunaldien artean eta, beraz, sarritan jasangaitzak gertatzen zaizkigula.

Bukatzeko, premiazkoa da euskarazko historiografia gehiago lantzea. Karmelo Etxegaraik euskaraz ere sortu zuen historiografia. Sarritan euskaraz idazten dudanean ikerkuntza historikoren bat, zalantzak barneratzen zaizkit, ez baitakit irakurlerik ba ote dudana. Eremita urria bai, baina diskurritzeko aukera zabalagoa agian. Nire esperientzian, ez zait berdin euskaraz edo gaztelaniaz edo ingelesez idatzi. Irakurle gutxi eduki arren, jarraituko dut euskaraz lantzen historia, itzultzaileen lanak, errespetu guztiz, sarritan gogorregiak eta ulergaitzak egiten zaizkit eta. Euskaraz idazteak bai ematen du plus berezia eta euskarazko historiografia lantzeko ahalegina hurrengo 20 urteetan erronka handia izan beharko luke, bestelako hizkuntzak baztertu gabe, ariketa hori premiazkoa duelako edozein ikertzailek, erregistro desberdinak erabiltzeak aberastu egiten duelako geure diskurritzeko ahalegina.

AZKENA

Txillardegiren omenez, deialdiari erantzunez, berehala idatzi nuen artikulua hau eta 1999ko irailaren 15ean igorri nuen. Sei urteren buruan, gai honi buruz, argitalpen berriak egin ditugu eta bat aipatzerakoan, halabeharrez, ikertzaile askoren ekimenez, honako hau: AGIRREAZKUENAGA J.

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

(zuzendaria), *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos*. Bilbao, 2004, Lur argitaletxea, 6 liburuki.

LOIOLAKO BISITARIAK

Patxi Altuna S.J.

Urak goraxeagotik hartuko ditut, gehiegi luzatu gabe, halere.

Berrogeita zortzi urte baino gehiagoko erbestaldia –azken arte bizirik iraun zutenek hori, lehenago hil zirenek gutxiago, noski– Italian egin ondoren, berriz Euskal Herrira bizirik itzuli ziren jesuita euskaldunak eta etxera 1816an iritsi zirenak 22 izan ziren. Loiolako etxeaz jabetu eta zaintzeko hiru apaiz jesuita eta anaia laguntzaile bat gelditu ziren.

1820an iraitzi egin bazituen ere, hiru urte geroago berriz legeztatu zituen Fernando VII.ak berak eta urte horretantxe, 1823an, kokatu zirela jesuitak Loiolan esan daiteke. Lehen errektore-ordea bizkaitar bat izan zen, Diego de Goitia aita, bere beste anaia batekin batera Italiako desterru osa pairatu zuena. Urtebete bakarrik izan zen kargudun.

Ondoren beste hiru euskaldunek hartu zuten agintaritza bera: Juan de Kortazarrek, Juan de Etxezarragak eta Angel Bizente Zabaletak. Lauren artean zortzi urte bakarrik egon ziren agintean. Halako triskantza egin zuen Italiak haien gorputzetan!

Karlisten lehen gerratea zartatu zenean (1833-40), aita Jose de Etxezarreta zen Loiolan buru (ikusten den bezala, denak euskaldunak!). Beste disoluzioa sortzen da 1835ean, baina Loiolako biztanleengan ez zuen ondoriorik izan, eskerak Karlos V.ari, boterea berea baitzuen inguru guzti honetan eta handiagoan.

Loiolako Egunkariaz, etxeko aita idazle on batek idatzi ohi zuenaz gain, badira bi album “de firmas de personas que visitaron esta Santa Casa, o hicieron Ejercicios: 1844-1870”. Horietatik bigarrena bakarrik aletuko dut nik, hoguei lehenbiziko urteetan Loiolan barrena zein pertsona ibili ziren ikusteko.

- Gipuzkoako Probintziako Diputadu jaun Juan Lorenzo de Fernandez sinadura da lehenbizikoa, 1844ko ekaineko 17koa.
- Irailaren 3an "Don Pedro Añibarro, presbítero exclaustro" darraio.
- Horien ondoren hiruzpalau saileko jende nobleren zerrenda dator, handikiro iragarria: "1855. Enero. Muchos y distinguidos personajes han visitado este grandioso edificio hasta julio de 1859, entre ellos NAPOLEON, el vascófilo en 1856; el barón de Rotschild [sic] y el rey de Würtemberg en 1857; y los emperadores franceses el día 27 de Septiembre de 1858".
- "14 Oct. 1863, L'abbé Haristoy, vicaire de Hasparren. France".
- "3 Febr. 1864. P. Barbier y Et-en Lissardy, de St. Dizier, France".
- "Gaur Agostoaren iruban icusi guenduen chit gogo onez Eche Santu eta Loyolaco jaureguiyau. Nere lagunen icenian José Ecequiel de Zugasti, 1865".
- Hurrengoak ere NAPOLEONEK adinako letra merezi du. Lastima gazteleraz egona! "A 20 de Julio del año 1865 SANTIAGO DE ARANA y su esposa Pascuala de Goiri con sus hijos Lucila de Arana, Francisca, Juan y SABINO DE ARANA".
- Ez dira falta bere oroigarria bertsotan utzi nahi dutenak, egin dituzten Gogojardunek on egin dietela aitortuz:

- Aita San Ignacioren
Eche eder aundian
Ederqui egondu nitzan
Zortzi egunian:
Motrico-ra noa ni
Obetuta ustian,
Gogoz biurtuco naiz
Datorren urtian.

- Motricutic etorria
esan dezaten eguia:
arrituric an guelditu nitzan
icusiric ain eche andia
San Ignacioren jaureguia.
18-VII-1866 (?)
Carriquino (?)

Abenduaren 23an, 1865an
Lucio Uzabal, Pbro.

- Latinezko bertsoz taxaturiko bat ere ez da falta. Jesuita batena, hain zuzen. Distiko bat moldatu du: Bernardus valles, colles Benedictus amat,
bat,

Oppida Franciscus, magnas Ignatius urbes
19-VII-1866
Joseph Ignatius Iturbe, SJ

– “El mismo dia y año (30-VII-1866)” (bizkaitarrek hogeita hamarreen, ez hamaikan, baitute San Inazio eguna ospatzen) “le cupo también admirar esta grandiosa obra por la gracia de Dios, Felix Ubillos”.

– “Monsieur et Madame W. VANEYS d’Amsterdam (Hollande). 22 Aout 1866. W.J. Van Eys”.

– Jauregui miragarri

Loyola maitea:

Munduba erori ezdedin

Zuti egon zaitea..... Teresa Celaya (31-VIII-1866)

– “Agorraren bederatzian Rosario Cardan hernanitarra Aita S. Ignacio maitiaren Jauregui galant eta eche eder pollita icusi cituen bere senar Segundo de Rezolarequin (1866)”.

– Ignaciori seguitu eta

Virtutean aurrera

au da Aita on orri

gusto ematea.

Inguraturic gucioc

alcarren ondora

ezan daygon gucioc

sure soldaduac guera..... Pedro de Arambarri (9-IX-66)

– Emile, Jules et H. Gautier (12-IX-66)

– Agorraren 14an bisita neben Loyola, Jose Hemeterio de Garatea.

– Ibai-ederren zelayetan jayo nizan, Pedro Zuazola (14-IX-66)

– Agorraren amazpiyan visitatu nuban Jose Manuel Oraa eta Pedro Saiz Gonzalezen compañian eche santu au: Pedro M. Oraa, Jose Angel Aramburu, Pedro Sainz Gonzalez.

– *Urriaren seian:*

1) Milla ta zorcireunda

Irurogueita

Habanatic nendorren

Onzi chit andian,

Ignacioren erritarrac

Guerade Azpeitian

Orra zorcico bat guc

Eusquera garbian

2) Agur San Ignacio

Echera banua

Zuri bisita eguiña

Ezdet nic damua

Mundu guztian cera

Santu otz andicua

Azpeitiarran gandican

Guztiz maitatua

3) Orra gure icenac

Urriaren seian

Berriz etorrico naiz

Datorrenaen byan

Ondo confesatzera

Eusquera garbian

José Manuel Azcune

José María de Alverdi

– *Urriaren ogeita biyan:*
(Semea jesuita guraso batena)
Loyolara etorri naiz
Semea ycustera
Eta San Ignaciyo

Visitatutzera:
Jarduntza santubetan
Alay egonguera
Alaytasunez ere
Juango naiz echera
Esperanzaz beteric;
Viurtzeco atzera.....M^a Luisa Sorazabal

A la Iglesia de Loyola, 1866
En esta cúpula entré
Y cuando de ella salí,
Tan inmenso a Dios hallé
Cuanto pequeño me ví.
(Lart. en el pórtico)
Eliza galant au icustean
Jaungoico jauna aín andiia
Arquitu nuen nere beguietan
Nola ni ecerez chiquiia

Aita San Ignacioren
Jauregui ederrian
Eguitade onetan
Gu egon guinian.
Mariaganen laguntasunaz
ta Jaunaren graciaz
Bici modu barri bat
Daruagu gueugaz. OAR

1867
Loyola eder au icusirican
pozez beteric
Urrengo urtean berriz onera

Agur ona Loyolari
Ichaso apaindura
Zarauz-co caya
Aundizquien gortea
Ta erregue-egon gaya!
Erri maitea! Zu Utziric
Naiz etorri alaya
Loyola icustatzera
Jauregui galaya!

2
Baña berriz joan bear
Jayoterra aldera...
Ay! nic aice-egaletan
Zarauz-co ibarrera
Loyola alda al-baneza
Ichasoen ertzera!...
Bagoaz, baña emen biotzez
Guelditutzen guera.
(Recuerdo de una Zarauztarra
27 Nov. 1866. P.A.)

(Francisco Alduncin)
Zurezat Ignacio cantatzen
Ona emen guera jartzen
Zein pozic
Zuc ala nai izanic.
Zure mirariac
Ditugu esaten
Eta alabantzac
Dizquizugula ematen
Laguntzen diguzula gogotic
Orain zauden zerutic. Bagoaz
2
Guc jaquiteco orduan

Biurtzeco asmo eramanic
Eche onena
Beti oroimena
Degu izango aztu bagueric (2 Mayo).

Zarauztic etorri naiz
Loyola andi onera;
Oroimen ederra det
Eramango echera.
Uztaillaren 8an, 1867garren urtean
Francisco Vidaurre

8 Agosto 1867
Isidro de Berriochoa
padre del Ilmo. Señor
FRAY VALENTIN DE BERRIOCHOA
Obispo de Tonquin Sentran.
El mismo dia de los sobredichos Señores
el condiscípulo y compañero de Órdenes
del Ilmo. Sr. BERRIOCHOA,
martir del Tonquín, natural de Elorrio
Luis Ignacio de Borda.

Zuc cer lecu ceruan
Irabaci cenduan
Zure vicitza santuan
Ala onratzeco altzategun moduan
Munduan
Guc jaquin nai
Guenduque bai
Zure bicitza doasua.

Versoac jartzeco
Gayac villatzeco
Zuzen paratzeco
Gero cantatzeco
Aingueru santuaquin
Zure Bicitza
Ederra bear degu guc jaquin
Guc bear dugu
Guc jaquin.
(Garagar Illaren 23an)

Mi saludo aquí te doy,
Patrón de las Provincias vascas;
Justo es, pues, te complazcas
En que te visitemos hoy...
Tú que fuiste valiente guerrero
Soldado de almas y templanzas
Nunca temiste las lanzas
Ni otro mortífero acero.
No creo pedirte en vano
Tu ayuda y protección,
Tu gracia y bendición
Para mi querido hermano.
Agosto 10 del año de 1867
Andrés de Obieta

ZER DAKARKIO HIRIART-URRUTIK EUSKAL KAZETARITZARI?

Xabier Altzibar

Atzeraturik gabiltza gure idazle kazetari zaharren ezagutzan. Gaitz erdi jakingura ernatuxe bada azken urteetan, zeren, oraindik ere, batean euskal kazetaritza zaharrak ez daukala ia ezer erakustekorik, bestean “tradizio urria” dugula... eta zer ez dugu aditzen? Ezagutzen ez dituztenek Hiriart-Urruti, J. Etxepare, B. Adéma, d’Abbadie, J. Saint-Pierre, *Zerbitzari*, *Otsobi*, *Kirikiño*, *Lizardi*, *Larreko*, *Manezaundi*, Lafitte etab. hobe lukete tradizio horretako zerbait irakurri, adibidez Klasikoak (Euskal Editoreen Elkarte) bildumako liburuak, bestela ezjakintasunaren eta alferkeriaren sasitzak estaliko du urte luzetan langile gaitzek artaz landutako zelai eta soro.

Hiriart-Urrutiren euskarak duen indar, jatortasun, adierazkortasun eta askatasunari oharturik, eta haren kazetalanen antologia guztiak ere (Lafitte: 1944, 1971, 1972; Camino: 1994), orotara, idatzi zituenen ehuneko bost edo seira ere iristen ez direla jabetuta, egilea ahalik eta osoen ezagutzera deliberratu nintzen¹. Artetik esan dezadan, ez dakit badenetz euskal literaturan orain

¹ Lan hau Jean Hiriart-Urrutiren inguruko nire ikerketen ondorio duzu. 1998an BBK Fundazioak emandako bekari esker egin ahal izan dut, alde behintzat. Arren eskerrak BBKri, zuzendaritza onartu zidan J. Haritzelhar euskaltzainburuari eta nire egitasmoa saritu zuten epaimahaikoei, nigan ezarritako konfiantzagatik. Eskerrak ere P. Andiazabal eta B. Goity jaun kalonjeei, bai eta Iratzeder olerkari eta euskaltzain eta M. Etxehandiri ere, Baionako apezpikutegi eta Belloc-eko komentuan *Esqualduna* aztertzeke eman zizkidaten erraztasunengatik. Ohartarazi nahi dut, hala ere, artikulua hau 1999an idatzia dela eta harrezkerokoak direla Bibliografian aipatzen ditudan bi artikulua eta antologia berria (Jean Hiriart-Urruti. *Ni kazetaria-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa, Bilbao, 2004) bere hitzaurreko azterketarekin (19-95. or.).

baino lehenago hainbeste idatzi duenik, *Eskualduna* kazetaren parte handi bat hark bere lumaz egina baita.²

Jean Hiriart-Urruti apaiz eta kalonje hazpandarra (1859-1915) euskal kazetaritzaren aita daukagu, orok nik uste. “Ni kazeta-egilea naiz” idazten zuen beti. Hogeita bost bat urtez ari izan zen *Eskualdunan*, nahiz lehenagotik ere hasia zen, hala euskaraz itzultzen nola frantsesez idazten Baionako *La Semaine* astekarian (Lafitte: 1971: 30). Kazetaritza zuen lanbide, nahiz ez ogibide; kazetariaren lumaz izkiriartzen zuen idazleak. Halatsu gertatu zaie iraganeko euskal idazle askori.

Baina ez da urteen kontua bakarrik aintzat hartu behar dena euskal kazetaritza historikoan, nahiz hori ere bai (d’Abbadiek ere beste 25 bat urtez idatzi bide zuen, B. Adémak eta J. Etxeparek 30 batez gutienez, etab.). Hiriart-Urruti ez zen kazetari huts. *Eskualdunako* idazleen buruzagi ere bazen. Bere artikulua idatz, besteei idatzaraz, berriketarien lana bultza eta gida, berriak hauta eta izkribuz eman, idazle berriak kazetara bil, iragarkiak itzul, saltzaileak kilika, astekaria eta haren urtekari edo almanaka agertaraz eta heda, kazeta eta inprimategiko idazle eta langileekikoa egin. Hitz batez esateko, kazeta osoa bere gain zuen. Egun guzietako lan izigarri dorpe higatzailea. Ez da harritzeko, beraz, 56 urtetan hil bazen bere azken artikulua doi-doi idatzi ondoan. “Lanean hil da, lanak hil du” idatzi zuten haren hilberria jakinaraztean. Ezen kazetari lanak beretua zuen, zenbat eta nardagarriago hainbat eta jarraikiago. Bere haurtzat zuen *Eskualduna*. J. Etxepare idazle handi eta haren ikasle baina bere burutik ari zenak esan zuenez, “Kazeta xume batean agertu izan da kazeta egile handi” (Charrington: 1984: 172).

Eskualduna aipatu dugunez gero, esan dezagun bi hitzez zer zen eta norentzat egina, aski ezaguna bada ere: Louis Etxeberrik Berdolyren *Le Réveil Basque* kazeta gorriari buru egiteko 1887an sortutako astekari elebiduna, Baionan aterea, bere burua euskalduntzat eta euskaldunentzat egina zeukana, familia, erlijio katoliko eta jabego pribatuaren aldekoa, aita familiakoaren, apaizaren eta gobernuaren larderia nahi zuena, kazeta borrokari eta ihardukitzailea. Bereziki laborarientzat sortua, lanbide eta langile mota guzietako giristinoei buruz ireki zen, bonetdun ala xapeldun, bai eta euskaltzaleei ere. Xurien kazeta –esan dezagun Ipar Euskal Herriko kontserbadore edo eskuinarena–. III. Errepublikaren politikaren kontra ari zen, eta, beraz, framazon, sozialista, radikal, anarkista, are judu eta protestante, bai eta kargudun edo

² “Jaun onek ainbat, gure ustez, ez du beste inork euskeraz idatzi. Ainbeste gaietaz ez beintzat. Estu-estuan (...) ”periodista” bakarra. Lendabizikoa bai beintzat”. G. Mujikak *Euskal Esnalea*-n idatzia (E 1493, 1915-12-10).

funtzionario guzien kontra ere, batez ere erriente-errientsen. Bi orrikoa, tamainuz haunditzen joan zen, I. mundu-gerran orri bakartu arren. Etxeberriren eskuetarik urrunduz, 1904tik 1907ra *Eskualdun Ona* izena hartu zuen, eta D'Arcangues nagusiaren eta Hiriart-Urruti idazleen buruzagiaren bidez apezpikuaren eskuetaratu zen, nolabait esateko.

Ez zen gero *Eskualduna* hain xume izan beti. Mende hastapenetan 1.000 lumerotaraino iristen ez zena, Hiriart-Urrutik, lanaren bortxaz, 1907an ia 7000 aletaraino jaigarazi zuen. Arrakastatua izan zen beraz, aldezkazetaren lan jarraikiagatik, eta ez gutxiago etsaien jazarkunde itsuagatik. Hain zuzen, euskarazko katixima eskola publikoetan debekatzeak, elizen ondasunen zerrendatze edo imitorioek, fraide, serora eta apaizak beren bizileku eta irakastegietatik kanporatzeak (beha gure kazetariari, ohoin gisa bi jendarmeren erdian, besotik hartua joaki Larresoroko bere seminario maitetik fueratua!) badu ikustekorik arrakasta horrekin.

Zuhurra baitzen eta idazle eta langileekikoa egiten jakin, Hiriart-Urrutik erdietsi zuen, bere buruzagi lanean, bereziki *Eskualdun Ona* hasterakoan eta handik aitzina, idazle finko berriak bereganatzea (J. Etxepare, Lacombe...) eta idazle taldeak osatzea; hauen artean zuberotarrak (Constantindarrak etab.), lehen aldiz kazetara bilduak. Agian sekula ez da zubereraz hainbeste idatzi, herrietako berriekin maiz orrialde bat inguru betetzen baitzuten.³

Bere gaztetik eta hain luzaz kazetan idatzirik, kazeta baten egitekoez ongi jabetua, ez da estonagarri Hiriart-Urrutik oso garbi finkatu nahi izatea nola zerbitzatu irakurleen interesak, nola behar ziren jokatu kazeta eta kazetariak, eta areago, nola behar zen idatzi. Irakurleen interesez axola handia zuen, bizipide, laborantza eta abere hazkuntza, diruaren goiti-beheiti, merkatu, osagarri, etxeko gora beherez (Lafitte: 1971: 31), eta oroz gain irakurleen berri gosea asetzear eta atsegin emateaz, irakasteaz ahantzi gabe.

Berriemaleei helarazi instruzioetan kazetaegilearen jokaeraz ondoko puntuak finkatu zituen: hau gaizki, hura ongi dela esatea haizu zaio kazetaegileari (E 847); gizon publikoen huts publikoak behar denean bakarrik agertuko dira (E 1154); ez da haizu bizitza pribatua ukitzen duen berririk agertaraztea (E 1155); berri anitz eta orotarik behar da (E 1157); amen-omenkako berririk ez igor (E 1425); berri igortzale anonimoen berririk ez da agertaraziko (E 1154); kazetak ematen dituenak bere gain hartu behar ditu (EO 15 1905-

³ "Zuberera hutsezko ekoizpen periodistikoa almanaka batzutura mugatzen da, eta bere iraunkortasuna euskarazko prentsan *Euskaldunan* agertzen diren zenbait zatitan datza" (Diaz Noci: 1994: 793). "Zenbait zati" baino zerbait gehiago idatzi delakoan nago ni, Diaz Nocik esandakoa oro har ukatu gabe.

4-17). Bertzalde, idazleen buruzagi gisa, kazetari idazkeraren batasuna nahi eta egin zuen, *de facto*, *Eskualduman*, bereziki ortografian baina deklinabidean eta kazetari hiztegia ere bai, hein bat bederen.

2. Bere haurtzaroan eta ikaskuntzen garaian Inperioa eta Eliza Katolikoaren hazkundera ezagutu zituen Hiriart-Urrutik III. Errepublikaren eta Elizaren arteko gerla eta gatazka giroan idatzi zuen. Zuzenago litzateke Elizaren etsaiei luma zorrotzaz ihardukiz borrokatu zuela esatea, xede hori baitute haren kazetalan gehientsuek. Beharrik Errepublikak hauteskundeak eta sistema parlamentarioa ekarri zituen, eta prentsaren askatasun ia ahalguztidunari esker idatzi ahal izan zuen nahi zuena, ahoan bilorik gabe mintzatzen zenetarik baikenuen.

Eskola publikoa eta laikoa ere ekarri zituen Errepublikak, Jules Ferryren eskutik (ezaguna da hau hil zenean Hiriart-Urrutik bere artikulu nagusiari ezarritako izenburua, "Bat gutiago", E 1893-7-15). Bai eta Estatuaren eta Eliza Katolikoaren —elizen, zuzenago— arteko bereizkundera (1905). Errekak behera zihoan erlijiotasunaren galtzearekin gizatasuna, are emakumearen errespetua eta oro beheiti ari zirela uste zuen. Haren kazetalanetako framazonen eta Errepublikaren kritika, igandea errespetatu beharra, apaizak soldado joateko legea eta beste hainbat gai, garai hartako elizgizonen liburu edo euskal literaturako gai berberak dira; lekukotzat, Zaldubiren "Betiri Santz" (1875) edo "Errepublika" (1876), M. Elizanbururen *Framazonak* (1890), d'Abbadieren *Aphezak soldado* (1890; berrarg., *Euskera* 1998, 1), Arbelbideren *Igandea* (1895) etab.

Erljioarentzat askatasun osoa, bereziki eskolatan, hori da hautagai xuriek hauteskundeetan lehen-lehenik aldarrikatzen dutena. Gure kazetaria ere hunkitzenago du barne-muinetatik erlijioa eskolatik kentzen duen lege horrek beste ezerk baino, zeren

"Eliza guziak aurdik eta zola iraulirik ere bardin munta duke, behin erlisionea, Jinkoaren beldurra eta amodioa haurren bihotzetik kenduz geroz. / Gristinorik ez den tokian ez da izanen, ez apez, ez eliza beharrik." (EO 49, 1905-12-18 "Hoberen beharrak tzarren" art.).

Hiriart-Urrutik erlijio katolikoa eta euskara elkarri hertsiki lotzen zituen. Euskaldun zaharren hatz beretan ibiltzea (tradizioa) edo euskaldunak fededun egotea nahi zuen; areago, euskalduntasuna eta bereziki euskara erlijioaren habetzat zeuzkan. Araberakoa zen etsaitzat zituen framazon eta sozialisten jokabidea, zaku berean ezartzen zituena frantses hizkuntza eta frantsestasuna *le progrès* delakoarekin batean; eta euskara, eta orobat bretoiera, atzerakuntzarekin.

Euskararekiko ikuspegi kontrajarri hauek badukete ondoriorik xurien eta gorrien kazeta elebidunetan. Zeren eta hasieran batzuek eta besteek euskara berdintsu erabiltzen bazuten ere (erran nahi baita guti, hautesle eta herrietako kontseilueta frankok frantsesik ere ez zekitelarik bizkitartean), erlijioaren eusle izate horrek euskara erabiltzera ez ezik apaintzera zeramatzan apaizak. Hortaz, hiru apaiz idazle finkoren euskara on eta kalitatezkoari esker kazetan gure hizkuntza goiti joan zen, *Eskualdun Onaren* garaian (1904-1907) lehen aldiz nagusituz frantsesari; eta kazeta gorrietan, aldiz, beheiti.

Euskara gibelamenduari nahasi nahian, Combes ministro nagusia eskola publikoetan frantsesik ia tuntik ez zekiten haurrei euskarazko katixima debekatzearaino iritsi zen, frantsesezkoa uzten zuela bizkitartean. Bazterrak hein bat harrotu baitzuten horrek, sinadura biltze bat antolatu zen debekua- ren kontra Euskal Herrian, norbait ziren jaunen artean. Hiriart-Urrutiren ikuspegitik Combesen manua- ren xedea erlijioari jazartzea zen.

Etsai “deabruz eginikakoen” xede eta lege “tzarrak” eta “azerikeria” edo “zakurkeriazko” jokaera aipatzen zituen argudio nagusitzat, hots, egitateak egi- leen araberrak; etsaien lege gaiztoen ondotik zetozen, bestalde, haren ustez, orduko makurrak oro. Etsenplu on eta txar, erran zahar eta zuhur, Aita Saindu eta Eliza Katolikoko autoritate eta beti aitzina errekak behe- ra jausten ari garela- koa ziren beste argumentazio egitura nagusietariko batzuk. Zuhurtziaz eta zent- zuz bil irakurlea, hein bat argituz; irakurlearen bihotza hunki, bihotzez atxiki irakurlea, horra zer zuen xede. Erdietsi zuenetz? Bere garaian geroztik baino ospe handiagoa izan bide zuen behintzat bere artikuluetatik.

Oneko alde zeukala zioen eta etsaiek txarrekoa, noski; beti egiaren izene- an mintzo, politikako gauzetan ere. Hori garai hartako xuriei buruz baliagarri zitzaiokeen, baina diskurtso erretorikoaren oinarrian ez dago egia, egiantzeko- tasuna baizik, ez baita gauza bera. Egia eta ona, beraz, haren ideologia eta poli- tika? Juduen eta protestanteen etsaigo, emakumea “bere herronkan” irau- narazte (nahiz boz emateko eskubidearen alde zen, emazteak girstinoagoak direla- koan), frantses abertzaletasun, armadazale- tasun, inperio eta koloniazale- tasun... edo, hobeki esan, *keria* nekez onar dezake egun gure arteko inork.

Kazetari politiko gisa, “kazeta tzarren” kontra ari zen bere ustez, eta Etxepareren iritziz “politikeroen ttintta” bazuen⁴. Kazetariarena “azken ofi-

⁴ (Ademarekin konparatuz) “Ademaren erakaspena bakunago da, itzul-inguru gutiagorekin, eta orobat berdin mamitsua, izaitzekotz mamitsuago. Hiriart-Urruty aldiz politikeroen odol ttintta bat bazuelakotz zainetan, beroago zen, gataskariago, suharrago borrokan, haginak ardurasko zorrotz eta aztaparrak sistakor”, “ukumilo ukaldia edo ostikoa berdin azkar emai- ten zuela noizean behin batek ala bertzeak, hori baita beharrena” (Charritton: 1984: 231).

zio” zeukan, beti “politika nardagarria” aipatu beharra ez zuen gogoko; nahia-go zuen beste gai batzuez ari edo istorioak konta. Baina hauteskundeak usu baitziren (deputatu, senatore, kontseilari jeneral, herrietako kontseilu), erlijio-aren aldeko hautagaiak bultzatu behar. Eta halakorik ez bazen, bederen kontra ez ziren errepublikar moderatuekin hautsi-mautsi bat egin, nahiz berenaz eztiak ez zituen batere gogoko.

Etsai gorriekiko gudua ematuz zihoalarik, hara non agertzen den kanpoko etsaia. Berehala gorriekin bakeak egin eta *Biba Frantzia!*, orok alemanari buruz gerlara lehian, eskuina eta ezkerria. Gure apaiz kazetaria bezalakoan eskuineko politikak jendeak gerlara eraman bazituen ere, non ziren Jaurès eskubiak hilarazi bakezalearen jarraitzaile zirelakoak? Nolanahi ere “Gerla Nagusia” delako madarikatu horren basakeriek mundua eta Euskal Herria odolustu zuten eta gure kazetaria higatu, buruz ere, kazetako lanaz gain herriz herri gobernuaren izenean urre-eske predikatzen eta kolpatuei eta soldadoen familiei etengabe bihotz ematen ari izan baitzen.

3. Hiriart-Urrutiren kazetalanak, gehienak behintzat testu edo diskurtso erretorikoak dira (are berrien kontara eta istorioak, hein batez). Hitzaldi edo diskurtso erretorikoa “atseginez eta emozioz, argumentazioak eutsita, persudatzen duen diskurtsoa” besterik ez da (Reboul: 1993: 32-33), nahiz oraindik frankok gaitzespen kutsua eransten dieten “erretoriko” eta “erretorika” hitzei, ezjakintasunez. Beraz, haren kazetalan-genero eta estiloak erretorikaren aldetik aztertzea komeni da, bai eta kazetaritzarenetik ere.

Hiriart-Urrutik hiru kazetalan mota nagusi eta horiek agertoki zuten hiru sail ekarri ditu euskal kazetaritzara. Ezagunena iritzi artikulua nagusia da, “lehen mintzaldi” edo “lehen solasaldi” izendatu ohi zuena (fr. *article de tête*). Kazetaren buruan ezarria, lehen orrialdearen ezkerreko zerrendan, idazle buruzagiaren artikulua izan ohi zen, kazetaren politika markatzen zuena, egungo *editorial* direlakoan eitekoa.

Entzuteko hitzaldiak balira bezala eraikitako mintzaldi hauetan Hiriart-Urrutik irakurleei irakatsi nahi die, nornahi eta zernahi hunkituz; beste batzuetan etsaiari iharduki eta jazar, irakurleen haserrea sortaraziz edo urrikal-mendua. Tonuak ere arabera: irakasteko mintzaldietan didaskalikoa da batzuetan, are maiestatikoa zenbaitetan; gehienetan serioa, ezkorra (ez du uste handirik justizian), erasiakorra irakurtzaileekin (ezaxola egotziz), edo bestela erasokorra etsaiekin, are maizkara irri eta trufa, laido eta piko edo zaharozkoa. Baina Hiriart-Urrutik tonuak aldatzen eta aldizkatzen ohi zituen (serioa irri-garriarekin, adibidez), are artikulua berean, irakurleari atsegin harrarazteko.

Halaber formak (argudiaketa, kontaera, elkarrizketa, deskripzioa). Forma horiei bi estilo nagusi dagozkie, lehen mintzaldiko diskurtso erretorikoan erabiltzen dituenak, elkar osatuz, eta aldizkatuz: alde batetik, hizlari estiloa (batzuetan erran eta esaldi biribiletako sententzia estiloarekin elkartuta), usu haren lagungarri erabiliz dialogismoa edo hizketa eta eztabaida teknika; bestetik, kontalari estiloa.

Egiturei dagokienez, epai tankerakoa da tipikoetarik bat (egitate edo printzipioak aipa, gero horiek aplika eta azkenik epaia eman). Mintzaldian puntu bakar bat garatu nahi zuen; hala ere, frankotan, sarreran luzatzen zen edo solasaren haria galtzen. Bukaerak eta izenburuak artaz lantzen ditu, elkarrekin lotuz. Bukaeretan mezua laburbiltzen du, emozioz adieraziz (desira, ahalegia, erasia, irri eta trufa, bihozmina...), epifonema, formula edo esaera biribil sententzia estilokoaz, adib. "Erlijioea kenduz geroz, akabo gizontasuna!" (E 347) edo "Jainkoak begira dezaukula dugun erlisionea!" gisako deprekazioekin. Izenburu arreta erakargarri, labur-trinkoak eta batez ere adierazkorrrak dira harenak; maiz ironikoak, edo erranak eta jendearen ahoko esaerak jasotzen dituztenak.

3.2. Ezin onetsiz bere burua euskaldun eta euskaldun irakurleentzat egina zen kazeta batek, berri-igortzaile euskaldunik guti zela edo frantsesez igortzen zituztela-eta, euskal herrietako berriak frantsesez ematea -eta urruneko albisteak, aldiz, euskaraz-, Hiriart-Urrutik erabaki zuen euskaldunei beren arteko berri eta gorabeherak euskaraz eman behar zitzaizkiela (E 237, 1891, "Mintza gaiten eskuaraz", *Eskualduna* sinatua). Ariaren bortxaz, berriketari sare bat osatu eta "Eskual Herria" izeneko saila eraiki zuen, "Lapurdi", "Baxenabarre" eta "Zuberoa" azpisailetan banatua, eta horietako bakoitzean herriz herrika. Sail hau hark sortua da eta geroztik tradizio handikoa euskal kazetaritzaren historian, egun ere *Herria* kazetan baitirau. Hau Hiriart-Urrutiren ekarpen axola handienetariko bat da, nahiz kontu hau ia inork ere aipatzen ez duen eta antologietan ere herrietako berririk ia agertzen ez den. Honen arrazoiatarik bat izan daiteke *Eskualdunako* kazetalan gehientsuak sinatu gabeak direla, eta, beraz, egilea(k) estilotik ezagutu beharrekoa(k).

Herrietako berrien gosea asetzea zen, gure kazetariarentzat, lanen lana: berriketariak eta berriak bil, hauta eta euskaraz eman. Hark idatziak baitira Baiona ingurukoak eta are beste herrietako gehientsuenak, ez oro. Zertako hark berak idatz? Ez dakigu zuzen oraindik, baina hura hil ondoan idatzi zuten: "Ezen eskuara ez dute orok hitz berez izkiribatzen. Bertzeetarik ukan berriak behar zituen beraz bere eskuz izkiribatu" (E 1489).

Herriz herrrikako berri horiek orotarikoak ziren: tribunaletako auzi, ohointza, hiltze, istripu etab. Testu informatibo-narratiboak dira. Herrietako historia aldetik ez eze, kronika edo kontraera hauek baliotsuak dira idaztanke-
ra eta tonu libre eta desberdinetakoak direlako (ironia eta trufa darie anitzi) eta kontateknikek ipuinetan erabilitakoen eite dutelako, eta ez egungo kazetarien harako "piramide azpizgorakoa" rena, non kontraera azken gertakarietarik has-
ten baita. Hiriart-Urrutiren konposizio edo kontraera estilo tradizionalak irakurlearen arreta atxikiz eraikitzen du testua.

Herrietako berri batzuetan sartzen du ere beste kazeta-genero ohargarri bat, egun gure artean gutiago ageri dena: hil ospetsuen berri, apaizkide, euskaltzale, jaun handi... adiskide edo etsai, horien laudorio edo gaitzespen eginez. Klasikoen *genus epidicticum* delakoaren mota bat da, erkideen edo irakurleriaren arteko balioak gorapatuz loturak sendotzeko hitzaldi erretoriko zinez baliagarria.

Hiriart-Urrutiren berriekiko axola azpimarratu nahi badugu, askoren usteak koloka ezarri gogo baizik ez dugulako da, anitzek uste baitute euskarazko kazetaritza oso atzeratua izan dela beti, adibidez informazio generoak oso berant heldu zaizkigula, I. mundu-gerlaren ondoren edo. 1910eko *Eskualduna* atzemanaz gero, nahi duenak irakur ditzake, adibidez, "Berrixkak" (E 1235) edo "Azken berri" (E 1242), gerlakoak baino lehenago-koak. Berri laburrak dira eta berriak huts-hutsik, geroago *Euzkadi*-n edo *Euskaldunon Egunkarian* agertuko zirenen aitzindariak.

3.3. Beste genero mota batzuk ere sortu edo sartu zituen *Eskualdunan*, bi sailetan kokatuz: *Zer eta zer* sailean, berak sortua, eta kazetek ohi zuten *feuilleton* delakoan. Josta-kazetalanak dira hauek eta oroz batean irakaspennunak, 2. edo 3. orrialdean kokatuak. *Zer eta zer* sailekoak kontakizun libre-agoak dira, esan nahi baita berriak heda eta jakinarazi beharrak manatzen ez dituztenak: berri mutxituxeak, nonbaiteko gertakarien istorioak nahiz irudimenetik sortuak. Batzuetan hark berak, bestetan besteren batek (Barbier etab.) idatziak. *Zer eta zer* sailari ohartu zitzaion Etxepare, Hiriart-Urrutiren lehen mintzaldi eta herrietako berrien idazkeratik ere hainbat gauza ikasi zituena.⁵

⁵ "Han hemenka, aste guztietako lehen mintzaldiaz bertzalde, guziz "Zer eta zer" deitu ozkan, ezagun zen, bai eta zuten ezagutzen aspaldian gehienek, haren eskukaldi berezia. Euskara bezala hedatu ere du Euskal-Herrian euskararen amodioa, garbitu ondoan gure mintzai eder zaharra, zahartzearekin lotuak zitzaizkon belar gaixtoetarik." (Charritton: 1984: 172). *Buruxkak*-en kroniken erreferentzia nagusia Hiriart-Urruti da (Casenave: 1997: 140-146).

Bi sail hauetan, beraz, oro har, alde batetik irakurleei atsegin emateko idazlanak bildu zituen: istorio zahar eta berri edo etsenplu ematekoak, istorio bitxi, ateraldi eta irri solas, haur ele... zer eta zer ez? Kazetak urte hondarean atera ohi zuen almanakan ere agertarazi ohi zituen honelakoak. Egun euskal tradiziokoak diren josta-idazlanik guti ikusten dugu gure kazetetan, ez ateraldi, ez irri solas, ez bitxi ez bitzirik (irakurleak atseginik eman dakion merezi ez duelako edo?). Bereziki istorioek Hiriart-Urruti kontalari handia dela erakusten digute, *Euskal Herria* sailekoek eta are lehen mintzaldiko anekdota eta pasadizoek aski erakutsi ez balute ere. Oso gutxi aipatua den alderdia, antologietan ere ipuinen bat edo beste baizik ez baita jasotzen. Uste dut euskal literaturaren historiak toki bat zor diola. Oro har, literaturarekiko loturek bizirik diraute haren idazkeran eta generoetan, frantses tradizioaren eraginez agian.

Bestetik, jaun xapeldun euskaltzaleentzakoak agertarazi zituen aipatu sailetan: literaturlanak (emanaldikako kontakizunak, neurtitzak), euskal liburu argitaraberrien berri eta iruzkinak (hark eginak dirateke zenbait), liburu argitalpenak eta euskalaritza solasak. Guztiz aipagarri dira hark berak eginitako bi argitalpen, hain zuzen adiskide zituen Duvoisin-en *Laborantzako Liburuarena* (emanaldika 1888-1891 urteetan; liburu gisa bereiz 1892an), hitzurrearekin, eta Ithurriren gramatika, honek hiltzerakoan hari utzia, ohar jakingarriekin argitara zuena, nahiz ez osorik.

Hiriart-Urrutiren beste kazetalan batzuk, aldiz, aipatuko baizik ez ditugu: itzulpenak (eliz aitzindarien gutunak, hauteskudeetako propaganda idazkiak, iragarkietako testuak...). Aipagarriak dira ere frantsesez idatzi zituenak, oso ongi idazten baitzekien hizkuntza horretan ere.

4. Diskurtso erretorikoari dagokion mintzaira apaindu eta prosa erretorikoa ekarri digu, batez ere, Hiriart-Urrutik. Hemen bereziki lehen mintzaldikoa dugu solas, kontraerakoa erabat bazter utzi gabe, ordea. Ezen diskurtso eta prosa erretorikoa da harena, hots, pertsuasioa helburu duena. Baina, greziar klasikoei mendez mende ikasi diegunez, edertasuna da erretorikaren alderdi baitezpadako bat, pertsuaditzen laguntzen baitu. Arren, beraz, Hiriart-Urrutirena ez da prosa lau edo arrunta (*degré zéro*), egungo kazetariak, gehienek bederen, damurik, egiten duten bezalakoa; bertzerik da.

Hiriart-Urrutiren prosa erretorikoa, alde batetik, hitzen, adierazpideen eta figuren –hots, prozedura estilistiko–n hautuan agertzen da; erritmoan, bestetik, erritmoak ere pertsuaditzen laguntzen baitu. Hortaz, haren mintzairaz jardutean ezin da hau erretorikatik, hots, argumentazio eta figuretatik bereizi. Erretorikaren legeek manatzen dute kazetariaren hizkuntz-baliabideen hautuan. Adibidez, baldin perpaus joskura bihurri-landuekin batera

Hiriart-Urrutik jendearen ahoko adierazpideak –ez liburuetakoak– badarabiltza, ahozko mintzairaren eta erretorikakoaren nahasketa berezia sortuz, ahozko mintzairaz baliatzeko hautu hori bera, hain zuzen, hobeki pertsuaditzeko xedez egina dateke, ulergarritasuna bilatzeaz gain. Gero, jendearen ahoko mintzaira erabiliagoa da kazetaritza herrikoian, lehengo eta oraingoan, kazetaritza formalean baino, eta Hiriart-Urrutirena kazetaritza herriko horretatik hurbil da.

Erretorikak eta kazetaritzak galde eginik, Hiriart-Urrutik mintzaira argia hautatzen du, baina oroz batean apaindua eta hein bat berria –ez ohikoa edo arrunta–, bai eta adierazkorra ere. Eta gero irakurlearen arreta atxikitzen duena, harekin buruz-buruko harremanak eta elkar aditzea bilatuz.

Bi hitz derragun kazetariaren hiztegi jori, berritu eta garbiaz, mintzaira eta figurez baino lehen. Hiztegi aberatsa da utzi diguna, kazetaritzako arlo gehientsuetako hitzak erabili behar izan baitzituen. Kazetari senez, bere garai-ko jendearen ahoko hitzak erabiltzen zituen, Broussainek ohartarazi bezala⁶. Eta Harrieten hiztegia Larresoron egonik, baliatu zukeen, Lhanderen hiztegi oraino argitaragabea kausitzen baitira kazetariaren hitzik anitz, bernes nahiz gazteleratikako ere.

Hitz garbien hautua ere erretorikoa dateke, edota estilistikoa, euskal idazleen, bereziki Duvoisinen, joera garbizaleari atxikia baitzen hein batez, hasieran bereziki. Hain zuzen, “Ez dugu uste baden eskuara garbiagoz eta gozoagoz eginik” idatzi zuen *Laborantzako Liburuaz* (E 285). Arkaismo edo neologismorik ez zuen nahi: hots, “nehor ezin hurbilduzko hitz nonbeitko noizpeitko zahar kozkor edo berri kakola bihurri” haietarik (E 562). Ez, beraz, aranatarren hitz berririk, salbu *beribil*, kazetan itsutuki eta jakintsuen irriak iretsiz bultzatu zuena 1909tik aitzina.

Euskara errotik baitzekien eta orobat euskaraz pentsatzen, gure hizkuntzak “bere baitarik daukan indarra” (E 352) baliatuz aski zuen euskal hitzekin edo hark berak atzizki bidez sortuekin eta euskal lokuzio edo adierazpideekin. Ez zen egungo kazetari eta idazle anitz bezain maileguzale ez hitz berezi edo teknikoazale. Mailegu ugari hartu zituen, hala ere, guziz *Eskualdun Onatik*

⁶ “Sauf son fameux *beribil*, auquel il s’attachait avec une ténacité enfantine, il n’a employé que le vocabulaire de son époque et il l’a bien employé. Par le fait même qu’il était journaliste et partant obligé de traiter toutes sortes de sujets, il aura laissé un vocabulaire écrit beaucoup plus complet et plus varié que Lissarrague et Axular qui n’ont traité que des sujets religieux. Je ne parle pas du verbe, bien entendu. Mais peut-on demander à un journaliste qui écrit pour tout le monde d’employer des flexions verbales tombées en désuétude?” (Broussainek Lacomberi, Hazparne, 1915-XII-3, Hiriart-Urruti hil ondoren), in Charriton: 1982, 1986.

aitzina, uste baino gehiago. Atzizkiak ustiatzen ditu, beraz, bereziki kazetari-tzako hitz orokor eta tekniko berriak sortzeko; honetan ere ez da batere gu-txiestekoa haren ekarria, eta hitz franko garaiko kultura eta gauzetarakoak izan arren, beste anitz egun ere baliagarriak dirateke.

Hitz eta esapideei dagokienez euskara odol berritu eta gaztetu nahi zuen⁷. J. Etxeparek zioen: “Axular zenaren ganik hunat, zer karrakaldi beharrez-koa ez dako eman eraskitzari! Zonbat hitz zahar ez ditu gaztetu; zonbat erran zuhur ez erain, Almanakaren arartekoz (...); zonbat hitz eta hizkuntza berri ez dauzkigu utzi oroitzapentzat!” (1915; Charriton: 1984: 172). Alabaina, jende-aren ahoko itzuli berezi eta esaldi biribilez baliatzen da, baina sortze eta bihurtze bidezko adierazpide eta egiturak ere gogoko ditu, bere idazle eta erretorikalari senari jarraiki.

Ondoren, lau sailetan banatuko ditugu kazetariak bere mintzaldi erreto-rikoan erabili ohi dituen hizkuntz-fenomeno eta prozedura estilistiko nagu-siak. Leku eskasez, adibide guti baizik ezin ezar. Horietako batzuetan letra beltzez azpimarratuko ditugu figurak, hobeki ulertzeko asmoz.

4.1. Hizkuntzaren hotsetan eta erritmoan oinarrituriko hizkuntz-baliabi-de eta figurak lehenik. Hiriart-Urrutik maisuki eta gutik bezala marruskatzen daki soinu bustien erabilera adierazkorra (*zahar / xabar*), eta orobat kontrako fenomeno, haunditasun edo gaitzespenez markatua (*xorta / zorta*).

“Langilearen ttattolatzeko, llilluratzeko; hots, (...) *boz zenbeiten biltzeko*, egiten dituzte holako legeak” (E 621, 1899-5-12).

“puskatto bat jan eta *zorta* bat edan ondoan, bilkura egiten duen jauna hobeki mintzo omen da” (E 541, 1897-10-29 “Sozialixtak” art.).

Prosa zinez entzungarria da Hiriart-Urrutirena. Hoskidetzan eta perpau-saren erritmoan oinarritzen dira haren figurarik adierazkorrenak, bereziki bukaera berdintzeak (homoteleuton), zirtoak, eta gero asonantzia eta alitera-zioa. Figura hauek beste anitzekin elkartzen ditu. *Le Progrès de Biarritz* kaze-ta gorriak euskaragatik esanei buruz hona zer dioen ironia eta trufaz:

“Sekulan ez zinezakete pentsa, zer eta zoin den eskuara, otso eta aker mintzai hunek guri, eskualdun gaixoeri egiten daukun bidegaberik handiena... / Kalte bat egiten dauku gaitza, ikaragarria, miletan entseaturik ere ez baitzi-

⁷ “Mais raisonnons un peu: À quoi bon, dites-vous, s’efforcer de rajeunir une langue qui depuis cinquante ans vieillit...”, (“À quoi bon?”, Notes Euskariennes, “Eskualduna” sinatua, E 1156).

nezakete atzeman zoin, zer... -Zer mila sorgin ote da?. -O!... frantsesez erranen dautzuet, zeren ez baitire Miarritzeko jakintsunen burutikako egia (?) handi hoik eskuara **motz** eta **zotz**, **korotz** huntan kokatzen ahal. Emazkitzue lunetak. / *Eskuarak eskualdunei egiten deien bidegabe handienetarik bat da, zera... frantsesez deitzen baita "alcoholisme" eta hura.*- (E 835, 1903-6-26).

Bukaerako hoskidetza egitura berdintsuen aldizkatzearekin lotzen du. Anarkistez mintzo, dio ironiaz:

"Lana baino nasaiago oraino eta gozoago izanen da *jana*." (E 347, 1894-2-19).

Jendearen gogoko ditxo edo zirtoak, hots, erantzun zorrotz, errimadunak maite ditu. Adibidez, Jaquin juje handi eskandaluan atzemanari apostrofatzen dio:

"Hizen bezalako *Jaquin* ! Hi zer putikoa hizen guk lehenago ez jakin!" (E 780, 1902-5-30)⁸.

Gormandiza maiseatuz, jendeak bere bizipideak xahutzen dituela eta, dio "Bixkotxak urririk" artikulu politaren bukaeran:

"Zorrak *ba*, zorrak!.../ Ontsa kexu dira zorrez ala jazko haizeaz. Ea badukegunez gormandizañoa zertaz ontsaño **haz**. Hartzeduruek egin bezate buruan **hatz**." (EO 24, 1904-6-17).

Hona aliterazioaren adibide pare bat; bigarrena, Ravachol anarkistaren gilotinaratzea deskribatzen duelarik:

"Orori ele eder, **azkarrenari azkenean esku**" (EO 3, 1906-1-19).

"Burregoa ari zaiolarik bizkar gibelean bi eskuen estekatzen, ahora jin guziak **erraiten** diozka, **erdi irriz**, **erdi hortz karraskan**, iduri josteta bezala" ("Hil dute", E 268, 1892-7-15).

Aliterazioak bezala, figura hauek ez dute adierazkortasun indarra huts-hutsik, pertsuasio indarra ere badute, hitz adierazlearen eta adieraziaren arteko harmoniak egiantzekotasuna islatzen duelakoan (Reboul: 1993: 40).

Hots-hitzen jokotikako figurak ere usu darabiltza, neurkera-figurekin batera. Erran nahi baita, errepikapen eta aldakuntzan oinarrituz esanahi desberdina azpimarratzen dutenak (paronomasia, antanaklasia, poliptoton, derivatio....). Hona paronomasiaren adibide bat:

⁸ Honek esaeeraren baten oihartzuna dakarke. Azkuek ondokoa jasotzen du: "Joakin: i noiz hilko aizen guk ez jakin". *Euskalerrriaren Yakintza*, III, 43, G-Ataun.

“zorra zorri, odol iresle” (E 1396, 1892-7-15, “Frantziaren zorrak” art.)

Poliptoton delako figurari ere atxikia da (bereziki *elkar* eta *oro* hitzeki-koei). Poliptoton bere gisakoak ditu aditzen bidezkoak, ironiaz maiz, ondokoan bezala:

“... *Berteaux* deitu deputatu okaztagarri batek erran du (...): “Izialdi bat behar zitzeiela eman katolikoei, eliza-gizon guziei. –Zertako? –Zeren eta zer nahi egin omen baitugu, baitute baituzue boz hoitan elizatiar boz emaile guziek. –Zer nahi, zer nahi... Bainan zer ote bada dukezue dukegu, dukete hain itsusirik egin?” (E 784, 1902-6-27).

Hots eta esanahiaz jokatzuz hitz berriak asmatzen daki zorrozki. Hona hemen crasis figuraren erakusburu polit zenbait. Lehena Ferry hil ondolan, ahokia gurutzerik gabe eraman zutela-eta:

“Abereak bezala bizi; abereak bezala hil, abereak bezala ehortz. / Hori dute deitzen gero errepublika. Ez da, ez, hori errepublika. Hori da *urdepublika*, edo *debrupublika*; emagun nahi baduzu: Framazonpublika” (E 304, 1893-3-24).

“Zeren eta gorriak, zozialixtak, *orobardinixtak* ez omen baitire eiki hortan gelditzekotan” (E 309, 1893-4-28).

4.2. Irudi bidezko mintzaira eta figurez den bezainbatean, esan dezagun lehenik Hiriart-Urrutik zinez ugari baliatzen dituela hitz eta adierazpide tropiko egin eta hizkuntzan finkatuak. Hots, hiztegieta irudizko esanahian agertzen direnak edo behar luketenak, ez baitira haren kazetalanetako guztiak ageri. Politikako hizkeran barra-barra eta beti adierazkorki darabiltza, beti solasari datxikola. Erran zahar edo zuhur metaforikoek edo haien bihurketa-tik sortuek osatzen dute atal bat, lokuzioek beste bat. Usuenenatarikoak dira ondokoak, zenbait bederen tradizio handikoak Iparraldean:

“Aspaldikoa da hori. Urak eta apezen pagak bide egin dute geroztik.” (EO 36, 1906-9-7, “Aphezen paga”).

“Fuera Berdoly! Kuku framazonen esku-makila!” (E 28, 1904-7-15, “Berdoly”).

“Trufa baino musika gehiago” (E 847, 1903-9-18). Edo “zauriaren gainean pikoak”. *Gazt. Sobre cornudo, apaleado*, hots, etsaien jokabidea adierazten duena.

Atsotitz edo erranak laket zaizkio hitzaldiari indar emateko. Sozialisten jokaera irudikatzekeo darabil bearnes hizkuntzatikako hau:

“Aqueste mon es un tripot; atrape qui pot”.

Beti norbaiti aiher edo errangura diren berri heltzaleez, berriz:

“Halakoak otoizten ditugu (...) ez dezatela *Eskualduna* egin beti eltze guzien burruntzali, zoko moko guzien xahutzeko esku-piltzar eta jats.” (E 1157, 1909-6-11, “Ez guretzat”).

Honelako lokuzio metaforikoetarik berrehun bat hurbil ezagutzen ditugu (Altzibar: 2001). Irudizko konparazio ironiko adierazkorrak erruz darabiltza:

“gizontasunaz ala egiaz, ala zuzenaz, ala jazko haizeaz bardin axola” (E 860, 1903-12-18).

Halaber hiperbole metaforikoak. Politikako xarlatanak “baheaz uraren hitzemaile” direla dio (E 1339). Beraz, esaera eta lokuzio –irudizko edo gabe-ko-, bai eta hizketa esapide edo ohiko formula anitz ere jasotzen ditu jendearen ahotik eta biziberritzen kazetaritzan:

“Ez jauna, ba jauna! Hi bahiz, ni ere ba: horra non den herri guzia sutan” (E 282, 1892-10-21).

Metafora-hariak ere ugari darabiltza, irakurleen buru-bihotzak argitzeko irudiak elkarrekin lotzen baititu. Erabilienetariakoak dira ondokoak: lezea (Frantzia lezearen zolara emekiño joaki); zakur errabiatuak (fraide-seroren eskolak hesten ari dituzten ministro tzarrak); soka lepotik (hala darabilte etsaiek jendea hauteskundeetan). Ironiazkoa da diru-ontziaren beheitikoarena, bankuetan konfiantzarik ez eta jendea dirua ateratzen ari baita:

“beheitiko bat izigarriak hartua da gure “caisse d’épargne” gaizoa. / Badario, badario, badario.” (E 840, 1903-7-31).

Metafora eta konparazio anitz erranetan oinarrituak dira, adibidez “otsoa artzain” (Oihenart 382), Otsobik ospetua. “Barea exurrik eta odolik gabea” (Azkue: 1969: 399) esaeran oinarritzen da ondokoa, non *Eskualdun Onaz* eskuinetik eta ezkerretik nola mintzo diren azaltzen digun:

“Batzuen arabera *Eskualdun Ona* barea bezen hila da, eta maltsoa; hortzik ez, etsaiaren ausikitzeko; ez koskatzeko adarrak. Balinbadu ere, bare kurkuilak bezala, sar-ateraka erabilki adarrak; den gutieneko haize hotzak izitzen. Hots, odolik ez, zainik ez. / Iduri beldurrez ikaran gaudela, edo lo. Holatsu zaitzu mintzo eskuinetik. / Itzul ezker. *La musique change*. / Mihi gaixto, beti kexu, beti orotaz errangura; sekulan deus ez gure gogorakorik. Oro beti makur doazila. Gizon publikoen solas eta urrats guziak makurrerat har. Ez dugu oraikoa.” (E0 3, 1906-1-19).

Liztor edo lizafin ziztatzaile eta bizkarkinen irudia da usu darabilen beste bat. Ondoko testua aberatsa da konparazio iradokitzaileetan, egilearen ikuspegiaren erakusle ere bai:

“Erraiten dautzuet harrigarri dela oraiko gazteen ikustea: neskatokoak ostoila idor batzu baino arinago, pinpirina iduri, ortzi adarraren zazpi koloreak soinean, jauzika, itzulika, xirimolaka, haize hegoak errautsa nola derabila? Bardin bardina. Mutiko zozo batzu heieri so, begiak eta ahoa zabalduz; gaizo mutikoak! / Deus onik ez diren eta ez duten lizafin gormant batzu ezin asez lanak baititutze. Hanbat gaxtoago; zertako ez utz beren gain uzteko hobeak direnak?” (EO 33, 1905-8-18).

Konparazioak baliagarri zaizkio irakatsi edo adierazi nahi duena argitze-ko. Xurien soraiotasuna eta beldurra adierazteko hona irudi indartsu bat:

“Nago, ihes egiteko ere ukanen dugunez, oraiko itxuraren arabera, zai-nik aski? Ala, xoria sugearen aho zilorakoan bezala, beldurra gure tokian iztatuko gaituenez ote?” (E 814, 1903-1-23).

Etsaiak degradatu nahian abereekin konparatzen ditu (otso, azeri, txakur errabiatu); Berdoly, adibidez, zahagi zahar edo barrikarekin (EO 21, 1905-5-26). Konparazio ironikoak (“oilategiko haga bezen garbi”) eta hiperbolikoak ere baliatzen ditu; orobat hiperbole eta adierazmolde hiperbolikoak, hitzen adieraziezintasunaren lekuko.

“Pipa bat tabako ez eta ere tu bat ez duela balio; hatsa gezur eta ele zuri dariola, egun gu azkar gure hatzean” (ohart *batsa / hatzean* hitz jokoari ere).

4.3. Esaldien joskerarena da agian Hiriart-Urrutiren alderdi ohargarri eta bereziarena. Prosa zalu edo malgu eta lasterra –beharra kazetaritzan–, higikorra eta askatasun handikoa ekarri digu. Lafittek zioenez, dantzaria (*figura* hitzak latinez dantzako eskemak adierazten ditu) eta fantasia poxi batekin: “zumea bezala bazerabilkan eskuara, gogo bihotzak eta aldarteak gidari” (1971: hitzaur., 38).

Aditzaren erabileran oinarritzen da josturaren zalutasun hori; batez ere aditz elipsi eta *inversioetan*, hein bat adizki trinkoetan. Aditz laguntzailearen elipsia bereziki kontaeran baliatzen du, aditzoina usu hutsik ezarritz, edo aditz nagusia partizipioan. Baina aditz nagusia ere badaki ezabatzen, edo aditzik bat ere gabe hizketa eta kontaerako esaldi laburrak osatzen. Aditz laguntzailearen elipsia da Ithurrik “syntaxe de la rapidité de la phrase” deitzen duenaren oinarri (*Grammaire*, 445).

Aditzaren bere gisa lekurtzeak (are SOV delako ordena kanonikoa maiz elkarrizketan ere ez gordetzeak) nahiz aditzaz landako *inversioek*, anakolutoek eta figurek Hiriart-Urrutiren hitzordenaren askatasuna –baina mintzaira erretorikoaren edo estilistikaren manupekoa– salatzen dute. Aditz aurreratzea

kontaeran nahiz estilo diskurtsiboan gertatzen da, azalpen eta eztabaidan ere usu, eta ez gero esaldi luze korapilotsuetan soilki (“Geroztik hunat joan dire ehun urte”, E 278); aditz laguntzailearen inversio edo aitzinatzeaz baliatzen ohi da enfasia adierazteko (“Giten ixil, mintza ditela gauzak”, E 262). Baina irakurlearen gogoia zintzilik utzi nahi duenean aditza perpaus edo paragrafoaren hondarrera igortzen ere badaki.

Areago, Hiriart-Urrutik guziz joskeran edo morfosintaxian egiten duen bihurketa, are transgresioaren gakoa ere erretorikan dagoke eta ez gramatikan. Idazle denak ez baititu beti gramatikaren legeak errespetatzen, ez behar ere hizkuntza adierazkortu, berritu edo sortu nahi badu (Altzibar: 2003). Har dezagun erakusburutzat *elkar* izenordainaren erabilera estilistikoaren bi adibide:

“Bainan ez baikira ordean bakotxa bederazka zoin gure gain. Gure zuzenetan elgar behar baitugu lagundu; esku eman elgarri. Ohoinak eta bertze gaizki-egileak behar baititugu **elgarrek** elgarren lurretarik urrundu.” (E 500, 1897-1-15).

“Anartean ez ote da guretzat aneiki, **elgarrenki** bizitzerik?” (E 1435, 1914-10-23) (sic; ala moldiztegi-hutsa, *elgarrekin* jarri beharra?).

Joskura-figurei dagokienez, errepikapenak eta elipsiak dira kazetariak gutiziatuenak. Elipsiek, hitz erdika irakurlearekin elkar aditzea eskatzen dutenak, prosaren zalointasuna daragite eta egilea erran edo esaeren eiteko plegu biribilak sortaraztera akulatzen. Estilo eliptikoari lotuak daude asindetona eta erretizentzia ere.

Errepikapenak –hitz berak errepikatuta nahiz sinonimoak esanahi berarekin– Hiriart-Urrutik erruz darabiltza, baina ez oroitarazteko edo arreta erakartzeko bakarrik, ez eta ideia ala mezua bortizkiago iltzatzeko beti; errepikapena *pathos*-en adierazle da maiz, emozio eta ironiaren eragile. Gudu giroan bizi diren kazeta alderdikarientzat beharrak dira errepikapenak. Halaber jokutzen da gure kazetari gudukaria, hitz nahiz egitura laburrak 2, 3 edo 7, 8 alditaraino obsesioz errepikatuz, noiz iltzea buruetan barna sartu nahian, noiz barne-zirrara sentiarazi nahiz, eta maiz ironia edo trufaz. Arestian ikusi ditugun *elkar*, *oro*, *nehor*, edo ministro, deputatu eta senadore tzarrek eginiko *lege*, edo *trufa* –harentzat orobat dena– edo fraide-serora-apaizak *fuera* eta *ken*, eskolak *hets*, edo ministro *ohoinek* eliza katolikoaren ondasunak *ebats*. Iragarkietako esloganetan ere baliatzen ditu, edo kazetaren zabalkundea bultzatzeko:

“Eros eta erosaraz; irakur eta irakurraraz. Igandetako eliza ofizioak eta oro, noiz zoin diren, badauzka. Heda, heda, heda.” (E 804, 1902-11-14 “Gure Almanaka” art.).

Ironiazko errepikapenen bidez egileak bere jarrera erakusten digu, adibidez, "Lege eta lege" izenburudun artikuluan:

"Egungo nahaskerietarik edozoin aipa zozute; berehala ihardetsiren dautzu jaun edo jaunskila batek: "Legea da; ez da hor harat hunatik". / Hau lege, hura lege, oro lege dituzte. Bertze lanik ez dutela erran zinezake, lege egiten eta lege zain baizik. Oro baino gehiago da legea. Zer diot? *gehiago*? Legea da bakarrik ororen buru, esku, zango, gider" (E 830, 1903-5-22).

Sinonimia eta erredundantziak -hitza ez baina esanahia errepikatzen dutenak-, ideiak iltzatzeko darabiltzanak -kasu honetan esanahia ñabartze eta erritmo bidez egiturez baino gehiago-, anafora, paralelismo edo kiasmoarekin elkartzen ditu. Sinonimia oso aberatsa du, adjektiboena barne; etsaien kontra-ko kalifikatibo bortitz, laidogarri, hitz itsusi eta itsusgarrietan nekez duke parrerik. *Urde* eta holakoak haizu zaizkio etsai gorrotagarrien kontra direlarik.

"Humbert delako jaun ohoin ministro ohiak (...)" (E 780); "deputatu abere" (E 784, 1902-6-27); "itxura leguneko alimale zikin hoieri" (EO 10, 1906-3-9, EH: "Imitorioak").

"Norbeitek egun hautan erraiten zaukun, *Combes* hortaz eta horrekilakoez mintzatzean, arduregi ez ote ditugunez ahoan *urde* eta *urdekeria* eta holako hitz itsusi batzu." (EO 4, 1905-1-27, "Nor noren alde?")

Esan gabe doa, handik aitzina are jaulkitzenago zituela. Anafora eta epifora, polisindeton (bereziki *eta* juntagiluaren errepikapena kontaezan) eta anadiplosiak ederki baliatzen ditu. Hona nola egileak, bere ikuskera ezkorra adierazteko, lokuzio bat oinarri hartuta garatzen duen anadiplosia hirukoitz bat behehazko gradazioan:

"Alta bada urteak ditu, buruz behera goazila, gero eta apalago: zalditik astora, astotik urdera, urdetik lurrera" (EO 4, 1905-1-27). (Cfr. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza* III, Modismos, Mal: "Zalditik astora ta astotik lurrera", de mal en peor; (...) (B)).

Antitesi erretorikoak ere eraikitzen ditu, anafora, paralelismo, kiasmoarekin lotuz. Egitura simetrikoak noiz lerroan ezartzen ditu (paralelismoa), noiz kurutzatuta (kiasmo); joskura maitatua azken hau:

"Bertze orduz aberatsak ziren deputatu. Orai aldiz deputatuak dire aberasten..." (E 315, 1893-6-9, Petite Chronique, "Deputatu zordunak").

Baina egitura simetrikoak asimetrikoekin aldizkatzen ditu. Hiriart-Urruti perpaus jostun jostakinari ez zaio aski perpausaren zati baten ohiko

hitzordena aldatzea, perpaus osoa eta diskurtsoa du itzulikatu nahi. Ahozko mintzairaren eite duten anakolutoak, enfasi adierazleak baliatzen daki. Adibidez, “Bertzalde anitzek eman zioten Kanboarrek boza”, Diharasarritz esana (E, 775, 1902-4-25). Hiperbaton batzuk aski irakurterraz eta gozoak dira, baina beste batzuk harrigarriak lantzen ditu zenbaitetan, atzekoz aurrera zatika irakurrita hobeki ulertzekoak, edo hain bihurtzekoak, non irakurlea hitzak bere tokian kokatzera eta hitz andanaka irakurtzera behartzen baitu:

“*Barthou* ministroa Oloronen baizik ez da nausitu zinezko tzarrik” (EO 19, 1906-5-11). (Hots: zinezko tzarrik ez da nausitu Oloronen *Barthou* ministroa baizik).

“miarritzar eta hura iduri ziri kazetari franximan hatsa gezurra diotenen arabera” (E 840, 1903-7-31). (Irakur bedi: “hura iduri franximan kazetari ziri hatsa gezurra diotenen arabera”. Edo: “hura iduri kazetari franximan ziri hatsa gezurra diotenen arabera”).

J. Etxeparek Hiriart-Urrutiren hitzordena eta estiloaren gako batzuk atzeman zituen. Esaterako, batzuetan hondarrera –esaldi, paragrafo nahiz testuaren azkenera– jaurtikitzen zuela sartu nahi zuen pindarra eta noiztenka irakurlea hitz-andanak ulertu nahian ibilarazten zuela, “gogoia dilindan, bainan asmatu nahiarekin ernatua uzten zautzula, irriz”; “gogomenen jauzte lilluragarriaz” Hiriart-Urruti nagusi zaiola Adémari ere esaten digu⁹. Hona hemen adibide bat, “Beribil” artikuluko, non hitza eta silaba ustekabeen moztuz “gogomenen jauzte lilluragarri” hori gertatzen den:

“Bi urtez, egunetik has, luma hunek hemen ez du izkribatuko ez *auto*, ez *oto*... are gutiago *astomobil*; bainan ba beti *beribil*. Hitzeko gizon ez bagira, zuek oroitaraz. Berri heltzalek, behar orduan, guk bezala egin balezate, lan bat gutiago guretzat *otom...uthur* eta asto buztan mozten artzea.” (E 1151, 1909-4-30).

Ustekabeko aldaketa zorrotz, irrigarri edo ironiazkoak bukaeran maizago egin ohi ditu, eten puntuen ondoren. Adibidez, gobernamentuko etsaiez dio:

⁹ “Ahopaldi nasaiaik zituen laketenik; sekula kasik ez biga, datxikola, josturaz berdin. Batzutan bospasei alditaraino hatsa artetan hartuz, eta zu begia zabalik hari beha, ondarre-rat aurdikitzen zuela sartu nahi zautzun pindarra; bertze batzuetan dena mami, eraskitza eraskitzari jarraikaraziz joriki, burua ezteki joaren ariaz, betetzen zautzula eta argitzen; noiztenka pilota batzu bezala hitz andana bat erainik, xingilika heien artean ibilarazirik, gogoia dilindan, bainan asmatu nahiarekin ernatua uzten zautzula, irriz.” (J. Etxepare: 1915; in P. Charritton: 1984: 171-172). “Bego haatik, ahopaldiaren itzulika aberats bezain malguaz, hizkuntzaren nasaiaz, zirtoz, erran zuhur oroitgarritz, gogomenen jauzte lilluragarriaz, alaitasunez eta euskaldun zumoz, bego hazpandar semea nausi. Oraikoan Hiriart-Urruty dago gure lurreko idazleen errege (...).” (Etxepare: 1925; in P. Charritton: 1984: 231).

“Ez dute nahi jaun garbi horiek ohointzarik... bertzek egitea.” (E 860, 1903-12-18).

Esaldi bukaerak oso landuak ditu egitura eta neurkera aldetik; maiz esaldi paralelistikoak dira, justaposizio bidezko esaldi biribilak, zalantzarik uzten ez dutenak eta sententzia estilokoak, mezua azpimarratzeko.

4.4. Pentsamentu-figuren multzoan sartu ohi dira hitzaldi osoa hunkitzen eta esandakoaren egia baieستeko xedea dutenak, eta hitzez hitz nahiz irudizko adieran irakur daitezkeenak (Reboul: 1993: 55-56). Horietako anitzek irakurlearekin elkar aditzea eta bat egitea bilatzen dute. Eta, hain zuzen, irakurlearekin bat egiteko hizkuntz baliabide ugari ustiatzen ditu Hiriart-Urrutik, adibidez datibo etikoa, kontaeran ere badarabilena. Orduko neskatxen apainzaletasuna maiseatuz, pasadizo bat kontatzen du, umorez, lehen mintzaldi baten amaieran:

“Delako neskat...barkatu, *andere* gazteak, eliza pesta-buru eguerditan, oroiturik jan behar zuela, eta pitxerrean ur hutsa baizik ez izanki, bere gain bizi dena omen baita, zer egin dautzu? / Goizeko apaindura kendurik arratsaldekoaren jauntzerat artean, zalu eta arin, bi lur-sagar xuritu daitzu (baitzitu-ten hek); eta joan zautzu atxit erne, oinetakoek krik-krik egiten diotela, auzoko botiga batetara: “Egun on. –Bai zuri ere. Zer plazer zinueen?. –Lur-sagarren finitzeko, *bi sosen urina* ” (EO 33, 1905-8-18, “Bi sosen urina” art.).

Zinez ugariak dira kazetariaren subjektibotasuna irakurleari aditzera ematen dioten oihu-hitz eta adierazpideak, hizketakoak: harridurazkoak (*Hauxe da mendea!*); haserrea erakustekoak (*Zer mila sorgin!*; *Karako!*) edo mesfidantzazkoak. Adibidez:

“Ororen ona bilatu behar luke lege-egileak, alderdikari izan gabe. Aieia, putil, baduk hoberik!” (E 825, 1903-4-10).

Hipotiposia, edo gauzak aurrean ikusiko balira bezala konta eta, beraz, hunkitu nahi duen figura, kroniketan baliatzen du, kontaera nahiz deskripzio biziak eginez. Aipagarria da Ravachol anarkistaren gilotinatzearena (“Hil dute”, E, 1892-7-15; ik. I. Caminoren *Gontzetarik jalgiaziak*, 123-125). Alegoria batzuk ere lantzen ditu, adibidez, *Eskualduna* kazetaz mintzo, nola 20 urtetan hazi edo “gizondu” den erakusteko kuia eta ezkurrarena darabil, hain zuzen Zaldubiren alegia batetik hartua. Atsotitz edo erran zuhurak, ordea, usu baliatzen ditu (biltegi aberatsa ere bazuen, bernes, frantses eta gaztelaniazkoak barne) gauzen aterakizun morala finkatzeko. Baina erranak bihurtzen ere zituen, edo erranetarik adierazpideak sortzen.

Ironia da errege Hiriart-Urrutiren pentsamentu-figuretan, orain arteko adibide anitzetan ikus daitekeenez. Berebiziko indarra ematen dio egilearen luma oldarkorrari. Maiz testu zati osoak, are artikuluko osoak hunkitzen ditu, izenburuak barne. Mota nagusienetarik bat beste norbaiten diskurtsoa edo haren oihartzuna jasotzen duena da, eta etsaia frantsesez mintzo denez, frantsesaren erabilera ironikoa ageri da ardura. Beste batzuetan ironia alusioarekin elkartzen da: "Gaineko hura" maiz erabili ondoan Jainkoaz mintzo dela, "Nor da azkarrena?" artikuluan "*Gaineko Prezident*" hura aipatzen du (E 314, 1893-6-2). Maltzurkeria poxi bat bazuen frankotan Hiriart-Urrutiren ironiak, insinuazioz betea.

"Hiruetarik guretzat orai arte *gizonena* Morroxko-Harriague; *jakintsunena*, Legrand; eta Pradet-Balade,... nola erranen dut? -*Gazteena*."

Ateraldi hau zela eta, solas bat altxatzen diote eta Hiriart-Urrutik erantzuten:

"*gazteena* zela, irri egiteko solas bat zen hori", "holako bat erraten ahal da, gizon bat gogokoa ez denean. Behar ere ba, holako gatz-biper poxi artetan; bertzenaz lokar ginintazke solasa hasi orduko berehala oro, kazeta egile eta irakurtzale." (E 779, 1902-5-23).

Ohargarriak dira ere perifrasi alusibo edo eufemistikoak, edo itsusgarriak (adib. Berdolyz, EO 21, 1905-5-26), eskatologiarekin ikustekoa dutenak, etsaien kontrako diskurtsoan.

"Garbiki edo zikinki, ez nauke nehindik neholere hemen erran gabe, gogon dudana; burutik behera egiten daukute bertze hura" (EO 33, 1907-8-16).

Alabaina lizentzia da Hiriart-Urrutiren irakurleekiko jarrera eta ezaugarrietarik bat, hots, irakurleen beharriak zaurtzeaz gogoetatu gabe "garbiki mintzatzea" -edo itsuski, noiz nola-. Ironia irri edo umorezkoa da beste batzuetan eta trufa gozoaren erakusburu politik bada. Ironia hotz itxurakoa edo sarkasmoa ere ez da eskas, gontzetarik jalgiarazten duten gauzei hotz eta motz, zorrotz ihardestea ez baita gutiago eragingarria. Sarkasmoa beste ironia motekin nahasirik ageri da maiz. Jaun politikari sozialista *fraxximant progressista* batek Euskal Herrian gaindi ibili ondoan esandakoez dio:

"Hortarik beretik ageri da, zoin giren gibela, Eskual-herrian. / Beharrik dire munduan jaun argitu zenbeit, oro dazkitenak." (E 790, 1902-8-8, "De Musculdy à Saint-Esteben").

Umorea, irri eragingarria edo bestelakoa, irakurleekiko jarrera eta pertsuasio indar handikoa da, konfiantza ematen baitio irakurleari eta hau hizlariaren alde errazago jartzen. Hortakotz ditu Hiriart-Urrutik etsaiak eta haien

legeak usu irrieginarri uzten (*ridiculum*). “Makhila khen?” artikuluan makila debekatu dutela eta –zolan burdina duelako estakuruan– kazetariari irria dario euskaldunen makilazaletasunaz mintzatzean, baina hondarrean barreagarri uzten du debekua:

“Zer debru nahuzue egin, jaun jujeak, eskualduna eta makila elgarretarik ezin bereziak balinbadire, kasik... senar-emazteak bezala? (...)”. (Bukaeran) “Berritan hemen aipu ginuen Donapaleotik auzo herri batean gauaz merkatutik etxerat zoazilarik bi gizon, batek bertzeain kokotseko larrua eta ezpain puska ausikian ereman zazkola. Handi da tribunalak ez baitu ezarri legea: merkaturat doazila eskualdunak... hortzak etxean utzirik... *Armes défendues...*” (EO 52, 1905-12-29).

Azkenik, irakurleekin bat egitekoak diren prozedura estilistikoak ausarki darabiltza, bereziki galdera erretorikoak, *communicatio* (“Badakizue...?”, “Erradazue?”, “Entzun duzue...?”) eta dialogismoa. Azken honetan, euskal kazetaritzan orain baino lehen askoz erabiliagoa (Kirikiño, Lizardi etab.), kazetaria irakurleari (“Manex”) mintzatzen zaio zuzenki, alegia hizketan ari, honen gogoia erne atxikitzeko.

“Arto bat osorik iresteko aho bat idekirik hor zagote so, bi begiak ezin aski zabalduz: “Nola hori, Manex? Errazu berriz.” (E 840, 1903-7-31).

5. “Ahopaldi nasaiak zituen laketenik; sekula kasik ez biga, datxikola, josturaz berdin”, idatzi zuen J. Etxeparek (1915; Charritton: 1984: 171). Eta arrazoi du perpaus luze eta laburren edo egituren aldizkatzea, bai eta hats luzeko ahopaldiak zituela maiteenik esatean, lehen mintzaldietako estiloari dagokionez batik bat. Adémak kazetaren buruzagigoa uztearen kariaz Etxeparek hartaz idatzi artikuluan kritikoagoa ageri da Hiriart-Urrutiri buruz honen hilondokoan baino. Hain zuzen, “ahopaldiaren itzulika aberats bezain malguaz” eta itzul-inguruz Adémari nagusi zaion arren, “Ademaren erakaspena bakunago da, itzul-inguru gutiagorekin, eta orobat berdin mamitsu, izaitekotz mamitsuago”. “Zer elasturia batzutan, mami gutisko gordetzen bazuen ere azalak!” zioen Hiriart-Urrutiz jakintza argitua maite zuen Etxeparek. Are gehiago “noiztenka nahasixe zabilako ustearekin gelditzen ginen” (1915; Charritton: 1984: 231). Axularri buruzko idazlanean ere perpaus nasaien kontua lehenagokoena zela zeritzon: “Orai labor nahiago dugu izan, kasik motz”; “Eskualduner ginarritsu eta labor ederrago zaiku solasa” (Charritton: 1984: 244).

Baina batzuetan Hiriart-Urrutik perpaus eta paragrafo luzeak laburrekin aldizkatzen ditu, eta, azalpen luzexkoen ondoren, irakurleei zuzenduz, bere komentario laburrak egiten. Eta gero kontaeran estilo eliptikoa darabil maiz.

Bestalde, nahiz berrien kontalari nahiz hizlari ari zaigun, *brevitas* delakoa erranekin eta sententzia estiloarekin loturik ageri da. "Blancaire apeza" artikuluan dio:

"Mahastidun denak ikasi nahi; eta ikasteko ikusi." (E 828, 1903-5-1).

Estilo lakonikoa darabil agitazio idazkietan ("Larresoroko Semenariaoa", EO 50 1906-12-14). Edo kazeta edo almanaka heda eta saltzeko dei egiterakotan. Honelako batean, esaldi luze baten ondoren, dio:

"Galda gogotik, eta heda. Deno, balia." (E 805, 1902-11-21, EH, "Gure Almanaka").

Gero Hiriart-Urrutiren prosak erritmo harrigarria du, perpaus, hitz andana eta hitz luzeago eta laburragoen aldizkatzeak, eta, beraz, etenek sortarazia; edo perpaus barneko eta perpausen arteko hitzordenaren antolaketak (perpaus osagaien higikortasuna, kola luzeago eta laburragoak, egitura paraktikoak, egitura simetrikoko eta disimetrikoko txandaketzea). Bai eta hitz andana neurtu errimatuetan ere, edo esamolde egin biribiletan, hoskidetzak eta neurkerak, esanahiarekin jokatuz, sortua. Erritmo mota hau ez da, halere, Axularrena bezalakoa, hedatu eta orekatua, hitz andanaka etendua baizik.

6. Azken hitz, ondorio gisa. Hiriart-Urrutik mende laurdenez *Eskualduna* hazi, euskara onean biziari eta genero berriak ekarri dizkigu. Eta, batez ere, euskal prosa berritu, zalutu eta erritmotsuago bihurtu du, kazetari prosari eredu bat eskainiz.

Kazetari- eta idazle sena zituen batera. Jendearen ahoko mintzairaz eta erretorika jakintzaz baliatuz, diskurtso erretorikoaren elokuzio alderdia landu zuen bereziki. Hizkuntzaren adierazpide zaharrak biziberritu eta gatzetu zituen, baina bazekien ere kazetaritzak joskera eta forma ohargarriak behar dituela eta hizkuntzaren erabilera ohikoa sormen eta berritasun sen, aldakor-tasun, umore eta graziarekin ezkondu zuen.

Euskararen adierazkortasun eta libertateaz jabetuta, euskal esamolde jator eta bereziei gogoia emanik, joskura berriak nola sor, pikoak ontsa nola atzeman zerabilen gogoia, idazte lanean gozatuz eta oroz batean bere hatsa ahi-tuz. Egungo euskal kazetari nola idazleek, euskara berez bere jar dadin edo gatzelania-frantsesetarik bereizi nahi luketenek, balukete haren hiztegi jori eta bizi, joskera zalu, figura, hots eta erritmoaren senaz den bezainbatean zer ikas.

Laburdurak eta ikurrak:

E: *Eskualduna* ; EO: *Eskualdun Ona* ; EH: “Eskual-Herria” saila.

/: paragrafoaren bukaera eta hurrengoaren hasiera adierazten du.

BIBLIOGRAFIA

ALTZIBAR, X. (2001), “Irudizko lokuzioak Hiriart-Urrutiren kazetalanetan”. *Litterae Vasconicae*, 8, 161-224.

— (2003eko). “Erretorika gramatikaren gainetik: Hiriart-Urruti adibidetzat”, P. Lafitteren sortzearen mendemuga, Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, 2001eko irailaren 20-21ean. Baionan. *Euskal Gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*, Iker 14 (1), Euskaltzaindia, Bilbo, 2003, 81-118. orr.

AZKUE, R.M. (1969), *Euskalerrriaren Yakintza*², III, Madril, Espasa Calpe.

CAMINO, I. (1994), *Gontzetarik jalgiaraziak*. Klasikoak, EEE. Donostia.

CASENAVE, J. (1997), *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Thèse de Doctorat d'Etudes Basques. Université Michel de Montaigne-Bordeaux III.

CHARRITTON, P. (1982), “Lacombe eta Broussainen arteko elkarridazketa”. *Bulletin du Musée Basque*, 98. Lacombe Broussaini, 108 (1985), 109; 111.

— (1984), *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*. Elkar, Donostia.

— (1986), “Fonds Lacombe du Musée Basque. Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe (3-10-1903 / 9-4-1920)”. *Bulletin du Musée Basque* 111, bereziki 1, 2, 3, 7, 8.

DIAZ NOCI, J. (1994), “Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntz-ereduak”, *ASJU XXVIII-3*, 1994.

ESKUALDUNA: 1887-1903; 1908-1915. *Eskualdun Ona*: 1904-1907.

ETXEPARE, J. (1915), “Jean Hiriart-Urruti kalonjea (1859-1915)”. Ikus Charritton, 1984, 171-175.

— (1925), “Jean-Blaise Adema jauna (1861-1936)”. *Lecaroz*, 1925; in Charritton, 1984, 225-233.

ITHURRY (l'Abbé). (1895) (1979), *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. Imprimerie A. Lamaignère, Baiona. 1895. Hordago², Donostia 1979.

LAFITTE, P. (1944), *Zer eta zer*, Collection "Aintzina", Baiona.

— (1971), *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jakin (hitzaurrearekin). Jakin, Oñati.

— (1972), *Jean Hiriart-Urruty. Zezenak Errepublikan*. Jakin, Oñati.

MUJICA, G. (1915), *Eskualduna* 1493, 1915-12-10.

REBOUL, O. (1993), *La rhétorique*. P.U.F., Paris.

LOUIS-LUCIEN BONAPARTE ETA ITALIAKO DIALEKTOAK

Jose Antonio Arana Martija

Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi"ri eskainitako omenaldi liburu honetan parte hartzea ohorezko lana da niretzat, aspaldidanik ezagutzen dudana baita adiskide hau eta berak euskararen alde egindako lanak nire eta denon aitortze eta eskertzea merezi baitute. Euskara batuaren alde Baionan antolatu zen Biltzarraren bezperan, hots, 1964ko abuztuaren 28an, ezagutu nuen Txillardegi bere etxean, erbesteratuta zegoen garaian. Gero, hegoaldera itzuli zenean, Euskal Sozialista Biltzarrea (ESB) sortu zenean, euskararen erabilerarako batzordeñoan geunden biok (1976). Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren ardura hartu nuenetik (1978) harremanak izan ditugu bibliografia gaitan, eta hor geratzen da lekuko liburu honetan agertzen den Txillardegiren bibliografia gure bibliotekak paratua: euskararen inguruan idatzitako ia mila izenburu katalogatzen dira eta emaitza baliotsu honek sorrazten du mirespena eta euskaldunon aldetik esker ona aitortu beharra. Nire aldetik sentimendu horiek publikoki azaltzeko prestatu dut ikerketa hau, ezagutzen ez den gaiaren berritasunagatik nire adiskideari proposatu nionean interesgarria iruditu zitzaiona.

BONAPARTE ITALIAN

Oso ezaguna dugu Bonaparte Printzea Euskal Herrian. Gure herri honetara egin zituen bidaien ondoren burutu zituen ikerketak hainbat liburu eta artikulutan argitaratu zituen, eta gure artean asko izan dira pertsonaiak eta bere lanez hitzez eta idatziz aritu izan direnak. Esan beharko genuke -berak

hala aitortu zuen- gehien maite izan zuen hizkuntza euskara izan zela eta hori bakarrik nahiko da euskaldunon esker ona irabazteko. Baina argitara eman zituen 219 liburu eta lanetatik 68 euskaraz idatziak edo euskarari buruzkoak badira ere (%31,05), italiarari buruzkoak 50 dira (%22,83), datu honek adierazten digularik hizkuntzalaritzan eta dialektologian bigarren ikerketa alorra izan zuela; ahantzi ezina da hobeki ezagutzen zuen hizkuntza zela italiera, ia bizitzaren lehen erdian hitz egin zuena. Beste bizitzaren bigarren erdian Ingalaterran bizi izan zelarik, ingelesa zuen bere lanetan ikergai eta 43 argitalpen eskaini zizkion hizkuntza honi (%19,63).

Ikusten denez, mintzatzetakoan italiera izan bazen Bonaparteren lehen hizkuntza, ikerketa eta argitalpenetan bigarrena zen euskararen ondotik. Gehiago sakondu gabe, arrazoi bat aurkitzen diogu jarrera honi: Italian bizi izan zen azken bost urteetan arduratu zela hizkuntzalaritzarekin, hots, 1843tik 1848ra arte, berak dioskunez, eta epe labur horren barruan dialektologia lanetarako materialak biltzen ibili arren, ez zuela ezer argitaratu 1847. urtera arte, Florentzian kaleratutako *Specimen lexici comparativi omnium linguarum europaearum*, hain zuzen. Italiako dialektoei buruz argitaratu zuen lehen lana 1860koa da: *Alcune osservazioni linguistico-comparative sulla pronunzia del dialetto Genovese*¹. Ez da ahaztu behar dialekto hau ondo ezagutzen zuela Bonapartek, arbasoak korsikarrak zirelako eta uhartea Genovaren menpean egon zela XIII. mendetik XVIII.era arte. Baina Italiako dialektoei buruz 1860 urtekoa bada Bonaparteren lehendabiziko lana, esan behar da ordurako Londresen argitaratuak zituela Bibliaren itzulpenak, dialekto batzuetan, itzultzaile hauek eginak: Abis (1857), Spano (1858), Fontana, Picozzi, Rosa, Pozzo (1859). Guztiak San Mateoren Ebanjelioarenak, Abisena izan ezik, gero zehatzago ikusiko dugunez.

Korsikako hiriburua zen Ajaccion jaio zen 1775.eko martxoaren 21ean Lucien Bonaparte-Ramolino, gure Printzearen aita, Alexandrine Bleschampekin ezkondua. Semeak bezala, Printze titulua zeukan aitak, Caninokoa, Pio VII.ak emana. Ez zen Napoleon anaiarekin ondo konpontzen eta Estatu Batuetako bidea hartu zuen Civita-Vecchia portuan 1810ean; baina ingelesen atxilotu zuten eta Maltara eraman eta handik Ingalaterrako Plymouthera. Thorngrowe herrixkan (Worcester) aurkitu zuen erbesteko bizilekua eta han jaio zen, 1813ko urtarrilaren 4an Louis-Lucien Bonaparte

¹ CASACCIA, Giovanni: *Grammatica genovese-italiana*. 1860. Argitaragabeko gramatika honen eskuizkribua Bizkaiko Diputazioak daukan Bonaparteren ondarean gordetzen da. Beraz, badirudi Bonapartek ezagutzen zuela urte berean Genovako dialektoaren ahoskeraz aipatu lana prestatu eta argitaratu zuenean.

Bleschamp. Napoleon Bonapartek Waterlooko gudua galdu zuenean 1815eko ekainaren 18an, Borbondarren eskuetan utzi zuen Frantziako erreinua ekainaren 22an eta Luciano aitak aske ikusi zuen bere burua Italiara itzultzeko. Vienako Biltzarrean Pio VII.ak lortu zuenean Elizako lurraldeak eskuratzea, beraien barruan zegoen Musignano herrira etorri zen familiarekin Caninoko Printzea. Bi urte eta erdi zituen gure Louis-Lucien Bonapartek. Gutxi da honen haurtzaroaz dakiguna. Ezabatua zegoen Jesusen Konpainia berrezarri zuen Pio VII.ak eta Urbinon zabaldu zuten ikastetxean egin omen zituen Bonapartek estudioak 10 urterekin hasita 1824-1825 bitartean². Badirudi gero Florentzian bizi izan zela, Toskanako hiriburu horretan argitaratu baitzituen zientziarekiko lanak, bertako unibertsitatean eta Pisakoan Fisika eta Kimikako ikasketak egin ondoren³. Bestalde, 1832ko urriaren 4an, Florentzian ezkondu zen Maria Anna Cecchirekin; emaztearekin gaizki konpontzeaz gain, 1848an Italiatik Frantziara joan zenean, eta 1850ean Ingalaterrara, urruntze honek bien arteko banaketa gertarazi zuen betiko. Dena den, Cecchi andreak ez zituen Bonaparte familiarekiko harremanak eten; Ajaccion horiek zeukaten etxean bizi izan zen 1891ko martxoaren 16an hil arte. Tarbesen jaiotako Clémence Richard Grandmontagne euskaldunarekin ezkondu zen bigarrenez Louis-Lucien Bonaparte, lehen emaztea hil ondoren. Aita ere hil zitzaion, semeak, hogeita zazpi urte zituenean, 1840ko ekainaren 29an, eta ama hamabost urte geroago, 1855ean.

Nahiz eta zientzia gaiez ikasketak egin eta ikerlanak argitaratu, badirudi ez zirela guttiz gustukoak, hogeita hamar urte bete zituenean sartu baitzen beste mundu berri batean, hots, hizkuntzalaritzan. Hara zer dioskun berak:

*During my frequent excursions, undertaken with a merely linguistic object, from 1843-1869, throughout numerous localities of France, Switzerland, the two Neo-latin Peninsulas, and their adjacent islands...*⁴

eta geroxeago:

*"... collect from 1843 till 1883 in Italy, Spain, France, Belgium, Switzerland and the Channel islands..."*⁵.

² Urbinoako dialektuari buruz *Notes on the dialect of Urbino, the nasal sounds* argitaratu zuen Bonapartek Londresen 1888an. *A Urbino* oda ere urte berean idatzi zuen. Ikus nire *Bibliografia Bonapartiana*, 321, 319 fitxak.

³ ARANA MARTIJA, Jose Antonio: *Bibliografia Bonapartiana*. "Katalogoak 2" (Separata) eta *Euskera* 1991, 1. Ikus 148, 149 eta 150 fitxak.

⁴ BONAPARTE, Louis-Lucien: *Words connected with the vine in Latin and Neo-Latin dialects*. 1881-1882

⁵ BONAPARTE, Louis-Lucien: *Names of European reptiles in the living Neo-Latin languages*. 1882-1884

Aipatzen dituen estatuen ordena ez da kronologikoa, zalantzarik gabe Italian zehar hasiko zelako hizkuntzalaritzako ikerketetan. Baina *Specimen lexicum comparativum...*(1847) lexikografiako lehen lana aparte utzita, dialektologiari zuzendu zion lehen lana Ingalaterran egindakoa izan zen, 1851n argitaratu baitzuen *A specimen of the Vulgar Speech of the town of Gloucester*. Euskarazko itzulpenak etorriko dira gero eta Genovako dialektoaren ahoskeraz lehen aipatu duguna, Italiako lehena, ez da 1860 urtera arte helduko. Lehen ikusi dugu 1857an hasita argitaratu zituela Italiako dialekto batzuetara itzultitako Bibliaren zatiak, eta pentsatu behar da aspalditik zebilela itzultzaileekin harremanetan. Behar bada, 1848an Frantziara joan baino lehen.

Korsikan zegoela, 1848ko iraultza sortu zen Frantzian eta azaroaren 11rako antolatua zen Biltzar Konstituziogilerako izendatu zuten korsikarrek Louis-Lucien Bonaparte, eta kideza hori betetzeko Parisa jo zuen gure hizkuntzalariak, politika munduan sartuz. Baina, 1849ko urtarrilaren 9an ezabatu zituzten izendapenak; hala eta guztiz ere Parisen jarrailu zuen Cavagnari bere idazkariarekin irailaren 7ra arte, Sena departamendutik senatore izendatua izan zen datara arte, hain zuzen. Politikan murgildurik, bizpahiru urtetan hizkuntzalaritza baztertu beharrean aurkitzen da eta Italiatik kanpo sei urte egingo ditu.

Giza barnean ezinegona sortzen du lotan baina bizirik dagoen harrak, eta hori gertatu zitzaion Bonaparteri. II. Inperioa 1852an sortu eta eratu arte, Londresetik Parisa eta Paristik Londres a hainbat ostera egin behar izan zituen zeukan karguaren arabera. Politikatik aparte bazeraman buruan beste arduratutako bilduta zituen hizkuntzalaritzako datuak eta ikerketak nola argitaratu. Aukeratutako paper onean nahi zituen argitalpenak egin eta 1850.eko urtarrilaren 3an, Paristik Kent konderriko Maidstone herrira joan zen. Paper fabrika sonatuak zeuden herri honetan eta argitalpenetarako inprenta etxean jartzeko asmoa zuenez, paper egokiak aukeratzera joan zen.

Parisko kargu politikoak lanik gabe uzten zuen egunetan linguistikako ikerketak egiten ari izan zen. Esate baterako, berak idatzitako papertxo baten irakurtzen dugu honako hau: “...*de Sandgate à Londres, à Liverpool et à Douglas (Île de Man) sans interruption dans l'été de 1851 en passant la nuit en chemin de fer*”. Belgikan eta Frantzian zehar ibili zen 1852 eta 1853 urteetan, eta 1854.eko otsailaren 4an, larunbatez, Thorngrove jaioterria bisitatu ondoren, Frantzia eta Suitza bide batez bidaian aztertuz, Italiara jo zuen udaberrian bi hilabete eta erdirako bidaia linguistikoan.

Bonapartek Italian bizi izan zituen garaiak aipatzen dira lan honetan. Euskal Herrikoak ezagunak ditugu argitaratu diren ikerlan eta argitalpenetan.

Europako beste estatuetan izandakoak, interesgarriak noski, beste ikerlan baterako uzten ditut, baldin denborarik aurkitzen badut. Italiara 1854an egindako bidaiaz arituko naiz une honetan. Eta galdera bat sortzen zait: Zergatik eskuartean zerabiltzan beste hizkuntzetako dialektoak baztertuz agertu zitzaigun Italian? Aspalditik zekien italiara literario bakar bat idazten zela, XIII. mendean Toskanan, eta bereziki Florentzian sortua. Eredutzat hartuak zirenean idatzi zuten Dante Alighieri (Florentzia, 1265 – Ravenna 1321), Francesco Petrarca (Arezzo, 1304 – Arquà, 1374), Giovanni Boccaccio (Florentzia, 1313 – Certaldo, 1375). Gainera, Italiako batasun politikoaren bidean, Florentzia izan zen erreinu eta lurralde historiko guztien hiriburua 1865ean, denak bildurik eta batasuna eginaz Parlamentua Erroman 1871ko azaroaren 27an eratu zen arte. Baina bazekien hizkuntza literario batuaren azpian dialekto asko zeudela bizirik. Eta dialektologo gisa, hau guztia biltzea interesatzen zitzaion. Aspalditik harremanak zeuzkan dialektoetan mintzatzen zirenean jaun jakitunekin, idazten ere saiaturen zirenekin, bestalde. Baina dialektoen konparaketak egiteko, testu berdinak dialektoetara itzuliak behar zituen eskuartean, eta agindu gabeko testu batzuk jasoak izan arren, Bibliako lau liburu nahi zituen itzularazi: San Mateoren Ebanjelioa, Salomonen Canticorum cantica, Ruthen eta Jonasen liburuak. Lehenago Italian egon zen garaian, 1848 urtera arte, itzulpen batzuk aginduak zeuzkan, beste batzuk gutun bidez eskatuak, eta eginda zeudenak jasotzera etorri zen. Baina hutsuneak zeudenez bildutakoen artean, itzulpenak eskatzera etorri zen 1854an. Arraro samar egiten zaigu bidaia honetan ez zituela ukitu Korsika, Sardinia eta Sizilia uharteak eta Erromatik hegoalderako lurraldeak. Astiaren faltaz? Behar zuen beste informazio lehendik zeukalako? Agian. Bigarren arrazoi bat ere nabaritzen da antolatu zuen bidaian: idazleen testuak ez ezik, beharrezkoa zuela hiztunekin mintzatzea, herritarren hizkeraz idatzitakoa baieztatzeko.

Eskuizkribu interesgarria utzi zigun, frantsesez bere eskuz idatzia, bidaiaren egunaria emanaz, jarraian transkribatzen dudana:

1854

Mars,	10, V.	+ Lyon 1,30		+ Alexandrie 8,30
		- Lyon 2,30		- Alexandrie 10,30
	11, S.	+ Chambery 2		+ Pavie 5,30
		- Chambery 11		- Pavie 8
	12, D.	+ Turin 3 p.	17, V.	+ Milan 12,15
	15, Me	- Turin 6	19, D.	- Milan 12,15
		+ Gênes 11		+ Brescia 9
	16, J.	- Gênes 6	20, L.	- Brescia 9,15

21, M.	- Venise 10	8, S.	+ Foligne 5,30 p.
24, V.	- Venise, 10,30		- Foligne 8
	+ Padoue 12,30	9, D.	+ Rome 1,30
	- Padoue 5	18, M.	- Rome 11 p.
	+ Vicence 6,30	19, Me	- Montefiascone 10,30
25, S.	- Vicence 8		- Montefiascone 1
	+ Mantoue 11		+ Canino 6,30
	- Mantoue 2,40	20, J.	- Canino 1 p.
	+ Verone 4	21, V.	- Sienne 2,30
26, D.	- Verone 6		- Sienne 4,20
	+ Venise 10,30		+ Florence 7,30
27, L.	- Venise 6	30, D.	- Florence 9,15
	+ Venise 9,30	Mai, 1, L.	+ Pianoro 9,15
	- Venise 4,20		- Pianoro 9,30
	+ Padoue 8		+ Bologne 11,30
28, M.	- Padoue 7		- Bologne 12,30
	+ Ferrare 1		+ Modène 3,30
	- Ferrare 3		- Modène 4
	+ Bologne 8,30		+ Reggio 5,30
31, V.	- Bologne 8		- Reggio 6
	+ Imola 9,30		+ Parme 9,15
	- Imola 10	2, M.	- Parme 9,45
	+ Faenza 12,30		+ Plaisance 2
	- Faenza 1		- Plaisance 3
	+ Pesaro 11		+ Lodi 4
Avril, 1, S.	- Pesaro 11,10		- Lodi 4,15
	+ Sinigaglia 12,30		+ Milan 9,15
	(ama ikustera)	3, Me	- Milan 2,30
	- Sinigaglia 1		+ Arona 8,30
	+ Ancone 4	4, J.	- Arona 8
4, M.	- Ancone 2 p.		+ Simplon 9
	+ Sinigaglia 4	5, V.	- Simplon 8
5, Me.	- Sinigaglia 12		+ Brigue 4,30
	+ Ancone 2,30		- Brigue 6
7, V.	- Ancone 11 p.		

Bitxiak dira ematen dizkigun datuak: data eta astegunetik aparte, hiri bakoitzera heltzen deneko (+) ordua eta irteerakoa (-). Erroman zortzi egun betetzen ditu eta Florentzian zazpi. Badirudi, gero Euskal Herrian egingo zuen bezala, lanerako deituak biltzen zituela halako egonaldi luzeetan, ingu-

ruetako hiztun eta jakitunekin Akademia antzekoa antolatzeko. Ez dakigu Italiara berriz etorri zenik, baina dialektoen argitalpenak prestatzeko harreman ugariak izan zituen laguntzaileekin, eta badakigu baten bat Londresen egon zela elkarrekin lan egiten eta azken ukituak liburuei ematen.

Hogeita hamazazpi urte geroago atsedean apur bat gozaten joan zela badakigu. Begietako lausoa edo gandua kentzeko ebakuntza egin zioten 1891ko irailean eta Londresetik Italiako Fano herrira joan zen, loba zuen Bracchi kondesaren etxera. Han hil zen 1891ko azaroaren 3an. Heriotza hau dela eta, Jorge Riezuk eman zidan Italiatik kaputxino adiskide batek igorri zion txartela, non irakurtzen den:

Parrocchia S. Marco di Fano.

Nelli atti di morte della Parrocchia. Vol. XXVI – pag. 14 – si legge quanto segue:

Anno Domini 1891, die 12 Novembris.

Aloisius Lucianus Filius quondam Luciani e Principibus Bonaparte, anno aetatis suae septuagesimo nono, in finem vergente, die tertia mensis currentis hora 6 et dimidia ante meridiem paene extemplo e vita decessit apud familiam Comitis Iuliani Bracci huius Pareciae. Mense superiori valde iam aegrotans Londino nostram urbem petiit. Percrevescente autem aegritudine, ad extremum venit. Tunc, infrascriptus vocatus, deficiente tempore, absolutionem tantum sub conditione impertivit. Cadaver eiusdem sero ab hac urbe Londinum translatum est, sepulchro quod sibi elegerat, tumulandum. In quorum fide. Philumenus Canonicus Tomassoni- Sancti Marci Rector.

Txartel berean, elizak emandako agiriaren ostean, zibila ere badator hala dioena:

Il medesimo atto si ritrova anche allo Stato Civile del Comune di Fano: Atti di morte del 1891, N. 388. Le notizie si equivalgono. Vi si dice che il Bonaparte è nato a Thorgrove (sic) (Inghilterra) ed era residente a Londra. Mori in Fano, in Via Garibaldi n. 7, il 3 novembre, alle ore 6.-

Agiri hauek ematen ditut hemen, nik dakidanetik, inon argitaratu ez direlako eta Bonaparteri buruz xehetasun interesgarri ez ezagunak ematen dituztelako.

Londresen nengoela 1986ko udaberrian, St. Mary's Cemetery ikustera joan nintzen apirilaren 10ean, Bonaparteren hilobia han aurkituko nuelakoan. Alboan itxita dagoen Kensal Green kanposantura joan nintzen bezpera arra-

tsaldean, han lurperatuta zeudenen erroldak badaezpada kontsultatzera, eta ez nuen Bonaparte deiturarik aurkitu. Aipatu St. Mary kanposantura hurrengo egunean joanda, sasiak eta belarrak kendu ondoren harrizko hilobi ederra topatu nuen, non irakurtzen den:

HERE IN THIS SARCOPHAGUS
H.H. THE PRINCE LOUIS-LUCIEN BONAPARTE
SENATOR OF FRANCE GRAND CROSSE OF THE LEGION OF HONOUR
AND DOCTOR OF THE UNIVERSITY OF OXFORD
SON OF
LUCIEN BONAPARTE
THE MOST DISTINGUISHED BROTHER OF NAPOLEON 1st. AND FIRST
PRINCE OF CANINO
HE WAS IN EARLY LIFE A STUDENT OF CHEMISTRY
AN UNTIL HIS OLD AGE DEVOTED TO COMPARATIVE PHILOLOGY
BORN AT THORNCROWE NEAR WORCESTER 4th JANUARY 1813

*Miserere mei Deus secundum magnam misericordiam tuam
Christe Redemptor mundi Deus salvum me fac
Sancta Maria Mater Dei ora pro me*

Epitafio hau Louis-Lucien Bonapartek berak utzi omen zuen idatzita bere hilobian jar zezaten. Hala dirudi, testuan ez baita agertzen, idatzi zuenean ez baitzekien, heriotzako data ez tokia. Aitarekiko begirunea aitortzen zuen semeak eta tituluetatik aparte egin zituen lanen arloak ondo finkaturik utzi zituen epitafio luze honetan. Bere fede eta sinismenaren aitormena ere agerian utzi nahi izan zuen. Beraz, Bonaparteren nolabaiteko biografia laburra dugu Londreseko hilobian jarria.

ITALIAKO DIALEKTOAK

Epitafioan irakurtzen denez, Bonapartek biziaren bigarren zatian izan zuen ardura eta zereginaren definizio laburra ematen digu: "*devoted to comparative philology*". Hizkuntzalaritzan egin zituen lanak laburbiltzeko konparatibista gisa ikusi zuen bere burua. Lexikologia, gramatika (bereziki aditza) eta fonologia izan ziren dialektologia ikerketetan erabili zituen oinarriak. Azken finean, dialektologoa izan zen Bonaparte eta **Dialektologiaren aita**. Fonologia dela eta, belarri onekoa zela diosku José Vilallongak, eta hortik zetorren hitzunen mintzaira entzuteko zeukan gogo bizia.

Italiako dialektoak maiz aztertuko zituen eta egindako zirriborroez gain (gordetzen ez direnak, noski), bizpahiru behin-behineko sailkapen, kronologikoki aldi desberdinetan eginak, geratzen zaizkigu. Tamalez datarik gabekoak dira eta noizkoak diren ezin dugu jakin.

Egindako sailkapen horiek Bizkaiko Foru Diputazioaren Bibliotekan daude paperean eta mikrofilmetan. Aipamen bibliografikoak eta mikrofilmen kodeak ematen dira Euskaltzaindiak 1989an argitaratu zuen Katalogoan, hots, *L. L. Bonaparte. Eskuizkribuak-Argitalpenak / Manuscritos-Publicaciones*. Liburu honetan ikus daitezke aipatu sailkapenak eta Bonapartek bildu zituen Italiako eskuizkribu guztiak: itzulpenak, olerkiak, gutunak eta beste eratako idazkiak, dialektoka sailkatuak. Asko direnez (Katalogoaren 396. fitxatik 460.era arte) ezin ditut hemen zerrendatu. Interesatuak Katalogora jo beza, eta hortik mikrofilmetara. Argitu behar dut mikrofilmak Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen Biblioteketan daudela, baita Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Sailkapenei buruz zerbait azaldu behar dut. Lau egin zituen, edo ezagutzen ditugunak lau dira:

1. Katalogoko 399 bis fitxa: a) bi orrialdeetan 200 herri edo zerrendatzen ditu, lehen begirada baten aztergai ikusten dituenak. b) Beste bi orrialdeetan 16 "lingua" desberdin zerrendatzen ditu, bakoitzaren "Famiglia, Ramo eta Gruppo" bereiztuz: 31 famiglia, 63 ramo eta 217 gruppi dira zerrendatzen dituenak.
2. Katalogoaren 398. fitxa: hamar orrialde dira, zeinetan ematen dituen herrika sailkatuak 63 ramo (edo hizkuntza desberdinen adarrak), bakoitzaren hiriburua edo lurraldea eta inguruan edo barnean dauden dialekto horren herriak.
3. Katalogoaren 397. fitxa: hemezortzi orrialde dira sailkapen hau ematen digutenak. Orrialde bakoitzean bost zutabe daude: 1. Famiglia, 2. Rami, 3. Gruppi, 4. Luoghi, 5. Provincie. Hamasei hizkuntzak orrialdearen erdian datoz sailkatuak, bost zutabeen gainean dagozkien tokian. Sailkapen honek izenburua darama: *Dialecti d'Italia* eta orain arteko sailkapenetan herriak soilik aipatu baditu, hemen dialektoen eta azpidialektoen izenak ematen ditu. Hau da segidan emango dudana sailkapena, osoena eta sistematikoena iruditzen zaidalako.
4. Katalogoaren 399. fitxa: hemezortzi orrialde dira guztira. Sailkapen fonetikoa dakar, hots, dialekto eta azpidialekto guztiak bereizteko marka gramatikalak eta zeinu fonetikoak jarritz. Bonapartek ahalegin guztiak egiten zituen testuak ortografia batuan argitaratzeko eta sail-

kapen honetan ikusten denez, ahoskerako zeinu fonetikoetan ere lan eskergarria egin zuen dialekto guztietarako zeinu berdinak, bateratuak erabiliz. Dialektologoentzat garrantzitsua dela sailkapen hau iruditzen zait; baina nire lanaren edukitik kanpo geratzen da, alor horretan sartzeko ikerketa luzea egin beharko litzaketelako.

DIALETTI D'ITALIA

Famiglie	Rami	Gruppi	Luoghi
I. LINGUA ROMAICA			
1. ROMAICA	1. Greco 2. Napoletano	1. Corso 2. Napoletano	Cargese (Corsica) Bova (Calabria), Calimero (Otranto)
II. LINGUA ALBANESA			
2. TOSCA	3. Albanese 4. Italiano	3. Abruzzese 4. Non Gheghizzante 5. Gheghizzante	Badesa (Abruzzo) Frascineto (Calabria), Contessa (Palermo), Greci (Principato) Barile (Basilicata), Ururi (Molise), Piana de Greci (Palermo)
III. LINGUA ITALIANA			
3. TOSCO-LATINA	5. Toscano-Romano	6. Toscano 7. Corso Cismontano 8. Grossetano 9. Aretino 10. Umbro 11. Viterbesse 12. Romano	Papiano (Arezzo), Firenze, Pistoia, Prato, Livorno, Camaiore, Lucca, Massa, Pisa, S. Gimignano, Siena, Ragusa (Dalmazia) Rogliano (Corsica), Bastia, Isola Rosa, Valle d'Alesani Arcidosso (Grosseto), Pitigliano, S. Fiora Arezzo, Cortona, S. Sepolcro, Città di Castello (Umbria) Assisi, Perugia, Todi Acquapendente (Roma), Grotte de Castro, Montefiascone, Viterbo, Orvieto (Umbria) Roma, Ronciaglione, Spoleto (Umbria)

4. NAPOLETANA	6. Sardo-Corso	13. Marchigiano anconitano	Ancona, Arcevia, Fabriano, Tesi, Loreto, Costacciaro (Umbria)
		14. Marchigiano centrale	Cupramontana (Ancona), Filottranto, Osimo, Amandola (Ascoli Piceno), Apiro (Macerata), Camerino, Cingoli, Civitanova, Macerata, Mogliano, Tolentino, Treia
		15. Marchigiano meridionale	Fermo (Ascoli Piceno), Grottamare, Monterubbiano, Rapagnano
		16. Sangiorgino	Porto S. Giorgino
		17. Petritolese	Petritoli
		18. Sabino	Palombara (Roma), Rieti (Umbria)
		19. Aquiliano	Aquila (Abruzzo), Anagni (Roma)
		20. Campagnino	Albano, Ariccia, Guarcino, Roma (Campagna), Veroli, Zagarolo
		21. Alatrino	Alatri
		22. Sassarese	Sassari (Sardinia)
		23. Tempiese	Tempio (Sardinia)
		24. Madalense	La Madalena (Sardinia)
		25. Corso-oltramontano	Aiaccio (Corsica)
	7. Campano	26. Napoletano	Barano d'Ischia, Caivano, Napoli, Pomigliano, Nocera de Pagani (Principato), Revello, Sessa Aurunca (Terra Lavoro)
		27. Principatense	Benevento, Filetta, Salerno, Ariano di Puglia, Avellino, Bagnoli Irpino, Mercogliano, Montella, Sturno, Nola (Lavoro)
		28. Morconese	Morcone (Benevento)
		29. Moliternino	Moliterno (Basilicata), S. Martino d'Agri, Saponara, Senise, Spinoso
		8. Abruzzese	30. Chietino
	31. Canosino		Canosa Sannita

	32. Lancianese	Lanciano
	33. Atessano	Atessa
	34. Sanmariano	Villa S. Maria
	35. Teramino	Teramo (Abruzzo Ulteriore)
	36. Santangiolino	Città S. Angelo
	37. Solmonese	Solmona (Abruzzo Ulteriore)
	38. Accumolese	Accumoli
	39. Ascolano	Ascoli, Montefortino, Norcia (Umbria)
	40. Ripano	Offidea (Ascoli Picano), Ripatransone
	41. Pietramelarese	Pietramelara (Terra di Levoro)
	42. Lavorino	Arpino, Formia, Castelluccio di Sora
	43. Cerretino	Cerreto (Benevento)
9. Abruzzese Centrale	44. Castellese	Castelli
	45. Bucchianicano	Buchianico (Abruzzo Citeriore)
	46. Palenate	Palena
	47. Gessopalenate	Gesso-Palena
	48. Pratolano	Pratola Peligna (Abruzzo Ulteriore)
	49. Agnonese	Agnone (Molise)
	50. Montenerino	Montenero di Bisaccia
10. Pugliese Settentrionale	51. Foggese	Foggia (Capitanata), Lucera di Puglia
	52. Campobassese	Campobasso (Molise), Larino, Morrone del Sannio, S. Martino in Pensilis, Toro
	53. Limosanese	Limosano
	54. Lesinate	Lesina (Capitanata)
	55. Giovannese	S. Giovanni Rotondo
	56. Calitrino	Calitri (Principato), Montecalvo Irpino
	57. Melfitano	Melfi (Basilicata)
	58. Baselicano	Baselice (Benevento), S. Bartolommeo
11. Pugliese centrale	59. Biscegliese	Bisceglie (Terra di Bari)

5. SICILIANA

12. Pugliese Meridionale

13. Otrantino

14. Calabrese Settentrionale

15. Castrovillarino

16. Siciliano

60. Andriano
 61. Molfettano
 62. Bitontino
 63. Modugnese
 64. Altamura
 65. Ruvese
 66. Tranese
 67. Cerignolano
 68. Canosino
 69. Terlizzone
 70. Tarantino
 71. Barese
 72. Massafrano
 73. Materano
 74. Titano
 75. Cisterninese
 76. Lecce
 77. Copertinese
 78. Galatone
 79. Brindisino
 80. Cosentino
 81. Cellarese
 82. Cortalese
 83. Sampietrino
 84. Nicasrino
 85. Castrovillarino
 86. Siciliano

Andria
 Molfetta
 Bitonto
 Modugno
 Altamura
 Ruvo di Puglia
 Trani
 Cerignola (Capitanata)
 Canosa di Puglia (Terra di Bari)
 Terlizzi
 Taranto (Terra d'Otranto)
 Bari
 Ferrandina (Basilicata), Massafra, Ostuni
 Matera (Basilicata, Putignano (Bari)
 Tito (Basilicata)
 Cisternino (Terra di Bari)
 Arnesano (Terra d'Otranto), Lecce
 Copertino
 Aradeo, Galatone, Maglie, Specchia
 Brindisi
 Aprigliano, Cosenza, Grimaldi, Scigliano
 Cellara
 Cortale
 S. Pietro Apostolo
 Nicasrino
 Castrovillari
 Girgenti, Borgetto (Palermo), Capaci, Corleone, Palermo (parziale), Termini Imerese, Castellamare (Trapani), Marsala, Mazara, Monte S. Giuliano, Salaparuta

6. VENEZIANA

17. Calabrese Meridionale

18. Gallizzante

19. Veneziano

87. Palermitano
 88. Messinese
 89. Liparino
 90. Caltanissettano
 91. Ciancianese
 92. Modicano
 93. Castrogiovannese
 94. Canicattino
 95. Novarese
 96. Catanzarese
 97. Monteleonese
 98. Tropeano
 99. Paracorianese
 100. Reggiano
 101. Nicosiota
 102. Veneziano

Palermo
 Acireale (Catania), Catania, Nicolosi, Troina, Gualtieri
 Sicamino, Messina, Augusta, Avola, Siracusa
 Lipari (Messina)
 Caltanissetta
 Cianciana (Girgenti)
 Resultano (Caltanissetta), Assoro (Catania), Alimena
 (Palermo), Pollina, Modica (Siracusa), Noto
 Castrogiovanni (Caltanissetta), Gangi (Palermo)
 Vallelunga (Caltanissetta), Canicatti (Girgenti),
 Casteltermeni
 Novara di Sicilia (Messina)
 Catanzaro
 Monteleone
 Tropea
 Paracorio
 Bovalino, Calanna, Palmi, Regio Calabria
 Nicosia (Catania)
 Padova, Piove di Saco, Villa Estense, Villatora, Adria
 (Rovigo), Badia, Boara, Bottighe, Castel Guglielmo,
 Grignano, Lendinara, Loreo, Porto Tolle, Rovigo,
 Castelfranco Veneto (Treviso), Treviso, Pordenone
 (Udine), Burano, Cavarzere, Chioggia, Dolo, Giuaecca,
 Malamocco, Mestre, Murano, Noale, Pellestrina, Scorze,
 Venezia, Fumane (Verona), Soave, Verona, Bassano
 (Vicenza), Lonigo, Meledo, Schio, Vicenza, Città
 Vecchia (Dalmazia), Sebenico, Spalato, Zara, Albona
 (Istria), Capodistria, Cherso, Pisino, Trieste, Fiume
 (Litorale Ungarico), Borgo (Tirolo italiano), Strigno

7. FRANCA	20. Istriano 21. Franco	103. Rovignese 104. Dignanese 105. Franco	Pola (Istria), Rovigno Dignano, Peroi Algeri
IV. LINGUA GENOVESE			
8. GENOVESE 9. FRANCESE	22. Genovese 23. Emiliano 24. Piemontese 25. Francese	106. Genovese 107. Tabarchino 108. Sarzanese 109. Monachese 110. Borgotarese 111. Castelnovese 112. Vezzanese 113. Cuneese 114. Alessandrino 115. Francese	Chiavari (Genova), Finalborgo, Genova, Marola, Sassello, Savona, Stella, Toirano, Borghetto S. Niccolo (Porto Maurizio), Perinaldo, Porto Maurizio, S. Remo, Taggia, Ventimiglia Isola di S. Pietro (Cagliari) Sarzana (Genova), Spezia Monaco Bedonia (Parma), Borgotaro, Compiano, Tarsogno Castelnuovo di Magra (Genova) Vezzano Ormea (Cuneo), Priola, Tenda Gavi (Alessandria), Novi Ligure, Rigoroso Biot (Alpi Marittime), Villauris, Escragnoles, Mons (Varo)
V. LINGUA SARDA			
10. LOGUDORESE 11. CAGLIARITANA	26. Logudorese 27. Cagliaritano	116. Logudorese 117. Cagliaritano	Macomer (Cagliari), Logudoro, Bitti(Sassari), Bolotana, Luras, Ozieri, Padria Cagliari
VI. LINGUA CATALANA			
12. CATALANA	28. Catalano	118. Algherese	Alghero (Sassari)

VII. LINGUA PROVENZALE			
13. PROVENZALE	29. Nizzardo	119. Nizzardo	Nizza (Alpi Marittime)
14. MENTONESE	30. Mentonese	120. Sospellese	Sospello
15. FENESTRELLANO	31. Fenestrellano	121. Bollenese	Bollena
		122. Mentonese	Mentone
		123. Fenestrallano	Gravere (Torino), Melezet, Pramolle
VIII. LINGUA FRANCO-PROVENZALE			
16. SAVOIARDA	32. Savoiaro	124. Savoiaro	Aime (Savoia), Albertville, Chambéry
	33. Mauriennese	125. Alto Savoiaro	Annecy, Boneville, Rumilly, S. Julien, Thonon
17. AOSTANA	34. Aostano	126. Mauriennese	S. Jean de Maurienne (Savoia)
18. VALSOANESE	35. Valsoanino	127. Aostano	Aosta (Torino)
		128. Valsoanino	Valsoana
IX. LINGUA GALO-ITALICA			
19. LOMBARDA	36. Occidentale	129. Milanese	Como, Dongo, Erba, Lecco, Missaggiola, Proserpio, Varese, Busto Arsizio, Codogno, Gallarate, Lodi, Milano, Monza, Novara, Mortara (Pavia), Lugano (Ticino), Mendrisio
		130. Vigevanasco	Vigevano (Pavia)
		131. Valtellino	Grosio (Sondrio), Sondrio, Tirano, Poschiavo (Grigioni)
		132. Bormino	Bormio (Sondrio)
		133. Livignasco	Livigno
		134. Brusasco	Brusio (Grigioni)
		135. Basso Bregaglioto	Sotto-Porta
		136. Alto Bregaglioto	Bregaglia

20. PIEMONTESE	37. Orientale	137. Alto Mesolcino	Mesocco
		138. Basso Mesolcino	Roveredo
		139. Blegnino	Val di Blenio (Ticino)
		140. Leventino	Faido, Giornico
	38. Pianigiano	141. Valverzasco	Val Verzasca
		142. Locarnese	Locarno, Onsernone
		143. Valmaggiese	Val Maggia
		144. Verbanese	Castelletto sopra Ticino (Novara), Ceppomorelli, Domodossola, Maggiora, Varallo
		145. Bergamesco	Bergamo, Martinengo, Ranica, S. Omobono, Treviglio, Valsecca, Avenone (Brescia), Bagolino, Brescia, Capo di Ponte, Maderno, Montechiaro sul Chiese, Salo, Trobiolo, Verolanuova, Breno, Crema (Cremona), Canneto sull'Oglio (Mantova), Castiglione delle Stiviere, Cavriana, Guidizzolo
		146. Cremonese	Cremona, Olmenetta, Bozzolo (Mantova)
		147. Tirolese	Malcesine (Verona), Strembo
	39. Alpigiano	148. Pianigiano	Asti (Alessandria), Cuneo, Revello, Saluzzo, Chieri (Torino), Monte da Po, Pinerolo, Torino
		149. Alpigiano	Chiamorio
		150. Calabrese	Guardia (Calabria Citeriore)
	40. Capitanatese	151. Principatese	Guardia Lombarda (Principato Ulteriore)
41. Canavese		Celle di S. Vito	
42. Biellese	152. Capitanatese	Trino (Novara), Corio (Torino), Ivrea, Palazzo Canavese, Piverone, Sale Castelnuovo, Valchiusella, Valperga, Vico Canavese	
	153. Canavese	Biella (Novara), Desana, Pettinengo, Vercelli	
	154. Biellese	Alessandria, Carpeneto, Casal Cermelli, Casale Monferrato, Fresconara, Vignale	
	43. Monferrino	155. Alessandrino	

21. EMILIANA

44. Mondovita

45. Siciliano

46. Meridionale

47. Orientale

48. Occidentale

49. Romagnuolo

156. Albese

157. Mondovita

158. Fratellese

159. Aidonese

160. Piazzese

161. Bolognese

162. Frignanese

163. Carrarese

164. Ferrarese

165. Mantovano

166. Parmigiano

167. Piacentino

168. Pontremolese

169. Settentrionale

Alba (Cuneo), Bagnasco, Bastia-Mondovi, Ceva, Cortemiglia, Govone, Serravalle delle Langhe

Mondovi, Murazzano

S. Fratello (Messina)

Aidone (Caltanissetta)

Piazza Armerina

Bologna, Budrio, Crevalcore, Medicina, Porretta, S. Giovanni in Persiceto, Cento (Ferrara), Carpi (Modena), Concordia, Fanano, Finale, Fiorano Modenese, Modena, Pavullo, Pievepelago, Savignano sul Panara, Vignola, Brescello (Reggio), Correggio, Novellara, Poggio, Reggio d'Emilia

Sestola (Modena)

Avenza, Carrara, Fivizzano, Licciana, Sillano

Codigoro, Comacchio, Ferrara, Ostiglia (Mantova), Ariano (Rovigo), Cenese, Corbola, Crespino, Ficarolo, Massa, Mellara, Occhiobello, Papozze, Polesella, Stienta Mantova, Poggio Rusco, Viadana, Mirandola (Modena), Guastalla (Reggio), Valeggio sul Mincio (Verona)

Busseto, Lugagnano, Parma, Zibello

Valenza (Alessandria), Bobbio (Pavia), Gropello, Pavia, Voghera, Fiorenzuola d'Arda (Piacenza), Minticelli d'Ongina, Piacenza

Pontremoli (Massa e Carrara)

Imola (Bologna), Fiorenzuola (Firenze), Marradi, Modigliana, Palazzuolo, Rocca S. Casiano, Cesena (Forli), Forli, Savignano di Romagna, Bagnacavallo (Ravenna), Brisighella, Castell Bolognese, Cervia, Faenza, Lugo, Ravenna

22. MARCHIGIANO SETTENTRIONALE	50. Marchigiano Settentrionale	170. Meridionale 171. Fanese 172. Sinigagliese	Rimini (Forli), Pesaro, S. Marino Fano, Urbania, Urbino Montemarciano (Ancona), Sinigaglia
X. LINGUA LADINA			
23. TIROLESE	51. Tirolese	173. Gardenese 174. Marebbano 175. Badioto 176. Alto Fassano 177. Basso Fassano 178. Alto Fiemmazzo 179. Livinalse 180. Ampezzano 181. Oltrechiusigiano 182. Cadorino 183. Comelicano 184. Vajontese 185. Sacilese	S. Udalrico (Tirolo) La Valle, S. Martino e Lungiaru, Mareo Badia, Corvara Val di Fassa Superiore Val di Fassa Inferiore Moena Livinallongo Ampezzo Vodo (Belluno) Auronzo, Pieve di Cadore Padola Vajont (Udine) Sacile
24. LADINO-VENETA	52. Bellunese 53. Trentino	186. Trentino 187. Roveretano 188. Valrumano 189. Solandro 190. Nonese Occidentale 191. Nonese Orientale 192. Basso Fiemazzo 193. Valcembro 194. Lamonese	Baselga (Tirolo), Mezzolombardo, Trento Arco, Riva di Trento, Rovereto Val di Rumo Val di Sole Cles, Tueno Corredo, Fondo, Revo Val di Fiemme inferiore Valcembra Lamon (Belluno)

	54. Bellunese	195. Bellunese 196. Trevigiano 197. Agordino Meridionale 198. Agordino Centrale 199. Zoldano 200. Valfiorentinese 201. Roccheggiano	Belluno, Feltre, Mel, Piai, Pieve d'Alpago, Vezzano Asolo (Treviso), Conegliano, Montebelluna, Oderzo, Vittorio, Cavazuccherina (Venezia), Corvolone sul Livenza Agordo (Belluno) Agordino Centrale Forno de Zoldo Valfiorentina Rocca d'Agordo
XI. LINGUA FRIULANA			
25. FRIULANA	55. Friulano 56. Istriano	202. Udinese 203. Pordenonese 204. Clautino 205. Carniello Occidentale 206. Carniello Orientale 207. Clausettino 208. Maniaghese 209. Triestino 210. Muggiano	Cividale (Udine), Dignano, Gemona, Latisana, S. Da- niele, S. Lorenzo di Soleschiano, Udine, Aquileia (Gorizia), Gorizia Pordenone (Udine) Claut Ampezzo Arta Vito d'Asio Maniago, Spilimbergo, Tramonti di Sopra Triestre (estinto), Istria Muggia
XII. LINGUA VALACCA			
26. ISTRIANA	57. Istriano	211. Istriano	Berdo

		XIII. LINGUA TEDESCA	
27. ALEMANNA	58. Svizzero	212. Piemontese	Alagna (Novara), Formaza, Macugnaga, Gressoney (Torino), Bosco (Ticino)
28. BAVARA	59. Tirolese 60. Stirio	213. Veneto 214. Udinese	Selva di Progno (Verona), Asiago (Vicenza) Sauris (Udine)
XIV. LINGUA ILLIRICA			
29. ILLIRICA	61. Illirico	215. Napoletano	Acquaviva Collecroce (Molise)
XV. LINGUA SLOVENA			
30. SLOVENA	62. Sloveno	216. Udinese	Rodda (Udine), S. Pietro al Natisone
XVI. LINGUA MALTESE			
31. MALTESE	63. Maltese	217. Maltese	Malta

ARGITALPENAK

Esana da, aurreko lerroetan, zeintzuk diren Bonapartek idatzi zituen lanen eskuizkribuak eta bestek itzulitakoenak. Halaber, non gordetzen diren, paperetan eta mikrofilmetan. Tartean daude Italiako dialektoei dagozkienak, eskuizkribuen *Katalogoan* zehazki deskribatzen direnak. Hauetatik asko argitaratu egin zituen eta ikertzaileentzat interesgarria izango denez, datu bibliografikoak eman nahi nituzke.

Italiari buruz ezer esan baino lehen, esan dezadan 1855 eta 1858 urteen bitartean Ingalaterrako dialektok ikertzen ibili zela eta aipatu azken urtetik 1863 arte 34 liburu atera zituela hango dialektoei buruzkoak. Frantzian egin zituen ikerketekin 6 liburu kaleratu zituen 1863 eta 1864an. Baina Europako dialektoen ikerketetan bereziki sartu aurretik, bigarren liburu poliglota ematen digu 1857an (lehen hamaur urte lehenago, 1847an, argitaratu zuen *Specimen lexici comparativi...*⁶), non biltzen dituen Europako 52 hizkuntza eta dialekto: *Parabola de Seminatore, ex Evangelio Mathaei, in LXXII Europaeas linguas ac dialectos versa et romanis characteribus expressa*⁷. Hemen agertzen dira latinezko testua eta honako itzulpen hauek: “Italice, Pedemontana, Valachice (Istria)”, Italiari dagozkionak. Dialektoka egindako lanetan, lehen aipatu dugun 1860koa da Italiari dagokion lehen, hots, genovesaren ahoskerakoa.

Bonapartek berak ikertu eta argitaratutako lanekin jarraituz, hauek dira urteka argitaratu zituenak, dialektok kontutan hartuz⁸.

- 1861 – romano (171), tempiese (172), siciliano (173), calabresse (176)
- 1866 – sardo-sassarese (199)
- 1867 – corso (204)
- 1868 – pianota (297)
- 1873 – sassarese (220)
- 1877 – corso (247, 248, 249)
- 1881 – sassarese (287)
- 1882 – sardinia (294), albanian d’Otranto (303)
- 1888 – Urbino (321), napolitano, siciliano (322)
- 1889 – napolitano, siciliano (325)

⁶ *Specimen lexici comparativi omnium linguarum europaearum. Opera et studio Ludovici Luciani Bonaparte. Florentia 1847.*

⁷ Londres 1857.

⁸ Zenbakiak nire *Bibliografia Bonapartiana* liburuan dialekto bakoitzari xehetasun gehiago ematen dioten fitxenak dira.

Badirudi, zerrenda hau ikusita, Korsika, Sardinia eta Sizilia uhartetako dialektoak izan zirela hobeto ezagutzen zituenak edo ardura gehiago eman ziotenek.

Parabola de Seminatore argitaratu zuenerako, urtebete lehenago egina zeukan 1856an lehen bisita Euskal Herrira, eta bidaian zebilela argitaratu zituen Donostian eta Baionan bi euskal liburu: *Noticia de las obras vascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi*, eta *Vocabulaire de mots basques bas-navarrais, traduites en langue française*. Sallaberriren azken lan honek adierazten digu lexikografiaz arduratuta zebilela oraindik gure Printzea, eta Juan Mateo Zabalarenak bibliografia zeukala ikerketetarako oinarria. Eskuratu berria zuen ordurako *Catalogo dei libri Sardi* azken erreferentzia 1850 urtekoa dakarrena. Sardiniako dialektoen ikerketak egiten dituzten izenburuak datoz zerrenda honetan, eta gero laguntzaile izango duen Giovanni Spano ere azaltzen zaigu.

Dialektoen (eta euskalkien) arteko konparazioak egiteko asmatzen du orduan plana: Bibliaren liburu batzuk hautatzen ditu, itzulpenak aginduz konparaketak egin ahal izateko. Eta 1857-1858 urteak ematen ditu euskarazko 20 liburu edo argitaratuz, ia beste zereginik gabe. Baina Italiako dialektoekin ere hasten da apurka-apurka, hurrengo hiru urtetan (1859-1861) dialekto hauei lehentasuna emanaz argitalpenetan. Hara hemen urteka argitaratu zituen itzulpenak⁹

Data	EGILEA	LIBURUA	DIALEKTOA	
1857	ABIS, Federigo	<i>La profezia di Giona</i>	Sardo-cagliaritano	(6)
1858	SPANO, Giovanni	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Sardo-logudorese	(862)
1859	FONTANA, Gianjacopo	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Veneziano	(519)
	PICOZZI, Antonio	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Milanese	(764)
	ROSA, Gabriele	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Bergamesco	(811)
	POZZO, Pietro da	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Friulano	(776)
	ABIS, Federigo	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Sardo-cagliaritano	(7)
1860	OLIVIERI, Giuseppe	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Genovese	(745)
	LOCATELLI, Pasino	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Bergamesco	(681)
	ABIS, Federigo	<i>Il cantico di Salomone</i>	Sardo-meridionale	(9)
	SCALIA, Luigi	<i>Il cantico di Salomone</i>	Siciliano	(846)
	ABIS, Federigo	<i>Libro di Rut</i>	Sardo-meridionale	(8)
	SCALIA, Luigi	<i>Libro di Rut</i>	Siciliano	(845)
	STEFANOPOLI, S.	<i>Il figliuol prodigo</i>	Greco di Cargese	(875)
1861	CATERBI, Giuseppe	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Romano	(375)
	SCALIA, Luigi	<i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Siciliano	(847)
		<i>Il Vangelo di S. Matteo</i> (Londra, 1834, 2. arg.)	Piemontese	(763)

⁹ Aipamen bibliografiko laburtuak ematen ditut: egilea, gaia, dialektoa. Azken zenbakia nire *Bibliografia Bonapartianan* liburu honi dagokion fitxa zehatzagoarena da.

LOUIS-LUCIEN BONAPARTE ETA ITALIAKO DIALEKTOAK

	LITTERATO NAPOLITANO: <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Napolitano	(735)
	MUNDULA, P.G. <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Sardo-gallurese	(729)
	MUNDULA, P.G. <i>Il cantico di Salomone</i>	Sardo-settentrionale	(728)
	SPANO, Giovanni <i>Il cantico di Salomone</i>	Sardo-centrale	(866)
	SPANO, Giovanni <i>Libro di Rut</i>	Sardo-centrale	(864)
	SPANO, Giovanni <i>Libro di Rut</i>	Sardo-centr.tempiese	(865)
	SPANO, Giovanni <i>La profezia di Giona</i>	Sardo-logudorese	(867)
	SPANO, Giovanni <i>La Storia di Giuseppe Ebreo</i>	Sardo-logudorese	(863)
	ABIS, Federigo <i>La Storia di Giuseppe Ebreo</i>	Sardo-cagliaritano	(10)
1862	LUCENTE, Raffaele <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Calabrese-consentino	(684)
	PEPOLI, Carlo <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Bolognese	(760)
1863	SPANO, Giovanni <i>Il cantico di Salomone</i>	Sardo-setten.sassarese	(879)
	SPANO, Giovanni <i>Libro di Rut</i>	Sardo-sassarese	(869)
	SPANO, Giovanni <i>La profezia di Giona</i>	Sardo-sassarese	(870)
	PORQUEDDU, P. <i>La profezia di Giona</i>	Sardo-tempiese	(773)
	SPANO, Giovanni <i>La Storia di Giuseppe Ebreo</i>	Sardo-sassarese	(868)
	PORQUEDDU, P. <i>La Storia di Giuseppe Ebreo</i>	Sardo-tempiese	(772)
1865	MORRI, Antonio <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Romagnuolo-faentino	(726)
1866	SPANO, Giovanni <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Sardo-sassarese	(872)
1867	MATTEL, Antonio <i>Proverbi, detti e massime corse</i>		(699)
1868	CAMARDA, Demetrio <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Albanese di Piana de Greci	(353)
1869	DORIA, Vincenzo <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Calabro-albanese.Frascineto	(426)
1870	ROSSI DA MONTALTO, Fco. <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Albanese-greco scutarino	(812)
1873	SPANO, Giovanni <i>Canti popolari</i>	Sassarese	(873)
1890	CICCOLINI, Callisto <i>Il Vangelo di S. Matteo</i>	Urbinate	(380)

Eskuizkribuetan eta argitaraturiko txostenetan gertaturikoa nabaritzen da kaleratu zituen liburu hauetan ere: aipatu hiru uharte handietako dialektoak direla Bonapartek gehien ematen dizkigunak, ia erdia baino gehiago. Dena den, orduko hizkuntzalariek, eta bereziki dialektologoek, Italiako dialektoen argitalpenak lortzeko bide errazagoa zuten euskarazkoekin jabetzeko baino, 250 ale kaleratu baitzituen Bonapartek hangoekin eta 10 edo gure euskalkiekin. Orain ere Italiako biblioteca pribatu eta publikoetan kontsultatzeko aukera izango dutelakoan nago.

Italiako Hizkuntza Atlasak egiten ari diren une honetan, dialektoen diakronia ikertzeko aukera ezin hobea dute lan honetan emandako ildoak jarraituz.

NAFARROAKO EUSKARAREN SAILKAPENAZ

Gotzon Aurrekoetxea Olabarri

0. SARRERA

Euskalkien eta hizkeren sailkapenaz gure artean jardun izan denean orain arte gramatika kontuekin ari izan da batik bat. Horrela, historikoki, bai fonologi desberdintasunak bai morfologiazkoak (izen eta batez ere aditz morfologiazkoak) izan dira gehien landu direnak. Sintaxia, ostera, ahaztuxe gelditu da, gaiak nola edo halako zailtasunak biltzen dituelako dialektologoentzat.

Lexikoak halako bazterketa bat ezagutu du estrukturalismoaz geroztik, eta oso gutxi landua izan da zeregin honetarako. Bonaparte printzeak berak ere gramatika ezaugarrietan oinarritu zuen bere ekarria, lexikoaren kaltetan. Jacques Allières izan da, behar bada, gehien erabili duena, bai Iparraldeko hizkeren mapak egiteko (1960-1961, 1977-1986), bai euskararen eremu osoa landu izan duenean (1994).

Ikerketa honetan lexikoa landu da. Lexikoaren egituraketa aztertu nahi da, eremu konkretu bat landuz.

1. HIZKEREN SAILKAPENAZ

Egia esan behar bada hizkeren sailkapenaz lan gutxi egin da gure artean. Eta zergatia begi bistakoa da: oraintsu arte ez da eremu handiak biltzen izan dituen bilketa lanik egin.

Argitaratu izan diren ikerketa zabal apurrak desegoki gertatu dira gehienetan hizkeren sailkapenean baliatzeko, arrazoi bat edo beste tarteko. Hala, *Erizkizundi Irukoitza* ez da gertatzen eroso; informazioa bildu den herrien sarea laxoegia da inkesta leku gutxiegi azaltzen duelako eta ondorioz ez da baliagarri.

Euskalerriko Atlas Etnolingustikoa (EAEL) ere, euskararen eremu osoa hartu arren, oso gutxi baliatua izan da hizkeren arteko desberdintasun eta sailkapenaz aritzeko.

Euskararen eremu osoa hartzen duten bi lan hauez gain badira beste batzuk eremu txikiagoa hartzen dutenak: batetik, J. Allières-ek Iparraldeko hizkeren mapak egiteko erabili dituen Bourciez eta Sacaze corpusak. Bestetik, A. M. Echaidek (1989) Nafarroa Garaian bildutako datuak.

Corpus handien gabezia hori hizkeren azterketa monografikoekin estaltzen da neurri batean euskararen eremuan. Asko dira jada era honetako argitalpenak eta bidean direnak ere ez dira gutxi. Ikerketa hauek, hizkerak sakonki ezagutzeko abagunea ematen badute ere, ez dira erosoak gertatzen hizkeren sailkapena egiteko, elkarren artean diren metodologia deberdintasunak eta bildutako corpusen bateraezintasunak eraginik. Corpus horiek erkaezinak gertatzen dira sarri.

Dena den, gabeziak gainditzeko asmoarekin hasi dira azkenaldion hizkerak sailkatzeko saioak argitaratzen. Aurrekoetxeak 1992an egin zuen lehen saioa, Nafarroan A. M. Echaidek bildutako datuak erabiliz. Horretarako gaur egun dialektologian hizkerak sailkatzeko erabiltzen diren prozedurak erabili zituen. Hiru urte geroago, 1995ean, bizkaierara edo, hobeki esanik, euskararen mendebaldeko 45 hizkeratara mugaturik, gramatika ezaugarriak jokoan sartuz egin zuen bigarrena.

Oraintsuago Koldo Zuazok (1998), Bonapartek erabilitako metodologia erabiliz, euskalkien beste mapa bat proposatu du.

Guk nahiago dugu hizkeren sailkapenean gaur egun erabiltzen diren prozedurak baliatzea¹. Sailkapenaz jardutean hizkuntzalari zein dialektologoa gainontzeko zientzietan sailkapeneterako erabiltzen dituzten prozedura eta metodologia erabiltzera behartuta dago bere lana sinesgarria izan dadin.

¹ Ikus, besteak beste, H. Goebel 1992, W. Viereck 1985, J. Séguy 1973, H. Guiter 1973, Philipp 1990, Kirk/Munroe 1989, Thomas 1980, Melis/Verlinde/Derynck 1989, Polanco 1984, Fossat 1992, Saramago 1986...

Prozedura sailkatzaile hauek arruntak dira bai soziologian, bai biologian, bai geografian, antropologian, psikologian zein beste diziplinetan. Beste behin ere esana dudan moduan, gure inguruko zientzietarako baliagarri diren prozedurak ez ote da zilegi hizkuntzalaritzan ere erabiltzea? Zilegitasun osoa dugula uste dugu eta horrela ulertu da hizkuntzalaritza aplikatuan, zein dialektometria izenaz ezagutzen den disziplinan, eta jada nazio eta hizkuntza desberdinetan erabilia izan da (Goebl 1992, 433-434).

Ikerketa lan honetan 1992an Nafarroako datuekin hasitako bideari ekin diogu. Hartan hizkerak banaka aztertzea izan zen helburua. Haran edo azpieuskalki bakoitzean hizkera bat hautatu eta besteekiko hizkuntz hurbiltasun / urruntasuna aztertzea, alegia.

Honetan, ostera, eremua bere osotasunean hartuz hizkeren artean azaltzen den egituraketa geolinguistikoa aztertu gura da; "nola dago egituratuta lexikoa Hegoaldeko Nafarroan?" itaunari erantzuna ematea, hain zuzen ere.

Ikerketa burutzeko datuak nire 1992koan erabilitakoak dira. Hau da, 53 hizkeratan 109 galderatatik jaso diren erantzunak. Guztira 5.777 item.

Hizkeren arteko lexiko-desberdintasunak zehaztean ikerketa batzuetan etimologia bakarrik hartzen da kontuan, bestelako desberdintasunak aintzat hartu gabe. Gure kasuan etimologiazkoen gain, gainontzekoak ere kontuan izan ditugu. Esate baterako, *goitu* eta *goititu* ez ditugu arras berdintzat jo. Desberdintasunak mailakatu egiten ditugu. Mitxelenak aipatzen zuen ponderazioa datorkigu gogora. *Ordu* eta *oren* berben arteko desberdintasuna, eta *ostegun* eta *ortzegun* hitz edo formen artean ez da bera. Bide beretik *jai* eta *festa* hitzen artean dagoen desberdintasuna eta *festa* eta *besta*-ren artean dagoena ez da bera. *Oren* eta *ordu* edo *jai* eta *festa* hitzen arteko bereizkuntza etimologikotzat jotzen da eta *ostegun-ortzegun* edo *festa-besta* formen artekoa aldaera mailakotzat. Horrela, desberdintasunak ponderatzen dihardugu eta ponderazio hau azken muturreraino eramango dugu lan honetan.

Gauzak horrela, guztira 108 tipo lexikal desberdin zenbatu dira bildutako korpusean. Aldagarritasun txikia eskaintzen dute datuok. Tipo lexikal hauen kopurua aldagarria da galdera batetik bestera: 33 galderatan tipo bakarra azaltzen da (%31); mapa mononimo hauek ez dute aldagarritasunik adierazten. 2-tik 4-ra tipo lexikal desberdin 52 galderatan azaltzen dira (%48); gainontzeko %21-etan lau tipo lexikal baino gehiago agertzen dira.

Aipatu bezala, 33 mapa monolexematiko agertzen dira datuen arabera. Honelako datuak aztertzeke joera desberdinak daude. Ikertzaile batzuk baz-

tertu egiten dituzte hizkeren arteko sailkapena egiteko². Guk, ordea, denak sartu behar direla uste dugu. Jada beste nonbait esana dugun legez, hizkeren sailkapena egitean hizkeren arteko distantziak neurtzen dihardugu. Horretarako, hizkeren arteko desberdintasunak nola berdintasunak zenbatu behar dira. Desberdintasunak baino ez badira kontuan hartzen (mapa monolexematikoak baztertuz) distantziak egiatan direnak baino handiago bihurtzen dira eta ez dute errealitatea islatzen. Errealitate linguistikoa desitxuratuta azaltzen da. Baina edozein prozedura sailkatzailearen helburua errealitatea ahal bezain fidelki islatzea izan beharko litzateke. Ez da nahikoa multzokatze zuzena burutzea, multzoen arteko harremanak ere zuzenak izan behar dira. Mapa monolexematikoak baztertuz multzokatze zuzena lortuko da, baina ez da inondik inora ere lortuko multzoen arteko distantziak modu zuzen eta egokian agertzea. Distantziak gaindimentsionatuta agertuko dira hurbiltasunen kaltetan. Errealitatean dauden baino urrunago agertuko dira.

Gure ikerketako 53 hizkeren arteko harremanak zertan gauzatzen diren zehazteko datuen analisirako teknikak erabiltzea erabaki dugu, hauen helburuetan "(...) décrire, classer et clarifier les données" (Fénelon 1981, 33) izanik, gure helburuetarako berariaz eginak bezala har daitezkeelako. Teknika eta prozedura multzoa da ikertzaile-dialektologoak eskuartean duena; horien artean prozedura bat aukeratu da "Cluster analysis" edo "Goranzko sailkapen automatikoa" edota "dendrograma" terminoez ezagutzen den estatistika-prozedura, hain zuzen ere. Eta prozedura honetan diren aukeren artean "Ward metodoa" (distantzia euklidea) deitua, gure datuei ondoen egokitzen zaielako.

2. DENDROGRAMAREN IRAKURKETA

Dendrograma hau bi zutabe (Label eta Num) eta eskala batez (CASE) osatuta dago. "Label" zutabearen ikerketan aztertzen diren hizkeren kodea agertzen da (ikus eranskina). "Num" zutabearen aztertzen diren hizkeren kopurua azaltzen da; guretzat garrantzirik ez duen zutabea da. "CASE" 0-tik 25-era mailakatuta dagoen eskala da. Hizkeren arteko desberdintasuna markatzen du eskala honek; bi hizkera zenbat eta maila garaiagoan elkartu, orduan eta hizkuntza distantzia handiagoa izango dute elkarren artean.


Dendrograman azaltzen diren datuen irakurketarako bi abiapuntu erabiltzen dira ohiz: goranzko irakurketa, eskalan 0-tik abiatuz, irudiko ezkerretik,

² Ikus Bothorel-Witz, A. / S. Vetter, 1989, adibidez.

NAFARROAKO EUSKARAREN SAILKAPENAZ

*** H I E R A R C H I C A L C L U S T E R A N A L Y S I S ***

Dendrogram using Ward Method (distantzia euklidea)



1. Irudia: hizkeren dendrograma

edo beheranzko irakurketa, eskalako 25 mailatik hasiz, irudiko eskuinaldetik. Guk bigarren bide hau proposatzen dugu Nafarroako datuen irakurkedarako.

Gure ikerketan aukeratu ditugun hizkera guztiak eskalako 25. mailan bil-tzen dira. Hizkera guztiak eremu batean integraturik agertzen zaizkigu maila honetan. Aztertutako Nafarroako hizkeren eremu osoa bildurik dago bertan.

Eskalan maila edo urrats bat jaitsiz bi multzo handitan banatzen dira hizkerak. Multzook bereizteko lehenari A deituko diogu eta bigarrenari B:

- a) A multzo edo gunea "Label" zutabeko H20 kodea duen hizkeratik H5 kodea duenerainoko hizkerak osotzen dute. Guztira 31 hizkera. Hizkera hauek Zaraitzu, Aezkoa, Hegoaldeko goi-nafarrera, Ultzama, Basaburua eta Imotzeko hizkerak dira, inguruko beste hizkera batzuekin batera (ikus mapa).
- b) B guneak "Label" zutabeko H39 kodea duen hizkeratik azkeneraino doazen hizkerak barne hartzen ditu. Guztira 22 hizkera. Burunda, Sakana, Araiz, Bortzirietari eta Baztango hizkerak.

Horrela, Nafarroako datu lexikal hauekin egindako lehen sailkapenean bi eremu handi izango genituzke: bata Ipar-mendebaldean kokaturik eta Hegoekialdean bestea. Ezaugarri lexikalak bakarrik kontuan hartuta Nafarroako hizkerak banandu beharko balira, lehen abiapuntua hau izango litzateke, lehen bi gune nagusiak hauek izango lirateke.

Zeintzuk diren bi gune hauen ezaugarriak? Zein hizkuntza ezaugarri diren pisu handiena izan dutenak sailkapen hau egitean?

Itzul gaitezen datuetara: 25. mailan eragina duten desberdintasunak hauek dira: A multzoaren ezaugarri nagusienak *pentze-soro*, *gaminta-kanibeta*, *besko-bertz*, *lixu*, *kuna*, *askazi-ahaide*, *emazte-emazteki*, *txuku-seko*, *pisu*, *biluzi*, *bellitu-i(ra)tzarri*. Eta B eremuaren ezaugarri nagusienak, ostera, ondo-koak: *barruti-larra-belagi*, *nabala*, *kasula-pasin-posala*, *lixiba-bokata*, *sehaska*, *jendaki-familia*, *idor*, *karga*, *larrugorri-biliskorri*, *esnatu* eta *mendi-baso*.

Honek ez du esan gura, bistan da, ezaugarri hauek oso-osoan eremu horretako hizkera guztietan jaso direnik eta eremu horretan baino erabiltzen ez direnik, eremuak sortzean, sailkapena burutzean, pisu handiena izan dutela baino.

Dendrogramako eskalan ezkerrean edo behean beste urrats bat ematen badugu eta 10-15 maila bitartean gure begiak pausatu, bi multzo handi horietako bakoitza beste bitan zatitzen dela ikusiko dugu:

A multzoa ondoko biotan bananduta dago:

- A1) H20 hizkeratik H49 hizkeraraino doazen hizkerak alde batetik, hots, dendrogramako lehen 25 hizkerak. Denak A eremuaren erdi-ekerraldean kokatuta aurkitzen direlarik.
- A2) H6 hizkeratik H5 hizkeraraino, bestetik. Eremuaren eskuinaldean kokatuta dauden 6 hizkerak osatzen dute azpimultzo hau.

B multzoa, bere aldetik, beste bitan banatzen da:

- B1) H39 hizkeratik H42 hizkeraraino, batetik. B eremuko Hego-mendebaldean kokatuta dauden 7 hizkera dira osatzen dutenak.
- B2) H56 hizkeratik H46 hizkeraraino, bestetik. 15 hizkerarekin osatuta eta B eremuaren Iparraldean kokatuta dagoena.

Badugu jada aztertzen dihardugun eremu osoa lau multzotan bananduta. Lehenik bi multzo handitan eta hauek ondoren beste bi multzotan.

Oraindik dendrogramaren eskalan beherago jaisteko aukera ere bada, eremu txikiagoak lortzea gura bada. Halatan, A1 multzoan 8. mailan kokatzen da hurrengo hizkera banaketa, A1 multzoa bitan bananduz: A11 multzoa, H20 hizkeratik H45-ra, eta A12 multzoa, H33-etik H49-ra.

A11 multzoari segituz mailak jaisten jarraitzen badugu beste multzo txiki batzuk aurkituko dira eskalako 3. mailan, adibidez; 2.ean beste txikiago batzuk. Era berean, edozein gunetatik hasiz, mailaz maila jaits daiteke eskalako 0 mailara heldu arte.

Goranzko irakurketaren bidez hizkerak bere bakartatetik edo ezaugarrietatik abiatuz inguruko hizkerekin gero eta espazio handiagoak eraikitzen ikusten dira, aztertzen diren hizkera guztiak bildu arte.

Prozedura hau hizkerak sailkatzeko guztiz egokia da une oro ikusten baita zein duen hurbilen, zeinekin biltzen den geroago eta nola hartzen duen parte hizkuntza espazioaren egituraketan.

Jada ez dugu eremu bakoitzaren ezaugarri zerrenda lantzen eta gainontzeko eremuekin zeinetan den berdin eta zeinekin desberdin aztertzen. Prozedura honetan "a priori" eraikitzen den eremurik ez dago. Eremuen marrasketa datu guztiak kontuan hartuz prozedura sailkatzaileen emaitzen proiektzioarekin gauzatuko da.

3. INTERPRETAZIO GEOLINGUISTIKOA (NAFARROAKO HIZKERAK BI EREMUTAN)

Gorago ikusi den dendrogramaren proiektzio kartografikoa eraikiz, hone-la azaltzen da Nafarroako hizkeren lehen sailkapena (2. irudia).

Nafarroako hizkerak bi eremu handitan bananduta agertzen zaizkigu: bata Hego-ekialdean kokatuta (dendrograman A multzoa deitu duguna), eta bestea Ipar-mendebaldean (B multzoa). Koherentzia handia duen mapa dugu,

ikuspuntu geolinguistikotik begiraturaz. Bi eremu trinko, bakoitzak bere esparrua duelarik. Lau hizkera baino ez daude dagozkien eremutik kanpo lekutu-ta. Hizkera hauek (hots, H35-Albiasu, H36-Azkarate, H37-Areso eta H49-Narbarte) B eremuan kokatuta egon arren, A eremuko hizkuntza ezaugarri gehiago dituzte eta A eremuari dagozkio, dendrogramari kasu egiten bazaio, behinik behin. Eremuz kanpo aurkitzen diren hizkeren kasua geroago aztertuko da.

Mapa hau Bonaparte printzeak burututako IV. sailkapenarekin erkatzen bada, zertxobait desberdina izan arren, antzekotasun handiak dituela konturatzeko gara: izan ere, gure mapako isoglosa nagusiak (dendrogramako 25. mailan kokatzen dena) Bonapartek marraztutako muga batzuk korritzen ditu. Hain zuzen ere, marra honek bereizten ditu Baztan, Bortzirietako, Arantzeta, Arakil eta Sakana, batetik; eta Ultzama, hego-nafarrera garaiko hizkerak, aezkera eta zaraitzukoak, bestetik.

Kontuan hartzen bada Bonapartek erabilitako irizpideak (nagusiki irizpide gramatikalak) eta gureak (lexikalak) guztiz bestelakoak direla, harrizkeoa da hain hurbil izatea bi prozedurak ondorioetan.

Desberdintasun nabarmenena Ultzamako hizkeren kokagunea litzateke. Gainontzeko mugak oso-osorik errespetatzen dira. Beraz, irizpide lexikalak kontuan hartuz, Bonaparteren sailkapena onargarri litzateke gaur egun ere Ultzamako barietatea Ipar-nafarrera garaitik Hego-nafarrera garaira aldatuz.

Zertan datza Ultzamako hizkeren eta Anue eta Esteribarreko hizkeretako hurbiltasun hori? Edota zertan da Ultzamako hizkeren eta Baztango, kasu, hizkeren arteko urruntasun hori? Eskuarrean dugun datu-eremuaren arabera 108 ezaugarri edo, hobe esanik, galderetatik 74-tan berdina erantzun dute Ultzama osoko eta Anue-Esteribarreko hizkeretan.

Ondorio hauek bat datoz Orreago Ibarrek lortutako datuekin ere, bere tesiko ondorioetan honako hau dionean: "A eremuan [Ultzama, Atetz eta Anue] mintzo den euskara eta hegoaldeko GN-ren arteko harremana oso nabarmena da. Esan daiteke Ezkabarte, Odieta eta Esteribar haranak -hegoaldeko GN-ren hizkerak izanik-, oso hurbil daudela ultzameratik" (1994, 683). Aurreko lerrootan gramatikaz badihardu ere, lexikoari buruz ere berdintsu mintzo da orrialde batzuk geroago (idem, 688).

Ultzamako hizkeretan eta Baztangoetan, ordea, gutxiagotan jasotzen da erantzun bera eta desberdintasunak handiagoak dira. Berdintsu esan daiteke Ultzamako eta Bortzirietako kasuan ere.

Kuriosotzat har daiteke, bestalde, Basaburu Txikiko bi hizkeren kasua. Bata (Eratsun) A multzoan kokatzen den bitartean, bestea (Beintza-Labaien) B multzoan kokatzen baita. Bi herriotako erantzunak erkatuz, 24 alditan jaso dira desberdin (tartean dira *esan-erran*, *bost-bortz...*). Beintza-Labaienek Eratsunek baino askoz ere Ipar-ekialdeko ezaugarri gehiago ditu (*erran*, *bortz*, *aitzin*, *ebatsi*, *bida...*) eta ondorioz, ezaugarri akomun gehiago Baztan eta Bortzirietako hizkerekin.

4. EREMU BAKOITZAREN BARIETATEAK

Dendrograma berrartuz eta 25. maila hartu ordez 10-15 bitarteko mailako datuak irakurtzen hasiz eremu bakoitza bitan zatitzen dela ohartuko gara.

4.1. Hego-ekialdeko eremua

A eremua 12 mailan zatitzen da bi eremutan:

4.1.1. Erdialdeko eremua. Hemen kokatzen dira dendrograman A1 deitu den eremuko hizkerak. Guztira 24 hizkera. Hizkera hauek eremuaren erdimentebaldea hartzen dute. Auritzetik hasi eta Esteribarreko hizkerak, Anue, Ultzama, Atetz, Imotz eta Basaburukoak hartzen ditu bere barnean.

4.1.2. Ekialdeko eremua. Dendrograman A2 deitu den eremuko hizkerak: H2, H3, H4, H5, H6 eta H9. Hau da, Zaraitzuko hizkerak, Aezkoakoak (salbu Hiriberri) eta Luzaideko hizkera.

Hiriberri (H7) ez da kokatzen linguistikoki eremu honetan. Nire 1992ko ekarpenean azaltzen zen jada mendebalderagoko hizkerekin zuen hurbiltasuna; A. M. Echaidek bildutako datuen arabera linguistikoki Hiriberri hurbilago dago Aintzioatik Orbaizetatik baino.

Beraz, Bonaparteren mapa berrartuz, Hegoaldeko goi-nafarrerako hizkerak eta behe-nafarrerako hizkerak bereizten dituen isoglosa kuantitatiboa guke bi eremuok bereizten dituen muga. Berrero ere bat datoz Bonaparteren mapak eta gureak marrazten duten mugak, nahiz, gorago esan bezala, muga horien kuantifikatze edo garrantzian desberdintasunak izan.

Bide beretik, Caminok ere argiki erakutsi du aezkera eta goi-nafarreraren artean lexikoan den harreman estua (1997, 260).

4.2. Ipar-mendebaldeko eremua

Ipar-mendebaldeko eremuko hizkerak eskalako 13. mailan bi zatitan banatzen dira:

4.2.1. Mendebaldeko eremua. Dendrograman B1 deitu den eremua da eta 7 hizkerak osotzen dute: H31, H32, H34, H39, H40, H41 eta H42. Hots, Sakana, Arakil eta Araizko hizkerak, Goizueta salbu.

4.2.2. Iparraldeko eremua. Dendrograman B2 eremua deitu dena eta 15 hizkera gordetzen dituena: Bortzirietako hizkerak, Baztangoak eta Goizueta (H56-tik H46-ra arteko hizkerak).

Bi eremu hauek ere oso homogeenak dira eta koherentzia geolinguistikoko handia erakusten dute. Bien arteko mugak Araiz eta Arakilgo hizkerak, batetik, eta Bortzirietakoak, bestetik, bereizten ditu. Muga hau duela mende bat Bonapartek bere mapan ezarritakoarekin guztiz bat dator.

Ipar-mendebaldeko eremu osoa gogoan edukiz, Bonaparteren mapan azpieuskalki desberdinak azaltzen dira: Baztangoa, Bortzirietakoa, Araizkoa eta Arakilgoa (Gipuzkoakoa eta Ultzama kanpoan utziz). Azpieuskalki horien arteko mugak maila berekoak ote ziren? Ez da erraza erantzutea, baina oraingo datuekin eta egungo metodologiarekin mugen maila edo garrantzia ere neur daiteke, eta itaun horri erantzuna emateko prest gaude. Dendrogramaren aurrean jartzen bagara eta B2 eremuan pausatu gure begirada (hau da, Ipar-mendebaldeko eremuko Iparraldeko hizkerak), hizkeren hurrengo zatiketak (eskalako 7. mailan ematen denak) Baztango hizkerak biltzen ditu alde batetik eta gainontzekoak, bestetik. Zer esan gura duen honek? Ondokoa: Ipar-mendebaldeko hizkerak bi multzotan banandu behar balira lehen-lehenik B1 eta B2 multzoak bereizi behar direla, jada egin dugun moduan. Eta multzo txikiagoetan zatitu nahi izanez gero, hurrengo zatiketan, Baztango hizkerak (dendrograman H56, H57, H55 eta H58) banatuko genituzke.

EREMUZ KANPOKO HIZKERAK

Ipar-mendebaldean badira hizkera batzuk linguistikoki Hego-ekialdeko eremukoak direnak. Albiasu, Azkarate eta Areso hizkerak, batetik, eta, bestetik, Narbarte, euren eremutik kanpoko hizkerekin linguistikoki harreman handiagoak erakusten dituzte.

Azterketa sakonago baten beharra erakusten duen arren, jada esan daiteke badirela ezaugarri berdinak bateko eta besteko hizkeretan. Lehen hizkera horiek badituzte ezaugarri batzuk A1 eremuko hizkerekin berdinak direnak, eta aldi berean, Etxarri edo Baraibar hizkeretatik, kasu, bereizten dituztenak. Desberdintasunen artean *etorri / allegatu, barda / (atzo) gauean, amona / amandre, iluntze / ilunabar-gaualde...* aipa daitezke. Berdintsu esan daiteke NARBARTE hizkerari buruz. Baina gaiak tratamendu berezia behar duela ohartzen gara, hizkera konkretuetara mugatu behar ez dena gainera. Orokorki oratu beharreko arazoa da, noizbait irtenbide onargarria bilatu beharko zaiona.

ONDORIOZ

Nafarroako (Nafarroa Garaiko esan beharko genuke) euskararen eremu osoa hartuz ezaugarri lexikalen araberako sailkapena egiteko, estatistikak ematen digun laguntza erabiliz, prozedura eta metodologia berria plazaratzea izan da lan honen helburua.

Emaitzak, oro har, tradizioz ezagutzen ziren sailkapenekin, ñabardura batzuk tarteko, guztiz erkagarri direla esango genuke. Nafarroako hizkerak lau eremu desberdinetan sailkatuz gero sortzen diren mugak eta Bonapartek bere garaian irizpide desberdinekin burututakoa bat datoz nagusiki, harrigarri gertatzen bada ere. Garrantzi handiko gertaera da hau. Izan ere, mende bat tarteko, hizkuntza datuak guztiz bestelakoak izanik, batetik, eta azterbidean jarraitu diren irizpide eta prozedurak ere zeharo desberdinak izanik, emaitzetan bat etortzea ez da kasualitatez ematen den ondorioa.

Hasi berria den bide honek bihurgune ilun asko ditu oraindik, ibilian argitu beharko direnak. Horien artean, gorago plazaratu den eta eztabaidagai gelditzen den muga kuantifikazio edo mailakatzea.

BIBLIOGRAFIA

ALLIÈRES, Jacques (1960-1961), "Petit atlas linguistique basque-français 'Sacaze'", *VD IX*, 204-221; X, 82-126.

ALLIÈRES, Jacques (1977-1986), "Petit atlas linguistique basque-français 'Bourciez'", *FLV 27*, 353-386; 47, 5-46.

ALLIÈRES, Jacques (1994), "Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoaz", in R. Gómez eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, ASJUren gehigarriak XXVIII, 45-58.

AURREKOETXEA, Gotzon (1992), "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro* 5, 59-109.

AURREKOETXEA, Gotzon (1995), *Bizkaieraren egituraketa geolinguistiko*, UPV-EHUko Argitalpen Zerbitzua, Serie Tesis doctorales, Leioa.

BOTHOREL-WITZ, Arlette / VETTER, Susanne (1989), "Vers une identification des types dialectaux alsaciens: essai de typologie automatique". *Espaces romanes. Etudes de dialectologie et de géolinguistique offertes à Gaston Tuaillon*, vol. 2, Grenoble, 488-509.

CAMINO, Iñaki (1997), *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

ECHAIDE, Ana María (1984), *Erizkizundi Irukoitza*, Euskaltzaindia, Bilbo.

ECHAIDE, A. M. (1989), *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Cuadernos de sección Hizkuntza eta Literatura, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

FÉNELON, J.-P. (1981), *Qu'est-ce que l'analyse des données*, Lefonen, Paris.

FOSSAT, Jean-Louis (1992), "Architecture d'une base de connaissance dialectale: contribution à la modélisation du fait dialectal occitan". G. Aurrekoetxea / X. Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak Iker* 7, Euskaltzaindia, Bilbo, 111-134

GAMINDE, Iñaki (1996), "Esteribarko euskararen azentuz", *Uztaro* 16, 109-123.

GOEBL, Hans (1983), "Matrices, Distances et Interpoints. Etude dialectométrique sur les isoglosses quantitatives (avec application à l'ALF)", *Cahiers des Annales de Normandie* 15, 113-137.

GOEBL, Hans (1992), "Problèmes et méthodes de la dialectométrie actuelle (avec application à l'AIS)". G. Aurrekoetxea / X. Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak, IKER* 7, Euskaltzaindia, Bilbo, 429-476.

GUITER, Henri (1973), "Atlas et frontières linguistiques". G. Straka / P. Gardette (arg.), *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux (col. de Strasbourg 1971)*, Paris, 61-109.

IBARRA, Orreaga (1995), *Ultzamako hizkera*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.

KIRK, John M./ MUNROE, George (1989), "A Method for Dialectometry", *Journal of English Linguistics* 22, 97-110.

LAFON, René (1955), "Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques", *Pirineos* XI, 109-133.

LEIZAOLA, Fermin, koord., (1982-1990), *Euskalerriko Atlas Etnolinguitikoa-EAEL- I-II*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia.

MELIS, L./ S. VERLINDE / P. DERYNCK, (1989), "Dialectologie: Domaine roman (la notion de dialecte supralocal: essai de définition dialectométrique)", *Orbis* XXXIII, 1-2, 70-132.

MITXELENA, Luis (1964), "La interpretación de las diferencias dialectales", in *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 2. kap. 43-67.

PHILIPP, Marthe (1990), "Lexikalische Kontinuität und Variabilität im Elsass". M. Philipp (arg.), *Alemanische Dialectologie im computer-zeitalter*, 91-130.

PHILPS, Dennis (1985), *Atlas dialectométrique des Pyrénées centrales*, Thèse de Doctorat d'Etat, 2. vols. Toulouse (argitaragabea).

POLANCO, L. (1984), "Llengua y dialecto: una aplicació dialectométrica a la llengua catalana". *Actes du XVIIe Congrès International de Linguistique et Philologie Romanes (Aix-en-Provence 1983)*, vol. 5, Aix-en-Provence, 15-30 (eta *Miscell'lània Sanchis Guarner* I, Universitat de València, 1984, 267-276).

SARAMAGO, J. (1986), "Differentiation lexicale (un essai dialectométrique appliqué aux matériaux portugais de l'A.L.E.)", *Géolinguistique* II, 1-31.

SEGUY, Jean (1973), "La dialectométrie dans l'Atlas linguistique de la Gascogne", *RLiR* 37, 1-24.

THOMAS, LAN R. (1980), *Areal analysis of dialect data by computer a welsh example*, University of Wales Press, Cardiff.

VIERECK, Wolfgang (1985), "Linguistic atlases and dialectometry: The survey of English dialects". J.M. Kirk / S.F. Sanderson / J.D. Widdowson (arg.), *Studies in linguistic Geography*, Londres, 94-112.


ZUAZO, Koldo (1989), "Euskalkiak, gaur", *FLV* 78, 191-233.

ERANSKINA: AZTERTZEN DIREN HERRIEN IZEN ETA KODEAK

H2	Itzaltzu
H3	Espartza
H4	Jaurrieta
H5	Abaurrepea
H6	Orbaizeta
H7	Hiriberri
H9	Luzaide
H11	Auritz
H12	Aintzioa
H14	Eugi
H15	Iragi
H16	Leranotz
H17	Inbuluzketa
H19	Aritzu
H20	Gerendiain
H21	Arraitz
H22	Auza
H23	Eltzaburu
H24	Aroztegi
H25	Berasain
H26	Beuntza
H27	Muskitz
H28	Etxaleku
H29	Itxaso
H30	Beruete
H31	Uitzi
H32	Etxarri-Larraun
H33	Oderitz
H34	Baraibar
H35	Albiasu
H36	Azkarate
H37	Areso
H39	Lakuntza
H40	Unanu
H41	Bakaiku
H42	Ziordia
H44	Goizueta
H45	Eratsun

NAFARROAKO EUSKARAREN SAILKAPENAZ

H46	Beintza-Labaien
H47	Oitz
H48	Ituren
H49	Narbate
H50	Sunbilla
H51	Lesaka
H52	Arantza
H53	Etxalar
H54	Bera
H55	Almandoz
H56	Ziga
H57	Arizkun
H58	Amaiur
H59	Urdazubi
H60	Zugarramurdi



GOTZON AURREKOTEXEA OLABARRI

2. Irudia: hizkeren egituraketa geolinguistikoa

GAZTELANIAZKO DE PREPOSIZIOAREN ETA EUSKARAZKO GENITIBOEN JABEKUNTZAZ

Andoni Barreña
Andolin Eguzkitza (†)

0. SARRERA

José Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren ohorez idatzi dugun lan honetan euskal tradizio gramatikalak dioenaren aurka euskarazko genitiboa *-(r)en* atzizkiaren bidez adierazten dela bakar-bakarrik defendatu gura dugu, eta, era berean, *-(e)ko* atzizkia eratorpen-atzizki bat besterik ez dela. Hala, haur elebakar nola ume elebidunen hizkuntza-jabekuntzan ikusiko ditugun datuen arabera, gure hipotesia argi geratzen da frogaturik. Bestalde, jabekuntza-ikerketetan proposatu den hizkuntza-garapen bereziaren hipotesia ere berretsi egiten dela uste dugu, arlo honetan aztertu ditugun haur elebidunak euskararen kasuan urrats desberdinetan jabetzen direlako bai atzizki batekin, eta bai bestearekin, nahiz eta gaztelaniaz morfema bakarra erabili, *de*, aipaturiko atzizkiok betetzen dituzten funtzio horiek guztiak adierazteko.

1. IKERGAIAREN EGOERA

Frantsesa eta alemana aldi berean eskuratzen ari zen semearen jabekuntza-garapena arakatzean, hizkuntza bien gramatikak bereizita garatu zituela ikusi zuen Ronjat-ek (1913). Araketa burutzeko, semeak hamahiru hilabete (1;01) zuenetik lau urte eta hamar hilabete (4;10) izan zuen arte ekoitzi zituen hitzak eta esaldiak eguneroko batean bildu zituen. Haurrak gramatika biak

bereizita garatu zituen, hizkuntza biak bereizita entzun zituelako. Amak alemanez eta aitak frantsesez hitz egiten zioten, hizkuntzak inoiz nahasten ez zituztelarik. Ikerketa honen ondorioz, Ronjat-ek Grammont-ek esandakoa ezagutarazi zuen: *une personne, une langue* (lagun bat, hizkuntza bat). Esapide honekin zera adierazi nahi izan zuen, helburua haurrak hizkuntza biak bereizita garatzea bada, haurraren gura zuzentzen diren gurasoak, edo diren direlakoak, beti hizkuntza berean mintzatu behar zaizkiola. Ez dio ardurarik haurrak hizkuntza bi entzuteak, biak ikasiko ditu eta, baldin eta guraso bakoitzak hizkuntza bakarra badarabil haurragaz.

Edozelan ere, XX. mendearen lehen erdi osoan gehien iritzia elebitasunaren aurkakoa zen. Iritzi horren aldekoen ustez, elebitasunak kalteak ekartzen zizkion ezagutza-sistema orokorraren garapenari, haurrak, antza, ezin baitituzte hizkuntza biak bereizi eta egiten dituzten nahasketak eta burutzen duten kode-bateraketa guztiz kaltegarriak baitira.

Haur elebidunen jabekuntza-garapena aztertzeko eta goian aurkeztu dugun eztabaidaren inguruan argitasuna aurkitzeko hainbat ikerketa burutu dira XX. mendearen bigarren erdian zehar. Tabouret-Keller-ek (1969), esaterako, frantsesa eta Alsaziako alemana entzuten zituen neskatoren baten garapena aztertzean, haurrak hizkuntza bien gramatikak bereiztea oso berandu arte ez zuela lortu ikusi zuen. Alabaina, kontua zera zen: hiztun helduek eurek ere hizkuntzak ez zituztela bereizten eta nahasita erabiltzen zituztela neskatolari hitz egitean. Oksaar-ek (1971), ostera, gramatikaren bereizketa aurkitu zuen estoniera eta suediera garatu zituen semearengan.

Gaur egun, ikertzaile gehienek onartzen dute haur elebidunek hiru edo lau urte dutenerako gramatikak bereizten dituztela. Eztabaida, ostera, garapen-prozesuari buruzkoa da. Gai dira haurrak gramatikaren garapenaren hasieratik hizkuntza-sistema biak bereizteko edo, ostera, gramatikaren garapenaren hasieran nahitaez igaro behar dute bateraketa-aro batetik? Badirudi era orekatuan hizkuntza bi entzuten dituzten haurrek hizkuntza biak bereiztea oso goiz lortzen dutela. Halaz ere, bereizketa hau garapenaren hasiera-hasieratik gertatzen ote den galdetu behar dugu, hots, burmuinaren eraketak hizkuntza bi aldi berean eta bereizita garatzea ahalbideratzen ote duen.

Volterra eta Taeschner (1978) eta Taeschner (1983) ikertzaileek alemana eta italiara gurasoengandik garatu dituzten ahizpa biren garapenak arakatzearan, hiru aroko garabidea aurkitzen dutela diote. Lehen aroan haur elebidunek hizkuntza bietatik jasotako sistema lexiko bakarra baino ez dute. Urrats honetan ez dute gramatikaren erabilerarik aurkitzen, haien ustez hiztegi hutsa eta bakarra daukatelarik. Bigarren aroan, aldiz, haurrek sistema lexiko biak ezber-

dintzen dituzte jadanik, baina arau sintaktikoen sistema bakarra erabiltzen dute. Azkenez, hirugarren aroan, lexikoan zein gramatikan hizkuntza-sistema biak bereizten dituzte. Garapen osoa hiru urte (3;00) izan aurretik gauzatu dutela ere aipatzen dute.

Aurreko ikertzailean antzera, ume elebidunen garapenean bateraketa-aroa aurkitu dutenen artean Redlinger eta Park (1980) aipatu behar ditugu. Berauek 2 (2;00) eta 3 urte (3;00) bitarteko haur elebidun ezberdinak aztertu dituzte, gaztelania eta alemana, ingelesa eta alemana zein frantsesa eta alemana aldi berean garatu dituztenak. Euren ikerketako ondorioetariko bat zera da, garapenaren hasieran hiztegi eta gramatika bakarra dutela. Vihman-ek (1985) ere, estoniera eta ingelesa aldi berean garatu dituzten haur elebidunen ekoizpenak miaturik, garapenaren hasierako sistema bakarreko hipotesiaren alde egiten du.

Vila-k eta Cortés-ek (1991) sistema bakarreko hipotesia abiapuntutzat hartuta, katalana eta gaztelania aldi berean ikasi duten zenbait haurren ekoizpenak aztertutik, eurek arakaturiko datuetan bateraketa-arorik ez dutela aurkitu diote, eta halako arorik, izatekotan, oso laburra izan behar dela esanez amaitzen dute.

Bestalde, badira garapen bereziaren aldeko hipotesiari eusten diotenak ere. Horrela, Bergman (1976), gaztelania eta suediera aldi berean ikasten ari zen beraren alabaren 0;10 eta 2;05 arteko ekoizpena aztertutik, hiru ondorio nagusitara heldu zen. Batetik, hizkuntza biak bereizita garatzen direla. Bestetik, elebidunek garatzen dituzten hizkuntzetan elebakarrek lortzen duten gaitasun bera erdiesten dutela. Hirugarrenik, haurren ekoizpenean interferentziaren bat gertatzekotan, haurren inguru linguistikoan ere gertatzen delako dela, hots, era horretako interferentziak helduek ere egiten dituztenean agertzen direla. Garunak, beraz, hizkuntza-sistema biak bereizita garatzeko joera erakusten duela defendatzen du.

Padilla eta Liebman (1975), Lindholm eta Padilla (1978, 1979), Lindholm (1980), gaztelania eta ingelesa garatzen dituzten elebidunak arakaturik, De Houwer (1991), nederlandera eta ingelesa garatu dituen haur elebiduna begiztatuz eta Meisel (1989), aleman eta frantses elebidunak aztertuz, garapen bereziaren hipotesiaren alde agertzen dira.

Gurera etorri, Meisel-ek eta Mahlau-k (1988) proposatutako bidetik abiatu da ikerketa Euskal Herrian. Ikertzaile hauek, euskarak eta gaztelaniak dituzten egitura desberdinak ikusirik, guztiz interesgarritzat jo dute gaztelania eta euskara aldi berean garatzen dituzten haurren jabe-kuntza-garapena aztertzea. Orduetik hona makina bat lan argitaratu da arlo honetan eta iker-

tzaile guztiak bat datoz horretan, bereizketa aurkitu baitute gramatikaren garapenaren hasiera-hasieratik. Horrela, Meisel-ek (1994) ezeztapenaren arloan gertatzen den bereizketa ikertu du; Idiazabal-ek (1995) eta Barreñak (1997a, b) izen-sintagmaren jabekuntzaren arlokoa; Ezeizabarrenak (1996, 2001) aditz-morfologiarenean; Larrañagak (1994) eta Elosegik (1998) kasu markakerenean; Barreñak eta Idiazabalek (1996) eta Barreñak eta Almgren-ek (1999) subjektuen eta objektuen markakerenean; Barreñak (2001) egitura txertatuenean; Ezeizabarrenak eta Barreñak (2001) objektu eta aditzen hurrenkerarenean; eta abar.

Nolanahi ere, ikertzaile gehienek onartzen dute gramatika-sistemen arazoa dela garrantzitsuena. Gramatikak bereiztea da oinarritzkoa. Lexikoaren kontua konplexuagoa da, ez baitaude argi, askotan behintzat, lexiko bien arteko mugak. Ondoko adibideetan (1-2), esaterako, beste hizkuntzetatik jasotako hitzak ote dira *aitita* eta *kamioia*? Ikerketa honetan, jakina, ez gara ari unitate lexikoen jatorri historikoari buruz, umeek helduengandik ikasten dituzten hizkuntzei buruz, baizik.

- (1) *aitita me lo ha regalado*
- (2) *kamioia nahi dut*

Oinarritzko hiztegian hamaika hitz darabilgu gaztelaniaz zein euskaraz: *pilota, patata, kotxea, autobusa, polizia, esate baterako, euskaraz, eta ikastola, aitita, zirimir, ertzaina, perretxiko*, gaztelaniaz. Haur elebidunek halako hitzak zein hizkuntzaren bidez ikasi dituzten erabakitzeak zaila dirudi. Lexikoaren arazoa, beraz, beste maila batekoa da, jabekuntza-garapenari dagokionez behintzat.

Bestalde, pragmatikaren arloko kode-aldaketa eta kode-nahasketa fenomenoak ere, ikerketa honetatik kanpo geratzen dira. Elkarrizketan zehar hizkuntza aldatzeari kode-aldaketa deritzo, eta berau egin ahal izateko argi dago elebidunak gramatika-kode biak menperatu behar dituela. Kode-nahasketa, aitzitik, hizkuntza batean beste hizkuntzaren hitzak edo esaldi-atalak tartekatzeari deritzo.

2. METODOLOGIA

Lan honetan aurkeztuko ditugun datuak ikerketa-proiektu ezberdinetatik jasoak dira, baina proiektu guztiek datuak biltzeko erabili duten metodologia oso antzekoa izan da. Haurrak urtebete eta erdi (1;06) egin dutenetik lau

edo bost bete arte, gutxi gora behera, bidez grabatuak izan dira. Grabaketa-saioak etxeko berezko giroan eginak daude, haurrak gurasoren batekin, nebarrebeekin edota lagunekin jolasten ari direlarik. Gainera, saioak hamabostero burutu dira, 30-45 minutuko iraupenaz, hurrek garatu duten hizkuntza bakoitzean.

Erabiliko ditugun datuak, beraz, etxekoengandik eta txiki-txikitatik hizkuntza bakarra edo bi ikasi dituzten hurrek ekoitzirikoak dira. Horrez gain, haur gutxiren datuak diren arren, garabide longitudinala eskaintzen digute, ume berberen garapena ikus baitezakegu. Haur euskaldun elebakarren datuak, batetik, Euskal Herriko Unibertsitateko HEGEHJ¹ ikerketa-taldeak (Idiazabal 1991a) eta Hamburgeko Unibertsitateko BUSDE² ikerketa-taldeak (Mahlau 1994) elkarlanean bildurikoak dira eta, bestetik, Zubirik (1996-1997,1997) Nafarroan jasotakoak. Guztira hiru ume elebakarren datuak aztertu ditugu. Umeetako bat bizkaitarra da eta beste biak nafarrak. Euskara eta gaztelania aldi berean garatu dituzten ume elebidunen datuak HEGEHJ eta BUSDE taldeek bildurikoak dira. Bi dira haur elebidunak, bizkaitarrak biak. Gaztelaniadun elebakarren datuak Hernández Pina-k (1984), Aguirre-k (1995) eta López Ornat-ek (1994) euren ikerketetan eskaintakoak dira.

Aztertu ditugun datuak hurrek lau urte (4;00) bete bitartekoak dira. Ume nafarrenak, ostera, 3 urte (3;00) bete bitartekoak. Haur elebidunek hizkuntza biak aldi berean garatu dituztela erakusteko, Mikelen EBBL (Esaldiaren Bataz Besteko Luzera) neurriak erakutsiko ditugu. Neurketa honek morfosintaxiaren garapena izartzeko era bat da eta hizkuntzaren garapenean lorturiko mailaren adierazletzat hartu izan da. Heldutasun-neurketa hau grabaketa bakoitzean ekoitziriko lehen ehun esaldietako hitzak eta morfemak zenbatuz egiten da, Brown-ek (1973) jarririko irizpide orokorreari jarraiturik. Neurketa honen egokitzapena euskarara eta gaztelaniara egitean, Idiazabalen (1991b) eta Siguán, Colomina eta Vila-ren (1990) proposamenak jarraitu ditugu. Lehen taulan, adibidez, ikus ditzakegun EBBL-neurrietan argi geratzen da Mikelek, haur elebidunetako batek, hizkuntza biak antzeko erritmoan bereganatu dituela.

¹ *Haur Euskaldun Gaztelaniadun Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza* ikerketa-taldea Itziar Idiazabal irakasleak zuzendurikoa da.

² *Baskisch und Spanisch: Doppelter Erstspracherwerb - Euskara eta Gaztelania: Bi Lehen Hizkuntzen Jabekuntza* ikerketa-taldea Jürgen Meisel irakasleak zuzendurikoa da.

1. taula. EBBL neurriak Mikelen ekoizpenetan

Adina	Euskara	Gaztelania
1;06	1,02	
1;07	1,08 eta 1,10	1,17 eta 1,40
1;09	1,35 eta 1,44	1,50 eta 1,37
1;10	1,71 eta 1,82	1,92
1;11	1,96	1,98
2;00	2,53 eta 2,13	2,46 eta 2,03
2;01	1,97	2,84
2;02	2,41	2,93
2;03	2,76	3,08 eta 3,10
2;04	3,38 eta 3,95	3,02 eta 3,67
2;05	3,17 eta 3,12	3,05
2;06	2,99	3,08 eta 3,17
2;07	2,96	3,56
2;08	3,41	3,28 eta 3,55
2;10	4,24 eta 4,11	4,47 eta 4,11
2;11	3,82 eta 3,41	3,95 eta 4,23
3;00	4,40	4,12

3. ARAKATURIKO HIZKUNTZA-ARLOA

Ikerlan honetan arakatuko dugun hizkuntza-arloa, Txillardegiren (1978) hitzak erabilirik, euskaraz eta gaztelaniaz era desberdinean egiten den zenbait kasuren balio semantikoaren jabeakuntza da, edo Euskaltzaindiaren terminologia (1985) erabilia, zenbait gramatika-funtzioren jabeakuntza.

Hasiera batean, asmoa genitiboaren egitura hizkuntza bietan aztertzea izan zen, hots, alde batetik euskarazko benetako genitiboa, *-(r)en* (Eguzkitza 1993, 1997), eta *-(e)ko* atzizkien bidez betetzen dugun erlazio-eremua; eta, bestetik, gaztelaniaz *de* preposizioaren bidez adierazten direnak. Alabaina, berehala konturatu ginen gaztelaniaz *de* preposizioaren bidez adierazten direnak, sinkretismoa dela eta, euskaraz hainbat modu desberdinetara adierazten direla eta arazoa guk hasieran uste genuen baino konplexuago bihurtzen zela.

- | | |
|-----------------------------|-------------------------------------|
| (3a) umearen jostailua | (3b) el juguete del niño |
| (4a) amaren bazkaria | (4b) la comida de la madre |
| (5a) igelaren harrapaketa | (5b) la captura de la rana |
| (6a) gaixotasunaren arazoak | (6b) los problemas de la enfermedad |

- | | |
|-------------------------|--------------------------|
| (7a) idazmakina | (7b) máquina de escribir |
| (8a) eskolako laguna | (8b) amigo de la escuela |
| (9a) Durangokoa naiz | (9b) soy de Durango |
| (10a) zurezko jostailua | (10b) juguete de madera |
| (11a) etxerako bidea | (11b) el camino de casa |
| (12a) Durangotik dator | (12b) viene de Durango |

Aurreko adibideetan ikus dezakegunez, gaztelaniaren gramatika *de* morfemaren bidez adierazten direnak asko eta oso ezberdinak dira. Lehenengo eta behin, jabetza adierazten da (3b), euskaraz *-(r)en* atzizkiaren bidez ematen duguna (3a), baina, modu berean, *-(r)en* atzizkiak bezala, genitibo kasuaren beste hiru funtzioak ere betetzen ditu: egiletza (4), osagarri zuzena (5) eta adjunkzioa (6). Horretaz gain, gaztelaniaz *de* erabiltzen da euskaraz izen-elkarketa erabiltzen dugunean (7), eta orobat *-(e)ko* postposizioaren bidez adierazten ditugunak³ adierazteko, adjektiboa (8), jatorria (9), berez adjektibo bat baino ez dena, eta gaia (10) edo norabidea (11), non postposizio-sintagma bat, *zurez* edo *etxera*, izen bihurtzen dugun⁴. Amaitzeko, mugimenduaren jatorria adierazten duen *de* aurkitzen dugu gaztelaniaz, euskaraz *-(e)tik* postposizioaren bidez ematen duguna (12).

2. taula. Azterturiko morfemak

	euskaraz		gaztelaniaz
genitiboak: izenaren osagarriak	<i>-(r)en</i> (3a, 4a, 5a, 6a)	genitiboak: izenaren osagarriak	<i>de</i> (3b, 4b, 5b, 6b)
izen-elkarketa	∅ (7a)	izen-elkarketa	<i>de</i> (7b)
eratorpen-atzizkia	<i>-(e)ko</i> (8a, 9a, 10a, 11a)	<i>Preposizioa</i>	<i>de</i> (8b, 9b, 10b, 11b)
postposizioak	<i>-(e)tik</i> (12a)	<i>Preposizioa</i>	<i>de/desde, por</i> (12b)

³ Euskal gramatikan, gure ustez, lau kasu agertzen dira (Eguzkitza 1997), aditzean komunztadura daukatenak ergatiboa, absolutiboa eta datiboa, alde batetik, eta izenen arteko erlazioak adierazten dituen genitiboa, bestetik. *-(e)ko*, berriz, funtzio bi betetzen dituen eratorpen-atzizkia dugu, postposizio-sintagma izen-sintagma bihurtzea (*Santurtzitikoa*) eta izen-sintagma adjektibo bihurtzea (*gaztain kolorekoa*).

⁴ Argi dago, aurreko oinoharreen ere esan dugun moduan, edozein postposizio-sintagmari atxiki dakiokela *-(e)ko* eratorpen-atzizkia: *zurretako oparia, nebarekiko harremanak ...*

Hauetz gain badira gaztelaniaz beste zenbait egitura *de* preposizioaz erai-kiak eta euskaraz beste bideren bat jarraitzen dutena, hala nola, lanbideren bat adieraztekoa (13).

(13a) lorezain egiten du lan (13b) trabaja de jardinero

Haurren jabekuntza-garapenean, beraz, gauza pare bat begiratu nahi dugu. Batetik, ea euskaraz eskatzen duen hurrenkera berezia darabilten haurrek euskarazko atzizkiak erabiltzean, hau da, kasudun zein postposiziodun sintagmak izen-ardatzaren ezkerrean jartzen ote dituzten (3a eta 8a), eta gaztelaniaz alderantzizkoa egiten ote duten (3b eta 8b). Eta, bestetik, gaztelaniazko *de* preposizioaren funtzio guztietarako euskarazko balioak bereganatzen dituzten.

4. HIPOTESIAK

Giza-garunaren eraketak, den delakoa izanik, hizkuntza bi aldi berean garatzea ahalbideratzen duela uste dugunez, haur elebidunengan gertatzen den gramatika-garapena berezia izan behar dela nahi eta nahiezko hipotesia dugu. Horregatik, ume elebidunek gaztelaniaren gramatika *de* preposizioak biltzen dituen funtzioak, euskarazko atzizki ezberdinen bidez gauzatuko dituzte hasiera-hasieratik. Ez dugu uste, esaterako, *-(r)en* atzizkiaren hedakuntza okerrik egingo dutenik, edo gaztelaniaz beste preposizioen baten erabilera gauzatuko dutenik. Are gehiago, argi ikusten da *-(e)ko* atzizkiaren bidez adierazitakoak genitiboak baino geroago agertzen direla, eta *-(e)ko* ez dela genitiboaren marka. Horretaz gain, eta umeek entzuten dituzten eredu arabera, hitz-hurrenkerak ere ezberdinak izango dira hizkuntza bietan.

Gainera, gure hipotesiaren arabera, hizkuntza biak era orekatuan garatzen dituztenez, gramatika-funtzioak bateratu samar agertuko direla ere itxaron behar da. Halere, datuak biltzeko erabili den metodologiagatik, baliteke bateratasunaren lekukotasunak biltzean hileetako tartea behar izatea balioak aurkitu ahal izateko.

Edozelan ere, elebidunek garatzen duten hizkuntza bakoitzean elebarrak erdiesten duten gramatika-gaitasun bera izan behar dute. Honek, nolahi ere, ez du esan gura ume guztiek adin berean hizkuntzak garatzen hasiko direnik, gauza jakina baita hizkuntza-heltze edo garatze-unea ezberdina dela haurrez haur eta ez dagoela adin zehatzik hitz egiten hasteko.

5. DATUEN AZTERKETA

Hizkuntza bietako datuak elebakarren eta elebidunen ekoizpenetan aztertu behar ditugunez, atalka jardungo dugu.

5.1. Euskarazko ekoizpenak

Egitura ezberdinen garapenari begiratu ez gero, euskarazko ekoizpenak arakatzearan azterturiko bost haurrengan antzeko jokabideak aurkitu ditugu (ikus 3. taula). Batetik, ume guztiengan goiztiarragoak dira *NORENA/NOREN* egiturak *NONGOA/NONGO* egiturak baino, alegia, *-(r)en* atzizkiaren bidez adierazitakoak, *-(e)ko* atzizkiaren bidez adierazitakoak baino. Bigarrenik, haur guztiak ekoizten dute lehenago *-(r)ena* egitura *-(r)en* egitura baino. Hirugarrenik, gauza bera esan daiteke *-(e)koa* eta *-(e)ko* egiturei buruz. Laugarrenik, *-(e)zkoa* egitura eta hitz-elkarketa den hurrenkera hutsean oinarriturako erlazioa beluagokoak dira eta ez ditugu ume guztiengan bildu, hainbaten Bianditz eta Egoitzen ekoizpenak 3 urte bete arte begiztatu ditugulako bakarrik. Bestalde, gauzak ez daude hain bateratsu *-(e)tik* atzizkiaren inguruan. Oro har, *hemendik*, *hortik* eta gutxiago *handik*, oso goiz darabiltzate haur guztiak. Alabaina, izenei edo sintagmei erantsitako *-(e)tik* atzizkidun adibideak haur batzuegan goiz ikusi baditugu ere, beste batzuegan geroago bildu ditugu.

3. taula. Arakaturiko euskal egituren agerrera⁵

	Bianditz elebakarra	Egoitz elebakarra	Oitz elebakarra	Mikel elebiduna	Peru elebiduna
<i>-(r)ena</i>	1;06	2;01	1;11/2;00	2;01	2;04
<i>-(r)en</i>	2,00/2;01	2;03	2;00	2;04	2;07
<i>-(e)koa</i>	2;01	2;03	2;03	2;04	3;01/3;03
<i>-(e)ko</i>	2;03	2,03	2;04	2;05	3;04
<i>-(e)z/tik-koa</i>			2;05/2;10	2;11	3,04
hurrenkera		2;07	2;05/2;08	2;08	2;11/3;00
<i>-(e)tik</i>	2;01	2;09	2;04	2;11	2;09

Iñaki Camino

1. SARRERA

Omenaldi liburu honetarako merezimendu osoa duen Txillardegik euskararen etorkizunerako oinarri-oinarrizko lana egin du beti. Guk ere oinarrizko ideia batzuk ekarri nahi ditugu horren heldugabe dagoen Euskal Soziolinguistikaren eremura, Antiguako hizkuntzalari donostiarrak esanen lukeenez, euskararen endoglosiaren alorrera. Han-hemenka bildu ditugun ezpalak dira, beste hizkuntza batzuetan gauzak egun zer-nola gertatzen diren erakusten digutenak; nola edo hala, euskararen baitan gertatuko diratekeen aldaketa eta berrikuntzek ez lukete aurkeztuko ditugunetarik guztiz urrun ibili beharko; gune arras euskaldun batzuetako salbuespenak salbuespen direla eta egun nagusi dabilen eredutik guztiz urrun gelditu diren hizkeren errealitatetik landa, hori da euskara berriari buruz dakigun apurrak oraingoz adierazten diguna.

Idatzi ditugun lerro llabur hauetan hizkuntza baten barreneko aldaera edo formen arteko lehiak aritu gara gehienik, ez bi hizkuntzaren edo gehiagoren arteko gora-beherez. Hartara, hizkuntzaren soziologiako gaiak alde bat utzirik, soziolinguistikaren ardatzari uztartuko gatzazkio funtsean.

Hizkuntzaren aldakortasunaren gai zabalean murgiltzen denak badaki dialektologiatik soziolinguistikara dagoen muga lausoaren inguruan igerikatu

* J. A. Letamendiak, M. L. Oñederrak eta K. Zuazok artikulu honi oharra egin zizkioten 1999ko udan; hirurak hartzekodun ditut eta eskerrak ematen dizkiet. Gaiak diharduten oraintsuko lan batzuen berri ekarri da orain artikulura, baina 1999an idatzitakoa bera da funtsean dakarguna.

behar duela; hartara, honako eremuak ukituko dira artikuluxka honetan: euskalkien arteko eragin diaglosikoak¹, eredu estandarra eta folk hizkeren arteko adbergentzia edo goitik beherako eragin diglosikoa, hizkera baten barreneko berregituraketa, hizkuntza-arau monozentrikoen eta plurizentrikoen konstelazioak, euskalkien erabilera eta prestijioa eta herriko hizkeraren alde azken urteotan Euskal Herriko hainbat eta hainbat bazterretan sumatzen den kementa, iritzi batzuen kasuan ikuspegi idilikoa izatera ere iristen dena. Dena den, garrantzi handiko gauza da auzi hau estetika hutsa ez dela jabetzea; azken batean, hizkuntzaren kalitaterik ezak eta haur anitzen euskaran sumatzen den gaitasun murrizak etxeko eta lagunarteko hizkerak jasan duen ahultzean baitute jatorria eta guztiz loturik dago honekin guraso eta seme-alaben arteko euskararen eten edota jauzia (cf. Zuazo 1999a, 1999b, 2000; Martínez de Luna 2001: 106-8 eta Salaburu 2002: 158 eta 168). Halaz guztiz ere, guk ez dugu arazo bihurtu den gai hau ukituko, hizkeren arteko auzira mugatuko dugu jarduna. Arazoak konpontzen hasteko, gainera, deskribapenak behar izaten dira eta definizioetan bat etortzea ere gauza beharra da.

Bestalde, gure herritik kanpo ageri diren joerei eta norabideei begiak herstea jokabiderik egokiena iruditzen ez zaigunez, hor barrena sumatzen denari ere arreta amñi bat ezarriko diogu.

2. HIZTUNA ETA DIALEKTOA AURREZ AURRE

Dialektoak bikoitza den eginkizuna du: bere hiztunei hizkuntza horretako gainerateko hizkeretako kideekin elkar ulertzeko aukera ematen die dialektoak, baina zeregin demarkatiboa ere badu: hizkuntza hori baliatzen duten beste erkidegoetarik bereizteko, gizatalde batek bere hizkera berezia du (Séguy 1973). Bereizkuntzaren oharren horretan oinarritzen du Terracini-k dialektoaren sentimendua (1937, 1960); aipatu sentimendu horren arabera hiztuna bere erkidegoari loturik egon ohi da. Hizkera-erkidegoaren bizitasunaren ezaugarria da arestiko sentimendu hori eta Euskal Herriko bazter guztietan berdin gertatzen ez bada ere, Bizkaian adibide nabarmenak ditugu: «eixu ondarrutar!» entzuten genien bertako gazteei duela hogeitau urte arrantzale-herri

¹ *Diaglosia* darabilgunean hiztunak hizkera geografikoen artean batetik bestera edo bat baino gehiagotara bere mintzoan egiten duen iragatea adierazi nahi dugu; aldiz, *diglosia* diogunean, bi ereduren arteko konkurrentziaz dihardugu; eredu horietarik bat, gainera, nagusi dabilena da. Gure kasuan euskara batua eta norberaren herriko hizkera liriateke bi ereduok.

horretan. Lekeitioko kasua ere nabarmen agertu da egin diren inkestetan: ikus (Uhalde, Elordieta & Elordieta 1994: 1-5).

Eremu dialektal-geografikoan erkidegoaren barrenera begira dauden tradiziozko jarrera berdintzaile eta konbergenteekiko hiztunak nolako kokagunea hautatzen duen azter daitekeen gauza da. Horretarako, gizartearen barreneko sareketan norbanakoak dituen hartu-eman eta erlazioak nolakoak diren eta erreferentziatzat zein talde jotzen d(it)uen ezagutzea baitezpadako baldintza da; norbanakoaren hizkera-jardueran oinarriturik joerek eta norabideek berekin loturik daramaten prestijioaren arabera hiztunak bere burua non kokatzen duen edo non kokatu nahiko lukeen antzeman dezakegu². Ezin ahantzi dugu prestijioaren ifrentzuan estigma izpiak edota hainbat hiztunen ziurtasun linguistikorik eza suma ditzakegula; ikerketa xeheek erakutsi dutenez, hiztunok hizkuntzaren baitako autogorrotoraino edota prosodiaren aldetikako ahoko giharreen doitze “kultural” edo “gizartezko”-etaraino irits gaitzke; horretaz jabetzea ez legoke gaizki: hizkerarekiko jarreraren ikuspegi kognositiboan, sinesteak, estereotipoak eta perzeptzioak sar ditzakegu eta alderdi afektiboan, zirrarak eta sentimenduak.

Unean uneko hizkuntza-aldaketa sinkronikoen inguruneei erreparatuz egin diren hizkuntza-azterketek erakutsi dutenez, arestiko kontzeptu eta bizikizun horiek guztiek, oharkabean baizik ez bada ere berebiziko garrantzia dute hiztunarentzat. Ez dezagun ahantz hizkuntzalaritza gizarte zientzia dela eta gizakia funtsezko partaide dela eskuartean daukagun irazki honetan guztian.

Oinarri gisa hiztuna hartuz gero hasteko bederen konbergentziaren honako eredia baliatzen ahal dugu: hiztunak gizarte-integrazioaren beharra sentitzen du beste norbaiten aitzinean dagoelarik (Giles 1977: 28). Egokitzapenaren teoriak, hiztunak beren hizketa-estiloak elkarri doitzeko edota berdintzeko motibaturik egon daitezkeela dio; norberaren edo taldearen baloreak, jarrera eta asmoak, funtsezko eragile dira honetan. Egokitzapenak nahiz dibergentziak, gizartezko onespina edota gaitzespena komunikatzeko mekanismo gisa joka dezakete (Giles 1980: 105). Konbergentziak bere kostuak ditu, egokitzeko egiten den eginahala eta norberaren integritatearen eta nortasunaren galera neurri bat, esaterako. Konbergentziarik emankorrena emeki gertatzen dena da, aldaketa mailakatua denean.

² Euskararen egungo egoera kontuan harturik, uste dugu berdin-berdin hauta lezakeela euskal hiztun batek bere burua bereizteko hala hizkera-eredurik herritarrena nola estandarrena; hemen giltza bere eguneroko inguruan zein eredu den nagusi jakitean legoke. Ez dago prestijio monolitikorik; non nola.

Dibergentziak edo konbergentziarik ezak, aldiz, norbaiten nortasun eta kulturako bereizgarriari eusteko ekintza sinbolikoa adieraz dezake. Hainbat kasutan hiztunak ez dio bere hizkera-estiloari eutsi nahi bakarrik: beste hiztunekiko elkarreragintzan inoiz bere hizkera-eredua eta bestelako hizkererikoko dibergenteak diren bere ezaugarriak enfatizatzen ere jo ohi du. Arestiko konbergentziakoa bezala beste hau ere jarrera psiko-linguistikoaren estrategia den aldetik, gizartezko disoziazio-taktika gisa ere har daiteke aipatu jokiera.

Hau da guti gora behera pertsonen gertatzen zaiena, hiztunoi gertatzen zaiguna; aldeak alde eta historiako errealtateen emana ahantzi gabe, dialektoei edo hizkeren gertatzen zaiena honekin guztiarekin loturik legoke. Hizkera batek eduki dezakeen konpromisoaren adibide gardena ageri zaigu Gipuzkoako Lasarteko hiketako adizkietan: eguzkiarekin zuri eta ilargiarekin beltz egin behar den uneetarako, *zitziskien* nahiz *zizkiateken* 'zizkidaaten' ageri dira errepertorioan, biak berdin Lasarteko dira; konbergentzia da trantsizio-eremuen sorrera eragiten duen prozesuetarik bat.

3. ALDAKETA GARAIAN MURGILDURIK: ZARAUTZ, AZPEITIA, HONDARRIBIA ETA ZALDIBIKO ADIBIDEAK

Ahozko euskararen inguruan orain berean iragaten ari garen hainbat prozesu gure aitzinetik bizi izan dituzten hizkuntzen kasuan nabarmena da, dela koineizazioagatik, dela industrializazioagatik, dela urbanizazioagatik edo dela estandarizazioagatik, aldakortasunaren ardatz horizontaletik bertikalera bideratu direla dialektologiako azterketa eta analisi lanak: maila geografikotik maila diastratikoan lan egitera jo dute hizkuntzalariek soziolinguistikaren gunera helduaz. Prozesu horretan, modernitatearen esparruko eguneroko berrikuntza askotariko berdintzaile gero eta ugariagoak, gizarte-mailako aldaketak eta mugimendu demografikoak izan dira hizkuntza-egoera berrien erantzule nagusiak; honelakoetan hizkuntzari, eragile baino gehiago, gertakarien jasale eta ondorioen biltegi izatea dagokio, ikusle eta eramaile izatea.

Dagoeneko, begien bistakoa da Euskal Herriko eremu batzuetan jatorrizko hizkerak, herrikoak, dialektoak, euskalkiak, sendo dirauela. Beste batzuetan, berriz, hizkuntzaren aldioroko erabilera eta orain arteko transmisio naturala hainbat interferentzia edo zailtasunek inguratzen duten gunetan, jatorrizko hizkerak eta ereduak urtzen ari dira, beste ur-korrante ugariago eta eman handiagoko batzuetara murgiltzen jo dute, ordura arteko hizkera-erre-

ferentzia dialektal nagusia gaitzak harturik baitago. Donostiakoa izan daiteke adibide nabarmena (cf. Camino 2000).

Ez dezagun pentsa, bestalde, soilik gurean ari direla herri-hizkerak urtzen. Euskal Herrian bart arratseko gertakaria denez, estandarizazioaren garaiaren hurbiltasunagatik sentitzen dugu hori, hizkuntzaren batasun esplizitua duela hogeita hamabost urte hasi zelako eta egun ere, inoiz baino areago, Euskaltzaindia erabakiak hartzen eta erregelak hedarazten ari delako. Iruditzen ez bazaigu ere, hemendik kanpo, industrializazioaren ondorio den urbanizazio-prozesua eta homogeneousiorantzko joera orokorra herri-hizkerak koloregabetzen ari dira. Italiako hizkeren egoeraz diharduen Sobrero-ren 1997ko azterketa batean (Görlach 1999: 187), eredu estandarren hedadura eta dialekto nabarmen edo markatuen beheraldi "drastikoa" aipatzen zaizkigu. Alemanian ere antzera dabilta: XX. mendearen bigarren erdian alemaniera estandarretik urrunago dauden hegoaldeko dialektoak dira berenetik gehien utzi dutenak; idazle batzuek eraiki duten *Southern Standard High German* delako eredia finkatuko eta gorpuztuko ote den oraino ikusteko dagoen gauza da (Anzenhofer 1998: 101).

Are bortitzagoa da oraino Danimarkan gertatu dena: herritarren % 5 mintzo da soilik sortu den alderdiko dialektoan, gainerateko danimarkar guztiak hizkeraz bederen kopenhagetartu dira. Mende honen bigarren erdian izugarri gertatu omen da hizkuntza-desberdintasun geografikoen apaltzea, dialektoak berdintzera jo da. Berdinkaratze edo «dialect levelling» prozesu horretan, ezaugarri estandarrak herrialde guztian gaindi hedatu dira, Kopenhagen mintzatzen den aldakirantz gertatu da konbergentzia (Kristiansen 1998).

Era berean, bizimoduaren homogeneousazioa hainbat hiritan «urban variety» direlakoan nortasuna ere ahultzen ari da: Belgikako Brujasko hizkera urbanoa mendebaldeko flandesera orokorrak irentsi du, azken honek etorkia nagusiki errurala eta orain arteko erabilera suburbanoa duen arren (Taeldeman 1998: 16).

Euskararen kasuan estandarizazioaren garapena berriagoa da eta bere ondorioak, azterketa sakon eta sistematikorik egiten ez den artean, ezkutukoagoak dira: hizkuntzalaritzaren ikuspegitik egin soziolinguistikako azterketez dihardugu, jakina: bestela esan, Oñederra 1992, Amorrortu 1995 edo Garmendia 2003 bezalakoez.

Hasi beharko dugu, bada, soziolinguistikako ikerketetan murgiltzen eta *parole* edo *performance* aztertzen duen hizkuntzalaritza egiten ere. Ez du honek esan nahi ohiko dialektologiako ikasketak gainditurik ditugunik edota

orain artean eta egunotan kanpoan egiten diren soziolinguistikako azterketa guztiak mimetikoki eta erarik mekanizistenean hona itsura egokitu behar ditugunik; ez horixe. Leku batetik bestera hizkuntzaren jokabide sinkronikoa eta hiztunen estrategietan, dela norbanakoaren aldetik nahiz talde bateko partaide gisa, berdintasun nabarmenak daudela Pernandoren egia esatea bezalakoa da: hiztun guztiak pertsonak dira ororen buruan. Baina egia da, bestalde, hizkuntza guztiak ez dutela egoera bera pairatzen eta hiztun guztiak ez direla presio eta indar soziolinguistiko berdinen meneko. Horrexegatik, euskararen azterketan erabil daitezkeen metodologiak eta bitartekoak, azterketaren helburuak eta euskararen egoerak eta izaera bereziak baldintzaturik beharko dute egon eta ez hor zeharko eredu eta gogoen arabera horrelakaturik.

Azken garai honetan euskararen barrunbe gehienetan gauzak aldatzen ari direla ez da anitz esatea; halaz guztiz ere, aldaketa horien deskribapen xehe eta zehatzak egitea gauza beharra dela adieraztea edo erakustea dagokigu arloko oi. Gauzak ez dira zuriak edo beltzak, berrikuntzak ez datoz beti iturri edo gune beretik, ez doaz beti-beti norabide berean eta ez ditu beti zio berberak eragin edo sortu; ez dituzte, gainera, leku guztietan edota hiztun-talde guztien artean emaitza berak izaten. Ikas dezagun jabetzen, gizarte-zientzietan bilakabideek eta gertakariak ez dutela kausa bakar bat izaten, koiuntura askotarikoaren inguruan gerta daitezkeela, kulturalak, historikoak, gizartezkoak edo psikologikoak diren zioek eraginik. Dena ez da leku guztietan erritmo berean gertatzen.

Adibide inozo batek argitzen ahal digu kontua: esan daiteke zarauztar gazteek hein batez Zarauzko euskararen jarraipentzat jo dezakegun hizkera egiten dutela; mintzatzen direnean arreta pixka bat ezartzea aski da egiten dutena euskara batua ez dela jabetzeko. Zarautzen, orain artean Nor Nori aditz sailean oraineko aldaeretan lehen pertsonan *zat* & *zait* aukera izan da, hori da dialektologia-lanek dioskutena; egungo gazteari *zait* entzunen diozu eta «bai, gure aitak *zat* esaten du» ere kontatuko dizu. Bi aldaerak herrikoak izanik eta horietarik bat eredu estandarri dagokionez, ulertzekoa da egungo gazte zarauztarren aukera; halaz ere, entzunen diozu zarauztar gazteari *zaku-rik*, *zaigu*-rekin batera, baina bigarrena gehiago. Berebat, *erten* 'irten', *ostro* 'osto' edo *itxe* herrikotzat ezagutuko dizkizu eta etxean agian erabiliko ditu inoiz, baina Zarautzen gazteen artean nagusitzen ari direnak *atera*, *osto* eta *etxe* dira. Ordea, nork asma lezake *a priori* zer gertatzen ari den Azkoitian, are zer gertatuko den Azkoitian gazteen artean *-zat* 'zait' edo *zako* 'zaio' aldaerez dihardugu-, orain arteko herriko aldaera bat bakarra izanik eta eredu estandarrekoa ez bezalakoa? Ez dugu uste oraingoz gazte azkoitiarrak *zait* edo *zaio*-ra lerratuko direnik.

Zinez adierazgarria da Azpeitiko kasua³. Herri honetan euskara indarrean dago eta ez diogu hau erabileraren mailagatik soilik; corpusean ere bizitasun nabarmena sumatzen da. Auzotik auzora handixkoa eta, beraz, aberatsa da dagoen aldea eta hitzunek aise bereizten dute pertsona bat zein auzotakoa edo ondoko zein herritakoa den. Azpeitiko bereko hizkeraren transmisioak etenik ez du, bestalde. Ez dago ia jauzirik gazteen eta helduagoen arteko hizkeran, oraindik ere eredu etxekoa da eta horixe da kalean nagusitzen dena, herrikoa, Azpeitiko berekoa. Ez da Urola aldeko koinerik; lagunartean, kalean, Azpeitiko egiten da. Adierazgarria da, dena den, gazteen artean desberdintasunak egotea ere; aipatu digutenez, baliteke horrelako zerbait ere gertatzea eta honek Azpeitian berean gazteentzat adierazgarri edota talde-senaren emaile diren aldaerak daudela adieraz lezake, hizkuntzaren osasuna ona dela, alegia.

Etxeetan adinekoek sobera berria dena edota makur esana zuzentzen dute: aittittek, esaterako. Azpeitiko hizkerak errealtateak behar duen ele bat falta duenean, batuko lexikora joko du gazteak agian, baina sistema fonologikora guztiz egokiturik: *geltokiye*, *udaletxie*, *argazkiye*... Dena den, nahastekotan erdara nahasten da, ez Azpeitikoak ez diren beste hitzak edo maila goretako mintzoak. Lepo erabiltzen omen da gazteen artean galderetarako *jute al gea?* / *ite al den?* makurra. Agian *adibidez* hitza nagusitzen arituko da batzuen artean *gonbaaziyo batea* / *konpaaziyo batea* horren kaltetan, gazte batzuek *ezgendun* erabiliko dizute *ezkendun*-en ordain, baina oro har herrikoa berekoa da gazteek egiten dutena: *ostrue*, *ankie*, *narruzko txupie* 'larruzko jaka', *ikixi* 'ikasi' erabiliko dituzte. Horrez gain adiskideen artean batua erabiltzea edota zuka jardutea ezin pentsatuzkoak ditugu eta *s* eta *z* fonemak bereiztea ere irrieragingarritzat jotzen dute bertako gazteek; gaztelaniaz ere neutralizazioa bizkarkariaren alde gertatzen da, ez apikariaren alde. Apikaria, inoiz erre-zildarrei adarra jotzeko erabiliko da.

Guztiz bestelakoa da Hondarribiko egoera⁴. Hondarribian eragin handia izan du bertako euskararen kanpotik herrira bizitzera etorri direnen kopuruak; hauetarik anitz Irun erdaldunetik etorriak, gainera. 1996an biztanle guztietarik %46'3 baizik ez ziren herriko seme-alabak. Gazteen artean egun eredu batua entzutea –euskaraz ari direnean– ez da harritzeko gauza: *faki yaiz* eredukoak txantxetan edo bezala erabiltzen omen dituzte inoiz.

³ Datuak Izaro Egiguren Bastida eta Maitane Elorza Zubimendiri esker eskuratu ditugu.

⁴ Zinez egokia gertatu zaigu Txomin Sagarzazu bertako hizkuntzalariaren argitaratu gabeko "Hondarribiko hizkeraren aurkezpena" hitzaldia, Hendaia Zokoburun 1997ko urriaren 17an emana.

Bertako institutua ongi ezagutzen duen Juan Antonio Letamendiak dioskunez euskarazko irakaskuntzak eta alfabetatzeak, Hondarribiko gurasoak dituzten gazteek etxeko hainbat aldaera galdu eta ordezkatu izana eragin du; arruntak ziren duela bi hamarkada honelakoak ikasleen idazkietan: *dire*, *digu* ‘dugu’, *urayek* ‘haiek’, *ibatzi*, *ekuxi...*, baina egungo idazkietan ez da ageri honelakorik. Duela bi hamarkada euskara asignatura bat baizik ez zuten ikasle anitzek eta oinarria etxekoa berekoa zuten; egun gehienek dena euskaraz ikasten dute eta herriko aldaerarik ez da ageri beren idazkietan. Ikasgeletan ahozko hizkera guti landu izana da irakaskuntzaren beste akatsetarik bat. Esan gabe doa, salbu hondarribitarrak, irakasleak Euskal Herri guztiko hainbat herriakoak izan direla. Nafarroako Arantzan, esate batera, haurren gurasoak kexu dira, baizik eta maisu-maistrek erakusten duten euskara ez dela herrikoa. Halaz guztiz ere etxeko eta lagunarteko hizkuntza-oinarriak sendo dirau Bortzirietako herrixka honetan.

Gipuzkoako Goierriko Zaldibiko hizkuntza-unibertsoa aztertzen diharduen Larraitz Garmendia Munduatek dioenez (2003), herri honetan adina eta beharbada arauarekiko hartu-emanen dira hizkuntza-aldaketa soziolinguistikotarako eragingarrienak. Haren lanean ez da aztertzen euskara estandarrak zertan eragin dion Zaldibiko egungo folk hizkerari, baizik eta euskara batu sortu aitzineko garaiko belaunaldien arteko hizkuntza-etenak zein diren. Honela, azentukeran 80 urteko jendearen belaunalditik 50-60 dituenarenera aldaketa dagoela ohartu da ikertzaile zaldibiarra. Zernahi ere den, Zaldibiko hizkuntza-unibertso hori xeheki eta soziolinguistikoki aztertzean –baserria vs. kalea, auzoak vs. herriko gunea, euskaraz alfabetatuak vs. alfabetatugabeak, emaztekiak vs. gizonak, gazteak vs. helduak vs. adinekoak...–, garbi ikusiko dugu zein berrikuntza, zein aldaketa eta zein iraultza dagokion euskara batuari, zer dagokion batua etorri aitzineko euskararen berezko bilakabideari eta zer dagokion zeri.

4. ADBERGENTZIAREN EREDU DIGLOSIKO BERTIKALA

Mende honetako gizarte-aldaketa sakonek eta modernizazioaren urratsek herrien kulturaren berdintze eta homogeneizatze nabarmena eragin dute. Honela, Europako hizkera-erkidego gehienetan eredu estandarrak lekua irabazi du ordura artean dialektoan baizik mintzatzen ez ziren hiztunen erreperitorioetan. Prozesu hori Europan ez da goizetik arrats gertatu, mailaz maila baizik: denboraren poderioz, geografian gaindi, hizkeren barrenean, hauen egituretan zehar.

Halaz ere, Euskal Herrian ez da zail bereiztea herri-euskaratik bestera –besteetara– egiten den jauzia noiztsu gertatzen den. Hein batez euskararen berreskuratzearekin lotu behar da prozesuaren hasiera, baina nagusiki «literatura-euskara» izenarekin jaio zen euskara batuaren sorrera jotzen da inflexio-puntu nagusitzat. 1968a baino lehen euskara etxean ikasi zutenek eta idatziz landu ez zutenek, horiek, oro har, herri euskara egiten dute, batzuek hobeki, besteek makurrago, erdararatuago, mugatuago. 1968.aren ondoren ikasi edo idatziz landu dutenek, horiek zaku konplexuagoa eratzten dute, eta portzentaiaren eta prestijioaren berebiziko garrantzia dute.

Esan ohi da, gainera, tradiziozko hiztunek, euskara estandarra berandu ezagutu dutenek, halakoxe gutxiespena edo jasan dutela eta prestigioa hizkera eredu berriek hartu dutela. Errealitateko atal gehienek bezala, badu horrek egiatik zer bait, baina baita mitotik ere. Beti egon da, are 1968 urtearen inguruan ikasi zuten euskaldunberrien artean ere, folk hizkera ikasteko eta menderatzeko borondate izugarria, izan ere horrexetan baitzetzan «benetako» euskaldunen artean integratzeko baitezpada gainditu beharreko langa. Eta alderantziz, beti izan dira eta izanen ere, oraingoz, herri-euskara ez den oro betertzez dakusaten euskaldunzahar analfabeto handiusteko gogaikarriak, euskara batua «español» edo «gipuzkoanoa» baizik ez dela diotenak. Tradiziozko euskaldun ahalketuen gaia ere ez dabil honetatik urrun eta arazoa Euskal Herrian nonahi ageri zaigun arren, berebizikoa da Nafarroa Garaiko kasua. Baztangoa egoki deskribatu du Kasaresek⁵:

64 urtetik gorakoek (%80a euskaldun) gutxiagotze prozesu historikoa bizi izan dute, bere hizkuntzaren baliorik eza eskola, administrazioa, hezkuntza eta antzeko zerbitzuetan... Euskararen indargabetze publikoa bizi izan dute bere herrien izenetan, kaleenetan, bere izenetan bertan; eta ez zaie arrotza erdara behar bezala ez menderatzeagatik lotsa sentitzea. Hiztun hauek euskara baserri-giroarekin lotu dute, atzerapenarekin, etxeokarekin, eta beraz, gaztelera hiriarekin, modernotasunarekin eta bizitza publikoarekin. Badute, dena den, euskararen ezagutza sakon eta aberatsa –aldaera dialektalarena– eta aldaera hauetariko askoren izaera berezia belaunaldi honekin batera galtzeko zorian dago. Multzo honetan ditugu elebakar funtzionalak, hizkuntz gaitasun handieneko hiztunak, ahozko kultur transmisioz jasotako euskara dutenak. Hauek ez dute idatziaren kulturak ekarritako aldaera estandarrik ezagutu. Euskaraz alfabetatugabeko hiztunak dira, euskararekiko motibazio naturala dutenak (ondoan menperatzen dutena da) (1999: 83).

⁵ Aezkoan euskararen inguruko autogorrotza kasu oraino larriagoetara iritsi da (cf. Camino 1997: 111-137). Lan klasiko bat nahi izanez gero, ikus Macaulay 1975.

Gaineratekoan, gure zaharrek bizi izan ez duten fenomeno bat egokitu zaigu gazteago garenoi: egiturazko eragin garrantzizkoa izan du euskara batuaren etorrerak tradiziozko edo oinarrizko euskalkietan, folk hizkeran. Konbergentzia bertikala gertatu da herri-euskaratik eredu estandarrerantz, egituretan asimilazio batzuk gertatzen ari dira emeki-emeki: dialektoak beren ezaugarri bereizleak galtzen ari dira eredu estandarrarenak edota subestandarrenak hartzen dituztelarik. Mattheier-ek esanen lukeenez (1996: 34; in Auer 1998: 1) euskal hiztun anitz adbergentzia prozesu batean sarturik gaude. Honela, eredu estandarrek hizkera guztiei eragiten die, antzeko norabidean eragin ere; euskal hizkeren diasistema, mendeetan zehar desberdinduz joan eta gero, soilduz eta homogeneizatuz doa orain.

Soilduz doala diogu, baina behar diren salbuespen guztiak eginik: dialektoen arteko berdinkaritze orokorrak hizkera baten barreneko egiturak konplexuago bilakatzea eragin dezakeela gogoan hartu beharreko errealitate frogatua da (Gilles 1998: 78-9). Ez dezagun ahantz hizkuntzen arteko ukipenak frankotan konplexutasuna dakarrela.

Ereduak nahastea ez da beti gauza erraza izaten, osagaien arteko konbinazioak ugaltzeaz gain *inventarium*-ak ere emendatzen baitira. Rosa Gandarias hizkuntzalari gernikarrak adierazi digunez –ahoz esana–, berarentzat zail da euskara batuan ‘neska etorri da’ bezalako zerbait esatea; nornahiri bitxi gertatuko zaio hori esatea zail dela entzutea, baina ohartu beharko genuke prosodian aldaketa gaitza dagoela lehen hitz horretan sortzezko hizkeratik eredu batura, hiru silabatatik *-neska + -a*, azentua kokatzeko eredu barnebitara jauzi gogorskoa baitago, gogoan izanik, gainera, hitzak bata besteari kateaturik oguzten ditugula eta ez banaka-banaka; ikus honexetaz (Elordieta, Gaminde & Uhalde 1998: 404). Dramatikoak iruditzen zaizkigu EITB-ko euskara arduraduna den Igone Etxebarriaren eleak ere:

...hau da, zenbat eta norberaren hizkera, baturako aukeratu diren formatik urrunagokoa izan, orduan eta gaitzago batuaz ondo moldatzea. Arrazoi horregatik beragatik, sarritan euskaldunberriek ere esaterako bizkaitar euskaldunzaharrek baino itxura hobea ematen dute (1996: 551).

Hizkera anitzek ez dute kemenik indar orotariko, bertikal eta prestigiozko honi aurre egiteko; hain zuzen ere, euskara eguneroko bizitzan errotuen dagoen herrietako hiztunak dira betiko euskarari hamarkada batzuetan gaindi bederen eusten ahal dioten bakarrak, bene-benetako «hizkera-erkidego bizia» osatzen dutenak. Konparazio baterako: ondarrutar gazteak, azpeitiarrak, arantzarrak... Horiexek dira, beste batzuen artean, egunero-egunero eta ia-ia gai guztien gainean euskaraz mintzatzen direnak, soilik maila oso jantziko gaietarako euskara estandarreko –erdarazko?– kera eta ele batzuk darabil-

tzatenak; gaineratekoan, bere-berezko herri euskara egiten dute aldiro, erre-gistroen aberastasunean eta konplexutasunean adineko hiztun erkideen erabil-lerarekiko soilte eta laburbide batzuk hautatu dituzten arren.

Zergatik aipatzen ditugu, bada, gazteak? Egungo soziolinguistikari itzali-takotzat jotzen da gazteek erabiltzen ez duten dialektoa. Eskualde edo gune bateko bereko gazteriak hizkera edo dialekto bat erabiltzen ez duen unetik beretik, dialekto hori hiltzat jotzen da. Euskal Herrian baditugu honelako hamaikatxo eredu, alderdi batetik bestera aldeak eta aldiak dauden arren. Belaunaldien arteko hiatusaren arloan dialektoak bizirik dirauen inguruneetan hizkuntza-aldaketa hasikin interesgarriak aurkitu ditu azken urteotan Iñaki Gaminde hizkuntzalari aspergaitzak Zumaia, Getaria edo Bermeon adineko-en eta gazteen hizkera aztertutik.

Esan ohi da oinarritzko dialektoa adineko jende ez mugikorren mintza-tresna dela; Euskal Herrian erkidego lokal hori euskaraz eskolatugabea da gai-nera. Gure herri anitzetan hortik behehitiko hiztunek dialektoa ez den beste eredu edo hizkera konplexuago, hibridoago edo nahasixeago bat darabilte.

Suediera mintzaten den Finlandiako adibide bat ematekotan, esan gene-zake Ostrobothnia eskualdean bizirik dirauela dialektoak eta zahar nahiz gazte, folk hizkeran mintzo direla. Aldiz, eta Finlandiako suedieraren gaitik irten gabe, Aland, Aboland eta Nyland hirietan, 1965 urtea baino lehen mun-dura sortu hiztunek bertako dialektoa egiten dute, baina geroago sortuek regiolektoa darabilte (Ivars 1998: 108). Hirietan ere gauzak aldatuz doazela sinestekoa da: badakigu Finlandiako hiriburura suomiera mintzo duen jende andana gaitza iritsi dela azken urteetan eta horretatik hizkuntza-aldaketak itxaron daitezkeela⁶: «Coloquial Helsinki Speech» lagunarteko eredu edo aldakia sortzen ari da orain, akademikoek arauaren aurkakotzat jotzen dute-na; hizkera berri hau beste hiri batzuetara hedatzea ere adierazgarria da.

Euskal Herriko eremu batzuetako berriak eman ditzakegu egungo egoe-raren erakusgarri: ertzetik has gaitzke, Zuberoatik, J. L. Davant idazlearen eleetan oinarriturik:

Orokorki: batuaren eragin nabarmena du gaurko zubererak hiztegian eta grafian, belaunaldi nahiko berrietan bederen (1996: 534).

⁶ Aldakortasuna —sinkronikoki— eta aldaketa —diakronikoki— hizkuntzan elkarren ondoan ageri zaizkigu. Hizkuntza-aldaketak aldeztatik hizkuntza-aldakortasuna bai-tezpadako du, baina hizkuntza-aldakortasun egoera batek ez dakar beti eta nahitaez bere-halako hizkuntza-aldaketa.

Deba arroko berriak interesgarriak dira. Ibarrari dagokionez herri bakoitzeko hizkeraren aldeko hautua ageri zaigu J. M. Elexpuru bergararraren aldetik:

Herri-euskara, adineko jendearen ahotan oraindik indartsu badago ere, gainbehera dator, eta ez gatz ez berakatz duen hizketa hibrido bat, ez batua ez euskalkia, nagusitzen ari da eskualde askotan, belaunaldi berrien artean.

...Aho-hizkuntza biziari eustea da helburua, aho-hizkuntza prestijiatzea, aho-hizkuntza oso erreferentzia inportantea (ez bakarra) dela sartzea jendearen buruan. Bere berbetaz harro sentiaraztea, eta ez konplejuz blai, askotan gertatzen den bezala.

Deba-arrotik begiratuko dut (eta neure ikuspegitik, jakina, han ere den-denok ez gatzelako bat). Nortasun handiko herriak ditugu gure eskualdean, euskara aldetik diferentzia nabarmenak dituztenak. Ez dugu Deba-arroko euskara baturik nahi; herri (edo *berbeta-eskualde*) bakoitzak bere euskara mantentzea litzateke helburua. Baina beti ere amankomuna denari indar gehiago emanez, bereizten gaituenari baino (Elexpuru 1996: 523-5).

«Deba arroko euskara baturik» ez gertatzea da idazlearen helburua; ez dugu garbi ikusten nola lor daitekeen herri edo berbeta-eskualde bakoitzak bere euskarari euste hori, bereizten duena baino gehiago batzen duena indartzen baldin bada; non eta ez zaigun argiago azaltzen, gu bederen ez gara ulertzeko gai. Gure nahi eta ezinaren diskurtso anbiguo honetan, euskararen batasunarekiko leialtasuna eta hizkeraren guztizko kontserbazioaren aldeko amets idilikoa uztartu ohi ditugu euskaldunok; eginahalak, ordea, trapezistaren eta are ekilibristaren tankerarik gorrienean uzten gaitu ezinbestean nonahiko euskaldun batzuok eta besteok.

Euskara batuaren alde egotea eta euskalkien alde ere egotea gauza bat da eta horretan ez dago zalantzarik 68an haur batzuk besterik ez ginenontzat bederen. Garbi ikusten ez duguna, batua ez diren hizkerak idazteko ere arau bereziak finkatzen hasi behar hori da. Estandarra ez den alor honetan, norberak nahi duen bezala eta senak edo intuizioak agintzen dion legez jarduteko aukera edukitzea ikusten dugu biderik egokiena. Zenbat idatzizko eredu ikasi behar ote ditugu, bada, euskaldunok? Hitzun eta aldi berean filologo izan behar ote dugu euskaldun guztiok, euskalkian idaztean zer erabili eta zer ez jakiteko? Dialektoak, era jasoan nahiz lagunartekoan, berdin balio dezake elkarrengana biltzeko nola besteatarik bereizteko, non nola, noiz nola: aurkako pentsatzea hitzuna eta taldea eta beren ezaugarriak aintzat hartu nahi ez izatea da.

Iritziak, dena den, era guztietarik dira: K. Zuazoren *Euskararen sendabellarrrak lanean* (2000) euskalkiak era jasoan idazteko ere euskara batuaren izpi-

rituaren irizpideak jarraitu behar direla adierazten da eta ikuspegi preskriptibotik «Euskalkiak erabiltzeko oinarritzko arautegia» aurkezten, nahiz arau horiez ez den gero argudiatzen. Ordea, Kike Amonarriek euskalkien erabile-raren arautzeaz zalantza ageri duenean eta euskalkien zirkulazio librearen ideia aipatzen duenean (*Argia* 1850, 17. or., 2002/IV/21) K. Zuazok arrazoa ematen dio (18) eta *Euskararen sendabelarrak* liburuko kutsu preskriptibotik saihesten da; garai beretsuko lan batean ere euskalkiari eta norbere herriko hizkerari arau zehatzak eta zorrotzak ezartzearen aurka ageri da ikertzaile eibartarra (2002: 50) eta 2000. urteko lanean ez bezala –cf. euskara nafarreko instrumentaleko -s morfemaz dioena (185)–, euskalkiarentzat muga jakin bakarra zuzena dena eta zuzena ez dena bereizi beharra aldarrikatzen ditu.

Jo dezagun orain Sakanako eskualdera: hizkeren arteko lehia-egoera aurkezten digu bertako I. Mundiñano irakasleak eskualdeko aldizkariko ereduaren berri emanez:

Sumatzen genuen hutsunea bazegoela gaur egungo gazteen eta herritar askoren artean. Herriko hizkera jakin, euskaldunzaharrek badakite, baina ikastolatik pasatzen diren oraingo jenerazioen eredia da erdi batua, erdi herriko hizkeraren nahasketa bat.

...*Guaixe* aldizkaria sortu zenean, herriko hizkeraren aldeko apustua egin zuen, zenbait herritako berriak herri horietako hizkeran egiteko... egin genuen holako hibrido txiki bat edo. Gure helburua zen herriko hizkerak ahalik eta fidelen agertzea orrian, eta bestetik euskara batutik edo batua deitzen dugun horretatik ahalik eta gertuen egongo zen sistema bat (in “Nafarroako hizkeren azterketa eta euskara estandarra: Euskalerrria Irratiko mahai inguru”, I. Camino (arg.), 1998: 173).

Adierazpenok, azken batean, gure herrian hainbat eta hainbat euskaldunek etxean beti entzun duten hizkeraren etorkizunaz eta hizkuntzaren osasunaz eta kalitateaz sentitzen duten kezka erakusgarri dira. Kezka hau, gainera, handiagoa da erdialdeko hizkeretan oinarritu zen euskara estandarrikiko dibergenteagoak diren hizkeretako hiztunen artean. Hiztun hauek beren haur denboran nagusi zen mintzoak idatzizko ereduari leku guti duela argi dakusate eta jabetzen dira mintzo hori agian apurka-apurka aldatuz joan dela, kolorez eta berezitasunez gabetzen eta litekeena dela gaztetxoaren artean denbora joan arau beste hizkera berri eta berenetik desberdin bat nagusitzea.

Adierazi dugu herri-euskaratik urruntzeko prozesua ez dela leku guztietan berdin gertatzen. Erkidego batean bertako hizkera guztiz bizirik eta indarrean dagoenean belaunaldi batetik bestera aski ongi transmititzen da folk hizkera eta aldaketa ez da horren nabarmena. Etxean, kalean, gizarteko hainbat hartu-emanetan eta lagunartean herriko euskara da erabiltzen dena eta ez da

zalantzan jartzen ereduaren balioa edota egokitasuna. Litekeena da, gainera, herri-hizkeratik eredu estandarre dagoen jauzia berebizikoa delako, oraingoz herrikoa kutsatu gaberik egotea, zubigintza zaileko bi sistema desberdin izaten jarraituko balute bezala.

Beste leku batzuetan, ordea, ordezkatzearen erritmoa biziagoa izan da: nabarmena da hau hizkuntza bera galtzeko zorian izan den alderdian. Nafarroa Garaiko Pirinioen inguruko Aezkoa ibarrean, esaterako, gibelamendu gaitza jasan du euskarak gizaldi honetan, baina bertako bizilagunak garaiz ohartu dira eta azken hamarkadetan berreskuratzearen giltzari gogor eragin diote. Etxe ia-ia guztietan transmisioaren katea etenik egon denez, belaunaldi batek bederen huts egin du eta herri-euskara apitxi-amutxendako gelditu da, bilobek eskolan eredu batua ikasi dutelarik. Aezkoako «uskara» berpizteko gogo eta sentsibilitatea dagoen arren, nekez gertatuko da hori aetzen artean. Euskara batua dirudi dela Aezkoan etorkizuna duena eta ez hango bereko mintzamodua.

Ikusteko dago Euskal Herriko hainbat bazterretan sortzen ari den euskara berri horrek nolako kolorea(k) eta zein ukitu izanen dituen. Hizkera-erki-degoaren osasun ona lagun eta herrian «beti!» egin den mintzoak polarizaziorako eta bereizteko duen gaitasuna baliatuz, hainbat hizkerak gogor eusten ahal diote beren berezko kolore lokalari oraingoz; eskualdeko nortasunari edota herrikoari garrantzia eman ohi zaien alderdian gertatzen dira horrelakoak. Norberaren herriko hizkeratik eredu berri eta estandarre(ta)raino, gainera, alde ederra dago leku batzuetan, bateko eta besteko hiztunek beren gizarteko hartu-emanen eta erreferentzien arabera ibiliko dutena edo ez dutena. Honela, betiko herriko euskara edo «mild local dialect» izendatzen denezik «locally coloured standard» delakoraino tarte zabalean hainbat eta hainbat errealitatek eta hizkeren arteko konstelazio bitxiak lekua izan dezakete⁷. Hori da, gu ohartu orduko, egungo euskarari gertatzen ari zaiona.

5. HOMOGENEIZAZIOAREN OLDARRA

Dialektoei eusteko borondatea, nork berea duenari eusteko gogo, guztiz ulertzekoa da. Baina aurkiak ifrentzua eraman ohi du berekin. Euskalkiak egoera sozio-historiko jakin batean sortu zaizkigu, euskal erkidegoen arteko hartu-emana gaurkoa baino ahulagoa zen garaikoak dira: lehenago herrixkak

⁷ Izendapenok Kristiansen-en lanetik hartu dira (1998: 125).

elkarrengandik gaur egun dauden baino bakartuago eta urrunago zeuden, hiriburuek eta indar homogeneousatzaile handiek egun duten baino indar eta kultura-hedadura murriztagoa zuten eta herrixkek aiseago garatzen zituzten beren ezaugarri bereizgarriak eta errazago eusten zieten hauexei aldameneko beste erkidego batzuen aitzinean; administrazioa bera ez zegoen egun bezain garaturik. Euskal Herriaz kanpokoak ziren kultura-hedadura mota batzuek Euskal Herriaren barrenean egon zitekeen kultura-batasuna etengabe arrailtzen zuten. Ematen du banaketa, besteetarik saihestea, zatiketa, dibertsitatea, mikronortasuna... garai batean aiseago gerta zitezkeela orain baino.

Dialektoen errealitate sozio-historikoa aldatu bada, gizartea bera ere aldatu delako da neurri batean. Gaugero ez gara lehen bezala bizi, atzera ezinezko abiada darama homogeneousazio oldar honek leku anitzetan. Dialektoak ez dira sortu egungo gizarte-egoerari erantzuteko, horretarako hizkera estandarriagoa eta homogeneousoagoa dago. Lagunarterako eta herri barreneko eguneroko jarduerarako balio du herriko hizkerak euskarak indarra duen lekuetan. Hortik goiti literatura edota familia ditugu tradiziozko euskalkietarik edateko.

Familiako giroa ere aldatu da arrunt; aitetamek, biek etxetik kanpo lan egitea eguneroko ogia bilakatu da eta gero eta kide gutiago izaten dira egungo familietan; lehen, transmisiorako funtsezkoak ziren aiton-amonak edota osaba-izebak. Hauek, gainera, eta gurasoak ere berdin, euskaraz eskolatuga-beak izaten ziren eta haurrak etxeko euskara ikasten zuen: eskolan erdara ikasiko zuen funtsean. Egungo haurrak, kasurik hoberenetan lehen urteetan familian herriko euskarari haziak diren arren, eskoletan eredu homogeneousoak erabiltzen dira eta kodeen arteko nahasketa eta gurutzaketa folk ereduaren urtze eta itxuragabetzearen aitzindari gertatzen da. Euskal Herriko hainbat gunetan salbu, oso zaila da gaur egun haur euskaldun gehienak herriko bereko euskaraz ongi jabetzea eta etorkizunean interferentzia handirik gabe erabiltzea eta transmititzea. Hainbat bazterretan euskalkien aldeko saioak egiten diren arren, elementuen benetako dimentsioaz jabetzean ohartzen gara egiteko honetan atarramendu ona ateratzea zein nekeza gertatzen den.⁸

Orain arteko euskal hiztun arruntak oro har ez mugikorrek genituen, baina egungo gizartean hiztun arruntek gizarte-sarea edota gizarteko hartu-emanak konplexuagoak dituzte lehen baino, gizartea bera konplexuagoa, bilakatuagoa eta lardaskatuagoa delako. Ezagutzen ditugun Nafarroako Pirinioen

⁸ Udako Euskal Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Sailak hala eskaturik, Bergarako herri-hizkera eta ahozketasuna bultzatzeko egitasmoaren berri eman zuen Estepan Plazaolak Iruñean 1999ko uztailaren 27an. Oro har Bergarako gaztetxoek euskararen kalitatea zaintzeko helburua ere aurreikusten du aipatu egitasmoak.

inguruko herrietan alde handia dago ikasketak herritik kanpo Iruñean egin dituzten eta herrian berean egin dituzten egungo gizon gazteen gaztelanian. Desberdintasun nabarmenak gerta daitezke ikasketak Iruñean egin dituen batengandik herrian berean eta beraz maila apalagoan egin dituen bere anaia-rengana. Herrian familiaren eta tradiziozko lanen eta hizkuntza-ohituren inguruan bizi izanak edozein pertsona markatzen du, ikasketek eta Iruñeko kultura eta giro urbanoagoak loturik daramatzaten hizkuntza-erek markatzen duten bezala.

Familiaren bidezko euskalkiaren transmisio ziburra, aitetama euskaldun alfabetatugabeak, eskola erdarazkoa, Euskal Herri batuaren ideia arras lausoa eta ahozkotasunean oinarritutako euskal kultura edukitzetik guztiz beste egoera desberdin batera iragan gara: familiak ez du lehen zuen garrantzia haurren heziketan; egun hainbat guraso euskaraz alfabetatuak edota erdaldunak dira; gurasoen arteko kideetarik bat ez da bizi diren herrian sortua; eskola-ikastoletan euskara batua erabiltzen da gehienik; bere lausoa ere, euskaldun anitzengan badago Euskal Herri batu baten izpiritua; euskal kultura idatzia ere, zailtasunak zailtasun, aitzinatuz doa emaro-emaro; azen ontzeko, egunerokotasuna mundu guztian zehar homogeneoagoa bilakatuaz doa eta ikus-entzutezko hedabideek ere lehen ez zuten garrantzia dute orain. 1968tik aitzinera euskara batua deitzen dugun tresna hori ere badugu euskaldunok, eta ezin ahantzi da ordura artean euskaldun anitz elkarri ezin ulertuz zebiltzanetan erdaraz mintzo zirela ezinbestean; honetan, dirudienez, gauzak pixkatxo bat aldatu eta bideratu dira.

Pentsa ote dezake oraindik norbaitek guztiz intimoak direnez edota senideen inguruko egoera batzuez kanpo dialektoek orain artean bezala beren ezaugarri guztiekin aldaketarik gabe iraun dezaketela? Are herriko bereko hainbat egoeratan, dialektoak ez du gaurgero balio, hainbat eta hainbat errealitate kontzeptual eta tekniko geure gogoak euskalkitik guztiz disoziatuak dakuskielako: kultura eta ohitura kontua baino ez da hau, egia esan behar baldin bada. Berdin-berdin gertatzen da beste hizkuntza batzuetan eta bereziki gurea bezalako hizkuntza txiki edota eremu urrikoetan.

6. EUSKALKIEN ETA ESTANDARRAREN ARTEKO LASTERBIDE- EZ: DIAGLOSIA

Folk euskara galtzen ari den herriez esan ohi dugu, guztiz makur esan gainera, adineko hiztunek, besterik ez dakitenez, euskalkiari eusten diotela eta

gazteak eta etxe zokotik ateratzen hasten diren haurrak euskara batuan mintzatzen direla. Koxka, dena den, orain arteko tradiziozko hizkera dialektal horretatik saihesten diren hiztunak zein mailatako itsasoetara murgiltzen ari diren jakitean datza. Bestela esan, ez da egia euskaltitik edota gure herriko hizkeratik euskara batura zuzenean eta zeharbiderik gabe iragaten garela. Batek baino gehiagok hori dioten arren, hemen ez da hori gertatzen ari, ez dugu uste gertatuko denik eta beste leku anitzetan ere ez da horrelakorik gertatu. Ez dihardugu hemen Lizarran, Gasteizen, Iruñean edo Bianan sortzen ari diratekeen batuaren antzeko hizkerez. Baionako berri Davantek ematen digu: «Baionan erakasleak badira E.H. barnetik ere, beraz nafarro-lapurteratik abiatzen dira nagusiki» (1996: 535).

Lasterbide, zidor eta erdibide ugari eta lotura konplexuagokoak dira hemen gertatzen ari direnak; literatura-ereduen eta herri-hizkeraren arteko eskualdeko hizkera edo «regiolekto»-en ezaugarriak lerro-lerro emanez euskara molde berri eta aldakor horiek definitzea ez legoke txarki beste leku batzuetan ikuspegi diaskopikoa aztertzen den garaiotan:

Il s'agit d'une étude typologique du dialecte, qui s'intéresse particulièrement à ce qui le différencie de la langue avec laquelle il est (en principe) dans un rapport de diglossie. La "diascopie" réside dans l'analyse transversale des structures du dialecte (système socio-communicatif) et dans la confrontation avec la langue de superposition (Swiggers 1997).

Ezin, beraz, gure herrian desberdin izan; zer dela eta gurean besteetan ez bezalako gertakariak?

Datu zehatzak izatera lasterbide horien guztien norabidea ea beti-beti batu/estandarrezkoak ote den hobekixe jakinen genuke; berebat, erritmoen eta prozesuen sakontasunaren mailen berri ere izanen genuke. Aldaketa-prozesuan dagoen hizkera baten norabidea guztiz garden ageri ez den kasurik balitz, aldakortasunaren beraren egitura sinkronikoa aztertzeko eta gerta litezkeen arau plurizentrikoen etorrera eta beren arteko lehia ezagutzeko aukera edukiko genuke. Bi zentzutan plurizentrikoak, gainera: batetik, hizkera batera iristen diren hizkuntza-aldaerak hedagune batetik baino gehiagotatik iristeko aukera legoke. Eta bestetik, hizkuntza-ezaugarri bat eta bera -paradoxikoki, euskara batuari ez dagokiona- berez ageriko lotura argirik ez duten bi hedagunetatik aldi berean hedatzekoa, elkarrengandik urrun dauden bi eremu horien artean bestelako konstelazioak daudelarik zentro edo guneei dagokienez.

Egun lagunartean entzuten dugun euskara maiz ez da ez estandarra ezta herri-hizkera ere, tarteko zerbait baizik: hor zehar kurri dabilen subestandar

bat den, regiolekto bat den, dialekto antzeko aldaki bat den ala zer ote den jakiteko, ordea, deskribapen onak behar ditugu, baina oraingoz honelako lan guti egin da Euskal Herrian. Euskarari buruz ideiak garbi izatea ere komenigarria litzateke; hor zehar beste hizkuntzetan gertatzen denaren berri ezagutzea ere on da, nonahiko kontzeptuak gurera mekanikoki txertatzeko desira guztietarik urrun, beti ere.

Beren dialektoa dagokion jatorrizko eremuan aktiboki egiten duten hiztun batzuek, berena ez den beste bat ezagutzen edo ulertzen duten unetik beretik hasten ahal dira hizkuntza-aldaketaren hazitzat eta hizkeren arteko berdintzearen abiaburuztat jo daitezkeen mailaz mailako bilakabideak; azken batean, berena ez den dialekto bateko partaide pasiboak dira. Ez dute erabiliko beren herrian auzoan ikasitako aldaera nabarmen eta markaturik, beren hizkerako errepertorioan ez dagoen fonemarik, baina gaiak edo testuinguruak lagundurik beti iragazten da zertxobait belaunaldi batean ez bada hurrengoan.

Aldameneko eremu horrek gizartezko onespina baldin badu –lanbidea eskaintzeko aukeraren aldetik, kulturarenetik, izpiritu politikotik– edota bertara maiz joan beharra gertatzen delako –hiririk hurbilena hor dagoelako, biztanleei osasunbidea hor jasotzea dagokielako...–, espero izatekoa da aldamen horretako hizkuntza-aldaeretarantz jotzea: nongoa den ez dakigun euskaldun batekin gertatzean, hizkuntza-maila apurtxo bat jasotzea komeni dela pentsatzen denean, hiztuna egoera bereziren batean gertatzen denean... Esate batera, nabarmena da «ez mugikor» ez diren Nafarroako Bortziritako hainbat eta hainbat gizon euskaldunek bertakoa ez den euskaldun baten aitzinean Gipuzkoako mintzorat duten joera; ez dakigu hemen hizkeraren prestigioa den aipatu beharrekoa edota moldatzeko eta konpontzeko eskaintzen duen egokiera; biak batera, agian? Duela franko urte Bautista Madariaga bertsolari arantzarrak Basarri bertsolari giputzaren irratia saioetarako erakusten zigan mirespena ongi gogoan dugu: ikus beronen «Nere bordatxotik» idatzizko sailaz I. Aranbarriren iruzkina (1999: 157). Itxura guztien arabera ekialdekoago diren eta muga administratibo nagusiaz eskuinekoak diren hizkeren isurira dago moldaturik orain arteko Bortziritako euskara, baina egun aurreikus daitezkeen etorkizunak ez du honelakorik ikusarazten eta berdin-berdin mintzo dira Fraile & Fraile (1996: 236) eta Zuazo (1997: 419-420) Oiartzun alderdiko hizkeraz ere; herri honetan nabarmenagoa da, gainera.

Dialektoen arteko eragite edota berdintze horretan badu zerikustekorik hizkuntza-heriotzak ere: behin Urraulgoiti, Artzibar, Erroibar, Auritz erdaraturik eta euskara Aezkoan indarra galtzen hasirik, bizibidea artzaintza duten mende honetako gizon orbaizetarren konbergentzia era oro Garazi aldeko

«eskuararat» gertatu izanak edota Aurizko hondarreko euskaldunek Luzaideko erak bereganatzen hasi izanak ez du inor harrituarazi behar. Dena den, adibide hauek euskara batua sortu aitzineko gertakarien honddarren sailan sartzekoak dira.

Itzul gaitezen, ordea, euskara estandarren gaira. Zertan esanik ez, interregari deritzogu «euskara batua» / «euskara estandarra» binomioaren betibetiko estekatze indarrezkoa hein batez bederen zalantzan ezartzeari ere; izan ere, euskara batua Euskaltzaindiak ezartzen dituen arauak itxuratzen eta funtsatzen baldin badute eta euskara estandarra Euskal Herrian benetan «kurri dabilen» elkarrekiko eredu orokorra baldin bada, beren artean gerta litezkeen saiheste adierazgarriak –arrazoi demolinguistikoak tarteko– zein eta nolakoak diren aztertzea onuragarri bailitzateke.

Arestian aipatu ditugun lasterbide horiek ezagutzeko eta ulertzeko dialektologian ohikoa den mailaz mailako prozesuaren irudia balia dezakegu. Hizkera batek ez ditu bere ezaugarri guztiak galtzen, eta galtzen dituenak ez ditu denak batera galtzen. Ingurunerik ingurune, garairik garai, gunerik gune, egiturarik egitura eta hiztunik hiztun galtzen ditu, besteak beste. V. M. Schirmunski-k “lehenik” eta “bigarrenik” ordezkaturikako ezaugarri dialektalen arteko bereizketa aspaldixko egin zuen: hizkera edo dialekto batean ezaugarri ordezkatuak dauden neurri berean aldaketari aurre egin dioten eta galdu ez diren ezaugarri dialektalak ere badaudela adierazten digu; ikus Bellmann (1998: 33).

Herriko euskarari dagozkion aldaera batzuen erabileraren iraupenaren edo galeraren eta beste aldaera batzuen interferentzien zurrumbilo horretan kokatu beharko dugu bilakabidea. Ingurune batzuetan herri-euskarako aldaerok txandakatzera datozen aldaera berri horiek ez dute zertan beti euskara estandarrekoak izan, berdin-berdin izan daitezke aldameneko hizkera hedatuago edota erabiliago batzuetakoak; horregatik, sortzen diren hizkuntza-errealitate berriak, diruditen baino konplexuagoak dira.

Herri anitzetan oinarria tradiziozko etxeko euskara izan arren, mailaz maila difuminatuz doa eredu hau: kera berriak sortuaz doaz, eskualdeko lektoaren, lagunarteko hizkeraren edota subestandarren osagaiak hainbat berrikuntzarekin batera ageri zaizkigu. Berrikuntza hauek euskalkiaren barrenekoak izan daitezke, edota euskalkiko hiztunen talde bateko partaideenak soilik. Eredu estandarretik «irabazi» diren hainbat elek eta ohiturak ere osatzen ahal dute definitzen aise ez den hizkera berri hori. Adierazgarria da, gainera, beste hizkuntza batzuetan gertatu diren aldaketetan ere, subestandar edo lagunarte-

ko hizkera horiek definitzen eta mugatzen zailtasuna izaten dela, ez dela soilik euskaldunon arazoa.⁹

MORELLI, Anne et SCHREIBER, Jean-Philippe (1998), "Are the Immigrants the Last Belgians?" Dans: Deprez et Vos (eds.), 249-257.

PIL, Lut (1998), "Painting at the Service of the New Nation State". Dans: Deprez et Vos (eds.), 42-50.

SAEY, Pieter; KESTELOOT, Christian et VANDERMOTTEN, Christian (1998), "Unequal Economic Development at the Origin of the Federalization Process". Dans: Deprez et Vos (eds.), 165-176.

UBAC, Pierre (1993), *Génération Fourons*: Bruxelles: De Boeck-Wesmael (POL-HIS 11).

VOS, Louis (1998), "The Flemish National Question". Dans: Deprez et Vos (eds.), 83-95.

WILS, Lode (1994), *Vlaanderen, België, Groot-Nederland*. Leuven: Davidsfonds.

WILS, Lode (1998), "The Two Belgian Revolutions". Dans: Deprez et Vos (eds.), 33-41.

AHO-BELARRIEN JARDUERA MALGU- -MOLDAKORRETAN BA OTE ALDAGAIZTASUNIK?

Pilartxo Etxeberria

Irakasle eta adiskide dudan Txillardegiri esker onez.

*Egia da, totalka bezala hitzegiten dugu, hitzak ebaki ezinik,
ideia bat amaitu orduko beste bat adierazi beharrez.*

*Halaere, hauxe da egin dezakegun hobereana. Horrela errealis-
ta gara behintzat. Edertu eta goxatu beharrik ez dago, errealitatea
bera ere totala da.*

Errenak gara, gainera

(Sarrionaindia, *Hitzen ondoeza*, 1997, 826. zenbakia)

1. ATARIKOA

Gure oinek zapaltzen duten lurrari edo asfaltoari erreparatzen badiogu, hiztunok¹ eskuarki eguneroko harreman-modu eta harreman-mota ezberdinak bideratzeko hizketaz baliatzen gara. Hizketa hori aztertzetik irits gaitezke hizkuntzara edo alderantziz, kontua izango da helburua zertan jartzen dugun eta azterketa zehatza zer argitzeko, zergatik eta zertarako egiten dugun.

Hiztunon gogo-irudiak edo/eta egiten duen erabilera aintzat hartu, hizkuntzalaritzan sartzen gara berez eta beraz, bete-betean. Hizkuntzatik edo

¹ Ezin aiantzi elkarren arteko harremanen bidezko komunikazioari esker garela pertsona eta hiztun. Bizitzan zehar beti ari gara zerbait komunikatzen (kode digitalaz gain ezin aiantzi kode analogikoaren garrantzia) ez baita posible ez komunikatzea.

hizketatik, fonetikatik edo fonologiatik, hizkuntzaren aldi joanetik edo egungo ezaugarrietatik... abiatu, batak bestera eramango gaitu ezinbestean elkarren osagarri zatiezin baitira, zatitze hori ikertzaileak hautatutako azterketari bera-ri dagokiolako eta ez besteri. Bada XX. mendearen erditik aurrera arrakastaz zabaldu eta gure artean zuztar sendoak egin dituen beste zatitze edo bitaratzeko kontu zentzugabea argitu gogo nukeena, hau da, izenondorik gabeko hizkuntzalaritza eta hizkuntzalaritza aplikatuaren artean egin den bereizketa eta bereizkuntza; aipatutako zatitze honen arabera, zenbait hizkuntzalari huts litzateke eta beste zenbait, berriz, bigarren mailako hizkuntzalari.

Hizkuntzalaritza aplikatua jarduten dutenen ikerketak, begiak kanpora begira jarriz, zuzenean edo zeharbidez, hiztunen hizkuntza/hizketa arazo, zailtasun, behar, ezintasunei... buru eginez, irtenbideak aurkitzen edo bideak zabaltzen ahalegintzen direnak lirateke. Hizkuntzalari soilak, berriz, matematikari formalisten antzera, teoriak eta azterbideak modurik abstraktuenean jorratzen dituztenak²; hauen versus-ak, aldiz, aurrekoen teoria eta irakaspenetan sustraituta "aplikatua" izenondo erreferentziaz jantzitakoak ditugu, eremu praktikoetan bete-lana egiten dutenak, alegia.

Joan doan eta etorri datorren bereizkuntak ez digute laguntzen hiztunok harremanetan hizketa-bidez egiten dugun erabileraren azpian eta azalean gertatzen dena argitzen, ezin delako teorizatu errealitatean egiten dena kontuan hartu gabe. Eman dezagun linguistika teorikoaren alderdiak bere horretan hartu eta hizkuntza arrotzen irakaskuntzara edo patologietara eramaten ditugula, eta harrokeriak itsutzen ez bagaitu behintzat, berehala ohartuko gara umezurutasunaz, hots, elkarlanaren beharraz: hiztunek egiazki egiten duten erabileraren ezagutza beteagoa ezinbestekoa izateaz gain, beste alor askotako ezagutzak ere gurutzatuko zaizkigulako: besteak beste, pedagogikoak, psikologikoak, soziologikoak edo antropologikoak. Honenbestez, ez dago lehen mailako teorizatzerik eta bigarren mailako aplikaziorik, ez asimetriarik, bien arteko harremana elkarreaginezkoa da, elkar elikatzen baitute elkarren osagarri direlako.

2. HIZKETAREN EZAUGARRIAZ

Goraxeago esan dudan moduan, hiztunok harremanetan etengabe jartzen ditugu abian ekoizpen-oharmen prozesuak, horiei esker eta horien eskutik,

² Askotan eredu formaletara egokitzen ez direnak saihestuz edo ezikusiarrena eginez

jardun hori aldatuz, elkar elikatuz eta aberastuz esaldiak kanporatzen ditugu. Esaldi horiek guztiak zentzua³, adiera, aztarna, sinbolo, egoera, intenzionalitate... eta abar bere baitan daramatzate.

Prosodiaz gozatuta ekoizten ditugun hizketa-hotsen bidezko esaldiak alde askotatik azter badaitezke ere, horien izaera eta funtzionamendua estudiatzen duen eremuaz gain (eta ikerketa-iturri ezinago oparoa da gurean), badira alorrek apenas lur hartu dutenak gure artean. Esate baterako, elkarrekin aritzeko, kontuak elkarri esateko erabiltzen dugun kode digitala eta bidai-de den analogikoa (maiz askotan gure keinuek, keinadek, imintzioek, oharkabean (edo ohartuki) egindako esku-, begi- edo gorputz mugimenduek onartzen, gaitzesten, gezurtatzen, xamurtzen edo gaiztotzen baitute ahoz esandakoa). Hau da, kinesiarene eta proxemikaren eskutik hartzen dugu ahozkoa bezain adierazgarria eta komunikazio-intenzionalitateari begira ezinbestekoa den informazioa ekoizpen-oharmen prozesu konplexuen deskribapenerako⁴. Ez da lan honen helburuetan sartzen alderdi horien guztien deskribapena egitea; hala ere, uste dut, errealitatearen murrizte bortitza egin nahi ez badugu, eta prozesu horien muinera heldu, nahitaezko dela aipatu berri ditudan alderdi horiek aintzat hartzea.

Hizketa-hotsen azalaren azalari so egiten badiogu, eta ekoizpen-oharmen prozesu eta mekanismoen berri ematen diguten teoriak aintzat hartuta, aztergaitzat hobetsi dugun alderdiaren estudioari edozein ikusmoldetatik helduta ere, hizketaren ezaugarriekin tupust egingo dugu. Besteak beste, ondorengo hauek ditugu nabarmenenak: *aldakortasuna*; *adierazgarritasuna*; kanporatzen ditugun hotsen elkarrenarteko *ezaugarrien gurutzatzea*, gainjartzea edo elkarrestaltzea; hots-asmoa uhin akustiko egiteko giharren mugimendu bidez abian jartzen ditugun neurona-sare eta giharren erabateko *sinkronizatzea*; *malgutasuna* edo egoera berrietara moldatzeko gaitasuna (ohiz kanpoko bideak

³ Zentzua, nork bere esperientziatik, biografiatik, behar, nahi eta elkarri eragiteko sentitzen dugun beharretik hezurmamitzen da. Geure izatetik eta egoera zehatzetik komunikatu eta pertzibitzen dugun neurrian, Semantikaren arloan kokatzen da zentzuaren mundua. Bihoazkie nire eskerrik handienak eta zintzoenak, batetik, komunikazioaren unibertsoan murgiltzen eta soa zorrozten irakatsi didaten Psikologia Fakultateko Jose Luis eta Terexa adiskide eta lankideei, eta bestetik, Areson izerdi patsetan, kontzeptuen hezur-mamiak euskaratzen horrenbeste lagundu didaten "Euskara Taldeko" Teresa Belasko, Iñaki Arregi eta Lola Figueiredo adiskideei.

⁴ Ahozkoaren azterketa egiten den lan zientifiko bakanetan, kasurik onenean aipatu baino ez dira egiten hizketarekin batera datozen proxemika edo kinesia. Alabaina, falta dira azterketa sistematikoak.

erabiliz eta ezaugarri fisikoen ikusmoldetik, hots estandarren ezaugarri funtsezkoak eta kanporatu diren hots horien parametro akustikoak erabat aldatuak eta oso ezberdinak izanik ere, oharmenarentzat ulergarri dira); *koartikulazioaren ezinbesteko eragina; oharmenaren jokabidea*, aldakortasunaren eta erredundantziaren azpian edo muinean dauden unitate linguistikoak jasotzen eta prozesatzen ditu oharmenak zahia eta irina bereiziz.

3. KOARTIKULAZIOAZ

Hotsen *ekoizpena* dela eta, alderdi neurofisiologikoak, arnasketa-sistemarenak, glotia eta glotiaren gaineko artikulatzaileen sistemak, lehen baino hobeto aztertuak izan dira azken urteotan, sakonkiago gainera. Bestalde, hizkuntzalarion ezagupen askoren aurretik, trumilka eta mutur-joka, gero eta aurreratuago datozen tresna berriei esker, ekoizpen prozesuetan parte hartzen duten organoen mugimenduen nondik-norakoak xehetasun handiagoz eza-gutzen ditugu.⁵

Hala ere, zenbait gertaera ulertzeko eta egiten duguna azaltzeko, teknikak teknika, tresnak tresna, ereduak eredu, zailtasunak ditugu. Hor dugu, esate baterako, koartikulazioaren arazo korapilotsua. Ebakikidetzaren gertaera harrigarri honen aurrean, eta hizketa-hotsak ateratzeko egiten duguna zehazterakoan, fonetikarien arabera definizio ezberdinekin topo egiten dugu. Izan ere, artikulaziozko gertaerei muga linguistiko zorrotzak ezin ezarri izateak eragin du koartikulazioaren kontzeptua. Honen bidez, fonetikariek aditzera eman nahi izan dute hizketa-hotsen ekoizpen mekanismoak bi edo elementu gehiagotara aldi berean egokituz jarduten dutela⁶. Oro har, eskulibu-

⁵ Artikulografoaren bidez, esate baterako, berriemailea hizketan ari deneko hizketa hotsak grabatu ahala, parte hartzen duten artikulatzaile zenbaiten mugimenduen datuak ere biltzen ditu (mihia, matrailaren eta ezpainen mugimenduak, alegia) eta aldi berean, denboran zehar aldatuz doazen uhin akustikoen espektroetatik erauzten ditu ekoiztutako hots horien F1,F2,F3 formakinen maiztasunak).

⁶ Ezin konta ahala definizio eta interpretazio ditugu koartikulazioaren inguruan. Bakar batzuen irizpideak baino ez ditut ekarriko. Kent eta Minifie (1977, 116) autoreek honela diote: "ingurune hotsen etengabeko elkarreraginaren konplexutasuna dela eta, unitate linguistiko jakin batek ez ditu, izan, akustikazko eta artikulaziozko aldagaitzak", beraz, koartikulazioaren interpretazio honek, ekoizpenaren kontzeptualizazioa egiten du eta suposatzen du, mugimenduzko kontrolaren sistema-irteeran unitate diskretoak ditugula. Daniloff eta Hammarberg (1973) autoreek, "segmentu fonetiko batek besteren batean duen eragin gisa" definitzen dute; Lagefoged-ek (1975, 48-52) "elkarren ondoko ebakeren batetortze modu-

ruetan sinplifikatuz, ezkererako eta eskuinerako koartikulazioa bereizten bada ere, kontua askoz ere konplexuagoa da; izan ere, ez da bakarrik aurretik edo ondoren datorren segmentuari aurre hartzea ezaugarriak aldaraziz, askotan, errealitatean, artikulatzaileen eskutik (e.b., ezpainen aurreratze eta borobiltzea) koordinatutako hainbat mugimendu morfema-mugen gaineratik hedatzen dira aurreratuz artikulatzaileen jarrera ondotik doazen segmentuetara, mugimendu horien guztien emaitza diren ezaugarri akustiko jakinak aldaraziz. Eta hemendik dator, hizketan ari garenean, ahoskuntz organoek oharkabean (baina ez imitazioz) behin eta berriz egiten duten mugimendu-kontrolaren alderdi korapilotsua. Artikulaziozko eta akustikazko datu esperimentaletan aurkitzen den aldakortasun fonetikoaren arazoak, artikulatzaile bakoitzaren mugimenduen oinarrian dauden kontrol printzipioen arazo orokorra aztertzeraz eraman ditu jakitunak. Printzipio horretan oinarrituz ezartzen dituzte, alde batetik, batasun motorearen denbora-eskemak, eta, bestetik, koartikulazioaren agindu motoreen berrantolatze-moduak, artikulatzaile ezberdinek halako helburu jakin bat iritsi behar dutenean, egoera ezberdinetatik abiatuz. Azalpenak eta ereduak ugari izanik ere⁷, gertaera honen esplikazio zehatzagoa eta osatuagoa lortu nahi badugu, behartzen gaitu fonetikan ez ezik, fonologian eta seguruenik hizkuntzaren beste zenbait osagaien azterketa-emaitzetan ere murgiltzera.

Argi bila, neure buruari ez besteri, egiten dizkiodan galderak dira, hots, aldeaz aurretik programatua edo planifikatua ote ekoizpen-prozesua? Nola liteke, bada, seinale fisikoak kanporatzeko, denbora ezinago laburrean (segundoko 15 hizketa-hots ezberdin kanpora baititzakegu) hots-asmoa edo esan-asmoa kodatzea horrenbeste agindu (psiko)neuromotor koordinatuz?

ra, bata besteen ezaugarriak gainjarriz” definitzen du. Beste zenbait autorek, berriz, Öhman-ek eta besteek (1967), aldakortasuna dela eta hiru prozesu bereizten dituzte: murrizte-, berrantolatze- eta koartikulatze-gertaerak. “Koartikulazioa, besteen gaineratik, aginduen arabera, eta horiei erantzunez, artikulatzaileak mugitzen direneko unea da, ondoren murriztea letorke, hots asmoaren segidako jarrearak xedatzen duen neuronan agindu batek, artikulazio-jarrera eteten duenean gertatzen den efektua da murrizte, e.b. hizketaren abiadura bizkortzeak, zenbait bokal eta kontsonanteren neutralizazioa lekarke. Berrantolatzea, berriz, traktoaren itxuraketaren aldaketa baten ondorio da; ingurunearen arabera gertatzen dena eta halako hots bati dagokiona; e.b., bide honetatik azaltzen ditu armonia bokalikoa eta amaierako kontsonanteen ahoskabetzea erusiaeraz”.

⁷ Ekoizpenean egiten den azken jardun horren (artikulazioaren) berri emateko, eredu neurofisiologikoetan oinarritutako ereduak arrakasta izan badute ere, ez digute azaltzen ekin-tza honen izaera berezitua eta adierazgarria; 100dik gora gihar eta neuronen kontrolen gaineratik legokeena.

4. ALDAKORTASUNAZ ETA ERLAZIO EZ LINEALAZ

Bizidunok egiten ditugun ekintzen ezaugarri behinetakoa (eta nahitahiezkkoa) aldatzearena da; beste horrenbeste gertatzen da nor izateri begira ere, elkarren artean ezberdin gara eta hala garelako modu ezberdinean erantzuten dugu zeinahi egoera berritan. Hiztunon hizketa ere aldakorra da ezinbestean; alde batetik legoke hiztunari berari atxikitzen zaion aldakortasuna: a) duen ahoskuntz sistemaren ezaugarriek, adinak, ohiturek... mugatzen dute artikulatze-modua, hizketa-abiadura, erritmoa... ; b) aurrekoari erabat lotuta dator hiztunaren izaerari lotutako aldakortasuna, hau da, duen nortasunak, identitateak, sinesmenak, barne-egoerak, hizkuntzaz duena jarrerak... bultzatutakoa legoke; c) gizarte-harremanei lotutakoak, lekuak, solaskideak, gaiak, barne-egoerak... eragindakoa, alegia.

Ekoizpenari lotutako aldakortasunaz gain, arazo dira fonetikan, batetik, ingurune fonetikoak hainbat mailatan eragiten duen aldakortasuna, eta, bestetik, artikulaziozko parametro eta parametro akustikoen arteko linealtasun falta.

Azken puntuari erantzunez, Stevens-ek (1972) "Hizketaren izaera kuantikoa" izeneko teoriaren eskutik azaltzen digu munduko hizkuntzetan hots batzuk beste batzuk baino egokiago direla gune naturaletan ekoizten direlako; izan ere, artikulaziozko aldaketa ttikiek uhin akustikoetan aldaketa handiak eragiten dituzte eta alderantziz ere, beste horrenbeste; hau horrela gertatzen omen da, batetik, akustikaren eta artikulazioaren artean erlazio linealik ez dagoelako; eta, bestetik, uhin akustikoetako aldaketa ttikiek oharmenenerako berebiziko garrantzia dutelako, eta alderantziz, beste horrenbeste. Honenbestez, erlazioa lineala ez, baizik eta, areago kurba itxura hartuko luke:

"These nonlinearities quantize the articulatory parameter into regions of acoustic stability that are bounded by regions of instability. For values at the boundary regions, small changes in the articulatory parameter produce large changes in the acoustic parameter. For values within the stable "quantal" regions, on the other hand, even the largest changes in the articulatory parameter produce little or no change in the acoustic parameter. The acoustic properties associated with such quantal regions would be natural candidates for use in distinguishing phonemes. The articulatory-to-acoustic nonlinearities might also explain some classes of contextual variation" (Beckman, 1988, 219).

Wood-ek (1986) aipatutako teoriaren haritik eta hizkuntza ezberdinetako datu fonetikoak aztertu ondoren, areago joango da esanez:

"The resulting quantal region makes it seem unlikely that this coordination is a passive mechanical coupling among the articulators.

Instead, there seems to be an active linguistically motivated organization among the separate articulations" (Beckman, 1988, 221 or.)

Stevens-en hizketaren izaera kuantikoaren azalpenen eskutik "aldagaitz akustikoen" auziari ere erantzuna eman nahirik Kewley-Port-ek (1983, 1986) edo Stevens-ek eta Blumstein-ek (1981) lortu zuten silaba-hasierako herskari-er leherketa-uneko "aldagaitz akustikoen" ezaugarriak zehaztea; hala ere, parametro aldagaitz horiek, herskariak silaba-hasieran dauden kasuetarako ingelesez onuragarri badira ere, ez dira baliagarri silaba-amaierako kokagunetarako, ez baitute leherketarik. Geroztik egin diren azterketa esperimentaletan oinarritutako estudioetan, esan liteke kontsonante herskari-er artikulagunea zehazteko leherketa-uneko ezaugarri aldagaitzak baino baliagarriagoak direla bokalen trantsizioetako ezaugarri akustikoak.

Hiztunok ahoskuntz organoen anatomia-fisiologiak eta mintzo garen hizkuntzak berak mugatzen bagaitu ere, ezin konta ahala dira gure aho, ez-tarri, mihi, ezpainek... egin ditzaketan mugitze-itxuratzeak eta, ondorioz, ekoitz ditzakegun hizketa-hotsak. Aldakortasuna eta koartikulazioa unibertsalak izanik postula ote litezke organoen itxuratze-aldatzeen kopuru mugatua, eredu akustiko egonkorrak eta patroiz aldagaitzak? Ala azterketak berak, lortu nahi dugunak, bultzatzen gaitu horretara?

5. SEGMENTAZIOAZ

Transmisioa eta pertzepzioa kanporatzen ditugun uhin akustikoen esku-tik egiten da. Akustikak estudiatzen dituen hizketa-hotsen ezaugarri fisikoak ezagutzen baditugu ere (edo ezagutu uste ditugu), arazoak ez dira falta. Bata, eta ez txantxetakoa, segmentazioarena da. Ez dira gauza bera, alde batetik, elkarrizketa bizia eta, bestetik, laboratorioan aztertze-ko alde aurretik prestatutako jarduna. Biak hizketa badira ere, arras ezberdinak dira aztertzerakoan berriemaileen ahotatik ateratzen diren eritmo lasaian oso-osorik ahoskatutako esaldiak eta azkar asko esandakoak.

Hala eta guztiz ere, kasurik onenean, modurik gardenenean eta zaindu-anean esandakoak, etenek eta pausaldiek baino eteten ez duten uhin akustiko-etan azaltzen den continuum-aren segmentazioa burutzea ikaragarri nekeza egiten bada⁸, ezinkizun da elkarrizketa bizian esandakoaren segmentazioa

⁸ Askotan, ikertzaileek ikerketan zehar segmentazioa burutzeko, zenbait irizpide ontzat hartu eta egiten da unitatez unitateko zatitze hori.

burupide zuzenez egitea eta gehienetan, hots bakoitzari dagozkion ezaugarriak zehazteko, gutxi gora-beherako ustezko hasiera eta amaiera markatuz egiten du ikertzaileak segmentuetan zatitze hori. Bizirik dirauen arazoa da, nola hizketaren sintesia eta hitzunak egiten duen ahozko jarduna ezagutzeko ordenagailu-programak egiten dituzten ikertzaileentzat, hala hizkuntzaren deskripzio egokiagoa egiteko ardura teorikoa duten hizkuntzalarientzat.

Kontua da koartikulatuta kanporatzen ditugun esaldietako hizketa-hotsen izaera fisikoa jarraia dela, baina, kodatze-deskodatze-ekintzak egiten dituen hitzunak (nola hitzun alfabetatugabeak, hala hizkuntzalaritzaz deus ez dakien edozein hitzunek) -Sapirrek hitzak hona ekarriz- "entzuten dituen modu idealean" hots-katea ederki asko segmentatuko du, elementuz elementu, silabaz silaba, hitzez hitz... bakoitza ongi bereiziz inongo zalantzarik gabe.

Segmentazioa dela eta, hitzunontzat horren erraza den kontua, nola liteke horren nekeza izatea ikertzailearentzat? Eredu tradizionalak eskaintzen diguten bidea okerra ote? Ala makinek jasotzen dituzten xehetasun asko eta asko pisugabe dira hitzunak duen berezkotasun linguistikorako? Ala fonologia-psikologia alorretan lanean ari direnekin eta guztion lana dela bitarteko ahalegindu behar dugu orain ezinean gabiltzan erantzunak aurkitzen? Zalantza izpirik gabe, lehen galdera saihestu gabe, bigarrenaren aldekoa naiz, elkarlanaren edo auzo-lanaren aldekoa, alegia.

6. OHARMENAZ

Ahotik belarrira eta belarritik ahora dabilen hizketaren deskodatzeari dagokion oharmen-prozesua dela eta buruhausteak ez dira gutxi. Puntu honen inguruan, ikusmolde ezberdinetatik idatzitakoa ugari baino ugariagoa da. Dena den, ez da lan honen helburua teoria guztien katalogoa egitea, baizik eta fonetikaren aldetik aurki daitezkeen puntu ilunak eta ahulak azaltzea.

Ohikoa da esatea ohartzeko-prozesua kanpo belarrian hasten dela eta NSZean amaitu; beste modu batera esateko, indar fisikoa indar elektriko eta ondoren kimiko bihurtuz burutzen dugun ekintza dela. Entzumen organoen anatomia eta funtzionamendua ongi aztertuak daude eta edozein eskuliburuan aurki daitezke xehetasunak irudi eta guzti.

XX. mende erditik aurrera, *tasun bereizleen* artikulazio, akustika eta oharmenezko zehaztasunak zedarritu asmoz, hizkuntzalariek koordinatutako ikerketa handi bati ekin zioten psikologo, elektronika eta telekomunikazioe-

tako ingeniari, logika sinbolikoa eta semiotika aztertzaileak, neurologoak, oharmen eta fisiologian adituak... eta beste zenbait ikertzailek. Ondorengo hiru hamarkadetan ere, *tasun bereizleen* zehaztaperetan buru-belarri jardungo dute zientzia ezberdinetako adituek programa baten inguruan bildurik. Esperimentu bidezko metodoa erabiliz, modu eta mota askotako frogak egingo dituzte oharmen prozesuaren nondik-norakoak argitzeko zenbait teoria eraikiz. Ikerkuntza horiek guztiek berresten dute helduek hizketa-hotsak kategoriatan entzuten dituztela. Horrenbestez, adituak aldagaitzak aurkitu beharrean dira artikulazioan edo uhin akustikoetan.

Hizketaren oharmena, ekoizpenaren eta pertzepzioaren lotura gisa planteatzen dute A. Liberman eta besteek (1967) eta Liberman eta Mattingly (1985) "Hizketa Oharmenaren Teoria Motorea" izeneko teoria klasikoan. Interpretazio honen arabera, transmisioa burutzeko ekoizpenaren eskutik kanporatzen ditugun seinale fisikoak hautemateko berezko mekanismo berezituak ditugula diote deskodatzeko akustikoa egiteko, adieraziz hautematen dugun mezu fonetikoaren eta igortzen dugun seinale akustikoen artean ez dagoela biyekziozko harremanik. Postulatzen dute, hiztun-entzuleok beste hizketa-hotsen ingurumariarik gabe ere, edozein kontsonante edo bokal hautemango genukeela badakigulako nola ekoizten ditugun eta baliabideak ditugulako hizketa-hots jakin bati dagokion kode motorea hautatzeko. Beste modu batera esanda, hiztunak duen artikulazio-ezagutza, seinale akustiko eta oharmenaren arteko bitartekari litzateke; inkontzientea den artikulatze-modu horren eza-gutzari esker hautematen dugu hizketa. Eredu aktiboa ere deitu zaion teoria honen argudio nagusienetarikoa da, uhin akustikoetan dagoen informazioa ingurune hotsen eraginez estali egiten dela eta hots bakoitzaren ezaugarriak aldameneko beste hizketa-hotsen berezitasunekin nahasiak direla uhinetan. Ezaugarrien estaltzea eta iluntzea ingurunearen arabera handia izanik ere, esate baterako, <barrubigunak dira> moduko esaldian, silaba hasieran eta barnean bokalar artean ekoizten diren horien ezaugarriak ezberdinak izanik ere, oharmenak berdintzat hartzen ditu. Oharmen-prozesua aztertzerakoan arazo nagusienetako bat aipatu berri dugun horixe da: nola liteke hartzailearen entzumenak fisikoki arras ezberdin diren hots horiek berdintzat hartzea?

Hori dela eta, teoria honek ahaleginak egiten ditu artikulazioaren eta oharmenaren arteko lotura egiten:

"Phonetic percepts, therefore, must be products of a separate phonetic mode, in which general auditory processing of the acoustic events is bypassed to produce a more direct perception of invariant articulatory events underlying the phonetic category" (Beckman, 1988, 224).

Teoria aktibo hauen barnean sartuko litzateke Stevens-en (Halle eta Stevens, 1959) *Sintesi bidetiko analisisa* izenekoa. Eredu honek aurrekoak baino arreta handiagoa jarriko du seinale akustikoan, izan ere, egileak dio aztarna aldagaitzak ditugula continuum horretan. Entzuleak oharmen prozesuan lehenik continuum-a aztertuko luke tasun bereizleak erauzteko (analisi, alegia), eta ondoren alderatuko lituzke hizketa-hots horiek sintetizatu dituen artikulaziozko aginduekin; alderatze honetan analisisa eta sintesia bat badatoz, hotsak eta hots-kateak ezagutuko lituzke hartzaileak. Teoriaren honen aldekoek egindako frogak empirikoek berresten dute: 1) oharmen sistemak bere parametroak igorlearengandik ateratako ezaugarri akustikoetara egokitzen dituela; 2) formakinen trantsizioei esker hartzaileak bereiz ditzakeela kategoria fonetiko ezberdinak; 3) ikusmenaren eta entzumenaren bidetiko informazioek bat egiten dutela hizketa-hotsen oharmenean. Dena den, ezin esan gabe utzi frogak hauetan guztietan gehienez ere silaba solteak erabili izan direla oharmen-frogak egiteko eta ez esaldiak hiztunon harremanetan eskuarki erabiltzen ditugun modukoak.

Teoria hauen puntu ahulak betetzera etorriko da fonetikarien artean berebiziko arrakasta izan duen *Oharmenaren entzumen teoria orokorra*. Akustika eta oharmena lotzen ditu teoria honek. Dena den, izendapen orokor honen azpian, beren artean bat etortzen ez diren hainbat eredu eta azalpen ezberdin ditugu, ez da, beraz, inondik ere, paradigma bateratua. Ikusmolde teoriko orokorrean baztertzen da analisiaren bidetiko sintesia, mekanismo analitikoagoetan lur hartzeko. Fant-ek (1967) teoria klasikoan uhin akustikoen ezaugarrietan sustraitzen da azaltzeko oharmenaren jokabidea. Honela, oharmenak seinale akustikoan dagoen informazioa iragaziko luke erredundantzia ezabatzeke eta iragazteak egin ondoren gelditzen dena (ezaugarri bereizleak, alegia) alderatuko luke hartzaileak barne-gogoan duen hots-irudiarekin. Alderatze-lan honetan bat badatoz ezaugarri bereizleak eta hots-irudia, fonema da ezagutzen duguna eta katean jarraituz bide honetatik, mezu osoa.

Zenbait autoreren iritziz, hizketa bidez kanporatzen diren uhin akustikoak ez dira uste bezain aldakor, aitzitik, badira ezaugarri aldagaitzak eta horiei esker egiten da irudikapen fonetiko eta propietate fisikoen arteko moldatze mikroestruturala (Blumstein eta Stevens, 1979, 1980). Beste zenbaitentzat, berriz (Klatt, 1979, 1980), seinale akustikoaren ezaugarri aldagaitzak ez daude mikroestruturan, goragoko egituretan baizik (makroegitura, hau da, lexikoan).

Aurrekoak erabat baztertu gabe, 70. hamarkadatik aurrera gaur arte, Psikologia kognitiboaren eskutik datoz oharmenari lotutako ikerketa asko. Oharmen-prozesua informazio-prozesu modura azaltzen dute (Lindsay-k

eta Norman-ek, 1975), (Pisonik eta Sawush-ek, 1975) eta ondorengo urteetan beste hainbatek. Autore hauen aburuz, eta labur-labur esanda, entzumen-sistemak uhin mezudunak aztertu ondoren behetik gorako prozesatzea egingo luke fonema ezagutu arte. Hortik aurrera egingo litzateke goitik beherako prozesatzea, eta gainerako osagai linguistikoen (sintaxiaren eta semantikaren) laguntzaz fonema katea ulertuko genuke.

Ez naiz luzatuko artikulu ezberdinetan aurki daitezkeen azterketa ugari hona ekartzen eta aztarrikatzen, deigarria baita zenbaterainoako indarra duen oraindik ere, uhin akustikoetan aurki daitezkeen ezaugarri-aldagaitzen azterketak oharrenaren jokabidea azaltzeko. Funtsean formakinen kokaguneak, horien bilakaera eta balioak; trantsizioen norabide, bilakaera eta balioak; herskarien isilune-balioak... aintzat hartuz eta entzumen-frogak eginez burutzen dituzte ikerketak. Besteak beste (Assmann, 95 eta 96; Fernández, 93; Martínez Celdrán, 94 eta 95; Romero, 1988; Heuvel eta besteak, 96), pertsonen oharrenak har ditzakeen hizkuntza ezberdinetako bokalen uhin akustikoetako ezaugarri aldagaitzak aurkitu dituzte; herskarietak (Bonneau eta besteak, 95; Ohde eta besteak, 95; Rallo eta Fernández, 95; Núñez-Romero, 95; Villalba, 95; Galera eta besteak, 95), frikarietak (Romero, 95) eta sudurkarietak (Sala eta Fernández, 95) edo bokalarteko kontsonante ezberdinena (Massaro, 75; Repp, 78; Menmelstein, 78; Moreno, 90; Pickett, 95).

Orain arte esandakoa laburbiltzeko, esanguratsua da oharren-prozesua dela eta ondorio modura Martínez Celdrán fonetikariak dioena:

“Es importante encontrar los índices acústicos invariantes para demostrar que el modelo de percepción del habla basado en el procesamiento de la información es viable, con lo cual se habrá avanzado también en el conocimiento global de la percepción del lenguaje por parte del ser humano” (1996, 111).

Hala ere, hizketaren eta hiztunen araberako aldakortasun handia batetik eta koartikulazio kontuak, bestetik, zailtzen dute hizketa-hotsen ezaugarri aldagitz espektoralak zedarrizten, zer esanik ez, silaben eskutik aztertzen diren ebakinetara mugatu beharrean unitate handiagoetara jotzen bada. Bestalde, bistakoa da ezin uler daitekeela hizketa-oharmena segmentuetara mugatuz, hiztunok horiek kateatuz esaldiak kanporatzen baititugu.

Nola nahi ere den, hizketa-oharrenaren jokabide orokorra ulertzeko bidean oztoparri ugari aurkitzen dut travesia eta galderek, zorioneko galderak, zutik diraute: zein da oharren linguistikoaren berezkotasuna? Zein eta zenbaterainoak dira artikulazio-oharrenen gaitasunak eta mugak? Sortzetikoak ote horiek? Zein zeharbide ote egokien zuzenean behatu eta neurtu ezin

dugun oharmen-prozesua ezagutzeko? Nola egiten dugu entzumen-organoen eskutik uhin akustikoan jarraia, aldakorra, erredundantea... dena, iragazi eta komeni zaiguna edo behar duguna baino ez iragazteko unitate linguistikoe-tan? Nola kontrolatzen ditugu erritmoa, hizkera-doinua eta mugimenduak? Helduon oharmenak iragazten dituenak zein unitate dira: fonemak, morfe-mak, hitzak edo esaldiak? Edo modu holistikoan hartzen du informazio guz-tia, bere osoan? Airean zehar hedatzen diren ahots-uhinak jasoaz nola ezagu-tzen dugu adiskidearen ahotsa, egoera antzematen, esaten diguna interpreta-tzen edo ulertzen mezua? Nola liteke elkarrizketan ari garenean maiz askotan uhin akustikoetan ez dagoena, kanporatzen ez duguna ere entzutea? Nola lite-ke berdintzat hartzea uhinetan horren ezberdin direnak (hau da, hizkuntzan pisurik ez badute) eta aitzitik, uhin akustikoetan oso antzeko direnak ohar-menak desberdintzat hartzea (hau da, hizkuntzan bereizle badira)? Nola egi-ten dugu artikulazio, akustika eta entzumenaren lotura?

Baliteke egin ditudan galderek erantzunak izatea. Hala ere, ez dut uste diziplina bakarrak, gure kasuan fonetikak, erantzun beteak eskain ditzakeenik ez badu beste zenbait giza zientzietatik edaten eta berezi bereziki zimendue-tan ezinbesteko osagarri den fonologiatik.

BIBLIOGRAFIA

BECKMAN, Mary E. (1988), "Phonetic theory", F.J. Newmeyer (ed.), *Linguistic Theory: Foundations*, lehen liburukia, Cambridge University Press 216-238.

BOBADILLA, Jesús, GÓMEZ, Pedro eta BERNAL, Jesús (1999), "Posición y evolución de los formantes del habla. Estado del arte". *Estudios de Fonética Experimental X*, UB, Barcelona 11-41.

DANILOFF, Raymond G. eta HAMMARBERG, R.E. (1973), "On defining coarticulation", *Journal of Phonetics* 1, 139-248.

FANT, Gunnar (1967), "Auditory patterns of speech". Weiant Wathen-Dunn (ed.), *Models for the perception of speech and visual form*, Cambridge, MIT Press 111-125.

HALLE, Morris eta STEVENS, Ken N. (1959), "Analysis by synthesis". W Wathen-Dunn and L.E. Woods (ed.): *Proceedings of the seminar on speech compression and processing*, Air Force Cambridge Research Center, vol. II, paper D7.

KENT, Raymond eta MINIFIE, Fred D. (1977), "Coarticulation in recent speech production models", *Journal of Phonetics* 5, 115-133.

KEWLEY-PORT, Diane (1983-1986), "Time varying features as correlates of place of articulation in stop consonants", *Journal of the Acoustic Society of America* 73, 322-325.

LADEFOGED, Peter (1975), *A Course in Phonetics*, New York, Harcourt Brace Jovanovich.

LIBERMAN, Alvin M. eta besteak (1967), "Perception of speech code", *Psychological Review* 74, 431-467.

LIBERMAN, Alvin M. eta MATTINGLY, Ignatius G. (1985), "The motor theory of speech revised", *Cognition* 21, 1-36.

LINDSAY, Peter H. eta NORMAN, Donald A. (1977), *Introducción a la psicología cognitiva*, Madrid, Tecnos, 1983.

MARTÍNEZ CELDRÁN, Eugenio (1995), "En torno a las vocales del español: análisis y reconocimiento". *Estudios de Fonética experimental* VII, Barcelona, PPU, 85-110.

— (1996): *El sonido en la comunicación humana*. Octaedro. Barcelona.

NÚÑEZ-ROMERO LINARES, Belén (1995), "Invariación acústica en el punto de articulación de las oclusivas del español". *Estudios de Fonética experimental* VII, Barcelona, Promociones y publicaciones universitarias, 25-44

ÖHMANN, S.E.G., eta besteak (1967), "Speech production at the neuromuscular level. *Proceedings of the 6th Int. Con. Phon.*, Praha, 680-695.

STEVENS, Ken N. (1972), "Quantal nature of speech", E.E. David jr & P. B. Denes (ed.), *Human Communication: A unified view*, New York, Mcgraw-Hill, 51-66.

STEVENS, Ken N. eta BLUMSTEIN, Sheila E. (1981), "The search for invariant acoustic of phonetic features". P. Eimas eta J. Miller (eds.), *Perspectives on the study of speech*. Hillsdale: Erlbaum.

EUSKARA BATUAREN AZENTUAZ

Iñaki Gaminde

0. SARRERA

1984. urtean euskararen azentueraren gaineko azterketek itzelezko bul-tzada hartu zuten; orduan ere, euskara batuak azentua eduki zezakeela hasi ginen entzuten. Ilunpeko argi izpi hari ia bakardade osoan eutsi behar izan dio Txillardegik urte luzeetan barrena. Ordutik hona beste ikertzaile batzuk ager-tu dira plaza honetara eta euskal azentuaren arazoa argitzen hasi da; euskara, honetan ere, hizkuntza arrunta dela erakutsi da.

Batzuen artean (+2, -1) ospetsu bilakatu da eta xehetasunak xehetasun onarpen osoa bildu duela esan dezakegu. Jakina, onarpen hori ez da gertatu autoritatea daukatenen artean eta arlo honetan zain segitzen dugu.

Zabala da Txillardegiren lana, arlo askotan jardun du, bikain jardun ere; (+2, -1) hori nahikoa litzateke beste baten lana justifikatzeko. Baina bere meri-turik handiena beharbada ez da emaitza zientifiko batera mugatzen; askoz harago doa, egiteko era zintzo eta konprometitu bat defendatu eta ikasleak inguruan biltzen jakin du. Bera gidaria, akuilaria eta adore emalea izan da guretariko askorentzat. Zer edo zer nabarmentzekotan, merezimendu guztie-tan, horixe nabarmenduko nuke, hots, irakasle onaren apaltasuna, ingurukoak erakartzeko eta zaletzeko gaitasuna. Badakit ezin objektiboa izan naitekeena asko baita ikasi diodana, UEUren saioetan irakasle nuenean, AHO taldean lankide eta beti ere adiskide dudanean.

Bere omenez idazteko ohorea egikeran zer aukeratu? Bada, ezinbestez euskara batuaren azentua izan behar da, nire honen gaia, atzera begira barik, etorkizuna gogotan.

1. HELBURUA

Lan honen helburua gaur egun ikasleen artean egiten den “euskara batua-ren” azentuera ikertzea da. Batetik, egiten diren ereduak eta euron arauak ikusi-siko ditugu, eta, bestetik, lan honen bidez, arau edo iradokizun ofizialik ez dagoen artean, berezko ibilbideak norantz adierazten duen irudikatu gurako genuke

2. METODOLOGIA

Gure lana egin ahal izateko test batzuk prestatu genituen Bilboko Magisteritza Eskolako lehen mailako ikasleei egiteko. Idatziz agertzen diren hitzak eta sintagmen azentua jartzeko eskatu zitzaizen ikasleei; erantzunetan euren ustez normalean egiten duten azentuera adierazi behar izan dute. Ikasleak denetara 86 izan dira, 37 euskaldun berriak, 27 euskaldun zahar bizkaitarrak eta 22 euskaldun zahar gipuzkoarrak; euren adinaren batez-bestekoa 19 urtekoa izan da. Behin testen emaitzak kodifikatu ostean, hemen aurkezten ditugun datuak eta ondorioak atera ahal izan ditugu.

3. DATUAK

Aztertu ditugun datuetan, aukeraketa baten ondorioz, lantxo honetarako izenki mugagabe, partizipio bakartu, izenki mugatu eta aditz jokatuaren azentuerak aukeratu ditugu.

3.1. Izenki mugagabeak

Izenki mugagabeen azentuera aztertzeako datuak erroen silaba kopuruen arabera aurkeztuko ditugu; halandaze, silaba bikoak, hirukoak eta lauokoak emango ditugu.

3.1.1. *Silaba bikoak*

Silaba biko erroen azentueran badirudi, zenbait kasutan, erroaren azken silabaren tasuna, hots, irekia edo itxia den, kontutan hartzen dela azentua txer-


tatzeko; hori dela eta, bokalez amaituak eta kontsonantez amaituak bereiz ikusiko ditugu.

3.1.1.1. Silaba bikoak bokalez amaituak

Bokalez amaituko silaba biko izenkien mugagabeetan, azentua txertatzeko aukera bi dauzkagu (ó-o/o-ó). Ondoko taulan jaso ditugun emaitzak ikus daitezke:

	ó-o		o-ó	
Berriak	111	%73	41	%27
Zaharrak	72	%36,9	123	%63,1
Gip	44	%50	44	%50
Biz	29	%26,9	79	%73,1
Orotara	183	%52,7	164	%47,3

Taulan ikusten den moduan, euskaldun berri eta zaharren artean desberdintasun nabarmena topatzen dugu; euskaldun berrien artean (ó-o) eredia askoz ere gehiagotan nahiago izan da euskaldun zaharren artean baino. Azken hauen artean, bizkaitarrek (o-ó) eredia nahiago izan dute; gipuzkoarrek, ostera, ez daukate joera nabarmenik. Ondoko grafikan emaitzak erka daitezke:



3.1.1.2. Silaba bikoak kontsonantez amaituak

Aurrekoan legez, azentua txertatzeko aukera bi dauden arren, euskaldun berrien eta zaharren artean ez dugu desberdintasun handirik topatu, aukera nagusia (o-ó) da:

IÑAKI GAMINDE

	ó-ó		ó-ó	
Berriak	37	%16,3	191	%83,7
Zaharrak	32	%10,9	262	%89,1
Gip	18	%13,6	114	%86,4
Biz	14	%8,6	148	%91,4
Orotara	69	%13,2	453	%86,8

3.1.2. Hiru silabakoak

Aukera guztien artean garrantzitsuena (ó-ó-ó) da, talde guztien artean desberdintasun nabarmenik ez da sumatzen:

	ó-ó-ó		ó-ó-ó		ó-ó-ó	
Berriak	0	%0	262	%98,5	4	%1,5
Zaharrak	1	%0,3	339	%98,8	3	%0,9
Gip	0	%0	153	%99,4	1	%0,6
Biz	1	%0,5	186	%98,4	2	%1,1,
Orotara	1	%0,2	601	%98,7	7	%1,1

3.1.3. Lau silabakoak

	ó-ó-ó-ó		ó-ó-ó-ó		ó-ó-ó-ó	
Berriak	105	%92,1	7	%6,1	2	%1,8
Zaharrak	121	%82,3	22	%15	4	%2,7
Gip	57	%86,4	7	%10,6	2	%3
Biz	64	%79	15	%18,5	2	%2,5
Orotara	226	%86,6	29	%11,1	6	%2,3


Izenki mugagabeetan agertzen zaizkigun datuen interpretaziorako hiru arau nagusi eman ditzakegu:

- (a) Azken silaba estrametrikala: <>
Arau orokorra: [2]
- (b) Arau orokorra: [2]
- (c) Arau orokorra: [2]
Silaba bikoak:
bokalez amaituak [1]
kontsonantez amaituak [2]

Ikusten denez, arazo nagusia silaba bikoetan daukagu honelakoetan hiru aukera agertzen zaizkigu. Ondoko taulan aukera bakoitzaren hedadura ikus daiteke:

	a	b	c
Berriak	4	6	28
Zaharrak	2	29	18
Gip	1	10	11
Biz	1	19	7
Orotara	6	35	46

Emaitzak euskaldun moten arabera nahikoa desberdinak dira ondoko grafikoan ikusten den legez:



3.2. Partizipio bakartuak

Ataltxo honetan bi eta hiru silabako partizipio bakartuen azentuera azter-

tuko dugu. Izenkiekin egin dugun legez, silaba biko partizipioetan bokalez eta kontsonantez amaitukoak bereiz aztertuko ditugu.

3.2.1. *Silaba biko partizipioak bokalez amaituak:*

	o-o		o-o	
Berriak	364	%96,3	14	%3,7
Zabarrak	327	%71,4	131	%28,6
Gip	152	%83,5	30	%16,5
Biz	175	%63,4	101	%36,6
Orotara	691	%82,7	145	%17,3

3.2.2. *Silaba biko partizipioak kontsonantez amaituak:*

	o-o		o-o	
Berriak	16	%19,8	65	%80,2
Zabarrak	40	%40,8	58	%59,2
Gip	17	%43,6	22	%56,4
Biz	23	%39	36	%61
Orotara	56	%31,3	123	%68,7

3.2.3. *Hiru silabako partizipioak:*


	o-o-o		o-o-o	
Berriak	621	%100	0	0
Zabarrak	697	%91,8	62	%8,2
Gip	299	%100	0	0
Biz	398	%86,5	62	%13,5
Orotara	697	%91,8	62	%8,2

Partizipio bakartuen araei begiratzeko badiugu, desberdintasunik nabarmentzen ez diren artean topatzen ditugu. Orohar, izenki mugagabeetan ikusi ditugun joera berberak aurkitzen ditugu:

- (a) Azken silaba estrametrikala: <>
Arau orokorra: [2]
- (b) Arau orokorra: [2]
- (c) Arau orokorra: [2]
Silaba bikoak:
bokalez amaituak [1]
kontsonantez amaituak [2]
- (d) Arau orokorra: [1]

Arau hau Bizkaiko hiru informantek daukate (informanteak Gernika, Muxika eta Bermeokoak dira) hauen kasuan jatorrizko azentuaren arau berberak aplikatu dituztela esan dezakegu.

	a	b	c	d
Berriak	4	0	23	0
Zaharrak	13	8	9	3
Gip	5	3	5	0
Biz	8	5	4	3
Orotara	17	8	32	3



3.3. Izenki mugatuak

Izenki mugatuaren azentuerak aztertzeko datuak silaba kopuruaren arabera aurkeztuko ditugu; bi, hiru, lau, bost eta sei silabako sarrerak kontutan hartuta.

3.3.1. Silaba bikoak

Silaba bikoak aztertzeko bereizketa txiki bat egin beharrean gaude; bate-tik, silaba biko *a* itsatsidunak ikusiko ditugu, eta bestetik, silaba bakarreko errodunak direnak.

3.3.1.1. Silaba biko "a" organikodunak:

	ó-o		o-ó	
Berriak	177	%98,3	3	%16,4
Zaharrak	226	%94,2	14	%5,8
Gip	101	%96,2	4	%3,8
Biz	125	%92,6	10	%7,4
Orotara	403	%96	17	%4

3.3.1.2. Silaba bakarreko erroak:

	ó-o		o-ó	
Berriak	178	%98,9	2	%1,1
Zaharrak	226	%94,2	14	%5,8
Gip	105	%100	0	0
Biz	121	%89,6	14	%10,4
Orotara	404	%96,2	16	%3,8

3.3.2. Hiru silabakoak:

	o-o-o		o-o-o	
Berriak	360	%100	0	0
Zaharrak	475	%99	5	%1
Gip	210	%100	0	0
Biz	265	%98,1	5	%1,9
Orotara	835	%99,4	5	%0,6

3.3.3. Lau silabakoak:

	o-o-o-o		o-o-o-o		o-o-o-o		o-o-o-o	
Berriak	0	0	165	%91,7	15	%8,3	0	0
Zaharrak	2	%1,5	107	%82,3	20	%15,4	1	%0,8
Gip	0	0	96	%91,4	9	%8,6	0	0
Biz	2	%8	11	%44	11	%44	1	%4
Orotara	2	%0,7	272	%87,7	35	%11,3	1	%0,3

3.3.4. Bost silabakoak:

	o-o-o-o-o		o-o-o-o-o		o-o-o-o-o		o-o-o-o-o	
Berriak	0	0	117	%65	54	%30	9	%5
Zaharrak	1	%0,4	155	%64,6	73	%30,4	11	%4,6
Gip	0	0	76	%72,4	25	%23,8	4	%3,8
Biz	1	%0,7	79	%58,5	48	%35,6	7	%5,2
Orotara	1	%0,2	272	%64,8	127	%30,2	20	%4,8

3.3.5. *Sei silabakoak:*

	ó-ó-ó-ó-ó		ó-ó-ó-ó-ó		ó-ó-ó-ó-ó		ó-ó-ó-ó-ó		ó-ó-ó-ó-ó	
Berriak	0	0	74	%41,1	10	%5,6	96	%53,3	0	0
Zaharrak	1	%0,4	104	%43,4	8	%3,3	119	%49,6	8	%3,3
Gip	0	0	65	%61,9	5	%4,8	31	%29,5	4	%3,8
Biz	1	%0,7	39	%28,9	3	%2,2	88	%65,2	4	%3
Orotara	1	%0,2	178	%42,4	18	%4,3	215	%51,2	8	%1,9

Aurreko tauletan eman ditugun datuen joera nagusia azaltzeko, badirudi nahikoa dela arau bi proposatzea:

(a) Azken silaba estrametrikoa <>

(b) Azentua bigarren silaban edo libre dagoen silaban: [2

/txarra/ /neska/ /sagarra/ /alarguna/

(a) txa<rra> nes<ka> saga<rra> alargu<na>

(b) txá<rra> nés<ka> sagá<rra> alárgu<na>

3.4. Aditz jokatuak

Aditz jokatuaren azterketa egiteko, aditz partizipioz eta aditz oinez egiten direnak bereiz aurkeztuko ditugu.

3.4.1. *Aditz partizipioa*

Ataltxo honetan partizipioen azentuera baino ez dugu aztertuko; aukera teoriko bat baino gehiago dagoen arren, kasu gehienetan azentu nagusia partizipioak berak hartzen du. Beraz, datuen aurkezpena, orain arte bezala, partizipioaren silaba kopuruaren arabera egingo dugu, laguntzailearen azentu bigarrenkariaren arazoa hurrengo baterako utziaz.

3.4.1.1. Silaba bakarrekoa:

Aditz partizipioa silaba bakarrekoa denean aukera bi dauzkagu; bata, azentua partizipioan bertan txertatzea, eta bestea azentua laguntzailean txertatzea:

EUSKARA BATUAREN AZENTUAZ

	partizipioan		laguntzailean	
Berriak	217	%87,5	31	%12,5
Zaharrak	331	%92	29	%8
Gip	164	%97,6	4	%2,4
Biz	167	%87	25	%13
Orotara	548	%90,1	60	%9,9

3.4.1.2. Silaba bi bokalez amaituak:

	ó-o		o-ó	
Berriak	148	%59,7	100	%40,3
Zaharrak	107	%29,7	253	%70,3
Gip	55	%32,7	113	%70,3
Biz	52	%27	140	%73
Orotara	255	%41,3	363	58,7


3.4.1.3. Silaba bi kontsonantez amaituak:

	ó-o		o-ó	
Berriak	8	%3,2	240	%96,8
Zaharrak	9	%2,5	351	%97,5
Gip	9	%5,4	159	%94,6
Biz	0	0	192	%100
Orotara	17	%2,8	591	%97,2

3.4.1.4. Hiru silabakoak:

	o-ó-o
Berriak	496
Zaharrak	720
Gip	336
Biz	384
Orotara	1216

Ondoko grafikan ikusten den moduan, desberdintasunik handiena bokalez amaitutako partizipioetan gertatzen da



Desberdintasun hauek azentueraren arauetan dagoen desberdintasuna adierazten dute. Batetik, hiztun gehienek joera azentua oinean txertatzea bada ere, badirudi batzuek azentua txertatzen dutela, izenki mugagabeen arauen arabera, aditz laguntzaileagaz batu baino lehen, eta besteek, oster, lehenengo eta behin partizipio eta laguntzailea batuta, azentua txertatzen dutela. Lehen taldekoen arauak honela eman ditzakegu:

/hartu/ /dut/ /eman/ /dut/

Azentua partizipioak hartzen du, bokalez amaitua bada lehen silaban, eta kontsonantez amaitua bada bigarrenean:

/hártu/ /dut/ /emán/ /dut/

Partizipioa eta laguntzailea batu aditza osatzeko:

/hártu dut/ /emán dut/

Bigarren ereduko hiztunek, berriz, honako prozedura hau darabilte:

/hartu/ /dut/ /eman/ /dut/

Partizipioa eta laguntzailea batu aditza osatzeko:

/hartu dut/ /eman dut/

Azentua txertatu arau nagusiaren arabera [2:

/hartú dut/ /emán dut/

3.4.2. Aditz oina

Aurreko ataltxoan egin dugun legez, hemen ere aditz oinaren azentuera baino ez dugu aztertuko, berorren silaba kopuruaren arabera datuak aurkeztuaz.

3.4.2.1. Silaba 1 kontsonantez amaituak:

	oincan		laguntzailean	
Berriak	233	%86,3	37	%13,7
Zaharrak	288	%87,5	41	%12,5
Gip	122	%94,6	7	%5,4
Biz	166	%83	34	%17
Orotara	521	%87	78	%13


3.4.2.2. Silaba 2 bokalez amaituak:

	ó-o		o-ó		laguntzailean	
Berriak	227	%64,7	124	%35,3	0	0
Zaharrak	73	%17	353	%82,3	3	%0,7
Gip	23	%13,6	145	%85,8	1	%0,6
Biz	50	%19,2	208	%80	2	%0,8
Orotara	300	%38,5	477	%61,1	3	%0,4

3.4.2.3. Silaba 2 kontsonantez amaituak:

	ó-o		o-ó		laguntzailean	
		%		%		%
Berriak	3	%0,7	456	%99,3	0	0
Zaharrak	11	%2	549	%97,8	1	%0,2
Gip	2	%0,9	219	%99,1	0	0
Biz	9	%2,6	330	%97,1	1	%0,3
Orotara	14	%1,4	1005	%98,5	1	%0,1

Grafikan ikusten den moduan, desberdintasunik handiena bokalez amaitutako oinetan gertatzen da berriz ere; aurreko atalean azaldu dugun prozesu beraren ondorioa dela esan dezakegu.




4. ONDORIOAK

Ondorioetan aipagarrienetariko bat dugu hitz markaturik ez egotea (hala ere, hitz luzeetan badirudi atzizki batzuek azentua erakarri egiten dutela: *igo-gáilua, izugárrria*, e.a.; hau hurrengo baterako azterketa izan daiteke), behin arau bat edukiz gero berori beti aplikatzen da salbuespen barik. Hiztunen artean egin ditugun moten araberako taldeetan, gipuzkoar eta bizkaitarren artean ez dago desberdintasun handirik; haatik, euskaldun berri, euskaldun zahar banaketaren arabera arau batzuen arteko desberdintasun nabarmena agertu zaigu. Funtsean gazteleraren azentueraren araua da (Harris 1991) nagusitzen dena silaba bikoetan, dela izenki mugagabeetan, dela aditz partizipioe-

tan. Partizipioen arau horiek eragina daukate aditz jokatueta (beharbada euskara idatziaren menpekotasunak eraginda) eredu nagusi bi sortzen direla.

Silaba bikoetan gertatzen den desberdintasun nabarmen hori kuantifikatuz gero, ondoko taula eta grafika osa ditzakegu:

	ó-o		o-ó	
Berriak	866	%71,57	344	%28,43
Zaharrak	619	%40,27	918	%59,73



Ikusten izan dugun moduan, desberdintasun kuantitatibo horiek islatu baino ez dituzte egiten sakonean dauden desberdintasun kualitatiboak. Ahoz egiten den eta familiaren bidez transmititzen den euskara batuaren ereduak ikertzea gauza garrantzitsua bada ere, hori gainako garrantzitsua izango litza-teke honi buruzko erabakiren bat edo beste hartzea Txillardegik (1984, 1986, 1987 eta 1992) hainbestetan aldarrikatu duen moduan; bestela, euskararen irakaskuntzan, komunikabideetan, ahots teknologietan eta abarretan, orain arte legez, noraezean eta erdararen menean segitzeko arriskuan egongo gara.

AIPAMENAK

HARRIS, James W. (1991), *La estructura silábica y el acento en español*. Visor. Madril.

TXILLARDEGI (1984), *Euskal azentuaz*. Elkar, Donostia.

— (1986), “Proposamen bat azentuari buruz”. *Euskera* XXXI-2, 341-348.

IÑAKI GAMINDE

- (1987), “Azentuari buruzko proposamen bat”. *Ele* 2, 1987, 5-20.
- (1992), “Ahoskera baturantz” *Ele* 10, 1992, 47-71.

DE RE ETYMOLOGICA: VASC. -(R)ANTZ “HACIA”

Ricardo Gómez

0. En este artículo¹ pretendo proponer una etimología plausible para el sufijo de la declinación vasca² *-(r)antz*, que suele conocerse en las gramáticas como “adlativo de dirección” y cuyo significado corresponde a ‘hacia’. Trataré este sufijo inflexional como un calco de la construcción latina equivalente *ad...versum*, y defenderé que, a partir de un proceso de gramaticalización, el calco vasco ha llegado a constituir un morfema ligado. Para ello, presentaré argumentos fonológicos que nos retrotraigan a una protoforma satisfactoria para explicar todas las variantes de este sufijo (§1); seguidamente, ilustraré el proceso de gramaticalización ocurrido, presentando otros ejemplos similares que extraeré de la declinación vasca (§2); finalmente, atenderé a las cuestiones etimológicas, aduciré situaciones paralelas en lenguas románicas y otras lenguas indoeuropeas y expondré algunos problemas y otra alternativa para explicar la probable relación de los ejemplos indoeuropeos con la forma vasca (§3).

1. El caso adlativo de dirección (‘hacia’) tiene en vascuence tres variantes dialectales principales: *-(r)antz* ~ *-(r)untz* ~ *-(r)ontz*. La *Morfología vasca* de

¹ Este trabajo se enmarca en el proyecto de investigación “Estudios de lingüística histórica vasca: morfología, dialectología y lexicografía históricas” (PI97/49), dirigido por Joaquín Gorrochategui. Mi agradecimiento a José Ignacio Hualde, Bernhard Hurch, Iraide Ibarretxe, Henrike Knörr y Emilio Ridruejo, cuyos comentarios y correcciones han logrado mejorar considerablemente el primer borrador. Por supuesto, los errores que permanecen son de mi absoluta responsabilidad.

² No entro en la discusión sobre si el vascuence posee o no un sistema de declinación, ya que está fuera de los límites de este trabajo y resulta estéril para los propósitos del mismo. Me valdré, por tanto, del término “declinación” tal y como aparece en las gramáticas vascas al uso.

Azkue (1925) nos da la siguiente distribución geográfica para estos tres sufijos:

- a. *-(r)antz*: AN, B.³
- b. *-(r)untz*: B.
- c. *-(r)ontz*: G.

Otras variantes señaladas por Azkue son claramente secundarias, producto de la reducción del grupo consonántico —como B *-(r)atz*, R *-(r)az* o B *-(r)utz*—, o de adiciones expletivas —como en B *-(r)antza*—.

eroa' iguzan
eroa' iuen
eroa' uezan
daidela
daidezala
deiola
deiozala
daigule [sic]
deiguzala
daiogun
daioguzen
daitzugun
daitzuguzen
daitzuegun

daitzueguzen
daineGUN
daineGuzen
ez eistera eroan [sic]²⁸
egidazu
eiozu
eiozuz
eiguzu
eiguzuz
eidezue y eiztenze
eiozue
eiozuez
eiskuzue
eiskuzuez
y eiguzue [sic]
eiguzuez [sic]
deidela
naiala²⁹
naiñala
naiela
naizula
naizuela
naiela
daidela
gaizela
gaiñezala
gaizela
gaizuela³⁰

²⁷ Azkuek: *eroan*.

²⁸ Azkuek: *Ez eistezu eroan*.

²⁹ Azkuek: *náiala*.

³⁰ *E* letraren gainean *a* bat ageri da. Azkuek: *gaizuzala*.

10.	<i>bazaiz</i>
<i>zaidezala</i>	<i>bazaiguz</i>
<i>daidezala</i>	<i>bazaiguez</i>
<i>daidela = daistela</i>	<i>bazaiez</i>
<i>daidezala = daistezala</i>	<i>badaidaz</i>
<i>daiodala</i>	<i>badaizek</i>
<i>daiodazala</i>	<i>badaizen</i>
<i>daizudela</i>	<i>badaiiz</i>
<i>banaik</i>	<i>badaiiguz</i>
<i>banaiñ</i>	<i>badaiuz</i>
<i>banai</i>	<i>badaiue</i> ³¹
<i>banaiizu</i>	<i>badaiiez</i>
<i>banaiizue</i>	<i>badait</i>
<i>banaie</i>	<i>badaiist</i> ³²
<i>baít (ura)</i>	<i>badaiistie</i>
<i>bâi</i>	<i>badaiñat</i>
<i>baigu</i>	<i>badaiñadez</i> ³³
<i>baie</i>	<i>badaiñagu</i>
<i>badait</i>	<i>badaiñaguz</i>
<i>badaiik</i>	<i>badaiot</i>
<i>badain</i>	<i>badaiodez</i>
<i>badai</i>	<i>badaiot</i>
<i>badaiigu</i>	<i>badaiiozak</i>
<i>badaiizu</i>	<i>badaiion</i> [sic]
<i>badaiizue</i>	<i>badaiskuk</i>
<i>badaiie</i>	<i>badaiskuzek</i>
<i>bagaiuz</i>	<i>badaisku</i>
<i>bagaiuzue</i>	<i>badaiikuz</i>
<i>bagaiiez</i>	<i>badaitzut</i>
<i>bazaidez</i>	<i>badaitzudaz</i>
	<i>badaitzuet</i>
	<i>badaiuet</i>
	<i>zenkidezan</i> ³⁴

³¹ Azkuek: *badaiizue*.³² Azkuek: "badait o badaist".³³ Azkuek: *-daz*.³⁴ *Flexionario*-an *zengidezan* ipini zuen Azkuek, eta gero *zenkidezan*.

<i>neizen</i>	<i>neiz, neikez</i>
<i>ezin yan nei</i> ³⁵	<i>leik, leikez</i>
<i>neike</i>	<i>geiz, geikez</i>
<i>ei</i>	<i>zeiz, zeikez</i>
<i>eike</i>	<i>zeidiez, zeikiez</i>
<i>ein</i>	<i>leidiez, leikiez</i>
<i>lei</i>	<i>neinkidean (sic)</i> ³⁶
<i>leike</i>	<i>neinkenán</i>
<i>ezin gei</i>	<i>neinkidxán</i>
<i>geike</i>	<i>neinkizun</i>
<i>zei</i>	<i>neinkizuen</i>
<i>zeike</i>	<i>geinkezuzán</i>
<i>zeiddie</i>	<i>geinkezuezan</i>
<i>ezin leiddie</i>	<i>geinkiezan</i>
Flexiones del potencial del auxiliar	<i>zeinkedazán</i>
<i>egin</i>	<i>zeinkezan</i>
<i>niñaikek</i>	<i>zeinkeguzán</i>
<i>niñaiken</i>	<i>zeinkiezan</i>
<i>niñaike</i>	Familiares de <i>naiz</i>
<i>niñaikezu</i>	<i>nauk</i>
<i>niñaikezue</i>	<i>naun</i>
<i>niñaikie</i>	<i>gauzek</i>
<i>iñaiket (?)</i>	<i>gauzen</i>
<i>iñaike</i>	<i>nintzuan</i>
<i>iñaikegu</i>	<i>nintzunan</i>
<i>iñaikie</i>	<i>banintzuk</i>
<i>giñaikezak</i>	<i>banintzun</i>
<i>giñaikezan</i>	<i>dduat</i>
<i>giñaikez</i>	<i>ddumat</i>
<i>giñaikezuz</i>	<i>ddustek</i>
<i>giñaikezuez</i>	<i>ddusten</i>
<i>giñakez [Azkuek -kiez]</i>	<i>neuskiok</i>
<i>ziñaikedaz</i>	<i>neuskion</i>
<i>ziñaikez</i>	<i>naioak</i> ³⁷
<i>ziñaikeguz</i>	<i>naioan</i>
<i>ziñaikiez</i>	

³⁵ Hemendik *ezin leiddie* formaraino (barne) falta da *Flexionario*-n.

³⁶ Azkuek: *neinkidxán*, eta *sic*.

³⁷ Joan aditza, jakina.

*naiaroak*³⁸

ddabik

naiaroan

ddabiñ

etorriko litzake

etxaku

*gaioazan*³⁹

dagoala

nentorrenan

ekarrik' uk

ERANSKINA

Azkueren gutuna Bonifacio Etxegarairi (1932)

Artikulu hau moldiztegirako bidean zela, Azkue Bibliotekako Josune Olabarria andreak dokumentu interesgarri baten berri eman dit (kodea: ABA-RMA-110-372). Gutuna da, Azkuek Bonifacio Etxegarairi idatzi ziona. Nabari denez, Etxegaraik datuak eskatu zizkion Azkueri, *La Gaceta del Norte* egunkarian argitaratu nahi zuen artikulu baterako.

Ikusten denez, Azkuek Zigoitia du hizpide, batez ere. Hala ere, "hará cosa de 31 o 32 años" dio; beraz, 1900 inguruan joan zen lekeitiarra lehenbizikoz Zigoitira.

Azkuek euskararen mugez dioena erka eta osa daiteke, jakina, Odon Apraizek *El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria (1850-1950)* liburuan idatziarekin (ikus gure bibliografia).

Hona gutunaren testu osoa, deus ere aldatu gabe, salbu *rr* eta *ll* ipintzea, gangarrak kendurik.

"EUSKALTZAINDI

ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Teléfono 12745

³⁸ *Eroan* aditza. Azkuek bi forma hauek beste paper batean ere baditu jasoak.

³⁹ "= goazen".

BEIN-BEINEKO ETXEA

Domicilio provisional: Ribera, núm. 5

Urutizkiña 12745

BILBAO

Bilbao a 9 de Diciembre de 1932.

Carisimo amigo Boni:

Muy gozoso contesto a su grata del 6 para decirle 1º que en Alaba no solo los pueblos en los que oimos o hemos oido hablar nuestra lengua, sino aun aquellos en los que hace quizás siglos que se perdió su uso, es únicamente el dialecto bizkaino el que en ellos regía, a juzgar (en lo que se refiere a estos últimos) por los *Uri* o *Ullibarri* y no *Iriberry* que conserva su Toponimia. 2º La primera vez que estuve en Etxabe [sic; Etxaguen nahi du esan] de Zigoitia (hará cosa de 31 o 32 años) prediqué en vascuence y me siguió el pueblo muy bien. La segunda vez (hace unos seis años [sic; 14 dira]) quise tambien predicar y me disuadieron, alegando que solo los ancianos podrian entenderme. 3º Ahora empiezan a predicar en castellano, dando como muerta nuestra lengua, aun en Legutiano (Villarreal), Elosu y algunos otros pueblos de aquel contorno.

En su artículo de la *Gaceta* dirija V. ¡Arren! una súplica o queja al Prelado diocesano.

4º En Elguea ya sólo algun ancianísimo [sic] conserva el euskera, segun me aseguró este verano una hija de Hermua (pueblecito de aquella zona), llavera del cura de Ursuaran. En Laudio (Llodio) sólo hay un barrio (por lo que he oigo decir) en que se habla el vasco, el barrio de Gardea. Iré allá algun dia a hablar con los mayores.

Ya en Barambio, donde he estado varias veces, solo hablan la lengua tradicional algunos de su apartado barrio Garrastatzu. Esto se debe principalmente a que hace ya más de 50 años enviaron allá de curas a sacerdotes que no sabian vascuence.

Apenas hay en el mapa de Bonaparte pueblos que no haya yo visitado, por ejemplo Marieta. En los demas hablé yo con varios (aun no viejos) la lengua tradicional.

Me aguardan ya en casa. A los de la suya cariñosos recuerdos. Hasta dentro de poco en que nos veremos en S.S.

Cordialmente suyo en el Señor.
[R. M. Azkue]"

BIBLIOGRAFIA

APRAIZ, Odón, 1976. *El vascuence en Vitoria y Álava en la última centuria (1850-1950)*. Gasteiz, Arabako Diputazioa.

ARANA, José Antonio, 1997. "Georges Lacomberen artxiboa". *Federiko Krutwig-i omenaldia*. Bilbo, Euskaltzaindia (Iker 10), 49-77.

AZKUE, Resurrección María, 1917-1918 (?). *Flexionario*. Hiru kaier argitaragabe. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan gordetzen dira.

ETXAIDE, Ana María, 1984. *Erizkizundi irukoitza (euskara 1925)*. Bilbo, Euskaltzaindia (Iker 3). Bi liburuki.

YRIZAR, Pedro de, 1992. *Morfología del verbo auxiliar vizcaino (Estudio dialectológico)*. Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa. Bi liburuki.

ZEMAI ABAGADAUNE*

Joseba Lakarra

Erroek eta gainerako morfemek berezko dutelarik egitura kanonikoa, eta hizkuntza guti direlarik beren bilakabidearen garairen batean besteren bat(zu)ekin harremanetan izan eta haietarik lexikoaren eta gramatikaren elementu zenbait bertakotu edota eraldatu ez dituztenak, morfemen egiturak leku-kotasunik eman lezake hizkuntzon arteko harremanaren historiaz, dela morfemon mailegu-izaera agertuaz, dela hauen kronologia-ezarketa erdiesten lagunduaz, dela zein hizkuntzatatik eta bidetatik iritsi diren hartzailera zehaztuaz.

Mitxelenak inoiz aitortu zuenez, baliteke ikertzaileari gertatzea besterik gabe eta arrazoi formal hutsengatik, delako hitz batzuk mailegutzat jotzea, are inork haien jatorria aurkitu edo bilatu ere ez duelarik. Hitzen luzera, esaterako, dagoeneko Sapirrek aldarrikatu zuen irizpidea dugu: delako hizkuntza batean halako forma kanoniko bat izaki, hitz batek silaba kopuru jakin batekin gora badu, bi analisi-aukera ditugu; hots, edota zati txikiagoetan eman daitkeen eratorri edo konposatu batekin ari gara, edota mailegu batekin (cf. Mitxelena 1963: 48).¹ Hemendik jarraitzen da, aitzineuskara zaharrerako erroaren egitura kanonikotzat CVC hartuaz, hurrenez hurren konposatu eta eratorri bana ditugun *horbel* edo *zuri*-rekin bezala egiterik ez izanik, **ardano*-rekin, mailegaketaren aukera ere ez genukeela ahaztu behar honetan.

* Neure eskerrik beroenak Blanca Urgelli aurreko zirriborro bati egindako zuzenketengatik, Henrike Knörrri probetan egindakoengatik eta, orobat, beharbada gaia "politikoki desegoki" gerta zitekeela adierazi didaten adiskideei. Lan hau MCyT-ko *Fundamentos para unos Monumenta Linguae Vasconum* ikerketa-proiektuaren barnean kokatzen da. Geroztikoak dira bibliografian aipatu ditudan 2000 ondorengo saioak, hau bezala erroa, berreraiketa eta horien ondorio den etimologiazko azterketez.

¹ Beti ere aska ezin genezakeen jatorrizko lexikoko eraketa arkaikoak ere badirela gogoan izanik, Mitxelenak eta gainerako iturriek egiten duten bezala.

Auzoko adibide bat hartuaz, Huld-ek (1990) Polomé, Salmons eta beste-ekin Europa-mendebaleko substratuko morfemak bilatzerakoan lau irizpide aurkeztu zituen lanabes gisa: 1) erdaratiko hotsak, 2) hots konbinaketa arrotzak, 3) ezaugarri morfologiko bereziak, 4) banaketa mugatuak². Lau irizpideok erabiliaz eta IE erro kanonikoa CVC monosilabikoa dela (1990: 393) kontuan izanik, Meilletek “mendebaleko hizkuntzak” deitu zituenetarik bi dozena hitz bil omen daitezke: zazpi italikoan eta zeltikoan Huld-ek “Alpeetako” deritzon iturri-hizkuntza galdutik: hitz tipikoak disilabikoak dira eta erdiko geminatuak dituzte; gainerakoak Balkan eta Egeo aldeko dira, silaba irekiak dituzte, soilik diptongo eta sudurkari gehi herskari taldeekin (1990: 394).³

Bestalde, Baitchurak (1987: 168-169) arrazoi bide luke –gauzak horrela balira– konparatzaileek oker jokutzen dutela esatean, hizkuntzen lexikoaren erdiarekin jokatuaz gainerakoa mailegatua dela aitzakia⁴. Izan ere, jatorrizko lexikoaren eredu gorabeherak, indarra eta iraupena maileguen bertakotzetik atera daiteke usu, Mitxelenak euskal fonologia zaharrarekin egin zuen legez: hots, baldin eta latinetiko lexikoan *-nn-* > *-n-*, *-n-* > *-θ-*, *-ll-* > *-l-*, *-l-* > *-r-* badugu eta jatorrizko lexikoan *-n-*, *-θ-*, *-l-*, *-r-* gorde badira, orduan aitzineuskaran *-N-* / *-n-*, *-L-* / *-l-* bereizi behar ziren, latinez *-nn-* / *-n-*, *-ll-* / *-l-* egiten ziren bezalatsu (cf. Lakarra 1996b).

² Zein diren ezagutu ondoren haien kronologia zehazteko Mitxelenak (1974: 197-8) ondoko irizpideak aurkezten ditu: “Si nos atenemos a los criterios formales, los más fáciles de aplicar objetivamente, han de tenerse presentes dos aspectos, contradictorios a primera vista: en términos generales, los préstamos serán tanto más antiguos cuanto mejor conserven su aspecto original y, a la vez, cuanto más lo hayan modificado. Serán antiguos, en otras palabras, en la medida en que no muestren señales de los cambios fonéticos que se han realizado en los romances vecinos, pero también en la medida en que han participado de otros, propios del vasco mismo, ya que esta participación es la mejor prueba de que se habían incorporado al léxico de la lengua antes de su cumplimiento. Unos y otros, sin embargo, pueden coincidir alguna vez y también sucede que la configuración fónica del préstamo, poco característica, no alcance a dar luz acerca de la fecha de su introducción”. Egitura esanguratsurik ez duten horietan esanahi aldaeretera, geografikoetara, eta bestetara jo behar.

³ Banaketa mugatuari dagokionez gogora Gorrotxategi 1987-n *sarika*-rekin erabiltzen den argudioa, ez mailegutzat jotzeko baizik eta estratu zeltikotik ala latindarretik hartua den erabakitzeke.

⁴ Ez, ordea, berak nahiko lukeen bezala hitz guztiak direlako mailegu eta, beraz, maila bereko; azken finean Schuchardtekin eztabaidan Meilletek duela ia mende bat gogoratu bezala, hizkuntza guztietan “jatorrizko lexikoa” kontzeptu erlatiboa izan arren, hizkuntzaren bilakabide ezagunaren barnean absolutua bilakatzen da eta garai diferenteetan sartutako maileguek ez bezalako informazioa eman liezaiguke.

Potetek (1995: 345) "When loanwords are excluded, ones realizes that many Tagalog words are based on monosyllabic root (consonant-vowel-consonant)" ohartuaz edota Jobek (1995: 242) Kaukasoko lezgi hizkuntzan soilik maileguetan agertzen dela 'ahostun — V — ahostun' segida gogoratzen digunean, guztiok teoriar aspalditik dakiguna baino ez digute markatzen, hots, maileguei bertakotzea kosta egin dakiekeela eta inoiz beren azaleko egiturak⁵ sala ditzakeela atzerritartzat. Hizkuntza austronesioetan bestela ere enbor bisilabikoetarako joera garbi ez balitz, mailegatuek lekukotasun interesgarririk eman ahalko lukete (Gonda 1949/51-52: 323). Hizkuntza zenbaitetan maileguez izan duten bilakaeraren azterketa konparatuak interes berezia luke hizkuntza hartzaileen egitura morfonologikoa ikertzeko. Inoiz, Schützek (1976) hawaierak ingelesetik hartutako berbekin ikertu duenez, jatorri berekoek ere oso emaitza ezberdinak baitutuzte gertuko hartzaileetan⁶. Han bertakotutako maileguak gogoangarri dira, ez soilik hizkuntza horren —hobe herri horren— historiaren barnean suposatzen dituzten fenomeno bereziengatik, baizik eta orobat familiako kide hurbil dituen Tonga eta Fiji irltako austronesioak jatorri beretik hartu dituenetarik berezi samarrak direlako: beren fonema inbentarioak eta distribuzioak baduke horretan zerikusirik.⁷

Aski izan bedi, beraz, baieztatzea etimologia berriek zeresan handia dutela aitzineuskararen egitura morfonologikoa eta horren barnean erro eta gaine-

⁵ Ohar bedi ez gairela soilik egitura segmentalaz ari: "By the structural study of a language it is possible to isolate a number of more or less complete phonological systems of which one may be regarded as primary. A system whose prosodic structure conforms to the primary pattern, may be felt by the native speaker to be fully naturalized, even through phonematic features may reveal its non-primary character. Words felt by the speaker to be of a special kind are marked by special prosodic patterns. "Special words" are of the following types: a) exclamation... b) onomatopoeias... c) loanwords" (Henderson 1951: 156, Asia hego-ekialdeko hizkuntzez). E. E. Wallsek ("The word and the phonological hierarchy of Mezquital Otomi", *Language* 44 (1968), 76-90) "A balance of the following components (in ranked order) is crucial to word structure: stress, tone, length, nasalization, glottalization and syllable release (...)" dio hasieratik bertatik. Euskaraz ere *básò* eta *basó*-ren artean den diferentzia segmentuz landakoak lehendabizikoaren mailegu izaera salatzen du argiro.

⁶ Hori da sanskritotik hartutako maileguekin malayalamean eta tamilean dakusaguna (cf. Mohanan 1989: 615), edota latinetik ondarearekin euskaraz eta erromantzez (cf. Mitxelena 1957b eta 1974).

⁷ Hemen ere maileguen bertakotzeak hizkuntzaren joera sakonen berri eman liezaiguke: ingelesezko CVC morfemak hartzen dituztenean, hizkuntza hauetan CVCV bilakatu ohi dira, euskara zaharreko *muta cum liquid*a taldeak ezabatzeke ezartzen den bokalismoaren antzeko (baina kontrako zuzenbideko) erregela batez: *bell* > *pere*, *fig* > *piki*, *bull* > *purru*, etab. (Krupa 1971: 678). Bokal kopia hawaieraz galdu eta bestelako bokalak eransten direla badirudi ere, Schützek (1976: 88) neurri batean hori misionisten saio hutsala izan zela diosku.

rako morfema zaharren zernolakoak argitzen. Merezi bide luke, bada, etimologia irizpideak alderdi honetatik⁸ zehaztea ikertzailearen usaimenez gainetik, nolana ere, emaitzak eta horien segurtasuna areagotuko bailirateke zalantzarik gabe.

Azkueren hiztegiak *zemai* “(B-a-g-l-m-o-ts-), amenaza, menace” itzultzen du Mogelen eta Uriarteren bi pasarteren laguntzaz: *Alperrik soldadu erkin, koldar ta guperea zapalduko dozu zemaiz ta agiraka garratzez* “en vano cubriréis de amenazas y riñas agrias al soldado enclenque, cobarde y delicado : en vain agoniseriez-vous de menaces et d’aigres querelles le soldat débile, lâche et délicat” (*Per. Ab.* 204-11) eta *Beti gogoan ebala arako Jaungoikoaren zemaia* “teniendo siempre en la memoria aquella amenaza de Dios : ayant toujours à la mémoire cette menace de Dieu” (Ur., *Maiatz*, 112-3). Horrezaz gain *zemaitu* “(B-o,...) amenazar, menacer” eta *zemaikuntza* (B-t̃s) “amenaza, menace. Var de *zemai*” ere badakartza Añibarroren lekukotasunarekin: *Ainbeste argialdi eder, dei gozo eta zemaikuntza bildurgarri* “tantas hermosas inspiraciones, dulces llamamientos y terribles amenazas: tant de belles inspirations, de doux appels et de terribles menaces” (Añ., *Esku-lib.* 29-7); beheraxeago aditzaren beste aldaera bat, aurrekoa baino hedatuagoa sarre- ren tamainaren eta Azkueren oharren arabera: *zematu* (Bc, ...G?).⁹

Hitz familia honen lehen lekukotasunak —ez da harritzekoa, noski— Azkuek dakartzanak baino lehenagokoak dira eta Sarasola 1980an s.u. agertzen zaigu Kapanagaren *Cemaia edo agrabioa eguiten dabenac* “El que hiçiere amenaza, injuria” (49. or.); nolana ere, ezagutzen ditudan hitz familia honen lekukotasun zaharrenak —ez izenarenak aditzarenak baino— RS-eko (1596) biak ditugu: 23 *Cematuoc oguien jala* “Los amenazados comedores de pã” eta 93 *Cematuoc gueyago orzituac baño* “Más los amenazados que los enterrados”.¹⁰

Hitzon hedadura ez da B-tik ateratzen, gainerako euskalkietan *mehatxu* (L, B¹¹, BN, S; SP, Urt V 434, Ht VocGr 384, Aq 956 (AN) y 1445, Lecl, Arch

⁸ Eta agian baita besteren batetik, esaterako hitzen distribuzio osagarriak eta bestelako konbinaketek beren jatorria ikertzeko eman lezaketen laguntzarenetik. Ikus orain Lakarra 2002 eta 2005.

⁹ Eranskinean oraindik “*zemaizkoa*, conminatorio (juramento)” dator, xehetasun haboro gabe. *Garbatu* (<**garbanatu*) ere *garbaitu* baino hedatuagoa da; cf. 13. oh.

¹⁰ Voltaire 230 *Mehatxatuek oraño jaten dute ogia* agertzen da *OEH*-n s.u. (orobat iturri bereko *mehatxatzen* bat ere); kasu *zematu*-ren baliokideari.

¹¹ Ez dakit Azkue izanik haren iturri aitortua nola dakarren *OEH*-k “B” hau, hark “(AN-b, BN-gar, Sc)” baitu *me(h)at̃su*-n, “(AN-BN-s, G)” *me(h)at̃satu*-n eta “(AN, BN, S)” zabalagoa edo zehaztasun gutxiagokoa *me(h)at̃suzko*-n; ez dirudi Azkuek bere euskalkian entzun edo irakurria zuenik. *OEH*-n s.u. batzen diren adibideen artean ere ez dut jatorri horretakorik aurkitu. Ik. hurrengo oharrean Lardizabalen *zemai*-z.

VocGr, VocBN, Gèze, Dv, H)”, *meatxa* “(G; Lar, Añ (G, AN), Izt VocC)”, eta *beaza* “(Lcc, Lar Sup → H)” mailegu garbiak direlarik. *OEH*-ko lekukotasunen laburpenean *zemai*-ren kide hauetaz “*Tr. Documentado en la tradición septentrional desde Leizarraga. Al Sur se encuentra en Mendiburu, Lizarraga de Elcano, en un texto de Lesaca de mediados del s. XIX (ETZ 255 miatxu)* y en algunos autores modernos. *Me(h)atxu* es la forma g(ene)ral. Hay además un ej. de *miatxu...* y *meaxu* [bana Tartas eta EtxSarakoak]” dioskute.

Interesgarri begitantzen zaigu markatzea ez *mehatxu*, ez *meatxa*, ez *beaza* ez direla *zemai*-ren lurraldeetan aurkitzen¹², ez eta —Azkueren galdera ikurra gora-behera— azken hau haienetan, *leibo / bentana*, *zaldi / kaballoa* eta bestelako bikoteak ezezagunak izan ez arren hainbat euskal hizkeretan; *amenazo/-u*, *amenazatu* ageri dira, aldiz, B aldeko lurretan: *OEH*-ak, esaterako, “no hemos encontrado más ej. que los citados” batekin *DFrec* delakoan lau adibide direla (sei *amenazo*-renak eta hiru *amenaza*-renak) gaztigatu ondoren bada ere, Otxoa Arin, Beobide eta Txirritaren adibide batzuekin batera Astarloaren bi hauek dakartza s.u. *amenazatu: Bigarrena da norbait gatx edo gatxen bategaz zematú edo amenazetia juramentubagaz* (Astar II 60) eta *Zerbait inori aginduten deutzazunian edo berbaren bat emoten deutzazunian, bardin da kastigubén bategaz zematú edo amenazetan dozunian* (Ib. 62).

Amenazo, *-u*, *-a* ondoko sarreran berri interesgarriak biltzen dira, Azkueren (*BGuzur* 141) “*Zemaiek esateko gure errien amenazuek esaten da*” -rekin hasiaz; hor dira —ohiko *DFrec*-eko kopuruez landa— B-z bildutakoak oro: *Izango ezta ne(u)re ustean / ain golpe segurua / ezpada amenazua* (*BBizk* 9), *Kristinaubak, nor bildurtuko ezta Jaungoikuaren aotik zematute edo amenaza au enzunik?* (Astar II 174), *Lau modutakua da juramentuba, baijeztuba edo baijezkua, zematugina edo amenazazkua, biraozkua eta aginduzkua* (Ib. 60). Azkenik, bada ondoren *amenazoka* ere, bertsolari gipuzkoar izengabe baten adibide bakarrarekin eta *DFrec* ditzosozkoan bi gehiago direlako oharrekin. Alabaina, eta honetara gero bihurtuko gara, *a-* duten forma horiek berankorrek dira erromantzez (cf. Corominas-Pascual s.u. *amenazar*) eta ez da zer suposa \emptyset -dunetarik euskaraz bertan sortuak direnik, eta bai kanpotik

¹² Ikus aurreko oharra. Bestalde, *OEH*-ren arabera badirudi Lardizabalek *zemai* erabili zuela inoiz (nahiz eta *amenaza*, *amenazu*-rekin batean): *Zemaia edo amenazakin zentzatu nai izan etziranak, ipiñi zituen Mesopotamiako errege Chusan Rasatainen eskuetan* (Lard. 122) eta *Uste zuen, bere penitenziarekin Jaunaren aserre zuzena izzali zuela, eta Natan Profetaren bitartez egin ziozkan zemaia edo amenazak, itz utsetan geldituko zirala* (Ib. 194); *zemai* eta *mehatxu*-ren konbinaketaren salbuespen bakar izateaz landa, gogora bedi, alabaina, Lardizabalengan ikusi izan den bizkaieraranzko joera. Gainera, bi esaldietan *zemaia*, *-a* itsatsiarekin agertua ez ote aski susmagarri?

horrela hartuak. Bidenabar, dela *zemai*-ren familiarekin, dela *menaza*-renarekin aurki litezke *a*- ereduko hauek; ezingo dugu hau ahaztu gero, dakidanez, orain arte ukitu ez den *zemai*-ren etimologiara bihur gaitzeanean¹³. Artean komeni da *abagadaune*-z segurtasunez ezagutzen dugun apurra bil dezagun.

Sobre el pasado de la lengua vasca-n Mitxelena dioskunez, hitz batzuetarik beste batzuetara mailegutasuna edota mailegu izaeraren segurtasuna ez da berbera: erabateko segurantzatik erabateko ezjakintasunera maila anitz baita. Horrela, inoiz, etorki zuzena markatu ez arren delako forma bat mailegutzat jo ohi dugu:

Como se comprenderá no se puede hacer, ni tendría mayor objeto, un recuento por así decir mecánico de los préstamos latinos —concepto en el que vamos a subsumir también lo románico— en vasco: las cifras, absolutas o relativas, que a veces se suelen presentar no son más que el resultado de estimaciones hechas a ojo de buen cubero. En efecto, y aparte de que no todo lo que consideramos préstamo posee el mismo valor, cualquier género de cuantificación está lleno de trabas e inconvenientes.^{13b}

Uno, y no el menos importante, es la incertidumbre que nos domina a menudo acerca del origen de una palabra: desde los ejemplos claros en que la admisión de un prototipo latino explica satisfactoriamente un término vasco en forma y sentido hasta aquellos en que una hipótesis de esta suerte aparece extremadamente improbable, se escalona una multitud de casos dudosos. Por consideraciones formales sobre todo, uno se siente p. ej., inclinado a ver préstamos en vizc. *abagadaune* “ocasión” (con el suf. *-une* tratado en 4.2.), occid. ant. *apukadu* “sucedido”, ronc. *atizatu*, *atxezatu* “comulgado”, *dollor* “ruín, malo”, *elikatu* “abstenido” y “alimentado”, vizc. ant. *endorea* “el alcalde”, *errexal* “árbol” en Landucci, etc., pero no se ha señalado que sepamos su origen preciso de manera solvente (1964: 33).¹⁴

OEH-n “*abagune* (V, G¹⁵; H), *abadune* (V-m), *abagadaune* (V; PAbVoc), *abagadune* (V-ger-ple), *abegune* (V-ger; H; Izt. ap. DRA)” dator, lehen adieran “1. (Buena) ocasión (...) *Tr.* No lo hemos encontrado antes de Moguel y Añibarro. Vuelve a usarse a partir de fines del siglo XIX, sobre todo por auto-

¹³ *HLEH*-an *zemaitu*, *zematzaile* bezalakoak biltzen dira baina lekukotasun modernoekin; cf. 9. oh.

^{13b} Cf. orain Adam Zawiszewski-ren lana, usu uste baino emaitza murriztagoekin.

¹⁴ Azkuek sarreraren akabuan “Parece que estas voces son derivadas de *abago*, *abaga* o alguna palabra por el estilo, perdida o tal vez ignorada. Il semble que ces mots sont dérivés de *abago*, *abaga* ou de quelque mot semblable, perdu ou peut-être inconnu” zioen, baina ez bide zitzaion Mitxelena 1964an eztabaidarako gai iruditu.

¹⁵ Mitxelena rentzat eta *OEH*-k oinarritzat darabilen Azkuerentzat ikusi dugunez soilik “B” da; beranduago, mende honetan esaterako, G-ko idazleren batzuek erabiltzeak ez bide du jatorria aldatzen.

res guipuzcoanos” esaten zaigu, *DFrec* delakoan hiru *abagadune* eta lau *abagune* direla gehituaz¹⁶ eta bigarrenean “Intervalo de tiempo” itzultzen delarik, *Euskalzale*-ko bi kasu eta Agirrerren beste hirurekin. Sarreraren akabuan —eta hau ere berria da lehengo Mitxelenaren hitzei dagokienez— “*Etim. Préstamo con -ada + -une como final?*” gehitzen da, zalantza markarekin bada ere.

* * *

Bi hitz familion zertzelada nagusiak eman ditugulakoan gaude eta haien jatorriaz zerbait aurreratzen saiatu nahi genuke, horretarako izan ditzakegun arrazoiak eta irizpideen sendotasuna pisatuaz.^{15b}

Lehen esan legez, ez dut *zemai*-ren jatorriari buruzko lanik ezagutzen; edonola ere, *FHV*-n ez da ageri, ezta Arbelaizek bildu egile beraren etimologien liburuan, non ez bakarrik berak sortuak baizik inorenen azterketen iruzkinak ere biltzen diren orobat. Beharbada halabehar hutsa izan zen Mitxelenak *zemai*-ri ere lehen gorago *abagadaune*-z bildu duguna ez ezartzea eta harekin batera beren egituragatik mailegutzat (edota aitzineuskarako lexicotik landakotzat, bederen) jo litezkeen artean ez ematea. Izan ere, edozeinek dakike ze bi arrazoi izan ohi diren euskal morfema batean /m/ azaltzeko: 1) hitz mailegatu batek berezko duen soinua izatea edo 2) euskal morfema batean /n-b/ talde baten emaitza edo *b > m* asimilazioaren ondorio (cf. *senbe > seme*, *heben > hemen*) izatea.

Eskuartean dugun honetan **zenbai > zemai* edota **zebani > zemai* proposatzeko arrazoi berezirik ez dugu, *zemat < zenbat* legezkoak berankorrak baitira B aldean. Bestalde, *garbai*, *lasai* edo *alai*-n aurkitzen dugun **-ai* amaiera hori batez ere mailegutan gertatzen dela dirudi; izan ere **-aCi* dugu *nai*, *mahai*, *jai*, *emai* eta bestetan. Uste honen segurtasuna erabatekoa balitz arrazoi bikoitza eta sendoa genuke *zemai* ere mailegutzat jotzeko.

Besterik da haren etorki zehatza aurkitzea. Honetarako, gainerako ikerketa eremuetan legez, nork bere inspirazioa eta eredia ahal duen lekuan bilatu ohi du, ez haranzko bidea baizik eta honanzkoa baita (asmatutakotik edota berreraikitakotik datuetara doana) azaldu eta justifikatu behar dena. Nik neuk Mitxelenak erdietsi bide zuen etimologiarik eder eta emankorrenetakoa erabili nahi izan dut giltzatzat edo eredutzat. *FHV*-n (326) dakusagunez, mendebaleko *elae*, *elai* eta erdi-ekialdeko *enara*, beren artean itxura batean aski urruti izan arren formaz, **eNaLa / *eLana*-tik datoz biak (gogora *kanpae / kanpai* edota *gaztae / gaztai < *-ana*). Aitzinforma bata ala bestea har, kontsonan-

^{15b} Ikus *andere* oinarri hartuta antzeko saio bat Lakarra 2005-en.

¹⁶ *abagune* da *HLEH*-n hautatua.

te metatesia proposatu behar dugu lekukotutako aldaeretara iristeko: NVI > LVn edo LVn > NVI¹⁷. Azterkizun dugun *zemai*-ra iristeko **zimana*-tik igaro gaitzke, beraz, eta, goraxeago, baita **zebana*-tik ere orobat. Alabaina, beharrezko ote bigarren urrats hau?

Zemai-ren baliokideetara bihurtzen bagara, *beaza*, eta *meatxu*, *meatxa* aurkitzen ditugu (*mehatxatu*, *miatxatu*, *meazatu*, *meaxtu* haren aditzarentzat), erdarazko *menaza* jatorriaren bokal eta kontsonanteak ia bere hartan gordeaz: *m* > *b* disimilazioa batean, *n* > \emptyset / V_V orotan, da alde guztia. Bada, **zimana*-rainoko berreraiketa –ausardia handirik gabekoa– ontzat ematen badugu, kideotako bokal eta kontsonante talde bera kausitzen dugu; hori bai, ordena diferentzia larriarekin kontsonanteetan *m-n-z* / *z-m-n*. Gehiegi ote haien arteko edozein lotura ukatzeko? Ez dut uste, *m-z-n* (**mezana*) izan baitaiteke tarteko seguruenik metatesi honetan.

Menaza > **mezana* > **zimana* > *zemai* proposamena epaitzeko gogora bedi *zemai*-ren lurraldean —eta orobat gertatzen da *beaza* eta *mehatxa-mehatxu*-renetan— ez dela *menaza*-ren (beste) aldaerarik^{17b} haren sinonimo eta eratorri modernoago den *amenaza*-renak baizik; izan ere, nola horrelakorik espero huraxe baita *menaza*-ri dagokion bilakabidea delako lurralde horretan?

* * *

Abagadaune-ren (nahiz atzizki ezaguna edeki ondoko *abagada*-ren) formak bere mailegu izaera salatzen badu, Mitxelenak esan bezala, komeniko bide da erabakitzea zertan den haren jatorriasun eza. Etorki zehatza anekdota hutsa bada ere, honela jokatzeari emankorreragoa gertatuko da etorkizunean mailegu haboro eta horien bilakabideaz gehiago ezagutu ahalko baitugu euskal morfemen egitura-baldintzak eta baldintza horien aldaketaz irizpideak landuaz.

Itxura batean hiru silabako hitza luze begitandu zitzaion Mitxelenari eta morfema tamainari buruzko uste horren arabera (cf. Mitxelena 1963: 48) mailegu edo eratorri/konposatua baino ezin izan; bigarren honetarako euskal erro oinarritzkoagorik eta atzizkirik aurkitu ezinik edo, mailegutzat jo beharra ikusten zuen.

Geroztik mailegu izaera hori are seguruagotzat jo genezake: baldin eta Lakarra 1995-en erakutsi zen legea, morfema barneko **TVTV ezintasuna,

¹⁷ Hobeto esan, metatesi bikoitza, kalitatearena ere (fortis <—> lenis) hor baita Mitxelenak ikusi bezala; ez dakit hau (cf. *laño* < *llano* ere) beste inon aztertu den, baina baluke interesik morfema egitura mailako erregelei dagokienez.

^{17b} Orobat goiko *leiko* eta *bentana*-rekin: nekez aurkituko ditugu *lexo* edo **bendana* beren aldaerekin batean.

alegia, onartzen badugu —eta kontrako arrazoi gutxi dela dirudi— are ezinezkoago genuke **TVTVTV. Bestalde, noizbait erro guztiak aitzineuskaraz monosilaboak izan zirela onartuz, arrazoi haboro genuke *abagada* mailegutzat (edota berankortzat, bederen) jotzeko, areago morfema horiek oro C-eskatzen zutela pentsatzen bada.^{17c}

OEH-ren "Etim." ohar horretan zalantza markarekin egindako proposamena (*abagada* < *abaga* + *-ada*) ez zait aitzinamendua iruditzen ikusiaren eta ikuskizunaren aurrean. Izan ere, *abaga* horrek izartxoa eraman behar bide du (ik. 14. oharra) eta ez zaigu esaten nondik eta nola atera edo berreraiki den; areago dena, ohartu ahalko gara mozketa oker baten aitzinean garela: *abagada*-k ez du atzizkirik, ez behintzat euskararen barnean harturik¹⁸. Gaietik, *zemai* aztertzean ikusi dugunez, erromantzez eman izan da euskararen mailegutan gordetzen den aglutinazio prozesurik: *menaza* > *amenaza*. Hau gogotan izanik, zer gertatuko litzateke *abagada* *a-* gabeko jatorriren batetik ekarri nahi bagenu? Bada, katalanez oraindik gorde duten eta gaztelera zahar eta klasikoko *vegada*-tik abiatu ahalko ginatkeela eta ez bestetik, ene ustez.¹⁹

BIBLIOGRAFIA

AGUD, Manuel, & TOVAR, Antonio (1988), *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*. ASJU-ren Gehigarriak, Donostia.

BAITCHURA, Uzbek (1987), "On some problems of comparative linguistics. In connection with Mongolian-Turkic and some other Altaic relations", *Central Asiatic Journal* 31, 161-177.

BAKRO-NAGY, Marianne (1992), *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigations of the PV and PFU consonant system*, Wiesbaden, Harrassowitz.

^{17c} Orain **TVTV baino esanguratsiago iruditzen zait (cf. Lakarra 2001) **CVCV, kontuan izanik lehena aitzinuralikoz ere ezinezko dela eta bigarrena, aldiz, forma kanoniko nagusia askorekin (ik. Bakro-Nagy 1992).

¹⁸ Azkueri hartuta OEH-k dakarren *abagadaldi*-k ("(V-m) intervalo, coyuntura, ocasión propicia") zahartasunen bat balu, bai honetan eta bai *abagadaune*-n *orain-dan-o* eta bestetan emandako pleonasmoa genuke.

¹⁹ Agud eta Tovarrek Azkueren etimologi hipotesia gogoratzeaz landa, "Acaso la primera parte es romance (¿**abagada*?, o un adverbial de *vegada*?). Nótese la vitalidad de *vegada* esp., cat., occit.; *begada* "rebaño comunal" en gasc. (Corominas 4, 719)" dioskute, baina ondorengo "Aunque Mich. *Pas. Leng.* 99 lo considera préstamo por razones formales, no está precisado" batek edozein aitzinamendu hondatzen du.

BENVENISTE, Émile (1954), "Problemes sémantiques de la reconstruction", *Word* 10, 251-264.

BLUST, Robert A. (1977), "A rediscovered Austronesian comparative paradigm", *Oceanic Linguistics* 16: 1-51.

— (1988), *Austronesian root theory: an essay on the limits of morphology*, Amsterdam, J. Benjamins.

COROMINES, Joan (1972), *Tópica Hespérica. Estudio sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*, Madril, Gredos, 2 lib.

—, & PASCUAL, Jose Antonio (1980-91), *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos.

DEROY, Louis (1956), *L' emprunt linguistique*. Paris, Les Belles Lettres.

ERNOUT, Alfred & MEILLET, Antoine (1979), *Dictionnaire étymologique de la langue latine*. 4. arg. hobetua. Paris, Klincksieck.

GONDA, Jan (1949/51-52), "Indonesian Linguistics and General Linguistics (I and II)", *Lingua* 2, 308-339: 3, 17-51.

GORROCHATEGUI, Joaquín (1987), "Vasco-céltica", *ASJU* 21: 3, 951-959.

—, & LAKARRA, Joseba Andoni (1996), "Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco", in F. Villar & J. D. Encarnação (arg.), *La Hispania prerromana. Actas del VI Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica (Coimbra 13-15 de octubre de 1994)*, Salamanca: Univ. de Salamanca & Univ. de Coimbra, 101-145.

—, & — (1999), "Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco". *VIII Coloquio sobre Lenguas y Culturas Prerromanas de la Península Ibérica (Salamanca, mayo de 1999)*. Inprimategian.

HENDERSON, Eugénie J. A. (1951), "The phonology of loan-words in some South-East Asian languages", *Transactions of the Philological Society*, 131-58.

HULD, Martine (1990), "The linguistic typology of the Old European substrata in North Central Europe", *Journal of Indo-European Studies* 18, 389-423.

JOB, Michael (1995), "Did Proto-Indo-European have glottalized stops?", *Diachronica* 12, 237-250.

KRUPA, Victor (1971), "The phonotactic structure of the morph in Polynesian languages", *Language* 47, 668-684.

LAKARRA, Joseba Andoni (1995), "Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque" in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & L. Trask, (arg.), *Towards a history of Basque language*. John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia: 189-206.

___ (1996a), "Sobre el europeo antiguo y la reconstrucción del protovasco", *ASJU* 30: 1, 1-70.

___ (1996b), "Latina eta euskara". UEU-ko hitzaldi argitaragabea.

___ (1997a), "Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri", *ASJU* 31: 2, 447-535.

___ (1997b), "Aitzineuskara: gonbaraketa eta birreraiketa", *ASJU* 31: 2, 537-616.

___ (1998), "Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa", *Uztaro* 25, 47-110.

___ (1999), "Ná-De-Ná", *Uztaro* 31, 15-84.

___ (2002a), "Ez zirenez: **TVTV eta haren lagunez: I. So bat erro disilabiko kodagabeez". *ASJU*-n argitaratzeko lana.

___ (2002b), "Etymologiae (proto)uasconicae LXV", in Artiagoitia, X., P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. *ASJU*-ren Gehigarriak XLIV, UPV/EHU: Bilbo, 425-442.

___ (2002c), "Adar, ahuntz handi: sobre identificación de sustratos y morfología de la protolengua". in M^a J. García Soler (arg.), *TIMES XARIN, Homenaje al profesor Pedro A. Gainzarain*, UPV/EHU, Gasteiz, 417-429.

___ (2003a), "Etimología y reconstrucción en el campo vasco: historia de paradigmas". *ASJU*-n argitaratzeko.

___ (2003b), "Erroaren bilakabidea eta euskararen historiaurrearen periodizazioa". Aramaioko Udako Ikastaroetako hitzaldi argitaragabea.

___ (2004a), "Ez zirenez: **TVTV eta haren lagunez: II. Erro disilabiko kodadunez". *ASJU*-n argitaratzeko lana.

___ (2004b), "Cuernos, pellejos, caballos y otras anécdotas: Notas sobre la reconstrucción de algunas C- y V- iniciales y sobre gramática y morfonología protovasca antigua". Lan argitaragabea.

___ (2004c), "Cambio tipológico y deriva en vascuence". Inprimategian, Eusko Ikaskuntzaren *Linguistika Jardunaldietan*.

___ (2004d), "Regalos, costes y resultados en la reconstrucción del protovasco: el caso de *andere*". Inprimategian, J. Alonso (arg.), *Homenaje a Olga Omatos*.

___ (2005a), "Algunos aspectos y consecuencias de la teoría de la raíz monosilábica en protovasco antiguo". Lakarra & Hualde (arg.), 2005-en argitaratzekoa.

___ (2005b), "Extensiones del paradigma: etimología y reconstrucción del protovasco". *ASJU*-n argitaratzeko lana.

___, prestatzen-1, "Hacia una etimología formal en protovasco".

___, prestatzen-2, "Onomatopeiak, fonosinbolismoak eta aitzineuskarren birreraiketa".

___, prestatzen-3, "Sobre V-y V en (proto)vasco".

___, prestatzen-4, "Monosílabos protovascos".

___, & Hualde, J. I., arg. (2005), ***In Memoriam Larry Trask. ASJU-ko Gehigarriak inprimategian.*

MALKIEL, Yakob (1954), "Etymology and the structure of word families", *Word* 10, 265-274.

___ (1975), "Etymology and modern linguistics", *Lingua* 36, 101-120.

MITXELENA, Koldo (1950), "De etimología vasca". Berrarg. 1988, 2 lib., 439-444.

___ (1957a), "Las antiguas consonantes vascas". Berrarg. 1988, 166-189.

___ (1957b), "Basque et roman". Berrarg. 1988, 107-115.

___ (1963), *Lenguas y protolenguas*. Berrarg. *ASJU*-ren Gehigarriak, Donostia.

___ (1964), *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia, Auñamendi. Berrarg. 1988, 2. lib., 1-73.

___ (1974), "El elemento latino-románico en la lengua vasca". Berrarg. *Palabras y Textos*, J. Gorrochategui (arg.), EHU, Bilbo, 195-219.

___ (1977), *Fonética histórica vasca*, 2. arg. *ASJU*-ren Gehigarriak 4, Donostia.

___ (1987), *OEH= Orotariko Euskal Hiztegia-Diccionario general vasco*. Euskaltzaindia, Bilbo.

— (1988), *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU-ren Gehigarriak* 10, Donostia, 2 lib.

MOHANAN, Tara (1989), "Syllable structure in Malayalam", *Linguistic Inquiry* 20: 4, 589-625.

POTET, Jean Paul (1995), "Tagalog monosyllabic roots", *Oceanic Linguistics* 34, 345-374.

SARASOLA, Ibon (1980), *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, tesi argitaragabea, Bartzelona.

— (1984-95), *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.

SCHÜTZ, Albert J. (1976), "Take my word for it: missionary influence on borrowings in Hawaiian", *Oceanic Linguistics* 15, 75-92.

SZEMERÉNYI, Oswald (1962), "Principles of etymological research in the Indo-European languages". Berrarg. in *Scripta Minora*. J. P. Considine & J. T. Hooker (arg.), Innsbruck, 1987, 40-77.

TOVAR, Antonio (1956), "El problema de las etimologías en vascuence". Berrarg. in *El euskera y sus parientes*, Minotauro, Madril, 1959, 107-116.

TRASK, Robert Larry (1997), *The history of Basque*. Londres, Routledge.

WATKINS, Calvert (1990), "Etymologies, equations, and comparanda: types and values, and criteria for judgment". In Ph. Baldi (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*, Berlin-New York: Mouton de Gruyter. 289-304.

ZAMBONI, Alberto (1988), *La etimología*. Gredos, Madril. Orig. italieraz, 1976.

ZAWISZEWSKI, Adam, argitaratzeko, "Vocabulario básico y préstamos en vascuence vizcaíno y otras lenguas". *ASJU-n* agertzekoa.

PUNTUAZIOA, GRAMATIKAGAI¹

Juan Carlos Odriozola

0. SARRERA

Gaur eguneko hizkuntzalaritzan, perpaus mailako syntaxizko funtzioez gain, testu mailako funtzioak ere izaten dira ikerlariaren ikusmiran. Lehenengo ikuspegitik, hizkuntzaren aukerak eta murriztapenak aztertzen dira eta ikerkuntza horren ondorioz, * ikurraren bidez ematen da hizkuntza jakin baten gramatika inoiz egingo ez liratekeen adierazpideen berri. Testu mailako funtzioei begira, aldiz, hizkuntzaren erabilera bera dago aztergai (Larringan 1996: 5); ikuspegi horren pean, gerta daiteke esapide jakin bat hizkuntzaren baitan eskuragarri izatea, hau da, hiztun ideal batek igorri ahal izatea, baina, hala ere, testuinguru jakin batean egokia edo ezegokia den finkatu beharko da, gainera; ezegokitasunak # ikurraren bidez adierazteko ohitura dago.

¹ Madrilgo Complutense Unibertsitateak 1998.ean antolatu zuen I Simposio Internacional de Análisis del Discurso delakoan, *La puntuación y la entonación como desambiguadores en las estructuras limítrofes entre la yuxtaposición, la coordinación y la subordinación* izenburu luzeko komunikazio bat aurkeztu nuen. Lan hori Euskal Herriko Unibertsitateko UPV 033.310-HA022/96 egitasmoaren ikerlerroaren barruan zegoen. Haren dirulaguntzari esker eta 033.310-HA081/97 egitasmoaren dirulaguntzari esker egin nuen neurri batean komunikazioa. Lana gaztelaniaren eta euskararen arteko erkaketan oinarriturik zegoen, eta bertan esparruaren ikuspegi orokor bat ematen saiatu nintzen, bi hizkuntzen alborakuntza, juntadura eta menderakuntza batera kontuan hartuz. Oraingo honetan, euskarari begira soilik aritu naiz eta, gainera, alde batera utzi dut menderakuntzarekin zerikusia duen guztia, euskarazko alborakuntzaren eta juntaduraren azpiesparruetan eta bereziki esangura-harremannen ikuspegitik gehiago sakontzeko asmoz. Hemen, ezinbestez eskertu behar dut era berean Euskal Herriko Unibertsitateko UPV 033.310-HB 194/98 egitasmoaren dirulaguntza, bai eta Igone Zabalak eta Elixabete Perezek lehenengo idatziaren inguruan emandako iruzkinak ere.

Perpausen artean egon daitezkeen harremanei dagokienez, bestalde, bost sail onartu beharko genituzke, ohiko gramatikek esandakoa bere osotasunean bildu nahi badugu behintzat: perpaus beregainak, perpaus alboratuak, esangura-harremana adierazten duen osagai baten bidez loturikoak, esangura-harremana eta sintaxi-harremana gauzatzen dituen osagai baten bidez juntaturikoak eta nagusi/mendeko harremana dutenak. Lan honetan urrats txiki bat eman nahi dugu esparru honen azterketan, ezaugarri sorta birekiko hurbilketa bat eginez. Lehenik, prosodia-ezaugarri jakin batzuk izango ditugu aztergai: bi perpausetatik lehenengoaren bukaerako doinu mota eta perpausen arteko isilunearen luzera; ezaugarri hauek puntuazioaren erabilerarekiko harreman estuetan jarriko dugu lan honetan zehar. Bigarrenik, perpausen arteko (esangura-)harremanak gauzatzen dituzten osagaien arteko pilaketak izango ditugu hizpide. Ezaugarri batzuek eta besteek testu mailako eta perpaus mailako funtzioen arteko muga betean dihardutela ikusiko dugu hemen.

Lana, beraz, honelaxe antolatuko dugu: lehenengo sail batean, esangura-harremana adierazten duen osagairik ez duten perpausak aztertuko ditugu. Bigarrenean, esangura-harremana adierazten duen osagaia duten perpausak izango ditugu ikusmiran. Hirugarrenean, esangura-harremana eta sintaxi-harremana gauzatzen dituen osagaia duten perpausak miatzeari ekingo diogu. Lan honetatik at utziko dugu, bestalde, menderakuntzarekiko zerikusia izan dezakeen guztia.

1. LOKAILURIK GABEKO ALBORAKUNTZA

Elkarren aldamenean eta esangura-harremana adierazten duen tarteko osagairik gabe dauden perpausak aztertzeko unean, bibliografian ez dago erabateko adostasunik. Hemen, egoera horretan dauden perpaus guztien artean ez dugu bereizketarik egingo eta denak alboratuak direla esango dugu: testu mailako ikerketak beti aurkituko du haien artean harreman bat edo beste (ikus Makazaga 1996, Zabala 1996a), eta perpaus mailako ikerketak beregaintzat hartuko ditu kasu orotan. Ikus bedi (1-5)ko sorta.

- (1) Gaua da, kotxean sartzen naiz²
- (2) Gaua da, ilun dago

² 1997.ean Anari izeneko abeslariak plazaraturiko abesti batetik hartu dugu adibide hau. Bi perpausen arteko koma ez zegoen diskoak zekarren idatzizko testuan.

- (3) Oso argia da Miren, asko daki (EGLU-III, 1.44)³
 (4) Beranduegi da, etxera noa (EGLU-III, 1.45)
 (5) Isilik dago, ezer ez daki (EGLU-III, 1.20b)

(1-2)koetan, nekez asma daiteke emendiozko harreman ilun batetik harantzagoko esangurarik. (3-5)eko bigarren kokaguneko perpausetan, ordea, Euskaltzaindiak garbi finkatu dituen emendiozko harreman zehatz bat, ondorioa eta kausa antzeman daitezke hurrenez hurren. Hala ere, iradoki bezala, esangura-harreman garbirik ez duten (1-2)ko adierazpideen perpausak, esangura-harreman nabaria duten (3-4)ko horiek bezainbesteko harremana izango dute elkarrekin, testu mailako harreman bat alegia. Lan honetan, edonola, ohiko esangura-harremanak dituzten perpausaz soilik arituko gara.

Bestalde, gaztelaniari buruzko liburuetan esan denaren arabera (Alarcos Llorach, 1994: 316), prosodia-ezaugarri desberdinak ezar daitezke horrelako perpausen artean: lehenengo perpausaren bukaeran goranzko ala beheranzko doinua, eta bi perpausen arteko isilune laburragoa ala luzeagoa. Bistan da ezaugarri multzo bi horiek hurrenez hurren koma eta puntuaren bidez islatu ohi direla eta, berez, euskal hizkuntzalaritza aplikatuko zenbait lanetan ere horrelaxe azaldu da (Garzia 1998: 37, 142). Aurrerantzean goranzko doinua eta isilune laburra direlako horiei koma-ezaugarri esango diegu, edo besterik gabe, koma. Beheranzko doinua eta isilune luzea, bestalde, puntu-ezaugarriak izango dira gure lan honetan, edo osterantzean, puntua. Horrela, bestelakorik esan ezean, puntuazio-ikur jakin bietako bakoitzak zuzen-zuzenean prosodia-ezaugarrien multzoetako bat adierazten duela onartuko dugu hemen.

Bi puntuazio-ikurrok, 11. eta 12. sailean aztertuko ditugu hurrenez hurren. 13. sailean, bestalde, esparru honen baitan kontuan hartu ez diren bi puntuak edo bi puntuaren ezaugarriak aztertuko ditugu: komarena baino isilune luzeagoa eta puntuarena baino goragoko doinua.

1.1. Puntua⁴

Tartean puntu soila dagoelarik, zenbait hizkuntz mailatan behintzat, ondo samar uler daitezke ohiko esangura-harreman gehienak: aurkaritza (6),

³ EGLU-III eta EGLU-IV, hurrenez hurren Euskaltzaindia (1990) eta Euskaltzaindia (1994) argitalpenei dagozkie. Lehenengo zenbakiak liburukiaren atala adierazten du eta bigarrenak adibidearena. Zenbaitetan, Euskaltzaindiaren adibidean oinarritzeko aukera izango dugu, baina lanaren argudio-ildoari begira zerbait aldatu behar izan dugu adierazpidean; horrela-koetan, *oin.* laburdura jarri dugu.

⁴ Puntu eta koma delako puntuazio ikurra lan honetan puntuaren baliokidetzat hartuko dugu eta aurrerantzean ez da ezertarako ere aipatuko.

argudioa (7a) zein ondorioztapena (7b), kausa (8a) zein ondorioa (8b)⁵, eta hemen bereiziko ditugun bost emendio motetatik lau (9).⁶

- (6) Hiru bider jo nuen txirrina. Ez zuen inortxok ere erantzun (EGLU-III, 4.18 oin.)
- (7) a Heldu da. Hor dago bere motxila berdea
b Hor dago bere motxila berdea. Heldu da
- (8) a Saldu egin du. Ez zuen ezertarako balio (EGLU-III, 6.92 oin.)
b Ez zuen ezertarako balio. Saldu egin du. (EGLU-III, 6.92 oin.)
- (9) a Letretako ikasketak egin dituk. Zientzietako ikasketak egin dituk. Ez al hago burutik eginda?
b Praka beltzak zeramatzan jantzita. Txamarra grisa aukeratu zuen egun horretarako
c Joseba ez zen bakarrik egon. Pedro eta Karmele joan ziren
d Mutil diruzalea dugu. Mendekuzalea da

Puntu soileko adierazpide honek badu muga bat ohiko esanguren ikuspegitik bederen: kontzesioa (10), hemen bereiziko ditugun bi hautakari-harremanak (11)⁷ eta emendiozko bosgarren harremana (12)⁸, nekez uler daitezke

⁵ Odrizolari (1999) jarraiki, delako kausa hori gertaera jakin bat zuzen sortarazten duena da, eta argudioa, aldiz, buru-jarduera baten bidez zerbait ondorioztatzera garamatzana: (8a)ko *ez zuen ezertarako balio* eta (7a)ko *hor dago bere motxila berdea* hurrenez hurren. Gure hemengo terminologian, kausari eta argudioari, hurrenez hurren ondorioa eta ondorioztapena dagozkie: (8b)ko *saldu egin du* eta (7b)ko *heldu da*. Villasantekin (1979: 162) bat eginez, bestetik, kontzesioa, gertatu dena ez bezalakoa ondorioztatzera garamatzana da. Aurkaritza, bestalde, kontzesioak ondorioztatzera garamatzana ez bezalako ustekabe hori da: (6)ko *ez zuen inortxok ere erantzun*. Kausa/ondorio, argudio/ondorioztapen eta kontzesio/aurkaritza direlako hiru ardatz hauei begira, bi zehaztasun egin behar ditugu. Alde batetik, lan honetan zehar bigarren perpausak daraman esanguraz arituko gara, hau da, (7a)koan argudioa dugu eta (7b)koan ondorioztapena. Gainera, zenbaitetan bi hitz-hurrenkerak dira zilegi, baina beste zenbaitetan ez. (13a)koa adibidez, hobeto legoke alderantzizko hurrenkera jarrita: gure ikuspegiari, argudioaren adierazpena ondorioztapena baino egokiagoa dugu, koma soila erabilia bederen. Bigarrenik, harreman hauek ondo zedarritzatzeko ahalmena oso lotuta doa hizkuntzatik kanpo hiztunak edo entzuleak munduari buruz duen jakintzarekin.

Uste dut matematikaren lilurak harrapatu zuela Txillardegi sare itxiegia zen linguistika batean. Formalistaegia zen eredia erabili zuen hizkuntzalari bezala gauzen deskripzioan gelditzeko instintorik bat ere ez zuen eta ez duen hizkuntzalariak. Agian 1968ko teoria sortzaile klasikoan ikusi zuen bere ingeniari nortasuna bere hizkuntzalari bokazioarekin uztartzeko aukera. Kontua da, ordea, erakargarri izanik ere hizkuntza ezin dela sare matematiko txukun egituratueta erabat sartu. Beti dago zerbait ihes egingo diona. Agian, ingeniarekin batera, literatoa behar genuen fonologian, beste errealitate bizi asko bezala hizkuntza (baita hizkuntzaren fonologia ere) historikoa dela ikusten duena: historikoa bai bere diakronian, baita bere sinkronian ere... Baina egia da euskararen fonologi analisiari ezarri zion eredu teoriko hark ez zuela horretarako betarik ematen. Fonologi ikuspegi indartsuegia zen, gazte zelako, eta ez zituen bere mugak ikusten. Ez zirudien ahoskerarekin zerikusia zuen ezer fonologiaren analisitik kanpo gera zitekeenik.

Egia esan, ez zen gutxi orduan euskal fonologia osoaren erretratua egin ahal izatea. Horretarako aukera paregabea eskaintzen zuen Chomsky eta Halleren 1968ko ereduak, eta Txillardegik, horretaz jabetuta, euskarari ezarri zion analisi molde berria. Ezarri eta *ekarri*, bera izan baitzen, hizkuntza bere osotasunean hartuta, euskarari buruzko lanean lehenengo erabili zuena. Txillardegirena izan zen Generatibismoaren moldeetan egindako lehen liburua gure artean². Orain erraz da zenbait gauza esatea, orduan, esaterako 1982 urtean, lehenengoz euskal fonologia irakatsi behar izan nuenean, Txillardegiren *Euskal Fonologia* izan ez bagenu, ez dakit zer egingo nuen.

Nik gaur hemen dakardana beste ikuspegi bat da, Fonologia Naturalaren bidetik datorkidan esplikazio saio bat (Donegan/Stampe 1979, Stampe 1979, e.a.). Izan bedi eztabaida proposamen hau Txillardegirentzako opari, eztabaidarako gogoia eta lanerako grina pizten duenari beti zor zaion esker onaz.

Lantxo honetan erakutsi nahi nituzke David Stamperen Fonologia Naturalaren abantailak euskal fonologiaren ordezkatzeko baten analisian.

² Badakigu Mitxelenak Generatibismoa ongi ezagutzen zuela ordurako bere zenbait lanetan egiten dituen aipu eta iruzkinengatik, baina beretzat erreferentzia osagarri eta teorikoa izan zen. Ez zuen hartu analisi praktikorako oinarri bakar eta funtsezkotzat inoiz. Ez da egia, bestalde, Etxeberririk (1990, 39) ulertaraz lezakeena Fonologia Sortzaileari dagokion azpiatlearen, Salaburu bakarrik aipatzen duenean. Txillardegi (1980) horren goragoko atalean agertzen da lan orokorren artean, letra txikiagoan esaten delarik Txillardegirena ere Fonologia Sortzailearen ekarpena dela. Salabururena baino lehenagokoa, gehituko nuke nik. Hemen aurkeztuko dugunaren aldetik, gainera, ez zion Salaburuk ezer berririk erantsi Txillardegik ekarri zigun teoriari.

Stamperen teoriaren funtsean dago bilakabide fonologiko eta erregela morfologikoen arteko bereizkuntza ezinbestekoa. Uste dut ordezkatzeko mota bien arteko alde ontologiko eta teleologikoa erabat lagungarri gerta dakigukeela gai hartu dudana arazoan.

2. ARAZOAREN AURKEZPEN LABURRA.

Beheko bokalaren igotzeaz ari naiz, hain zuzen ere beheko bokal hori nolakotasun bereko beste bokal batekin bilkuran suertatzen deneko igotze horretaz: e.b., /alaba+a/ → [alaba].

Disimilazio itxurako ordezkatzeko hori pluralean inoiz ez gertatzea ikuspuntu diakronikotik esplikatu zuen Michelenak ([1981] 1987): plural atzizkiak ez ziren oraindik atzizki, igotze-ordezkatzeko emankor zen bitartean. Horregatik, ordezkatzeko ez zituen plural formak harrapatu. Egungo egitateari arretaz begiratu gero, ezin da besterik gabe onartu Mitxelenaren hipotesiaren osagarri dena: alegia, bokal igotzearen emankortasuna agortua zela plural markak atzizki bihurtu zirenerako. Behin baino gehiagotan ontzat hartu izan bada ere (vid. De Rijk 1970, Hualde 1993a), badira hipotesi horrek lekurik gabe uzten dituen datu sinkronikoak.

Gorago aipatu Fonologia Naturalaren ordezkatzeko fonologiko eta morfologikoen arteko bereizkuntzaren esplikazio-ahalmena baliaturik, aldarrikatuko dut morfonologiari berezko esparrua aitortzen ez diogun bitartean estrategia formal *ad hoc* asmatuak besterik ez ditugula izango eta jarraituko dugula gure hizkuntz lanetan gramatikari dagozkionak fonologian bortzaz sartzen³. Hori, noski, bien kaltetarako gertatuko da: hizkuntz fenomenoaren ulermenaren kaltetarako eta fonologiaren esplikazio gaitasunarenerako.

Oso labur esanda, hona hemen, Fonologia Naturalean oinarriturik, gure datuen analisirako proposatzen dudana bereizkuntza teorikoaren oinarria (ik. Donegan eta Stamperen lanak ikuspuntu teorikoa sakondu eta zabaltzeko):

- a) bilakabide fonologikoak lirake arrazoi fonologikoengatik gertatzen diren hots ordezkatzeko mentalak, ebakeraren edo oharrenaren aldetik fonetikoki esplikatu daitezkeenak (hiztunak, hots ekoizle eta hartzaile den bezainbatean, hizkuntzari dakarkiona)

³ Morfonologiarentzat berezko esparrua aldarrikatzean, fonologiarekiko apartekotasunaz ari naiz. Ez dut hemen ezer esaten morfologiarekiko hartuemanaz.

- b) erregela morfonologikoak lirateke hots-ordezkatze arautuak, hiztunak hizkuntzaren gramatika eta lexikoa ikasi ahala ikasi behar dituenak, hots ordezkatze izanda ere, baldintza gramatikal edo lexikoak dituztenak (alegia, hizkuntzak hiztunari dakarkiona)

Hots-ordezkatze mota bien izaera ezberdintasun hau hobeto ulertzeko eta azterkizun dugunaren analisirako aintzat hartu behar da bilakabide eta erregelen historikotasuna. Zuzenean dagokigunetik abiatuta, jakina da bilakabide bat bere bizibidean baldintza fonologikoen morrontzatik libra daitekeela. Horrek ez du esan nahi, ordea, ordezkatzea hil denik (ik., besteak beste, Wurzel 1980 edo Sapir 1921, 8. kap.). Hain zuzen ere:

- (1) «(...) it is when merely phonological factors no longer condition an alternation that the alternation must be perceived in its own terms, and thus can assume grammatical or semiotic significance»

Stampe, "Yes, Virginia...", 16.

Hortxe, bilakabideak bilakabide izateari utzi dionean, orduan irekitzen den aukeran kokatuko nuke gaur aztergai duguna. Esango nuke pentsabide horrek, bi ordezkatze mota eta elkarren arteko hartueman historikoak aintzat hartzen dituenak, lagunduko digula zenbait euskalarik ordezkatze honetan ikusi (edo ez-ikusi) dituzten arbitrariotasun eta paradoxak uxatzen.

3.1. Beheko Bokalaren Igotzea.

Labur eta simple azalduta, aztergai dugun ordezkatzea, Beheko Bokalaren Igotzea (hemendik aurrera, BBI)⁴, bi /a/ bokalen bilkuran jazotzen da, lehenaren nolakotasuna aldatzen delarik maila batez igo eta palatalduz: alegia, /aa/—>[ea]. Oro har, euskal hizkuntz eremuaren mendebaldeko eta erdialdeko hizkera zenbaitetan gertatzen da⁵.

⁴ Low vowel raising (LVR) da hemen gai dugun gertakariari ingelesez eman zaion izena. Hau ez da neri atera zaidan itzulpen literala baino. Izango da agian ni baino gauza txukunagorik aurkituko duenik.

⁵ Nik Gipuzkoako Goierrikoak hartu ditut oinarri—zehazki Ataun-Zaldibi ingurukoak—. Nirekiko gertutasunaz gain, hauek abantaila handia dute analisiaren argitasunaren aldetik. Izan ere hemen aztertu nahi den ordezkatzean geratu da bokal bilkuraren eratorpen fonologikoa, beste zenbait hizkeratan izan duen garapenean aurrera egin gabe (ea>ia>ie>i>i katean barrena abiatzen diren euskarez ari naiz: ik. beheraxeago, testu nagusian). Dena den, badirudi ordezkatzea gainbehera doala eta belaunaldi gazteen ahoskeran salbuespenak ugari direla. Agian horregatik, De Rijk-ek ez du Goierrikoa aipatzen (1970:152).

Gauzei geografiaren aldetik begiratuta, BBI Bizkaiko probintzian eta Gipuzkoan bizkaiera sartzen zen zenbait lekutan aurkitzen da, baita Gipuzkoako Goierriko hizkera batzuetan ere.

Badirudi batzuetan eta hizkera zenbaitetan BBI /a/ bokalaren aurrean ezezik, beste bokalen inguruan ere gerta daitekeela, batik bat /o/ erdikoarenean: /neska+ ori/—> [neskiori]. Euskalkietan nola banatzen den ikusrik, De Rijk-ek (1970:152) uste du /o/-ren aurreko igotzea berrikuntza dela.

BBI zenbait hizkeratan bigarren bokalaren areagoko igotzearen bazkatzaila (*feeding*) izaten da (e.g. Deba *neskaa* —> *neskea* —> *neskia*) eta , hortik, baita bigarren bokalaren igotzearena ere (e.g. Bermeo *neskaa* —> *neskea* —> *neskia* —> *neskie*). Argitasunaren mesedetan, hemen lehen ordezkatzearan gelditzen diren euskalkietako adibideak erabiliko dira (e.g. Zaldibia *neskea*)⁶.

Disimilazio itxurako ordezkatzeko honen maiztasuna ez da nolana hiko: aski da horretaz jabetzeko aintzat hartzea mugatzailearen forma fonologikoa /a/ dela eta ez direla gutxi bokal berorretaz amaitzen diren erroak euskal hiztegian. Hona hemen ordezkatzeko agertzen duten adibide batzuk:

(2) ABS. SG.

abelera+a	—>	abelerea
gona+a	—>	gonea
gauza+a	—>	gauzea
neska+a	—>	neskea
tanga+a	—>	tangea

Maiztasun soilari begiratu beharrea, gertakortasunaren tankeratzeari begiratuta, ordea, ordezkatzeko honek murriztapen handiak ditu. Nabarmenenetik hasita, ez da gertatzen forma pluraletan, nahiz eta hauek ere, bakoitzari dagokion singularrak bezalaxe betetzen dituzten ordezkatzearan baldintza fonologikoak. Absolutibozko formetan, ikus daiteke, /ak/ hartuz gero plural atzizkitzat, singularrean bezalaxe egingo duela topo /a/ bokal irekiarekin erro azkenak⁷. Haatik, nahiz eta erro azken hori /a/ izan, pluralean ez

⁶ Hots aldaketan abiadurei buruzko lan baterako gai izango litzatekeena hemen aipatzea nahitaezko gertatzen zait. Dirudienetz eta egungo testuak orduko hango lekuko bada, XV mendeko Deba inguruko euskarari [ea] zen bokal elkarketa honen garapen maila (Endecha de Doña Milia de Lastur, Garibayk jaso eta Michelena (1964, 75-79) aztertuta: *almeneari* < *almena+ari*). XIX. mendearan azken urtetan jaiotako gure amaren ahoskeran [neskia] bezalakoak dira oraindik arau. Ondorengo (gure gurasoen) belaunaldian kontradibideak adibideak bezain ugari direla esango nuke.

⁷ Dagokigunerako berdin da atzizkia nola analizatzen den. Berdin da, alegia /a+k/ dela esatea, /a/ hori mugatzailetzat hartuz. Fonikoki ez da ezer aldatzen.

da [e] ordezkorik gertatzen. Erka dezagun ondorengo goragoko (2) adibideekin:

(3) ABS. PL.		
abelera+ak	—>	abelerak
gona+ak	—>	gonak
gauza+ak	—>	gauzak
neska+ak	—>	neskak
tanga+ak	—>	tangak

Egia da singular eta plural atzizkien artean badela diferentziarik, izan ere marka morfologiko ezberdinen egitekoa horri eskerrak bete dezakete beti. Fonikoki adierazita desberdintasuna, pluralak -eta ez singularrak- azkenean agertzen duen /k/ kontsonantean datza.

Bada, ordea, euskal flexioan beste kasu bat hitz azkeneko /k/ hori dakarrena: ergatiboa. Bestela esan, kasu horrek plural atzizkiak jartzen dituen baldintza berak jartzen dizkio /a/-z amaitutako erroari. Halere, adierazten dena ergatibo singularra denean, BBI jazotzen da. Horrek erakusten digu, nire ustez, *tout simplement* esku artean darabilkiguna ez dela pluralean gertatzen (edo, ziurrenik hobe, singularrean bakarrik gertatzen dela). Adibide hauetan ikusten da (3) fonologikoki absolutibo pluralaren baliokide den ergatibo atzizkiarekin BBI gertatzen dela⁸:

(4) erg. sg.		
abelera+ak	—>	abelereak
gona+ak	—>	goneak
gauza+ak	—>	gauzeak
neska+ak	—>	neskeak
tanga+ak	—>	tangeak

Ergatiboak erakusten diguna alde batera utzirik ere, fonologikoki pentsatzen jarrita, ez litzateke erraz hitz azkeneko /k/ horren presentzia bere aurreko bokalen arteko disimilazio ezarekin kateatzea esplikazio on batek

⁸ Mugagabe eta pluralak berdintzera jotzen dute ergatiboan. Badira inguru horretan aintzat hartu beharreko zenbait gauza jakin: bereizkuntza beharra ahulago izan daiteke pluralarentzat singulararentzat baino (aditz formen komuntadurak, esaterako, laguntzen diote gehienetan mugagabetik bereizten), semiotika eta morfosintaxiaren aldetik polikiago aztertzeko gaia genuke hor. Bestalde, agian plurala ezberdintzeko beharra ere hor legoke semiotikoki, baina gertakari historikoak gertatu diren bezala gertatu dira eta ez zaio bereizkuntza morfonologikorako aukera sortu. Bestalde, badirudi plural eta mugagabeak bereizten dituzten ezaugarri prosodikoak badirela (BBI eta azentu ereduen datuak erkatu beharko genituzke; ik., dena den, Hualde 1993a).

behar lukeen kausa-ondorio bikotean. Aipatu izan diren (eta, dudarik gabe, izan daitezkeen) azentu ezberdintasunak areago lirateke, nere ikuspegitik, ergatibo eta pluralaren arteko diferentzia morfologikoaren ondorio fonologiko BBI ezaren kausa baino. Nolabait beste aukera morfonologiko (morfoprosodik) bat izan liteke, baina bide horretan aurrera egiteak gure gaurko gaitik aterako gintuzke.

Singular paradigmán bertan ere baditu salbuespenak gai dugun ordezkatzek. Lekuko kasuetan, zehazki inesibo singularrak dakarren /an/ atzizkiarekin, espero genezakeen BBI ez da gertatzen, nahiz eta /a/ amaieran duten erroekin bi beheko bokalen bilkura gertatu (e.b., /anka+an/). Aukera fonologikoa lukeen kasu honetan ere, pluralean bezala, BBI ez da gertatzen. Horren ordezt, berriz ere pluralean bezala, bokal bien bakuntzea aurkitzen dugu. Horrela bada, *anka* inesiboan *ankan* da (eta ez ***ankean*)⁹.

(5)	ABS.	INES.
	-a	-an
	ankeá	ankan (eta ez <i>** ankean</i>)
	gauzea	gauzan (eta ez <i>** gauzean</i>)

Gorago ikusi bezala (ik. (3) eta (5) adibideak), /a+a/ bilkurak, BBI pairatzen ez duenean, bi /a/ horien bakuntzea gertatzen da eta [a] bokal bakarrak gauzatzen du azalean oinarrizko bilkura. Fonologiarion artean ezaguna den *elsewhere condition* kiparskyarraren itzulpentzat *gainerako baldintza* onartuko balitz, /a+a/—>[a] Bilkura Bakuntzea *gainerako* ordezkatzek delá esan genezake (ikus 2.3). Izan ere, Bilkura Bakuntze hori izaten da, beheko bokalen bilkurei ematen zaien irtenbidea BBI ez duten euskaretan oro har (Euskara Batua barne).

Ez dago bokal luzerazko aurkakotasun fonologikorik dagozkigun euskalkietan. Bokal berdinen bilkuretatik sor litezkeen luzatzeak bakuntzez konpondu ohi dira. Egia da inpresio gainean aritzearen arriskua hartzen ari naizela eta azterketa luzeagoa merezi lukeela. Aztertzen ari garen ordezkatzearen haria ez galtzeko, gainera, ez naiz hasiko hemen bokal luzeraz egin diren lanen eztabaidan. Baina, esan dezadan labur, inork inoiz aipatu izan dituen *behera* [be:ra] vs. *bera* [bera] bezalakoak areago iruditzen zait daudela hizkuntzalarion gogoetan hiztunen ahoskeretan baino. Ez dut ezer esaten, hemen eta oraingo, ekialdeko euskarez.

⁹ Aipatzekoa da hemen forma izardun horien antzekoak BBIRik ez duten euskara batzuetan posible direla. Dena den ez da ahaztu behar horien analisisan berranalisiak sortu epentesi aukera ere posible delá (* /ank+an/, */gaus+an/—> ank-i-an, gauz-i-an).

Esan izan da badela aldagarritasunik idatzian bi <a> bokalen bilkura (gehienetan <h> tarteko euskara batuan) duten formetan, e. b., *zahar*. Alegia horiek, batzuetan, bokal luzez ahoskatzen direla. Uste dut luzatze horietarako baldintza *sine qua non* dela hiztunak forma idatzia ezagutzea eta idatziaren eragina dela hor askotan ahoskera hiperzuzenen erantzule. Bestelako hiztunek, alfabetatugabeak edo idatziaren mendekotasunik ez dutenek beren ahoskeretan, berdin luza dezaketela <zahartu da gure gizona!> bezalako esaldi bateko lehen bokal irekia, zein <sartu da (azkenik) gure gizona etxean!> hizketaren adieragarritasun beharren arabera, enfasiगतिक-edo.

Bestalde, sinistekoa da bokalen luze-laburra aldakor izatea, bokal irekien (edo, oro har, berdinen) bilkura, tarteko kontsonanteen kenketa sinkronikoetatik datorrenean (e.b. *eskaratza* [eska(:)tsa]), areago ahoskera kontsonantedun eta kontsonantegabeak txandaka dabiltzanean. Aldakortasuna, aurkakotasun fonemiko baten jaiogune izan liteke, baina ez da, berez, luzeraren fonemikotasunaren froga. Zerbait erakustekotan, aldagarritasunak bilakabide fonologiko baten emankortasun sinkronikoa erakusten du. Aldakortasuna eta hautazkotasuna, hain zuzen ere, bilakabide fonologikoen (eta ez erregela morfologikoen) bereizgarri dira, hauexek baitira, hizkuntzaren ahoskeren fonologiaren eta ez gramatikaren osagai izanik, oharmen eta ebakera baldintza aldakorren mende egon daitezkeenak.

Horrela, bada, Bilkura Bakuntze edo (nahi bada) bokal kenketa horren orokortasuna zabala da bai hizkera eta bai pairatzen duten kasu morfologikoen aldetik ere. Bakuntze edo kenketa erregela hori izango genuke, (3) zenbakipean eskaintzen diren adibidezko plural formen erantzule eta baita (5) zenbakipeko inesiboena ere. Dena den, hemen gauzak aurreratzen eta desbideratzen ari gara, BBI baita lan honen gai nagusia, *Bokal Bakuntzea* osagarri badu ere.

3.2. Bestek esanak

Ia gainerako gai guztietan bezala, orain arteko analisisen ardatz Mitxelenaren lan emankorra dugu. Mitxelenaren euskal fonologia eta morfologiaren azterketa historiko ugarien artean aurkitzen dugu singularraren salbuespen izatearen konponbide diakronikoa (ikus Michelena [1981]1987, § 9). Bere hipotesiaren arabera BBI emankor zenean, plural (eta inesibo) markak ez ziren oraindik atzizki bihurtu.

Gauza onartua da oro har hizkuntzalari eta filologilari artean egungo euskararen singular eta plural markak ziurrenera noizbait beregaintasuna galdu

zuten izenaren ondorengo erakusleak izan zirela. Itxura denez, erakusle horiek klitikotu egin zitzaizkion izen edo izenkiari atzizki bihurtzeraino. Ongi erakutsi du Mitxelenak halaber singularra plurala baino lehenago itsatsi bide zitzaiola elementu lexikoari, alegia, lehenago bihurtu bide zela atzizki. Orduan, singularra atzizkitu zenean, BBI euskal fonologiaren ordezkatzeko emankor izango zen eta, horregatik (2) paradigmako forma singularrak sortu ziren.

Hipotesi horren arabera, plurala atzizki egin zenerako, ordea, BBI-ren emankortasuna agortua zen. BBI-ren bidearen ordezkari plural berriek *Bokal Bakuntzearen* bidea hartu behar izan zuten, hori baitzen hizkuntzaren fonologiak orduan bokal berdinen bilkurei eskaintzen zien moldabidea.

Bokal elkarketaz egin diren analisi sinkronikoei dagokienez, ez du inork Mitxelenaren hipotesia ukatu. *Mutatis mutandis* De Rijk-ek (1981: 89-94) ere marka morfologikoen zahartasun erlatiboa erabiltzen du inesiboaren salbuespen itxuraz ari delarik, nahiz eta bera marka horien tankera fonologikoz baliatu batik bat. Gero eta luze behar lukeena labur kontatuz, esan genezake berreraiketa diakronikoa eratorpen fonologikoaren erregela hurrenkera sinkronikora itzultzen duela. Hurrenkera horretan BBI *Bokal Bakuntzea* baino lehenago jartzen du, inesibo singularra BBI-tik babesturik geratzeko proposatzen duelarik:

- a) /-gan/ dela inesiboaren azpiko aurkezpena eta
- b) bokalarteko /g/-*Kenketa* erregela bat dagoela BBI eta Bakuntzearen artean.

Horrela, inesiboan bokal ireki biak elkarren ondoan gertatzean, bien bakuntzea suertatuko da:

(6)	/gona+a/	/gona+gan/
1. BBI:	gonea	_____
2. /g/- <i>Kenketa</i> :	_____	gonaan
3. Bakuntzea:		gonan

Nire ustez azpiko aurkezpen horren alde De Rijk-ek ematen dituen argudioak arrazoizkoak dira. Ez naiz bakarra, noski. William Jakobsen-ek (1977) ere aipatzen du De Rijk eta oso antzekoa dena proposatzen du. Izan ere, ez da halabeharrez ateratako zerbait. Dakigunez, bizidunen deklinabidean leku kasu prototipikoetan De Rijk-en proposamenaren aldeko zantzuak dauzkagu : cf., esate baterako, *seme-a-(ren)-ga-n*. Genitiboarekin edo genitiborik gabe, ezaguna eta bizia da *-ga-* artizkiaren erabilera leku kasuetan. Ongi horraino. Toponimo eta lekuarekin zerikusia duten deiturretan ere aurkitzen dugu dela-

ko /ga/ horren arrastorik, beraz ederki asko izan liteke nolabaiteko lekutasuna adierazten duen afixuren bat.

Kontsonante belare ahostuna desagertu egin bide da bokalarteko inguru-neetan, alegia, bizigabeen erro azkeneko bokalaren ondoren gertatzen zenean (esaterako goragoko (6) /gona+gan/). Haatik genitiboaren kontsonanteak edo (esanahiarekin loturiko?) beste zerbaitek babestu bide du /g/ hori bizidunetan eta, horregatik, orain arte bizirik iraun digu.

Ez daukat ezer De Rijk-en azalbidearen kontra, azalbide edo berreraiketa diakronikotzat hartzen bada. Badira, gainera, ni baino gehiago dakitenak euskararen diakroniaz hori epaitzeko. Sinkronian, ordea, zalantza sakonak ditut /ga/ hori inesiboaren azpiko aurkezpenean egoteaz.

Eman dezagun une batez, naizen hiztunaz ahaztuta, nire hizkuntzalari nortasunari ematen diodala amore osorik, gramatikaren ekonomia formalagatik edozer ordaintzera prest egoteraino. Onartu beharko nuke *free ride* bat, bestela ere hizkuntzan emankor den bokalarteko belare-kenketaren bizkar (cf. *egin* /egin/ [ejn], *sagar* /sagar/ [sa:r] [sar])⁹. Horrekin inesiboak BBI ez betetzeko arrazoia izango luke. Beldur naiz, ordea, delako *free ride* hori ez ote zen azken batean garestitxo aterako:

- a) Lehen arazoa: inesiboko /ga/ afixuko belarea ezabatzeke erabiliko genukeen kenketa hori egungo gramatikan bilakabide sinkroniko bizia da, baina hautazkoa da, neurri handi batean baldintza fonostilistiko eta soziofonologikoekin lotua; hartara, baldintza bat gehitu beharko genioke gure gramatikari adieraziz kenketak nahitaezko behar lukeela bizigabeen deklinabideko leku kasuetan. Ez litzateke, beraz, hasieran azaldu bezain merke aterako kontua, ez litzateke behintzat doan izango /-ga-/ lekuzkoaren belare kenketa.
- b) Bigarren arazoa: kenketa debekatu egin beharko litzateke izenorde eta erakusleen leku kasuetan, horietan ez baita inoiz gertatzen, askotan bokalarteko ingurune-baldintza bete arren (cf. *nigan*, *niregan*; *zuga*, *zuregan*).¹⁰
- c) Areago (ziurrenik hauxe da faktore nahasgarriena) izen berezi eta bizidunetan ere debekatu egin behar da belare kenketa. Garbi dago euskaraz erroa inesiboarekin lotzeko genitiboaren tartekotasuna ez dela

⁹ *Free ride* izena Arnold Zwicky-ri (1970) zor diot. Izenaz baterako izanaz ere iruzkin mamitsuak egiten dira artikulu horretan.

¹⁰ Egia da erakusleak errazago libratzen direla arazo honetatik kontsonante ondorengo ingurune babeslea agertzen dutelako gehienetan (cf. *honengan*, *horengan*).

beharrezko honez gero (cf. *neskarengan*, baina baita *neskagan* ere). De Rijk-en proposamenak belarearen kenketa bete-betean emankor zen garaian genitiboaren nahitaezkotasunean sinistra garamatza.

Pluralak ez dira azaltzen bere lan honetan, baina lehenagoko batean bai (De Rijk 1970). Bertan pluralaz esaten da gauza xelebrea dela, «a curious morphological condition» izendatzen denaren mende dagoena. Inesiboaz ere *misteriotsua* dela esaten da.

Izan ere, pluraletarako ere proposatu da azpiko aurkezpenean legokeen /g/ gerora, BBI eragotzi ondoren, desagertuko litzatekeena. Pluralean azpiko aurkezpen horrek nolabaiteko esanahiarekin izan lezakeen paralelotasuna zailagoa da aurkitzen lekuko kasuetan baino. Alegia, zailago da asmatzen oinarritzko /g/ horren eramalea zeren marka edo adierazle litzatekeen. Gainera, inesiboko /g/ren desagertzeak behar lituzkeen baldintza guztiak behar lituzke pluralarenak ere, noski.¹¹

Baldintza morfologiko eta lexiko horiek guztiek /g/-*Kenketari* erregela (morfonologiko) itxura ematen dio fonologilari naturalen irudiko edo, erregela lexikoarena fonologilari lexikalenerako (ik. § 2 erregela eta bilakabide berezikuntzaz). Ez da bada.

Badago bederen /g/-*Kenketa* bilakabide fonologikoa: goraxeago aipatu den hautazko kenketa. Ordezkatze hori, agertzen duen aldakortasun fonoesitistiko eta soziofonologikoagatik ezin daiteke erregela morfonologikotzat hartu. Prezio beragatik, proposatuko nuke BBI dela erregela morfonologiko dena eta kitto: horrela ez genuke /g/-*Kenketa* baldinpetu beharko, ez beste inolako gehigarrikerik erantsiko gure fonologian (beherago luzeago, ik. § 3.3).

De Rijk-en esplikazioek ibilbide diakroniko sinesgarria eskaintzen digute ulertzeko nola tankeratu den historikoki egungo egoera. Azalbide sinkronikoa, ordea, ez da garden geratzen.

Hualde-k (1993a:30) ontzat ematen bide du Mitxelenaren irtenbidea, kronologia horixe baita euskal azentuaz proposatzen duen berreraikuntzarako erabiltzen duen hipotesia¹². Ez du eztabaidatzen plurala BBI-ren mendetasu-

¹¹ Inesiboko /ga/ horri nolabaiteko (leku?) esanahia asmatzea ez litzateke zailegi; zubererazko bi inesibo singularren esanahi aurkakotasunak horretarako bide emango luke: cf. *etxin* 'in the house' (<etxian<etxean<*etxe-ga-n) and *etxen* 'at home' (<etxe-n).

¹² Ezin dut onartu esaten duena: «The evidence Michelena adduces is completely independent from accentual facts», ez badu esan nahi Mitxelenak azentua ez duela aipatzen bere singular eta pluralen zahartasunaren esplikazio laburrean. Ikus, arazo honen inguruan, Oñederra (argitaratzeko).

netik begiratzeko argudioaren balio sinkronikoa. Bere alde, dena den, aintzat hartzekoa da bere lanaren kezka nagusia singular eta pluralen azentu jokabide desberdinak direla eta ez bokal elkarketaren jokabide ezberdinak.

Michelena-k ([1981]1987:49) bere hipotesia erlatibo eginez esandako hitzak gogoan («Caben otras explicaciones desde el punto de vista descriptivo: no sólo caben sino que sin duda son necesarias»), ekingo diot nire lan honen jarraipenari. Ondoren esaten duena ere ez zait txantxetako gertatzen, esaten baitu historikoki erreal diren formak ez direnak baino azpiko aurkezpen hobe eskaintzen digutela.

3.3. Bestelako begirada bat eta esplikabide saioa

Mitxelenaren hitzen haritik aurrera egingo nuke gehituz ziurrenik oinarriko forma *historikoak* direla, noski, onenak esplikazio eta zantzu-biltze *historikorako*. Horri erantsita oraina ere historia dela eta hizkuntzaren historia hil artean bizirik dagoela, sortzen zaidan galdera da: BBI-ren emankortasuna agortua bazen plural markak atzizki bihurtu zirenerako, nolatan da oraindik emankor? Nola ulertu BBI-dun euskalkietako hitzunek orain *autopistea*, *telebistea*, *astronantea* (<autopista+a, telebista+a, astronauta+a) eta horien kidekoak esatea? BBI emankor ez bada, Bergarako agure batek, Espainiako telebisiotik ikasi berria duena ahoskatzean, zergatik esaten du *atmosfera* (<—atmosfera<atmosfera+a, cf. gatz. *atmósfera*)?

Maileguen adibide garden horiek gabe ere garbi dago egungo emankortasun sinkronikoa. Nahikoa da *neska* (mugagabe) / *neskea* (singular) edo *neskea* / *neskak* bezalako pareetako txandakatzeaz ohartzea, hiztun bera baita singularra era batera eta plurala bestera erakartzen dituen. Txandakatzea (e.b., a/e: mugagabe *neska* vs. singular *neskea* edo e/ø: singular *neskea* vs. plural *neskak*) beraz, gaur, egun, gertatzen da¹³. Ez zen hil aurrehistoriako aspaldi hartan, plurala oraindik atzizki ez zenean.

Nire ustez, hiztunak erregela morfonologiko bat ari dira erabiltzen. Ez naiz, noski, BBI ordezkatzeko morfonologikoa dela esaten duen lehena. Hualde, Elordieta & Elordieta-k (1994:46) ere horrela deskribatzen dute, esaten baitu-

¹³ Singular eta mugagabearentzako atzizki desberdinak proposatuz konpon ote litekeen ala ez gainezka egiten didan galdera da. Dena den, horrela ere, nolabaiteko txandakatze morfonologikoa onartuko genuke. Zalantza litzateke norainoko morfonologikotasuna dagoen dantzian, ez fonologikotasun soila.

te: «The raising of /a/ before another vowel is thus a process restricted to singular inflectional domains».

Hortxe ikusten dut nik koxka. Uste dut deskripzioa, onarpena baino aurrerago jo beharko genukeela esplikazio osoagora iristeko.

Horregatik, erregela morfonologikoa dela esatean zer den baino gehiago zer ez den adierazi nahi dut: ez da bilakabide. Hitzak David Stamperen *Fonologia Naturalaren terminologiaren arabera harturik*, horrek esan nahi du BBI ez dela *fonologikoa*, ez dagokiola hizkuntzaren fonologiari¹⁴. BBI-k aspaldi galdu zuen euskal fonologiaren, euskal ahoskeraren disimilazio izaera.

Euskal gramatikaren erregela morfonologiko bihurtu zen eta, hartara, arauzko murrizte gramatikalak ditu, hala nola pluraletan ez gertatzea, ez eta lekuzko kasuetan edo hitz elkartuetan, eta abar. Egokiago eta argigarriago litzatekeelako, proposatzen dut murriztea honela adieraztea:

(7)

BBI singularrean bakarrik gertatzen da.

Nolanahi ere, morfologikoki (baita lexikoki ere batzuetan) mugaturiko txandakatze lokala dugu esku artean eta ez, inola ere, euskal ahoskerari dagokion baldintza fonologiko globala. Bestela esan, ez da euskal hiztunak hotsak kateatzeko duen moldea, bere singular batzuk egituratzeko modua baizik.

Haatik /aa/—> [a] Bakuntzea bada euskal fonologiaren bilakabide fonologikoa, sorrera eta izatez hala delako eta, gainera, ingurune eta bestelako baldintza fonologikoak betetzen diren guztietan gertatzen delako.

Horrela, biak, BBI eta bokal-bilkura bakuntzea erabat emankor dira zein bere esparruan: BBI morfonologikoki emankor da eta singularraren eraketan gertatzen da; *Bokal Bakuntzea* emankor da eta fonologikoki aukera duen orotan gauzatzen da.

Hemen proposatzen ari naizena, noski, ez dago Mitxelenaren esplikazio diakronikoaren aurka. Hura behar du funtsean eta hura osatzeko saioa da. Gorago esan bezala, Mitxelenaren esplikazioa diakronikoa da eta arazoaren alderdi diakronikoa konpontzen du. Hau da, numero paradigmaren historia ezagutzeko eta ulertzeko alderdi morfologiko zein fonologikoan oso da

¹⁴ Teoria ezagutzen ez duenarentzat baliagarri dira, besteak beste, Donegan/Stampe (1979) eta Stampe (1979).

lagungarri eta egiantzeko proposatzea singular marken atzizkitzea BBI disimilazioa bizirik zegoen garaian gertatu zela eta, horregatik, disimilazio hori betetzen dutela, pluraleko formak beranduago eraiki zirelarik –beranduegi BBI disimilazioaren bidea hartzeko–. Horrek ordea esplikaziorik gabe uzten du oraingo BBI ordezkatzearen oparotasuna.

Besterik gabe, gezurra da BBI agortu egin zela, emankor izateari utzi ziola. Bilakabide fonologiko moduan agortu zen: atera egin zen euskararen fonologiatik, baina oraindik bizirik dago eta oparo singular marken morfologian.¹⁵

Izan ere, noizbait disimilazio bilakabide izandako hau da orain mugagabe eta singularraren arteko diferentzia nagusia (alderdi segmentalari dagokionean, bakarra) erro azkenean /a/ duten hitzetan. Ausartzen naiz esatera, gainera, bere nortasun fonologikoa galtzeak erraztu egin duela ordezkatzearen morfologikotzea mugatu singularraren markatazaile gisa. Gogora gorago jasotako Stamperen aipua ideia honen alde (§ 2, 1).

BBI erregela ez duten euskaretan Bakuntzea da beti gertatzen dena, baita singularraren eratzean ere. Berez, BBI-rik gabeko hizkeretan eratorpen fonologikoa erro eta mugatzailearen bilkuratik hasten dela esan genezake (/neska+a/ litzateke abiapuntua singularrean). BBI dutenetan, berriz, ordezkatzeko morfonologikoak tarteko babeslea ezartzen du eta, eratorpen fonologikoa hasten denerako, ez da gelditzen singularrean bi bokal irekiren bilkurarik (/neska+a/>/neskea/ litzateke abiapuntua singularrean).

Bada hemen, singularraren babesaz ari garela, erreparatzeko kontu bat. Ezaguna da nola BBI-rik ez dugun gipuzkoar hitzunez, gabezia horrek dakarren mugagabe eta singularraren arteko berdintzea (mg. *neska*, sg. *neska*), berranalisiaren bidez ordaintzen dugun. Erro azkeneko /-a/ (organikoa deitzen den hori, alegia) fonotaktikoki posible den guztietan mugatzailetzat hartzen da eta erroak kontsonantez amaitutakotzat. Horrela, *gauza* berranaliziz

¹⁵ Zenbait daturen arabera ordezkatzeta noizbait fonologikoki zabalagoa izan zela pentsa daiteke. Michelenak (1977, § 5.4) *Oleaga* (<ola+aga) toponimoa eskaintzen du adibide, eta ekialdeko euskalkien /e/-dun erro forma berritzaileak (e.g. *azkure* < atz+gura, agian orain batik bat mendebaldeko den /azkura+a/[azkurea] ordezkatzearen bitartez). Bizkaierazko *zarean* aditz forma bezalakoak (De Rijk 1970,152) ere izan litezke BBI ordezkatzeko erabat fonologikoa zeneko arrastoak (ik. Michelena loc. cit. beste aditz forma batzuez). Orduan ezin bide zen izen-formen eremukoa bakarrik izan, noski. Bide batez, hemen berdin zaigu oinarritzko formak orduan /sara+an/ ala /saraa+n/ analizatzen ziren. Idem erkaketa formez: *ozpera*, *ozpereago* (*ozpera+ago*).

/gaus+a/ bihurtzen da eta, *gauza* singularizat hartzen den bitartean, *gauz* da mugagabe berria.¹⁶

Singular markatzaile egitekoa onartzen bazaio BBI ordezkatzeari, zenbait arazo baretzen dira. Esaterako, inesiboaren harrigarritasuna ez da horrenbestera lekuzko kasuen afixu eraikuntzari begiratzen badiogu¹⁷:

(7)	<i>Mugag.</i>	<i>Singular</i>	<i>Plural</i>
	-tan	-an	-etan
	abeleratan	abeleran	abeleretan
	gonatan	gonan	gonetan
	gauzatan	gauzan	gauzetan
	tangatan	tangan	tangetan

Nolabait esan daiteke singularra markatua dagoela lekuzko /-ta-/ horren ezagatik: hori dela eta, mugagabe eta singularraren arteko berdintzea ez da arrisku. Ez dago BBI-ren beharrik.

Ez dezala inork pentsa BBI-ren sorrera singular markatzearekin lotzen dudala, are gutxiago hori duela kausa pentsatzen dudala. Izan ere sorrera fonologiari dagokio eta disimilazio modura sortu bide zen hizkera BBI-duntan. Gerora, fonologiaren baldintzapetik libratutakoan eta singularrari lotua egonik bereziki, sortu zaio kategoria morfologikoarekiko loturaren aukera. Nolabait esan, lotura horrek ez du baliorik leku kasuetan. Nahiz eta, ziurrenik, De Rijk-ek proposatu /ga/ artizkia izan BBI ez gertatzearen lehen arrazoi, /g/-*Kenketa* jazo zenean ere, BBI-k ez zuen analogiaz-edo singularraren lekuzko azpiatalera hedatzeko beharrik izan.

Rotaetxe-k (1978:242, 250 hh.) jasotzen duen BBI-ren beste salbuespen atal bat ere bada, lexikoa da izatez muga kasu honetan: famili harremanak adierazten dituzten izen zenbaitek ere ez dute BBI ordezkatzearren arrastorik agertzen beren deklinabidean. Horien artean daude *ama*, *aita*, *amama*, *aitita*, berdin izan daitezkeenak mugagabe edo singular BBI duten hizkeretan ere. *Osaba* adibidearen salbuespenaz, uste dut proposa litekeela BBI singular markatzailetzat hartzearekin bat datorren esplikazio modukoa. Gehienetan izen

¹⁶ Gai hau poliki aztertu beharko litzateke. Ez litzateke txarra euskararen barne-baldintza fonotaktiko edo silaba egitura paradigmaticoen ezagutza sakontzeko. Dirudien ez dira onartzen ***nesk-*, ***gazi-* (baina cf. *bost*). Horren ondoan, ordea, agian **ank-* (ik. gorago-ko 8. oinoharra) onartzen dela jarri beharko genuke.

¹⁷ Datuak sinpletzen ari naiz. Gauzak ez korapilatzeagatik, *neska* kendu da zerrendatik, *-ga-* artizkiaren erabileraz gainera, *neskatan* bezalakoak ere badirelako. Gaia interesgarri izanik ere, ez da gaur hemen zuzenean dagokiguna.

horien edukia (*signans* horien *signatum*, alegia) bakarria izan ohi da etxe batean. Amari dagokiona litzateke, multzoa hierarkikoki egituratuko bagenu, prototipoa. Agian hortik ulerenezake *alaba* hitzari dagokionaren jokabidea, izan ere horretan gertatzen baita BBI: *alabea* (<— /alaba+a/).¹⁸

Esan bezala (§ 3.1), zenbait hizkeratan ordezkatzeari zeharo opako egin da, garapen fonologikoa dela eta, zenbait ordezkatzerekin bazkatze (*feeding*) hurrenkeran metatu direlako bokal bilkuran (ikus, e.b., Ondarroa mg. *andra* vs. sg. *andri* <— *andri*: <— *andrie* <— *andria* <— *andrea* < *andra*+a). Fonologiaren ikuspuntutik nahasgarri gerta daitekeena, ordea, mesedegarri da morfologiarenetik. BBI singular markatzaile bada, gero eta desberdinago azala (*signans*), hobeto beteko du eduki bereizkuntza adierazteko egitekoa (cf. Dressler 1985, Dressler et al. 1987).

4. AZKEN OHARRAK

Aztertu duguna (BBI) ez da bilakabide (Stamperen zentzu teknikoenean): erregela da eta horregatik dirudi "salbuespenak" dituela, fonologiatik bakarrik begiraturaz gero: «(...) morphology (including morphonology) is a distinct part of language from phonology, governed by distinct kinds of laws» (Stampe, 1968:1). Alderdi horretatik, ez dago salbuespenik, ez gabiltzalako fonologian. Fonologikoki motibaturiko ordezkatzeari eta bestelakoak bereizteak argi berria ematen digu orain arte ulergaitz zirenen azterketarako.

Ez dut uste inor pozik egon zitekeenik singularra eta plurala gramatika sinkronikoaren bi maila ezberdinetan (*strata* edo direlakoak direla) jarrita. BBI, morfologikoki mugatua dagoelako, fonologiatik ateratzeak erantzun hobe ematen digulakoan nago. Esan nahi dut:

1. Ordezkatzeari motak (Kruszewski-ren txandakatzeari moten erara) bereizten ez badira, ez badugu onartzen hiztunek bilakabide linguistiko des-

¹⁸ Rotaetxe-ren corpusean ez da hitz hori agertzen (cf. *arrebea* ere). Dударик gabe gertuko senide izatearen baldintza betetzen du, baina halaz ere salbuespen da (ez bada behintzat *osaba* gertuagokotzat hartzen *alaba* baino). Cf. halaber Ondarroa *andri* (*andri*: <*andrie*<*andria*<*andrea*<*andra*+a) —senarrarentzat emaztea esan nahi duena, baina baita ere oro har emakume—, Deba *andria*, etc. Uste dut Rotaetxeren eta nire interpretazioen artean ez dagoela kontraesanik (berea ulertzen dudanez neurrian). *Osaba* hitzari dagokionean, nire Ondarroako berriemaileak aldakortasuna erakutsi zidan (abs. *osaba*. / erg. *osabik*). Oraindik aztertu ez dudanez ezustekoa izan zen.

berdinak baliatzen dituztela, BBI-ren paradoxak irauten du. Nathanek (1995, 113) fonologiaren molde kognitiboan esandako hitzak mailegatuko ditut aztertu duguna epaitzeko: BBI bezalakoetan hiztunak ez dira ari bilakabide fonologikoak erabiltzen, ez dira ari hotsak prozesatzen «on behalf of the physical equipment making the sounds», baizik eta hots horien bidez eraikitako egitura gramatikal edo lexikoen arabera. Alegia, ez da /-a/ bokala igotzea dakarrena, singular atzizkia baizik, mugatu marka morfologikoa eta ez elementu fonikoa.

2. Fonologia ez dela jakinda, ongi legoke zer den jakitea. Hori eztabaidaren ur handi eta arriskutsuagoetan sartzea bada ere, uste dut euskarazko kasu honen oraingo egoerak ematen digula zerbait esateko oin. BBI singularraren markatzaile bihurtu dela onar liteke, egiteko hori mugatzailearekiko desberdintasunean gauzatzen delarik. Ez dut esan nahi hori denik erregelaren arrazoi, baizik eta historia fonologikoak hor utzi duenez gero, hizkuntzaren morfologiak etekin hori ateratzen diola (gogoratu alemanezko umlaut noizbait fonologikoak zenbait kasutan plural markatzaile gisa betetzen duen egiteko morfologikoa). Esplikazio hau ez da, noski, ehuneko ehunean betegarri, baina singularra eta plurala sinkronikoki gramatikaren maila ezberdinetan dauzkagula sinistea baino irensgarriago gertatzen zait.

Gauzak ulertzen ditudan moduan, honela geundeke:

- a) Morfonologia morfologiari dagokio fonologiari baino areago, gertakari morfonologiko guztiek erabilera morfologikoa ez badute ere.
- b) Morfologia hitzen barne egitura morfemikoa baino zabalagoa da eta morfologiaren azterketak ere halako izan behar luke: morfologia hitzak osatzeko gaitasun linguistikoa da eta hitzen arteko bereizkuntza gramatikal eta lexikoak egiteko ahalmena ematen digun ezagutza.
- c) BBI erregela bada, eratorpen fonologikoa bazkatzen du eta, horregatik, fonologiazkoa den Bakuntzea baino lehenago gertatzen da hitzen eratorpenean. Biak fonologiko zirenean ere, disimilaziozko fortitioa zelako gertatzen zen kenketazko lenitioa den bakuntzea baino lehen.

Hauek eta Fonologia Naturalak dakartzan izatezko beste zenbait bereizkuntza ontologikok batzuetan erantzunak atzeratu egiten dizkigute, erabateko borobiltasunik gabeko hipotesietan barnerarazten gaituztelarik. Halaz ere, ez digute uzten sinkronia diakroniarik gabe (edo alderantziz) ulertzen eta hori ona delakoan nago. Nire ustez arazoak etiketaz sailkatzea ez da nahiko hizkuntzaren nondik-norakoak *ulertu* nahi baditugu.

BIBLIOGRAFIA

CHOMSKY, Noah / HALLE, Morris, 1968. *The Sound Pattern of English*. New York, Harper & Row. // *Principes de Phonologie Générative*. Paris: Éditions du Seuil, 1973 [SPE I / IV].

DONEGAN, Patricia Jane and STAMPE, David, 1979. "The Study of Natural Phonology". *Current Approaches to Phonological Theory*. Daniel A. Dinnsen, ed. Bloomington: IUP. 126-173.

DRESSLER, Wolfgang U., 1985a. "A new view of morpheme structure rules (Prelexical Rules). *Natural Phonology from Eisenstadt*. W.U. Dressler and Livia Tonelli, eds. Padova: CLESP. 33-42.

DRESSLER, Wolfgang U. 1985b. *Morphonology*. Ann Arbor: Karoma.

DRESSLER, Wolfgang U.; MAYERTHALER, Willi; WURZEL, Wolfgang U.; PANAGL, Oskar 1987. *Leitmotifs in Natural Morphology*. John Benjamins.

ETXEBERRIA, Pilartxo, 1990. *Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa*. Universidad de Deusto: Cuadernos Universitarios.

GAMINDE, Iñaki, 1988. *Ahozko bizakieraz*. Bilbo: AEK.

HUALDE, José Ignacio, 1993a. "On the historical origin of Basque accentuation". *Diachronica* X-1, 1-38.

HUALDE, José Ignacio, 1993b. "Phonologically unmotivated changes in language contact: Spanish borrowings in Basque". *Folia Linguistica* XXVII, 1-25.

HUALDE, José Ignacio; ELORDIETA, Gorka & ELORDIETA, Arantzazu 1994. *The Basque Dialect of Lekeitio*. ASJU Monographs XXXI.

JACOBSEN, William H., 1977. "The Basque locative suffix". *Anglo-American Contributions to Basque Studies. Essays in Honor of Jon Bilbao*. W. A. Douglass, Richard W. Etulain, W. H. Jacobsen, (eds.), 163-168.

KRUSZEWSKI, Nikolai, [1881] 1978. "On sound alternation". *Readings in Historical Phonology: Chapters in the Theory of Sound Change*. Philip Baldi / Ronald N. Werth, eds. The Pennsylvania State University Press.

MICHELENA, Luis, 1964. *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro.

MICHELENA, Luis, 1977. *Fonética histórica vasca*. San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa.

MICHELENA, Luis, [1981] 1987. "Lengua común y dialectos vascos". *Palabras y Textos*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 35-55.

MICHELENA, Luis, [1957] 1988. "Las antiguas consonantes vascas". *Sobre Historia de la Lengua Vasca* I. Donostia-San Sebastián: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», 166-189.

OÑEDERRA, Miren L., 1994. "On a case of vowel assimilation in Basque". *Phonologica 1992*. Wolfgang U. Dressler, Martin Prinzhorn & John R. Rennison, eds. Torino: Rosenberg & Sellier, 165-171.

OÑEDERRA, Miren L., (argitaratzeko). Sobre fonética y fonología: apuntes para una lectura de Michelena.

DE RIJK, Rudolf P. G. 1970. "Vowel interaction in Bizcayan Basque". *Fontes Linguae Vasconum* II,5, 149-167.

DE RIJK, Rudolf P. G. 1981. "Euskal morfologiaren zenbait gorabehera". *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, 83-101.

ROTAETXE, Karmele, 1978. *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*. Durango: Leopoldo Zugaza.

SAPIR, Edward, 1921. *Language: An Introduction to the Study of Speech*. New York: Harcourt Brace Jovanovich. / *El Lenguaje*, México: Fondo de Cultura Económica, 1954.

SINGH, Rajendra, 1995. "Natural Phono(morpho)logy: A view from the outside". *Natural Phonology: the State of the Art*. Bernhard Hurch & Richard A. Rhodes, eds. Berlin: Mouton de Gruyter, 1-37.

SORNICOLA, Rosanna, 1993. "The many routes of functionalism". *Rivista di Linguistica* 5.1, 157-178.

STAMPE, David, 1979. *A Dissertation on Natural Phonology*. New York: Garland Publishing Co./Bloomington: Indiana University Linguistics Club.

STAMPE, David. Yes, Virginia ... (ms.).

TXILLARDEGI [J. L. Alvarez Enparantza]. 1980. *Euskal Fonologia*. San Sebastián: Ediciones Vascas.

WURZEL, Wolfgang U., 1980. Ways of morphologizing phonological rules. *Historical Morphology*. Jacek Fisiak, ed. The Hague: Mouton, 443-462.

ZWICKY, Arnold, 1970. The Free-Ride principle and two rules of complete assimilation in English. *Papers from the Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society*. CLS 6, 579-588.

TOKIZ KANPOKO NUMERO KOMUNZTADURA¹

Beñat Oyharçabal

1. NUMERO KOMUNZTADURAREN ERRESUNPTIBOTASUNA

De Rijkek (1972) ongi erakutsi zuen bezala, euskarazko perpaus erlatibotetan DS erlatibatua isila da :

(1) [Ø_i *ikusi nauten*] *lagunak*_i

(1)eko perpaus erlatiboan DS erlatibatua subjektua da, eta isila baita Ø itxura eman diogu. Sintagma horrek kasu marka ergatiboa hartzen baitu, arabeko komunztadura jokarazten du aditzean, 3. pertsona pluralari dagokiona: *-te*. Beraz, DS erlatibatua isildua denarren, aditz komunztaduran gelditzen dira haren phi-ezaugarriak ([-PERT ; +PLUR]), perpaus erlatiboa interpretatzerakoan lagungarri gertatzen zaizkionak hiztunari, hala nola izenordain erresunptibo bat baliatua denean, honek ere interpretazioa laguntzen baitu.

Komunztadura hori ez da erlatibakuntzari lotua, nahiz erlatibatzekeo estrategietan baliatzen den, errazkiago interpretatzen baitira perpaus erlatibok komunztadura erresunptiboa delarik; ikus ondoko adibideak:

(2a) *mintzatu natzaizun jendeak*

(2b) *aipatu dizkizudan jendeak*

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet komunztadura berezi honen onargarritasunaz beren intuizioen berri eman didaten R. Echepare, A. Elosegi, L. Erriondo, M. Ezeizabarrena, L. Fernandez, B. Hidalgo, J.A. Letamendia, R. Lizartza, X. Mendiguren, P. Petrarena, F. Rey, eta M. Zapiraini. Berezikoki eskertzen ditut X. Artiagoitia eta R. Etxepare, idazlan honen lehenbiziko bertsioari eginiakoko oharrak gogoan izan baititut azken idatzaldiari lotzerakoan. Aipamenezko adibide gehienak OEHko korpusetik (2000) aterak dira.

Komunikazio egoera askotan bata bestearen orde balia daitezke (2)ko bi adibideak. Halere, aiseago enplegatzen da (2b) bestea baino, zeren DS erlatibatua aditzarekilako komunztadura baitu hartan. Komunztadura hori euskararen gramatikaren arau ohikoen ondorioa da, eta ez du arazo berezirik sortzen.

Beste batzuetan, ordea, perpaus erlatibo konplexuetan ager daitezkeen DSak erlatibatzen direlarik, ohiz kanpoko modu batean baliatzen dugu komunztadura erlatiboetan. Jadanik seinalatua izan da komunztadura mota hau perpaus erlatiboei buruzko literaturan (Oyharçabal 1984, EGLU-V 1999). Hona adibide bat:

- (3a) *etxean utzi ditut ekartzeko esan zenidan hiru liburuak*
 (3b) *etxean utzi ditut ekartzeko esan zenizkidan hiru liburuak*

2. TKNKaren AURKEZPENA

(3)ko adibideetan aditz laguntzailea bi modutan agerrarazi dugu: batean (3a: *zenidan*) ez da numero komunztadurarik agertzen, eta bestean (3b: *zenizkidan*), aldiz, bai. Hiztunen artean epai desberdinak agertzen dira perpaus hauen egokitasunari buruz, baina anitzek pluraleko komunztadura daukan perpausa onartzen dute (3b), haietarik zenbaitek nekez onesten dutelarik ere bestea (3a).

(3b) adibide horretan, aginte perpaus bat erratezko aditz baten osagarria da. Ikus daitekeenaz, aginte perpaus hartako objektu zuzena erlatibatua izanik, numero komunztadura agerrarazten ahal da aginte perpaus osagarria gobernatzen duen aditzaren komunztaduran, erran nahi baitu erratezko aditzari dagokion komunztaduran (*esan zenizkidan*). Uste gabekoa da komunztadura hori, zeren DS erlatibatua ez baita erratezko aditz horren objektua. Horregatik, hain zuzen, deitzen diogu *tokiz kanpoko numero komunztadura* (TKNK). (3c)n agerrarazten dugu non gertatzen den TKNK:

- (3c) *Etxean utzi ditut [Op [t' [t ekartzeko] esan zenizkidan] hiru liburuak*
 |-----|

Goiko adibideak modu bereko egituretan aurki daitezke, bai *jakin* bezalako aditz trinkoekin, bai eta *uste izan* edo *nahi izan* bezalako lokuzioekin ere, perpaus osagarriko aditza jokatu izanik ere ((1)eko adibidean ez bezala). Hona gisa horretako adibide bana, literaturatik hartuak²:

² Esan gabe doa bestelako adibideak ere (TKNK gabekoak) edireten direla. Adibidez, Astarloak eskaintzen duen hau: *eskatu biar deusaguna da libradu gaizala, ez bakarrik guk gatxak diriala uste dogunetatik baita bere berak gatx diriala dakijenetatik* (Astarloa, *Urteko domeka...* 2. lib., 266)

- (4a) *Gizonek zuei egin dietzazuen nahi dituzuen gauza guziak egin ietzezue zuek-ere hei halaber* (Leizarraga, Mat 7-12, eta halaber ABC, 12)
- (4b) *nola errabian ematen diren, eskapatzen zaizkotenean aztaparretarik oraino behingotz han zituztela uste zituzten arimak* (Joannateguy, *Sainduen bizitzea*, 56)
- (4c) *oraino erran behar ditugu (...)* segurki egin ditugula dakizkigun faltak (Baratciart, *Giristinoki bizitzeko eta hiltzeko moldea*, 162)

Adibide horietan perpaus osagarria jokatua da. (4a)n perpaus subjuntiboa da, (4b,c)n, aldiz, adierazpen perpausa. Hiru kasuetan ikus dezakegu perpaus osagarria gobernatzen duen aditz jokatua DS erlatibatuarekin komunztatzen dela numeroan: *nahi dituzuen* (4a), *uste zituzten* (4b), *dakizkigun* (4c), nahiz ez den delako DS erlatibatua aditz horiei dagokien argumentua.

Erlatiboari izen bururik ez darraiolarik ere gerta daiteke TKNK, erlatibo generikoetan, adibidez:

- (5) *Maitatu behar ditugu (...)* kontra ditugula uste ditugunak *berak* (Jauretxe, *Meditazioneak*, 105)

Nola azterkatu behar ditugu forma horiek? Ez argumentu komunztadura gisa, zeren, jadanik erran bezala, predikatu gobernatzaileak ez baitu horrelako objekturik bere argumentu egituran. Azterbide hori baztertu behar dela erakusteko aski da ikustea zer gertatzen den perpausak erlatibakuntzarik gabe moldatzen baditugu:

- (5a) **Gizonek gauza guziak zuei egin diezazkizueten nahi dituzue*
- (5b) *Gizonek gauza guziak zuei egin diezazkizueten nahi duzue*
- (6a) **Arimak han zituztela uste zituzten*
- (6b) *Arimak han zituztela uste zuten*
- (7a) **Badakizkigu faltak egin ditugula*
- (7b) *Badakigu (faltak egin ditugula)*
- (8a) **Kontra ditugula uste ditugu*
- (8b) *Kontra ditugula uste dugu*

(5a, 6a, 7a, 8a) adibideen ezgramatikaltasunak erakusten digu erlatibakuntzan gertatzen den zerbaiti lotua dela TKNK, zeren, hala ez balitz, (5b, 6b, 7b, 8b) adibideak gramatikalak bailirateke.

3. PERPAUS ERLATIBOETAKO OPERATZAILEA ETA HAREN MUGIMENDUA

Perpauis erlatiboen aztertzeo operatzaile isil baten bidezko azterketa proposatzen ohi da (Oyharçabal 1988, Etchegoyen 1994).

Rizziren (1990) tipologiaren arabera [+PRED] [-N/Z] da operatzaile isila³, ingelesez *that*-erlatiboetan gertatzen den bezala: *the man* [Op_i *that* [I met t_i]].

Perpauis erlatiboak, bestalde, predikatuak dira, 'perpauis irekiak', bariabile edo aldagai bat daukatenak. Aldagai horrek, euskaran komunzki agerian agertzen ez denak, FLan balio bat behar baitu, postzedenteak ematen dio predikazio operatzailearen (Op) bitartez⁴:

(9a) [Op_i [t_i *etorri da*]-en] *gizona*_i

Operatzailea KONPetik KONPera mugi daiteke:

(9b) [Op_i [t'_i [t_i *etorri da*]-ela] *uste nuen*]-n] *gizona*_i

Operatzailea mugitzen delarik, mugimenduei dagozkien baldintzak errespetatu behar ditu, hala nola IS konplexuen gaineko baldintza :

(9c) *[Op_j [Op_i [t_i t_j *egin duten*] *harginak*_i *ezagutzen dituzun*] *etxea*_j

(9c) adibidea ezgramatikala da, zeren Op_j ... t_j katea ez baita ongi eratua⁵. Dударik batere gabe, IS konplexuen gaineko baldintza bortxatua da orduan,

³ Rizzik (1990:67) proposatzen du KONPen tipologia bat, [\pm *wh*] eta [\pm pred(icative)] ezaugarrietan finkatua. Adibidez, KONP^o batek [+*wh*] izanez gero, eskatzen du ezaugarri bera duen espezifikatzaile bat (tasun erkaketa gisa aztertzeo litzatekeena minimalismoaren ikuspegian). Orotara lau posibilitate dira :

+ *wh* - pred : *I wonder what* () [you saw t]

+ *wh* + pred : *the thing which* () [you saw t]

- *wh* + pred : *the thing* Op () [you saw t]

- *wh* - pred : *I know that* [you saw it]

⁴ Operatzailea perpauis hastapenean, ezker aldean, agerrarazten dut hemengo perpauisetan, Oyharçabalek (1988) eta Etchegoyenek (1994) ez bezala, [Espec,KONP] posizioan.

⁵ Minimalismoaren barnean Op_j ... t_j katea gaizki eratua da, zeren, barneenik den KONPen okupatua izanik (Op_i), ez baita lokarri laburrena (MLC deitu baldintza: *Minimal Link Condition*).

ezen *t_j* indizeak seinatzen duen erlatibakuntza gertatzen da perpaus erlatibo bat duen izen sintagma baten barnean (*hargin* buru lexikala duen IS konplexuaren barnean).

TKNKak erakusten du predikazio operatzaile isilak numero komunztadura zilegizta dezakeela perpaus erlatiboaren goreneko aditzean. Posizio ez-argumental batean izanik operatzailea, mota horretako komunztadura da⁶. Alderdi horretarik, numero komunztaduraren bidez seinatua izatea, adierazgarria bide da; ikus urrunago (14).

Ohargarria da DS erlatibatua oso barnean izanik, hiru KONP badituelarik gainera, TKNK goreneko aditzarekin bakarrik gerta daitekeela, hala nola ikus baitezakegu ondoko adibidean:

(10a) **etorriko direla uste dituzula erran dizkidazun lagunak*
 *[Op [t' [t *etorriko direla*] *uste dituzula*] *erran dizkidazun*] *lagunak*
 *|_____||

(10b) *etorriko direla uste duzula erran dizkidazun lagunak*
 [Op [t' [t *etorriko direla*] *uste duzula*] *erran dizkidazun*] *lagunak*
 | | | |
 | |_____[-TKNK] |
 |_____ [+TKNK]

(10a) adibidea guztiz ezgramatikala da (10b) onartzen duten hiztunentzat ere⁷. (10)ko kontrasteak frogatzen du TKNK ez dela KONP guztietan gertatzen baina azkenean bakarrik.

⁶ Frantsesez ere onartzen da batzuetan horrelako komunztadura (erran nahi baitu posizio ez-argumental batetik bideratua); cf. Kayne (1989):

(i) *Les libertés que j'ai prises*

Ezinezkoa da, haatik, TKNK frantsesez:

(ii) **Les libertés que vous avez dites que j'ai prises*

ii *Les libertés que vous avez dit que j'ai prises*

Euskaraz KONP^oera mugitzen da aditza, frantsesez ez bezala, eta TKNK, beraz, espezi-katzailearen eta buruaren arteko tasun erkatze bati darraiola pentsa daiteke.

⁷ Adibide horiek aski zail dira naturalki erabiltzeko. Halere, arras argia da kontrastea: informazio emaileetan, hamarretarik batek ere ez du onartu (10a), baina zortzik onetsi dute (10b).

4. KASU ALDAKETA HUNGARIERAZKO OPERATZAILE MUGIMENDU LUZEETAN.

Euskaraz, hitzunen arabera, aski aldakorra da TKNKaren aurrean hitzunek duten jarrera, eta orohar bazterreko kontu gisa har daiteke. Halere, ohargarria da, beste hizkuntzetan ere antzeko fenomenoak aurkitzen ditugula batzuetan.

Hungarieraz N/Z sintagmen mugimendu luzea gertatzen delarik bi gertakari kausitzen ditugu⁸:

- N/Z hitza subjektua denean perpaus osagarrian, akusatibo gisa agertzen da perpaus matrizean, *kasu aldaketa* jasanez (nominatiboa → akusatiboa)⁹;
- N/Z sintagma akusatiboak objektu-komunztadura badu aditz matrizearekin ([± mugatua] tasunaren bidez).

Ikus ondoko adibideak Maraczenganik (1989:297) hartuak:

(11a) *Kit gondolosz hogy t látta Jánost*
Nor.AKU pentsatu.2SG.MGB KONP ikusi.3SG.MG Jon.AKU
'Nork uste duzu ikusi duela Jon?'

(11b) *Melyik fiút gondolod hogy t látta Jánost*
Zein mutiko.AKU pentsatu.2SG.MG KONP ikusi.3SG.MG Jon.AKU
'Zein mutikok uste duzu ikusi duela Jon?'

Adibide horietan ikusten da i) N/Z sintagma, perpaus osagarriko subjektua izanik, mugitu ondoan ez dela nominatiboa agertzen, baizik ere akusatiboan (*kit*, *melyik fiút*), eta kasu aldaketa gertatu dela, beraz; ii) N/Z sintagmak

⁸ Hungarieraz erlatiboetan ere gertatzen da mugimendu luzea. Halere, I. Toth-ek (k. p.) erraten didanaren arabera, zubi aditzekin hitzunek nahiago dute DS erlatibatua perpaus matrizeko osagai egin (kasu delatiboa emanaz). (i)ko adibidea gramatikala da, beraz (mugimendu luzearekin eta izenordea akusatiboan izanik), (ii)koaren ondoan (mugimendu luzerik gabe eta izenorde erlatiboa delatiboan izanik); glosak I. Toth-enak dira:

(i) *Odaadtam a ferfi-nek, akit mondtal hogy eljon*
gave-1SG the gizon-DAT who-ACC said-2SG.INDEF that comes

'Eman diot etorriko zela erran zenuen gizonari'

(ii) *Odaadtam a ferfi-nek, akirol mondtad, hogy pro eljon*
gave-1SG the man-DAT who-DELAT said-2SG.DEF that comes

'Eman diot gizonari zeinetaz erran zenuen etorriko zela'

⁹ Kasu aldaketa ez da beharrezkoa hungarieraz, nahiz hitzunek nahiago duten obratu (Kiss 1987:141)

aditz matrizearekin komunztadura baduela: *kit* 'nor' izenorde akusatiboa [-mugatua] izanik, araberako mugagabeko objektu komunztadura baitu aditzak; aldiz, *melyik fiút* sintagma [+mugatua] izanik, objektu-komunztadura ere [+mugatua] du.

Hungarierazko kasu aldaketa nominatiboa → akusatiboa delako aldaketa-
ra mugatzen da. Adibidez, N/Z sintagma datiboan bada, ez da gertatzen:

(11c) *Kinek gondolod hogy János könyvet adott t*
nor.DAT pentsatu.3SG.MG KONP Jon liburu.AKU eman.3SG.MGB
'Nori pentsatzen duzu eman diola Jonek liburua?'

Adibide hori konpara daiteke (11a)koarekin. Ikus dezakegu (11c)n, N/Z
sintagma datiboak atxikitzen duela bere kasua mugitu ondoan eta, beraz, adi-
tzak ez duela harekilako komunztadurarik (perpaus osagarria duten zubi-
aditzek mugatuan dute objektu komunztadura hungarieran).

Horrelako kasuetan N/Z hitza mugitu dela onartzen den pundutik, erran
ote daiteke euskarari bezalatsuko gertakaria erakusten dutela hungarierazko
adibideek? Kasu aldaketaz mintza ote gaitzke euskararen kasuan?

5. TKNK ETA DS ERLATIBATUARI DAGOKION KASU MARKA

DS erlatibatua kasu absolutiboan zen orain artino ikusi euskarazko adi-
bide guztietan, eta ez dut besterik aurkitu literaturan ere. Adibidez, (1-2) adi-
bideetan objektu zuzena da DS erlatibatua (*ekartzeko*, eta *zuei egin diezazki-
zuen* perpausetan), eta (11) adibidean *etorri direla* perpausaren subjektua.
Euskal aditzaren morfologian absolutuari baitagokio numero komunztadura,
nola obratzen da TKNK, DS erlatibatua absolutiboan ez denean? Alabaina,
ikusi dugu posizio ez-argumental batetik egiten dela TKNK eta, beraz, galda
daiteke DS erlatibatuek kasu absolutiboa duten kasuetara mugatua ote den, ala
beste marka bat dutenekin ere gerta daitekeen.

Beha diezaiegun ondoko adibide pareei. (12a) adibidean DS erlatibatua
ergatiboan da, eta (12b)n, berriz, absolutiboan. Halaber, (13a) adibidean, dati-
boan da DS erlatibatua, eta absolutiboan, aldiz, (13b)n:

(12a) *Anitzetan gonbidatu zaituztela erran dituzun lagunak*

(12b) *Anitzetan gonbidatu dituzula erran dituzun lagunak*

(13a) *Zerbait gertatu zaiela uste dituzun lagunak*

(13b) *Mintzatu nahi zaizkizula uste dituzun lagunak*

Ez dirudi batere kontrasterik baden (12-13)ko adibide pareetan. Horrek erakustera ematen du TKNK ez dela DS erlatibatuak perpaus osagarrian duen kasuaren arabera ematen. Zaila da, haatik, jakitea hemen kasu aldaketa gertatzen den hungarieraz bezala (ergatiboa edo datiboa → absolutiboa), zeren operatzaile isila baitugu eta, beraz, kasu marka agerikorik gabekoa baita. Numero komuntadura gertatu izana aski ote da errateko kasu aldaketa gertatzen dela euskaraz hungarieraz bezala?

Ez dirudi hala den. Alabaina, batzuetan, usaiak kanpoko flexio berriak sor daitezke TKNKari dagozkionak. Horrelakoetan, kasu absolutiboaren ezarketa honetarik aparte gauzatzen da, numero komuntadura, berriz, TKNKaren bidez bere alde obratzen delarik. Mitxelenaren izkirioetan agertzen den adibide behin baino gehiagotan aipatu batek (Oyharçabal 1984, EGLU-V) erakustera ematen du puntu hori:

(14) *Nik ez ditut gehienbat aurkitu bila nembiltzanak* (Mitxelena, MEIG VI, 153)

Adibide horretan adizkera jokatua morfologikoki *munstroa* da, Mitxelenak erran zuen bezala: *ibili* aditza NOR-aditza izanik hemen, alde bate-tik, subjektu absolutiboari dagokion komuntadura du (*n-*, 1. pertsona singularra), eta bestetik, TKNKari dagokion pluraleko indizea du (*-tza-*). Predikatu batek kasu absolutiboa bi aldiz ezartzea ezinezkoa denaz gero, nekez, datu hau kontuan izanik (eta TKNKaren ondorio zuzen bat ikusirik hartan), kasu-aldaketa gisa azterka dezakegu euskarazko TKNK (DS erlatibatu absolutiboaz beste kasu bat duelarik).

6. TKNK ERLATIBOETARIK KANPO?

TKNK operatzaile baten mugimendu baten ondorioz gertatzen denaz geroz, galdera egin behar da ea zer gertatzen den orain arte aipatu ez ditugun galde sintagmekin, eta galdegaiekin¹⁰. Mugimendu luzea onartzen duten mintzagai-osagaiekin eta *zein*-izenorde erlatiboekin ere zer gertatzen den ikertu behar dugu. Ikus ditzagun ondoko adibideak:

(14a) *Euskarazko liburuak esan dizut / *dizkizut erosteko (ez inglesezkoak)*

(14b) *Nongo lagunak esan duzu / *dituzu etorriko direla ?*

¹⁰ Zenbait hitzunen (bik, nire inkestan) ontzat ematen dituzte (14-15)eko perpausetako TKNK kasu batzuk. Gehienek, halere, ene gisa, batere ez.

- (15a) *Liburuak ere biharko esan dit / *dizkit ekarriko dituela*
 (15b) *Liburuak ere, uste dut / *ditut zuk ekarri dituzula*
 (15c) *Liburuak ere badakit / *badakizkit oso garestiak direla* .

(15a-c) adibideetan *liburuak ere* mintzagai hanpatua da, eta dagokion perpausetik ateraia da. Gauza bera gertatzen da (14a,b) adibideetan galdegaiarekin eta galde sintagmarekin. Testuinguru antzekoa izanagatik ez da TKNKrik obratzen ahal horrelakoetan.

Are nabarmenagoa da kontrastea absolutiboan ez diren DSeekin¹¹:

- (16a) *Bilboko lagunei ere badakit horrelako zerbait gertatu zaiela*
 (16b) **Bilboko lagunei ere badakizkit horrelako zerbait gertatu zaiela*
 (16c) **Bilboko lagunak ere badakizkit horrelako zerbait gertatu zaiela*
 (17a) *Bilboko lagunek esan didazu gomiatu zaituztela*
 (17b) **Bilboko lagunek esan dizkidazu gomiatu zaituztela*
 (17c) **Bilboko lagunak esan dizkidazu gomiatu zaituztela*

(16b,c) eta (17b,c) adibideak, gorago ikusi (12a) eta (13a) adibideekin konparatzeko dira, haietan ez bezala perpaus hauetan TKNK ezinezkoa baita. Hitz batean, TKNK erlatiboetan baizik kausitzen ez den zerbait da.

Areago, erlatibo arruntetan bakarrik aurkitzen da TKNK, zeren ez baitirudi *zein*-erlatiboetan TKNKrik ager daitekeela. Hori erakusten digute ondoko adibideek¹²:

- (18a) *Etorriko zaizkizu nire gurasoak, zein(ak) esan baituzu ezagutu dituzula*
 (18b) **Etorriko zaizkizu nire gurasoak, zein(ak) esan baitituzu ezagutu dituzula*
 (19a) *Etorriko zaizkizu gizon batzuk, zeinek uste baitut gomiatuko zaituztela*
 (19b) **Etorriko zaizkizu gizon batzuk, zeinek uste baititut gomiatuko zaituztela*

(18-19) adibideetan, izenorde erlatiboa erratezko aditzaren ondoan izanagatik, ez dugu TKNKrik aurkitzen, ez izenordea erlatiboan delarik (19b), ez eta absolutiboan delarik ere (18b). Berriz ere, aurkaritza garbia dugu erlatibo arruntetako datuekin.

¹¹ (16b) eta (17b) adibideetan ez dut aldatzen mintzagaiari edo galdegaiari dagokion kasu marka, (16c) eta (17c) adibideetan, aldiz, bai, absolutiboan emanez (kasu aldaketa izanik gertatu behar lukeen bezala). Ikus daitekeenaz, ezgramatikalak dira beti perpausak.

¹² Inkestan inork ez du onartu TKNK (18-19) bezalako ZEIN-erlatiboetan.

7. TKNKAREN AZTERBIDEA

Pentsa daiteke gramatikaren mugetan sortu moldaketa morfofonologiko gisako zerbait dela TKNK: perpaus erlatiboetan aditz gorena azken posizioan izanik, izen buruaren ondoan, hurbiltasun horrek zerbait gisaz nahasketarik sortzen balitz bezala hitzunari solas ariketan. Ikuspegi horretan, TKNK (20)ko ingurumenean gertatzen da:

(20) [Op [t *etorriko direla*] *uste dituzu*]-n] *lagunak*
 | _____ |

Kontsideratzen badugu hipotesi honetan *hurbiltasuna* modu arruntenean, erran nahi baitu soinu kateari dagokionean, ulertzekoa dela, TKNKak, gertatu behar luke perpaus erlatiboko aditzaren eskuinean agertzen den lehen-biziko izen buruarekin.

Ikus ditzagun puntu hau egiazta edo gezurta dezaketen zenbait adibide:

(21a) **Ongi egina dela erran dituzun jende horien etxea salgai omen da*
 | _____ |

(21b) *Irakurri al dituzu egiazki, ongi eginak direla erran dituzun zure anaiaren gazte denborako liburua?*

(21a) adibideak erakustera ematen du, pluralean den DS bat agertzen denean perpaus erlatiboaren eskuin aldean, TKNK ez daitekeela harekin gerta, baldin ez badagokio perpaus erlatiboaren buruari. (21b) adibideak, aurreko puntua indartzuz, egiaztatzen du, DS modifikatuak izenlagun bat baino gehiago duelarik, halako gisaz non perpaus erlatiboaren eta buruaren artean DS bat edo gehiago agertzen baitira (*zure anaiaren gazte denborako*), TKNK, halere, berdin gerta daitekeela katea mintzatuan aski urrun den izen buru pluralarekin.

Beraz, azterketa sintaktikoa eman behar zaio TKNKari, gorago aipatu hurbiltasun konzeptua sintaktikoki definituz: TKNKak DS modifikatuaren buruarekilako komunztadura erakusten du, besterik ez.

8. TKNK GRAMATIKA ARAU BATI OTE DAGOKIO?.

Behin baino gehiagotan aipatua izan da performantza edo ariketaren garrantzia euskal perpaus erlatiboen azterketan, alde handia baita haietan gramatikaltasunaren eta onargarritasunaren artean, erlatibatzeko eskalari dagozkion kontuetan bereziki.

Gaur badirudi ikuspegi nagusia dela gramatika arauak zilegitzatzen dituzten perpaus asko solas ingurumen berezi batzuetan baizik ez direla onesten, hots, gramatikak eskaini aukeren artean ariketa mailako murrizketak badirela (ik. EGLU-V).

Adibidez, gauza ezaguna da badela anitz hizkuntzatan, eta euskaran ere bai, joera berezi bat DS modifikatua eta DS erlatibatua ingurumen morfosintaktiko bertsuetan agerrarazteko. Kasu paralelismoak erlatibatzeke eskalan sortzen dituen errazbideak horrela azaltzen ohi dira :

- (22a) ??*Aski duzu gure alaba ezkonduko den gizona ikustea*
 (22b) *Aski duzu gure alaba ezkonduko den gizonarekin joatea*

Erlatibo berak ditugu (22)ko adibideetan. Hala ere, (22b) anitzez onarrezagoa da (22a) baino. Kontraste hori kasu paralelismoaren bidez esplikatzeko ohi da. (22a) adibidean DS erlatibatuari komitatiboaren marka dagokio, DS modifikatua absolutiboan izanik. Komitatiboa erlatibatzeke eskalan nekez erlatibatzen diren kasuen sailean baita, hiztun askok zalantzak edo nekezia handiak dituzte, kontesturik kanpo bereziki, (22a) onartzeko, eta nahiago dituzte bestelako antolamenduak dituzten formak, adibidez, (22b)n aurkitzen dena.

(22a) eta (22b)ko erlatiboak arras berdinak dira, eta DS modifikatuari dagokion kasu markan datza bi adibideen arteko diferentzia, (22b)n DS modifikatuak DS erlatibatuaren kasua baitu.

Jokamolde hau eta TKNKan aurkitzen duguna elkarrekin konparatzen baditugu, aurkako simetrian direla erran daiteke: kasu batean (erlatibatzeke eskala) gramatikak hiztun askok nekez baizik onesten ez dituzten perpausak haizutzen ditu, eta beste kasuan (TKNK), berriz, gramatikak bideratzen ez dituen antolamendu morfosintaktiko batzuk onargarri -hiztun askorentzat ohiko arauen araberrako antolamenduak baino onargarriago- bihurtzen dituzte interpretazio joerak.

Aurreko puntuarekin zerikusia duen beste gertakari bat ekartzen digu gogora TKNKak: gorago aipatu kasu paralelismoa, erlatibagaitzasunaren arintzeko edo kentzeko bide baten eskaintzeaz bestalde, hizkuntzaren joera sakon bati ere baitagokio. Haur mintzairan agertzen da garbikienik joera hau, maiz eta maiz haurrek zuzendu behar dituzte beren erranak, sintagma modifikatuari DS erlatibatuaren kasu marka ezartzeko joera baitute (Oyharçabal 1985): *sagua harrapatu duen katuak... katuari... eman diot*. Horrelako kasuetan hiztunak DS erlatibatuaren kasua ematen dio DS modifikatuari, baina perpaus matrizean kasu hori desegoki dela ohartzean, zuzentzen du bere errana, izen burua errepikatuz eta kasu egokia erantsiz orduan.

Iduri luke, bada, beste maila batean, TKNKak ere gisa batez horrelako zerbaiten aurrean ematen gaituela. Hitzunek badugu DS modifikatuaren numero markatua (plurala, beraz) perpaus erlatiboko aditzean agerrarazteko joera, ahal dugun guztietan behintzat, hots, aditzaren argumentu egiturak perpaus osagarria aukeratuz horretarako biderik uzten duen guztietan¹³. Hala egi-ten dugu anitzek, zenbaitek errazkiago, besteek nekezago.

Dena den, kontuan harturik TKNK erlatibo arrunten joskerari lotua dela eta hitzunen artean hartaz kausitzen diren intuizio desberdinak direla eta maiz segurtamen gabekoak, zail ikusten dut hartan hungarierazko mugimendu luzeetan gertatzen den bezalako arau baten bidez esplikatzea. Bereziki, ez du iduri kasu aldaketa gertatzen den euskarari, itxura denaz, numero komunztadurak TKNK kasuetan ez baitu kasu komunztadura adierazten (14).

¹³ Ez gaitzke hurbiltasun kontu hutsetan gelditu joera horren adierazteko. Adibidez, oso kontraste gogorra da bi perpaus hauen artean, lehenbizikoan TKNK ez baita onartzen, bigarrenean, aldiz, bai :

(i) *Urtean zehar bazkaldu *genituen ostatuak zerrendatu zituzten*

(ii) *Urtean zehar bazkaldu genuela segurki zekizkiten ostatuak zerrendatu zituzten*
Hurbiltasun hutseko kontua balitz, (i) adibidean komunztatutako hori posible izan behar litzateke joskerari *bazkaldu* aditzaren subjektua kasu erlatiboan ematen duten hitzuntzat behintzat. Baina ez da horrela gertatzen, iduri bailuke *bazkaldu* iragankorki ulertu behartu dugula hitzunik orduan (objektua izanik DS erlatibatua, ezintasun semantikoa sortuz). Aldiz, osagarri gisa perpaus menderatu bat hartzen duen *jakin* bezalako aditz batekin ez da horrelako arazorik.

TKNKaren alderako joera *jakin* aditzak gobernatu perpaus infinitoeekin nabari da bereziki; konpara:

(iii) *Zein dira hobekienik egiten dakizun lanak ?*

(iv) *Zein dira hobekienik egiten dakizkizun lanak ?*

Zenbait hitzunek *jakin* aditza erabiltzen dute ohiz kanpoko kasu ezarketa haizutzen balu bezala (hots, hautemate aditzak bezala; cf. *nok igarri zubei dakizuzan edo ez, osatuten zaurriak, ezagututen bedar ona (Peru Abarka, 49)*. Ez da harrizkekoa haientzat (iv) onargarriago izatea. Baina *jakin* aditza bestela erabiltzen duten askorentzat ere, (iv) anitzez naturalago da (iii) baino.

Dena den, hautemate aditzekin ere gerta daiteke TKNK. Beste modu batean, ordea. EGLU-Vean (194, (48a)) eskaintzen da horrelako adibidea, literaturatik ateraita :

(v) *Bertze haurreri biltzen ikusi nituen sosek xoratu (...) ninduteyan* (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 20)

(v)ean DS erlatibatua *biltzen* aditzaren objektu zuzena da. Ohargarria da TKNK obratu ahal izateko, Elissamburuk datiboan eman duela erlatibakuntzarik izan ez balitz absolutiboan izanen zen DSa. Izan ere, erlatibakuntzarik gabe perpausa honela litzateke : *haurrak sos / sosen / sosak biltzen ikusi nituen*.

Beraz, (v) TKNKak, errebotez edo, DS absolutiboaren datibatzea ekarri du. Kontuan har, morfologiak horretarako bidea eskainirik ere, komunztadura datiboa ezinezkoa dela (v)ean: **haurreri biltzen ikusi nizekien sosak*.

BIBLIOGRAFIA

CHOMSKY, Noam (1995), *The Minimalist Program*, MIT Press, Cambridge.

EGLU-IV. (1994), *Perpaus juntatuak*, Euskaltzaindiko gramatika batzor-deak egin gramatika, Euskaltzaindia, Bilbo.

— (1999), *Mendeko perpausak 1*, Euskaltzaindiko gramatika batzor-deak egin gramatika, Euskaltzaindia, Bilbo.

ETCHEGOYHEN, Thierry (1994), *L'analyse des relatives dans la théorie du gouvernement et du liage. Le cas du basque*, Mémoire de Maîtrise, Université de Toulouse II-Le Mirail.

FERNANDEZ, Beatriz (1997), *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, doktore tesiak saila, EHU, argitalpen zerbitzua.

KAYNE, Richard (1989), "Facets of past participle agreement in Romance", in P. Benincà (argit.) *Dialect variation and the theory of grammar*, Foris, Dordrecht.

KISS, Katalin (1987), *Configurationality in Hungarian*, Akadémiai Kiadó, Budapest.

— (1998), "Identificational focus versus information focus", in *Language*, 74-2, 245-273.

MARÁCZ, László (1989), *Asymmetries in Hungarian*, Rijkuniversiteit Groningen; 2. argitalpena in *ASJUren* gehigarriak, XXII, 1991.

ORTIZ DE URBINA, Jon (1989), *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.

OEHko corpora. (2000), Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegiko* testu corpora, CD-ROM.

OYHARÇABAL, Beñat (1985), *Les relatives en basque*, DRL, Université Paris VII, Paris.

— (1988), "Operatzaile isila euskarazko perpaus erlatiboetan", in *Euskara Biltzarra. Congreso de la lengua vasca. Lehen atala: Hizkuntz deskribapena*, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia, Vitoria-Gasteiz, 135-140.

RIJK, Rudolf P. G. de (1972), *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, Doktore tesia, MIT.

BEÑAT OYHARÇABAL

RIZZI, Luigi (1990), *Relativized Minimality*, MIT Press. Cambridge, Massachusetts, London, England.

AXULAR JEKYLL, AXULAR HYDE

Patxi Salaberri Muñoa

0. Gizakion adimen-mekanismo ezkutu desberdinak direla kari, errealitatea parametro ulergarrietara mugatzeko premiak maiz asko jokaera oroberdintzaile eta eskematizatzaileegiak erabiltzera bultzatzen du. Eta erabili ere, kategoria finkoak eta zalantzarik gabekoak bailiren erabili ohi dira sarri.

Garai zaharreko idazle eta pentsalarien esparrua jorratzerakoan, esaterako, arrunt bihurtu izan da haien ezaugarri esanguratsuenak (literarioak, ideologikoak zein psikologikoak) batzeko joera eta, ageriko kontraesanik ez dagoenean bederen, nortasun bakar eta logiko baten inguruan integratzekoa, ohar-tu gabe (eta, ondorioz, bereizi gabe) uste baino gehiagotan zinezko izaera bikoiztu kontrajarriak gorpuzteko parada uzten diela errealitateak autoreei.

Ez da euskal literaturaren eremua horretan salbuespen, jite horretakoa baizik, anitzetan autoreez iritsi zaizkigun datu urriek ez baitute argirik eskaintzen esparru ez-literarioetan pertsonaiaren profila burutu ahal izateko. Baina, okerrago dena, ez gutxitan inpresioa da jokaera oroberdintzaileok, autorearen alde zein aurka, diskrezionalitate gehiegirik gabe erabiltzen direla.

Areago: inoiz haien testuetatik lekukotasun argi-emaile berezirik espero izatekoa zenean ere, autoreen isiltasunak berak jokaera berdintzaile horiek gizentzeko baino ez du balio izan. Ildo horretan, ezaguna da euskal historian bortizkeriaren kalifikatiboaz irudikaturik (halakoxeak izan baitziren!) geratu izan diren gertaeren ingurukoez jazotakoa.

XVII. mendearen hasieran, eta besteak beste “egiazko” erlijioaren aurka omen ziharduten sorginen xahupenaren aitzakiapean, Sarako esparrua (sorgin gaiztoen kopururik handiena biltzen omen zuena) zeharo astindua suertatu zen.

Printzipioz -eta teorian bederen-, errealitatearen oihartzun izpiren bat literaturan islaturik ikustea espero izateko zerbait bazen ere, ezagun da ez zela horrela gertatu euskal letretan; dakigularik, ez islada argi, zuzen eta zalantzarik gabekoen bidez, behinik behin. Izan ere, une latz horiek isiltasuna baino ez baitzuten utzi idatzirik, pairatu zuten errealitatea ohikoa izan balitz bezala, inork ezer nozitu izan ez balu legez, gizarte hartan ezer gertatu izan ez baitlitz.

Esan liteke kategoria isil eta hutsen (= formalki hutsik diruditenen) mailako izan zirela horiek euskaraz idatziriko orrialdeetan, nahiz eta hemen usatu den historiografiak gero akritikoki -eta honekin, hasieran adierazi puntura itzultzen ari gara- orrialde horien egileen soslaia taxutzerakoan normalean haien "aldeko" irudia egiteko erabili dituen.

Eta egoerarik nabarmen eta larriena isiltasun horren "aprobetxamendua" ezinbestean bortizkeriaren lekukorik garrantzitsuena izan behar zuenaren alde agertzean emango zen, inguru haietako jende jipoiuaren ardura eklesiatiko-izpirituala zeramanaren aldeko erabilera antzematean, euskal literatura klasikoan lehen idazletzat hartua izan denaren beraren aldekoa hain zuzen. Sarako erretoreaz ari gara, jakina.

1. Urdazubin jaiotako idazlearena sarritan arazo bezala planteatu izan bada ere, ez da gogoratu behar, histori dinamika garaileen mitifikaziorako joeragatik nonbait, haren alde jokatu izan dela salbuespenik gabe. Ondorioz, haren irudiaren handitasunak irabazi egin du etengabe, eta idazle gisa zuen ospe gaindiezinari ezin hobetuzko "portaera"-ren bertutea erantsi zaio sistematikoki.

Izan ere, Axularrez geratu zaigun estereotipoa giza-perfekziotik hurbil dago. Eta ez da estereotipatze horrena gure garaiko historialari bati edo besteri egotz dakioken errua, azken batean tradizioaren eta, nola ez, kausalitate legearen poderioz gertatu bide baita horrela. Villasanteren eskutik Axularrez agertu zen irudi "ulerkorra"¹, esaterako, pixkanaka osatuaz joango zen eredu

¹ Sarartuaren obran ea zergatik ematen zen sorginei buruzko isiltasuna galdetzean, honako hau erantzuten zen: "Hauxe da harrigarria: Gero-n giristinoen bekatu mueta guztiak aipatzen direlarik, sorginkeriaz ta abar ez da fitsik esaten. *Menturaz, lehengo izigarrikeriak berritzeke ez zuen aitzakiarik eman nahi*, edo ta bazekien Axularrek gaiztakeria baino gehiago buruko eritasuna eta ezjakina zirela guzti hoiien azpian" (Villasante 1972, 76; gurea da letrakera etzana).

finko baten lehen urrats modura geratuko zen ondokoentzat. Eta Villasanteren hitz zuhurrak betiere “menturaz” delakoaz lagundurik agertu arren, hipotesiaren benebolentziak inolako kalterik ekarriko ez zuelakoan edo (alderantziz baizik, “santifikatuago” agertzen zen gure idazle klasikoa), luzatutako formulazio hori handik aurrera Axularrez “ofizialki” onartu eta mantenduko zen iritzia izango zen, frogarik behar ez zuen ideia alegia.

Hipotesi horrek Angel Irigarayrena izango zuen bidailagun, autoritateen printzipioa areagotu ahala, historiografia ezin zalantzan jar zezakeen topiko batez “aberastu” zelarik². Harrezkero, eta Altunaren irakurketa ikonoklasta samarraren salbuespenarekin (1996), iritzi hedatu hori izango zen euskal literatur testuetan nagusituko zena. Xarritonek berriki argitara eman duen hitzaldi bateko hainbat ideia ere ildo horretakoak direla esan daiteke³.

2. Nolanahi ere den, Axularren giza soslaiaren lehen hurbilketa orokorrean ez dirudi zilegizkoa denik herri tradizioan utzi duen irudia zeharo albo-atzea. Izan ere, zinezko leienda bihurtzerainoko nortasunaz karakterizaturik geratzeaz gainera, gure pertsonaiaren irudikapenak ez-ohiko ezaugarri nagusi bi erakusten ditu literatur tradizio horretan. Batetik, jakituriarena eta, bestetik, arimarik gabeko pertsonaiatzat agertzen duena.

Jakina den legez, Axular betidanik azaldu izan da herri literatura delakotan pertsona jakitun bezala, gutxienez *deabruarenaren pareko jakituria* zeukana (deabruak Salamancan bide zuen “leizean” ikasi omen zuen urdazubiarrak,

² “Zergatik ezdu Axularrek bere liburuan sorginkeriaz itzik ere aipatzen? -Bekatu aundi bat izanik eta orduko Euskalherrian asko edatua? -Nik uste dut eta bestek ere, *ixilegote horrek, ozenki adierazten duela agintari sukoi (!!) eta herritar gogor haien epai eta ikusmolde krudelekin, etzagoela batere ados*; eta emazteki ments, zorigaiztokoen aitorenpetan gutti sinesen zuela” (Irigaray 1974, 123-124; gurea da letrakera zeharra).

³ Nahiz eta, dena esateko, hazpandarrak berezko duen zuhurtziak “menturaz” eta “-ke”-dun adizkiekin idaztera bultzatu duen: “Zergatik ez dugu beraz hitzik aurkitzen ez politikari buruz ez sorginkeriari buruz *Gero*-ko 60 kapituluetan barna? Zergatik ote? Gai beroegiak hunkitzea ez zuen laket menturaz Axularrek. Predikari anitzek bezala, nahiago zukeen aski urrunetik eta inguruka bezala suiet horien tratatzea; eta pentsa zezakeen berak garbiki gaitzesten zituen etsaigoak eta hasarreak gaindituz sendatuko zirela gleraren eta sorginkeriaren ondorio kaltegarriak.

Ala amens baten beste arrazoirik ixiltasun horren gibeletik? [...] Ausartuko naiz Axularri galdetzera ez ote zituen gauza zenbait xilpean utzi, bera “*ondo baino hobeto*” bakean bizi beharrez? Ez ote ziren orduan ere, gaur bezala, zeruan eta geroan jartzen begiak, gaurko eta lurreko berriak eta bazterrek nahasiegiak eta larriegiak zirelarik?” (Xarriton 1997, 137).

amaieran deabrua baino azkarrago izatera iritsi zelarik). Eta hura bezain bildurgarria, inondik ere.

Jakituria lortze horren ordainketa gisara, eta tradizioak berak espresuki adierazten duenaren arabera, *arimarik eza* simbolizatzen duen itzalik gabeko pertsonalitate bihurtuko zen Axular, zinez jakitun eta deabruak baino azkarrago jokatzearan galdu baitzuen. Harrezkero, eta orduko testuinguru katoliko intrantsigentearen perspektiba ahaztu gabe, arima Jainkoaren graziagatik eta ezinbesteko zenean bakarrik itzultzen zitzaiola kontatzen du tradizioak, hau da, kotsakrazioaren unean. Uste izatekoa da sakrilegiorik gerta ez zedin gertatzen zela horrela, gero jendeak eukaristian jasoko zituen ostiak egiazkoak izan zitezen, eta ez bekatu larrienaren fruitu, hain zuzen.

Orobat, Axularren heriotzaz arduratzen den kontakizunak adierazi bezala, ez da zalantzarik arima ez izate horrek zerurako bidea eragozten ziola erretoreari eta horrexegatik planifikatu behar izan zuela bere heriotza (mezerdiko sagaratze orduan eta besteri aginduz eta betearaziz). Azken unean egindako bekatu larri baten bitartez, bada, nahiago izan bide zuen zerurantz —edo Azken Judizioko ekitaldirantz behintzat— abiatu, infernura kondenatzen zuen egoeran iraun baino. Saratartuaren jakituria erraldoiaren azken froga izan zen hau, Jaungoikoari berari jartzen baitzion egiazko proba: azken-azken unean Agindu Nagusiak berariaz hausten zituena salbatzeko ezintasun teorikoaren aurrean, kalbinismoak aldarrikatzen zuen sinesmen hutsaren bidezko salbazioaren doktrinaz baliatzea erabaki baitzuen Axular katolikoak praktikan. Baina teologiaren esku gera bedi infernuko bidea uzteko eta zerurako aukera izateko heriotzaren unean bertan bekatu larria egiten duen sineslearen arazoa!

Ipuinak ipuin, herri tradizioak transmititu duen irudia deabru eta sorginen ahalmen eta botereen gainera zegoen arimarik (kupidarik?) gabeko gizon jakitun, boteretsu eta bildurgarri⁴ batena da; inolaz ere ez santutasunarekin, errukiarekin, ulerkortasunarekin edota bertute kristauekin lotua.

Eta guztiarekin ere, erraz ikus daiteke egungo autoreek Axular irudikatzeke erabili axioma moduko premisa guztiz bestelakoa dela, hots, urdazubiarraren ustezko perfekzioan oinarritua: betegintzarre erlijiosoa, linguistikoa, literarioa, eta, ondorioz, ideologikoa, portaerazkoa, etab. Eta horrela,

⁴ Aspektu hau berau azpimarratzen du Lafittek kontatzen duen pasadizo erreala ere, Axularren *Gero* sorginkeriazko liburutzat harturik, gazte-gaztetik ohepean gordeta zuen olhetar gizon hil-hurranarenak hain zuzen (Lafitte 1956, 341).

pertsonaiaren profilaren balorazio orokorra ere ikuspuntu "ortodoxo" horretatik burutu da⁵.

3. Baina zer esan liteke gure esparru historiografikoan Axular "mi(s)tifikatzeko" egon den premia horretaz? Zeintzuk izan dira Axular arlo guztietan goraiapatua izateko beharrak? Zeintzuk urdazubiarra giza maila arrunt eta xumera jaisteko behaztopak?

Lehen begiradan bederen, balirudike gure literatura homologatzeko beharrarekin lotuta dagoela premia hori, gure literatura ere ondoko hizkuntzetakoetan dagoen urre garaiaren parekotzat irudikatu beharrarekin hain zuzen.

Horrela, literatur proiektu bateratu baten fruitu gisa aurkeztuko zen urte haietan euskalki bertsean idatzitako ekoizpena eta, XX. mendera arteko literatur urritasunak ikusirik -eta oraindik mende honetako 80ko literatur hazkundea susmatu ere egiten ez zenean-, "urre garaitzat" joko zen guztia Euskal Literaturaren Historian.

Kronologiari eta besteri muzin eginez, literatur "eskola" bat ere antzemango zuen historiografiak bertan eta, nola ez, proiektu-buru bat hautatzeko beharra ere azalduko. Premisa horiekin, egin zitekeen hautaketarik zuzenena izango zen Axular aukeratzearena, distiratsuen izan baitzen haren idatzizko ekoizpena⁶ inondik ere.

Horrek izan du ondoriorik, ordea, ezin baita ahantzi tradizio eta kultura katoliko kontrarreformistaren seme-alabak izan direla literatur historiografiaren inguruan jardun duten gehienak (apaizak zein laikoak). Horrelakoetan, eta oharkabean bada ere, oinarritzko identifikazio logikaren legea ohi da gizakiak irizkide-edo direnei akatsik gabekoago iriztea, ideologikoki urrun somatzen

⁵ Eta ez bakarrik literaturan; gurean ideologikoki erneago egon ohi den antropologia arloan ere kontrastatu gabeko aurriritzi horretaz baliatzera iritsi dira. Esparru horretan bide dabil, esate baterako, Axular "aquei comprensivo párroco" bezala edota Axularren etsai izango zen Harostegi "envidioso cura vasco"-tzat hartzen dituen autorea (Azurmendi 1995, 26).

⁶ Arrazoi anitzengatik gainera: Axularren hizkuntza ulergarria, zuzena eta naroa, haren obraren ustezko ezaugarriak (besteren baina teologia sakonagokoa eta akatsik gabea, argumentatzeko era aberatsa, originala, literarioa...), bere garaiko eta ondoko idazleen artean izandako prestigioa, bete zituen lanak eta euskal literaturan izan zuen presentzia (egun, testu "examinatzaile" buztintsu eta neutro moduan ikusia)... Eta ez zen gutxiestekoena obran bere nortasunaren (auto-)deskalkifikaziorako aztarnarik ez agertzea.

dituenei baino; errugabetasun presuntzioaren printzipioa bera ere aiseago onesten bide die halakotzat dituenei, hurko ez direnei baino. Jakina, horri guztiari denboraren sakontasunetan galtzen direnak ezaugarri identifikatzaile bakan bat(zu)en inguruan eskematizatzeke giza-joera eransten bazaio, burutua geratzen da pertsonaiaren estereotipatze positiboaren zirriborroa. Gero, premien arabera, "mitifikazioa" suerta daiteke hurrengo urratsa, protagonistaren irudia handiago bihur dadin, susmo txar guztiak ezabatzetik etor litekeena.

Axularren kasuan, haren etengabeko presentzia literarioak, haren ospeak, haren obra mardulak, hizkuntza joriak..., guztiak, azken batean, "beharrezkoa" zen autore "orokorra", "erabatekoa" bezala perfiletzera eramango zuen. Eta, halabeharrez, Axularrek erakuts zitzakeen alderdi ilunak eta garai doilor haietako egoeran izan zitzakeen inplikazioen susmoak berak ere isildurik geratu ziren. Erdi santifikaturik, bada!

Kanonizatze espedienteetan, dena den, ezinbestekoa omen da deabruaren abokatuak ere hitza har dezan eta zinezko etsai gisa ari dadin, horrela eginez gero, aurkaritzat jotzen duena benetan goraturik geratuko delako edo, merezi izan ezean, dagokion lur lauan. Eta abokatu horien ohitura da euren diskurtsoa datu erreal eta kontrastagarrietan oinarritzea.

4. Axularren bizitza gutxi dokumentatuari emandako lehen begiratuak, esaterako, haren pragmatismo goiztiarraren aztarnak uzten ditu agerian.

Ezaguna da, aita gabe geratzean, ahaideek (famiaren interes desinteresatua, alajaina!) ahalegin berezia burutu behar izan zutela apaiz ikasketak amaitzitan, amak ikasketok eginarazi bazizkion ere⁷, ez bide zioten ondasunik utzi⁸. Horretarako, 1595ean Elizondoko dozena bat ahaide elkartu ziren eta irin-errota bateko hamar zati eman zizkieten ondasun gisa erabil zitzaizkien. Geratu dokumentazioa Axularren lege-abileziaz mintzo zaigu, ez alferrik jarri

⁷ "[...] María de Azpilcueta, viuda, vecina del dicho lugar, la cual dijo que ella tiene un hijo legítimo y natural, llamado Pedro de Axular, a quien le ha hecho estudiar en la Universidad de Salamanca, con ánimo de ordenarse de sacras órdenes y que celebre y diga Misa [...]" (Aguirre 1980, 419).

⁸ "[...] dijeron que ellos tenían un pariente y amigo llamado Pedro de Axular, estudiante, natural de la granja de Urdax, que al presente reside en la Universidad de Salamanca oyendo Theologia y desean sea sacerdote y para ello ordenado de sacras órdenes y es huérfano, que sus padres no le dejaron patrimonio [...]" (Irigaray - Aguirre 1978, 489).

baitzuen amaren izenean ahaideek bere izenean jarritako bolua, gero -hurrengo egunean bertan- amak patrimonio gisa eskaini ziezaion berriro semeari (ik. Aguirre Gaztambide 1980).

Horretan erakutsi pragmatismo eta trebetasun berberarekin, Axularrek berehala burutu zuen "lasterketa" -zinez!- eklesiastikoa. Gazteago edo zaharragoa (adinarena oraindik ilun dagoen puntua baita), kontua da 1595eko irailaren 23an, Teologian batxilergoa eskuratu bezain azkar beraz, subdiakono ordenatu zutela Iruñean. Hurrengo urtean, berriz, diakonatua eta apaizgoa eskuratuko zituen, bakoitza toki batean gainera, lehena Leridan 1596ko ekainaren 8an, horretarako baimena Iruñean maiatzaren 13an eman ziotelarik. Apaizgoa, berriz, Aturbeko gotzaiaren eskutik urte bereko irailaren 21ean (baimena Baionako katedraleko Bertrand Hiriart-ek eman zion).

Gorago esandakoarekin bat eginik, subdiakonatu jasotzean "ad titulum patrimonii" eskuratu zuen ordena, ahaideek utzi zioten ondasunaz baliatuz.

Baina hori guztia urdazubiarraren egoera eta izaera ezagutzen hasteko gutxi izango balitz ere, handik hona ibiltzeko erakutsi zuen erraztasunak berak badirudi haren egoera ekonomikoaren isla eskaintzen duela, gutxi batzuk baino ezin ordain baitzitzaketen hain denbora gutxian egindako bidaiak eta egoitzak: Salamancatik Iruñeara, Iruñeatik Leridara (joan-etorria), Iruñeatik Baionara, Baionatik Aturbera (joan-etorria), etab.

Esan dezagun bidenabar Axularrek ez zuela lehen pausuk eskaini zizkion ordenan jarraitzeko gogorik azaldu. Ez dakigu zehatz noiz eta zergatik izan zen, baina pentsatzekoa da Felipe II.aren agindupean ordena premontretarrak jasan zituen jazarpenak eta desmantelamenduak⁹ izango zutela eraginik gure autorearen "desertzioan" eta ondoko bokazio ipartarrean, hots, etxetik hurbil baina muga politikoaz haraindi aritzeko sartu zitzaion bokazioan. Are gehiago: gaztelera frantsesa baino aiseago zekiela eta zerabilela zioen hipotesia

⁹ Espainiar premontretarren krisialdia 1568aren inguruan sortu zen, ordena zeharo deuseztea proposatu zutenean eta, gora-behera zenbaitekin, 1600erarte iraungo zuen. Premontreren eraginetik at geratzean. Jakina, aukera edo mauka erlijiosoaz gainera (Felipe II.aren iritzi interesatuegiaren arabera, "pocos frailes", "son todos idiotas, sin letras ni doctrina... Y allende de ser idiotas, son en las costumbres muy distraídos y de muy mal ejemplo, pues ni guardan clausura ni tienen modo ni forma de orden ni observancia alguna") (apud Goñi Gaztambide 1960, 14-15), horrek arriskuan uzten zituen monasterio eta kide guztien ondasunak (kalizak, bitxiak, gurutzeak...). Jeronimotarren erasoaren aurrean Urdazubiko monasterioak erresistentzia handia erakutsi arren, laster onartu zuen haien menpeko bihurtzea, erregearen ordena hautatua ziren heinean botere guztiak erabiltzeko ahalmena baitzuten jeronimotarrek, eliztarrak barne: eskomikatzekoa, zigortzekoa, askatzekoa...

aintzat hartzen bada ere (Urquijo 1912b, 7), bizitza ziurtatzeko eta hobetzeko pragmatismoa da iparralderatu berriak berriro erakusten duena.

Iparaldeko predikari gisa hasi zenean ere toki aberats eta populatuenetako bat egokitu zitzaion. Kasualitatez nonbait.

5. Lanbide berriak ere izan zuen irakaspen lasterrik, berehalakoan ohartu baitzen Axular bere dohai, ahalmen eta "hazteko" trebetasunez.

Eta gogotik heldu bide zion lanari, hain gogotik eta sutsuki ezen bost urte iragan baino lehenago Frantziako erregearen adiskidetasuna erdiestera iritsi baitzen¹⁰, hurrengo lerroetan adieraziko den bezala. Erantsi baino ez urdazu-biarrak orduan zuen egoitzaren lekukotasuna Henrike IV.aren beraren esku-tik heldu zaigula:

"il y a environ cinq ans qu'il (Axular, hain zuzen) est résidant en France au bourg de Saint Jehan de Luz au bailliage de Labourt" (apud Urquijo 1911, 554).

Noski, hipotesi modura bada ere, zinez pentsa daiteke mendebaldean zegoen predikari egokien eskasia areagotu egin zela erlijio katolikoarekin kontrakarra planteatu zen tokietan. Ipar Euskal Herria konfrontazio-gune berezia izan zen heinean (erlijio gatazken estalpean gizarte eta politika arazo larriak), predikariak ere mailakoak behar zuten izan, egoera garbitzeko eta "zuritzeko" modukoak hain zuzen.

Susmatzekoa da Axular Donibane Lohizunen eta Saran -bigarren hau istilu-gunearen paradigma- aurkitu izanak edukiko zuela nolabaiteko loturarik toki haietarako predikaririk onenak (jakituria eta euskalkiagatik, behinik behin) eta antzetsuenak behar izatearekin ere.

¹⁰ Harrigarri samarra lagunak aukeratu beharko zituzkeen Axular bezalako katoliko baten aldetik, dena den. Ez da ahaztu behar Henrike IV.aren adiurra zinez politikoa zela, erlijioa bera politikoki erabiltzeko damurik eskaintzen ez ziona. Adibidetzat, beti nabarmendu izan da haren "konbertsioa", "Paris bien vaut une messe" formularen oinarritu zena. Horrezaz gain, kalbinismotik katolizismora erakarri zuen barne-konbikzio hura, urte gutxiren buruan, eta ordurako Axularren menpeko ziren lurraldeetan hain zuzen, katolizismo integrista eta ezin bortitzago bilakatuko zen, haren aginduz etorritako Pierre Rostegi jaunak egindakoak ezin hobeto erakusten duen bezala.

Kontua da predikaria zen bitartean Axularri beste perspektiba batzuk ireki zitzaizkiola¹¹ eta Sara beretzat hautatzeko (irakur bedi “negoziatzeko”) parada egokitu; eta aukeratzekoan, bazekiela erdietsiko zuela, besteak beste, horretarako baitzeuzkan lagunak eta adiskideak eremu erlijiosoan eta politikoa.

6. Ez da aro honetako gutun asko, tamalez. Halere, dauden gutxitxoek aski garbi erakusten dute Axular garai hartako gizartearen gogokoa zela betebetea, gizarte kultu eta “ondo pentsatu”-aren gogokoa, behinik behin.

Eta pentsatzekoa da gogoko izate hori ez zela haren urrezko mihiagatik bakarrik sortua, ideologikoki eta doktrina mailan defendatzen zuenagatik baidetik, ezaguna baita monarkiaren eta hierarkia eklesiastikoaren, bi-bien gustuko mezua ongiro predikatua denean askoz ere baloratuagoa ohi dela. Eta, ondorioz, eskertuagoa ere bai.

Ildo horretatik, Frantziako eta Nafarroako erregea zen Henrike IV.aren hitzek ez dute zalantzarik uzten:

Il nous a esté remonstré de la part de *notre cher et bien aimé Pierre d'Achular* pbre gradué den Thèologie, natif du lieu d'Urdach de notre royaume de la Haulte Navarre, qu'il y a environ cinq ans qu'il est résident en France au bourg de Saint Jehan de Luz au bailliage de Labourt, où durant led. temps il a presché la parole de Dieu *au gré et contentement de l'evesque et gens de bien dud. pays* [...] (Urquijo 1911, 554 or.; gurea da letrakera etzana).

Antzematen denez, ez dirudi gutxi denik lerro hauetan adierazten dena. Batetik, Henrike IV.ak berak egiten duen aitorpenean ezin hobeto ikusten da Axularrek erregearengan lortu zuen hurbiltasun afektiboa (“*notre cher et bien aimé*”), erregeak urdazubiarraren arerio gisa agertuko zen Harostegi apaiza tratatzeko hoztasunarekin biziki kontrastatzen duena hain zuzen¹².

¹¹ Lahetjusan apaizak zioenez, “Il prechoit le matin à S. Jean de Luz et le soir à Sare les fêtes et dimanches, à l'exemple de son predecesseur qui avoit été pareillement curé de S. Jean de Luz et de Sare. Comme il faisait après vêpres, à son ordinaire, une homilie sur le bon Pasteur, une femme lui cria du milieu de l'auditoire, jauna, arçain onac ardiac goyçetic alhaçen tu.

- Hemendic harat nic ere nereac hala eguinen ditinat.

Effectivement, il renonça à la curé de S. Jean en faveur du Cadet d'Urtubie son competeur” (ik. Azkue 1925, 61).

¹² Mespretxu-puntua falta ez duen hoztasuna seguraski: “Mais après avoir joui d'icellui quelque temps, Mr. Jehan de Harosteguy pbtre natif dud. bourg de Saint Jehan de Luz, *de gaieté de coeur et sans aucun fondament que* celluy qu'il objecte [...]” (Urquijo 1911, 554. or.; letra zeharrak gureak dira).

Bestetik, Axularren arrakasta-maila nabarmentzen da lerrootan, espreski aipatzen baita bertako gotzaiak eta jende zintzoak begi onez ikusten zutela ordura arte Donibane Lohizuneko predikari izandako urdazubiarra¹³.

Gotzaia, jakina, Baionako gotzaia zen, Etxauzko Bertrand, Henrikek berak izendatua zuena (1598) eta Axularren alde horrenbeste egin zuena.

Agerikoak dira urdazubiarrak Etxauzekin izan zuen adiskidetasuna eta honek garai hartako agintariekin izan zituen lotura politiko-erlijiosoak eta familiarrak¹⁴. Eta behar bezala argitu ez bazuen ere, omenaldi hutsa baino gehiago zirudien gero saratartuak bere "Gomendiozco carta"-n adiskideari aitortu zionak: "[...] neure obligacino handiec, *ontasun errecebituec*, eta bethi ere, *ene alderacotçat, obrequin batean, eracutsi duçun vorondate vorondate-tsuac*" (Gero, 4 or.; gurea da nabarmendutako letrakera).

Dakigunagatik, beraz, hasiera-hasieratik irabazi zuen Axularrek aginte faktiko guztien faborea, lau urte eskas besterik ez baitzuen behar izan apaiz ordenatu zutenetik Sara bezalako herri handi eta aberats bateko erretore bihurtu arte, "un ascenso meteórico, sin duda" (Altuna 1996, 188).

¹³ Jakina, nahiz eta elizarekiko eta monarkiarekiko "zintzoa" zen jendearentzat Axular gogoko gertatzea halako premisetatik berez sortzen zen ondorio hutsa baino ez izan, pentsatzekoa da Axularren nortasunak eta, batik bat, haren "urrezko mihiak" berak ere ez zutela horretan gutxi lagunduko

Gaur egun ere bizirik dirau euskara teknikoaren egokitasunaren inguruko eztabaidak, eta kritika latzak jasaten dituzte askotan euskara beren jardueran erabiltzen duten zientzialariek edota terminologiaz ari direnek. Sarasolak (1997a, b) zientzialariek erabiltzen duten euskara “narrasa” eta “*chicano* moduko bat dirudiena” dela idatzi du. Areago, honelako testuak euskararen normalizazioaren alde edo aurka egiten ote duten zalantza egiteraino heldu da (Sarasola, 1997b): « ...honelako testuak laguntzen ari al dira, ala traba ari dira gertatzen “euskara lantzeko, gure hizkuntza egoera normaltzeko” lanean? Nik egia esan dudak ditut...».

Zalantzarik ez dago euskara inguruko hizkuntzekiko ukipenean bizi dela eta, gainera, ukitze horretan euskara dela hizkuntza menderatua eta frantsesa,

gatzelania eta, beste maila batean, ingelesa bezalako hizkuntza handi eta bote-
retsua direla hizkuntza menderatzaileak. Hain zuzen ere honek ekarri du
euskararengan hizkuntzen mailakako heriotzaren⁶ adierazletzat har litezkeen
zenbait ezaugarri egotea⁷. Aztertzen ari garenarekin lotuta dagoen sintomarik
aipagarriena da ukipenean dauden hizkuntzen erabilera esparruka banatzea:
hizkuntza menderatua famili harremanak, erlijioa eta nekazarien mundua
bezalako betiko esparruetarako uzten da eta hizkuntza menderatzailea era-
biltzen da 'modernitatearekin' zerikusia duten teknologia eta zientzia bezala-
ko esparruetarako⁸, hiztunak hizkuntza txikia esparru horietarako erabiltezi-
na dela sinisterra heltzen diren arte.

Hortaz, euskara zientzia eta teknikaren esparruetan erabili dutenen lana
ezin izan daiteke inola ere "traba" euskara landu edota normaltzeko: esparru

⁶ Elorduik (1995) hizkuntzen heriotzari buruz mintzatu zaigu bere doktoretza-tesi bikainean eta lau heriotza mota bereizi ditu: a) bat-batekoa b) errotikakoa c) behetik gorakoa eta d) mailakakoa. Lehenengoa, hizkuntza baten hiztun guztiak erailtzen direnean gertatzen da, hau da, genozidio bat gertatzen denean. Bigarrena, antzeko gogorkeria-egoeretan gertatzen da: zenbait hiztunek bizirik irauten badute ere, haien hizkuntza erabiltzeak ekar diezaikeen arriskua dela eta, ama hizkuntza erabiltzeari uzten diote. Behetik gorako hizkuntz heriotza gertatzen da hizkuntza bat goi-mailako hizkuntzaren erabileretarako edo erritualetarako bakarrik erabiltzen denean; hauxe da, hain zuzen, latinaren kasua. Azkenik, mailakako hizkuntz heriotza dugu hizkuntza menderatzaile batek hizkuntza menderatu bat mailaka ordezkatzen duenean, hizkuntza menderatuaren betebeharrak erabat bereganatu arte.

⁷ Ikus Oñederra (1992) eta Oñederra eta Elordui (1992). Bestalde, ukipenaren eraginak hizkuntzaren maila desberdinetan kokatzeko eta hizkuntzaren funtzionamendu orokorrean gertatzen diren eraginaren ebaluaziorako, ikus Odriozola eta Azkarate (1997).

⁸ Elorduik (1995) hizkuntzen desagertzearen eragile soziolinguistiko nagusizat hartzen ditu mendekotasun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala. Benetako bortxakeriatik at, ukipenean dauden hizkuntzei balioztatze politiko ezberdina ematea bera izan daiteke bazterturi-ko hizkuntzak desagertzeko nahikoa arrazoi. Bigarrenik, goi-mailako jendeak erabiltzen dituen hizkuntzak dira eredu modura ezartzen direnak eta hizkuntza txikiak lan-munduan baliogabe bihurtzen direlarik, 'modernitatearekin' zerikusirik ez duten esparruetara mugaturik geratzen dira (nekazarien gizartea, erlijioa, maila pribatua). Hizkuntza handiak dira aro modernoarekin batera etorri diren teknologiaz, medikuntzaz, zientziaz, eta abarrez mintzatzeko erabilgarri diren bakarrak. Azkenik, mendekotasun kulturalari dagokionez, aipatu beharrekoa da hizkuntza txikiek testu idatzirik edota literaturarik ez izateak ezinez-koa egiten duela hizkuntzen iraupena eta, jakina, eskolan hizkuntza menderatzailea erabiltzeak erabateko garrantzia du hizkuntza menderatuaren galtzean, horrelako heziketa jaso duten hiztunek, idazteko, irakurtzeko eta oro har kultur eginkizunetarako askoz ere hobeto menderatzen baitute hizkuntza handia txikia baino. Azkenean, hizkuntza txikia bizitza modernoaren esparruetarako erabilgarria ez dela pentsatzera heltzen dira hiztunak eta hizkuntza menderatzaileaz baliatzen dira. Elorduik azpimarratu duenez, «...Orobat, prestigio eta erabilgarritasun faltak hizkuntz komunitate terminalen ezaugarri soziolinguistiko nagusiak diren erabilerarik eza eta transmisio linguistikorik eza eragiten ditu...».

hautako euskara garatzeko egin diren saioek berebiziko garrantzia dute euskararen garapenerako eta iraupenerako ere, baina gainera, esparru bakoitzeko zientzialariak edo teknikariak dira esparru horretako euskara gara dezaketen bakarrak. Hau oso garbi islatu zuen Etxebarriak (1972) *Anaitasuna* aldizkarian hauxe idatzi zuenean: «[...] Euskararen beharra sentitzen dugunok euskararen balioaz arduratzen gara, eta euskara erabilgarri bihurtu nahi dugu. Eta hau jakintzaren arlo guztietan lortu gura dugu [...] nortzuk dira euskara teknikoaren problema konpontzen saiatu behar dutenak? Bistan da ez dela nahikoa euskara menperatzea, gai tekniko eta zientifikoak ere menperatu behar baitira [...] Bigarrenik, zein izanen litzateke bidea? [...] Nork bere arloan, edo berak ondoren erabiltzen dituen gaietan, euskaraz presta ditzake bere lantxoak...»

Hizkuntzalariek lagun dezakete sortuz doan euskara teknikoa aztertuz eta beren hizkuntz ezaugarriak deskribatuz eta, halaber, literatur erabilera eta erabilera komuna aztertuz. Zientzialariei eta oro har hizkuntzaren erabiltzaileei bide berriak jorratzea errazago egingo dieten baliabideak eskainiko dizkiete horrela. Euskara teknikoaren inguruko azterketek testuak behar dituzte, ordea, eta hizkuntzalarien edozein argibide, proposamen edo kritikak ez du ezertarako balio kontuan hartzen duen zientzialaririk ez badago⁹. Hortaz, elkarlana behar da ezinbestean esparru hau jorratzeko. Euskal testu tekniko-zientifikoek ez dute oraindik lortu lauzpabost mendeko atzerapena gainditzea, baina hau ez da harritzekoa. Zalantzarik ez dago, ordea, testu horiek nabariki hobetuz doazela euskara batuaren bestelako erabilerekin batera.

Hizkuntzaren fonologian, morfologian edo sintaxian gertatzen den edozein aldaketak egon eza sortzen du hizkuntzalariengan eta oro har hiztun kontzientziadunengan. Edonola, ezaguna da edozein hizkuntza osasuntsutan ohikoak direla aldaketak eta aldaketa horiek askotan ez direla interferentziak edo indar ahulgarriek eragindakoak. Bestetik, badira hizkuntzen arteko ukipenaren ondorio zuzenak diren aldaketak, transmisioa ziurtaturik duten eta irauteko inolako arazorik ez duten hizkuntzetan ere. Azkenik, badira heriotza prozesu baten urratsak diren aldaketa (ahulgarria)k, batzuk hizkuntzaren barnekoak eta beste batzuk interferentziak eragindakoak. Edonola, Elorduik (1995) azpimarratu duenez, ikertzaile zenbaitek ohartarazi gaituzte zail samarra gertatzen dela askotan aipaturiko hiru mota horietako aldaketak bereiztea. Edozein aldaketa ez dugu a priori ahulgarritzat hartu behar; izan ere, aldaketa batzuek funtzio jakin bat dukete euskara garai berrietara egokitze saioetan eta ahulgarriak baino indargarriak dirateke orduan. Ezaugarri soziolin-

⁹ Izan ere, gauza bera esan daiteke hizkuntzaren edozein mailari buruz; gramatikek, hiztegiek eta arau-emailek ezin dute hizkuntzaren iraupena ziurtatu, erabiltzaileek ez badago.

guistikoek gakoa eman diezagukete batzuetan: gero eta gehiago dira zientziaz edo teknologiaz ari diren euskaldunak beren esparruetan euskara erabiltzea erabaki dutenak. Honek eragile indartzailea izan behar du zalantzarik gabe, galtze prozesuetan gertatzen den erabileraren murriztearen eta goi-mailako eremuetan ez erabiltzearen alderantzizkoa baita.

Areago, euskara tekniko-zientifikoaren erabilera berezituak jorratzen ari diren zientzialari hauek bereziki garatua dute hizkuntz kontzientzia eta bide-rik egokiena aurkitzen eta arrazoitzen saiatzen dira. Jokaera hau gaizki onartzen dute askotan hizkuntzalariek, intrusismotzat hartzen baitute. Edonola, soziolinguistikaren ikuspuntutik hizkuntzaren aldeko indartzailetzat har genezake hau ere. Izan ere, hizkuntza ahulduen ezaugarri nabarmenetako bat da arau bateraturik gabeko aldakortasuna (Elordui, 1995): «[...] hitzun-osoek beraiek erabilitako formen eta hitzun-erdiak eraturikoen artean ezberdintasunak somatzen dituzten arren, ez dituzte azken hauek erabilitakoak gaitzesten [...] hitzunak hizkuntza txikian ez-ikasiak izateak azaltzen du hein handi batean hitzunok beren hizkeran dagoen aldakortasunaz ez ohartzeko arrazoia...». Euskara tekniko-zientifikoan erabilitako hizkuntz baliabideen inguruan eten-gabeko eztabaida dago eta hori oso urrun dago inolako hizkuntz irizpiderik ez izatetik. Barruko eztabaidetatik at, zientzialariak oro har irekita daude hizkuntzalarien oharrek entzuteko eta beren testuak horien arabera egokitzeo. Areago, argibideen eske dabilta hainbat kontutan.

Baina zein izan daiteke hizkuntzalarien ekarpena? Hizkuntzalarien egin-kizuna ezin izan daiteke esparru guztietako testu tekniko-zientifikoak idaztea, gehienez ere, lan egiten duen hizkuntzalaritzaren esparruko euskara lan dezake bakoitzak. Ekarpenean, hizkuntzalaritzaren esparruak lantzetik etorriko da, jakina. Zalantzarik ez dago euskarak orain arte landu ez diren esparruetara hedatzeko aldatu egin behar duela. Hortaz, hizkuntzen aldaketen nondik norakoak ulertzea funtsezkoa da gertatuz doazen aldaketak ebaluatu ahal izateko¹⁰. Filologia ere funtsezkoa zaigu euskarak mendeetan zehar garatu dituen baliabideak ezagutzeko eta orain arte gertatu diren aldaketen noranzkoa fin-katzeko. Edonola, Filologia idatzitako testu jakin batzuetan oinarritzen da eta, beraz, garai batean hizkuntzak onartzen zituen bideen berri ematen digu; ez digu, ordea, ezinezkoak ziren erabileren berri ematen. Hau da, testuetan mota bateko eraikuntzarik ez agertzeak ez du ezinbestean esan nahi testua idatzi zen garaiko hitzuntzat erabilera hori ezinezkoa zenik eta hilda dauden hitzunek

¹⁰ Elordui (1995) azpimarratu duenez, «...hizkuntz heriotzaren ikerketak aldaketa linguistiko orokorra ulertzeko ukaezinezko erabilgarritasuna izateaz landara, hizkuntzen jokaera sinkronikoa ulertzeko hainbat eta hainbat datu agerraraz ditzake...».

nekez emango digute gramatikaltasun-iritzirik. Zehazkiago euskara tekniko-zientifikoari dagokionez, are zailagoa da kontua: era honetako testu bakan batzuk baino ez daudelarik, zaila gerta dakiguke batzuetan mota bateko hitz, esapide edo egiturarik ez egotea hiztunentzat onartezina izatearen edota esku artean ditugun testuen tipologiaren ondorio ote den. Filologiak aldaketez ohartzen laguntzen digu, baina aldaketa horien artean bereizi beharrekoak dira hizkuntzaren esparru berrietara egokitzeko beharrak azaltzen dituenak eta egokitze horretan lagundu beharrean oztopo gertatzen direnak. Aldaketa berezkoa du hizkuntzak eta aldaketek ez dute ezinbestean ahulgarriak izan behar.

Gramatika Sortzailea bezalako ikerkuntza-ildoak Filologiaren osagarriak izan daitezke: hiztunek jaiotzetik duten hizkuntz ahalmena deskribatzea da helburua eta abiapuntua, hiztunak sor ditzakeen infinitu esaldiak auresaten dituen sistema eraikitzea. Sistema horrek ezinezkoak diren esaldiak ere aurre-sateko gai izan behar du. Orain arte egon ez den hizkuntzaren erabilera batean ezinbestean egon behar dute orain arte sortu ez diren esaldiek eta hiztunon gaur eguneko hizkuntz ahalmena ezagutzea lagungarria izan daiteke esaldi horiek sortzeko edo epaitzeko orduan. Edonola, arreta bereziaz jokatu behar dugu esparru honetan ere, hizkuntzalarion tentazioa baita askotan gure analititik ateratzen ditugun ondorioak hiztunen intuizioaren gainean ezartzea: gure analititik ateratzen diren ondorioak hiztunek egiten dutenarekin bat ez datozenean gure analisia da egokitu beharrekoa, ez hiztunak.

Testuaren gramatikari buruzko lanen ekarpena ere funtsezkoa da euskara tekniko-zientifikorako, testu moten deskribapena eskaini eta horietako bakoitzean osagaiak elkarren artean uztartzeko eta koherentzia emateko era-biltzen ditugun baliabideen berri ematen baitigu¹¹. Askotan entzun dugu egungo euskal testu asko, gramatikaltasunaren eta estandarizazioaren aldetik zuzenak izanik ere, traketsak direla. Arazoak neurri handian testu horien erai-kuntzatik bertatik datoz, baina hizkuntzalarien lanak ezegokitasun hori sala-tzetik harantzago joan behar du: ongi eraturiko testuen eta gaizki eraturitakoen artean dauden ezberdintasunak objektibatzen dituzten azterketak behar dira, ezegokitasunak zuzenduko baditugu.

Edonola, zientzialariei ezin eska dakieke beren esparruko gaiez ikertzeaz eta euskararako bide berriak urratzeaz gain, hizkuntzalaritzaren esparru desberdinetan gertatzen diren aurrerapenen berri izan dezaten, haien jardueran kontuan hartu ahal izateko. Ezinbestekoa da hizkuntzalarien eta zientzialarien

¹¹ Euskarari dagokionez, aipatu beharrekoa da Larringanen (1995) doktoretza-tesi argigarrria. Ikus baita Makazaga (1996) eta Zabala (1996b) ere.

arteko zubi gisa diharduen hizkuntzalaritza aplikatua: hizkuntzalaritzaren arlo desberdinetan gertatzen diren aurrerapenek hizkuntzaren erabilera berezitetan izan dezaketen erabilgarritasuna aztertu behar da eta zientzialariei beren eguneroko jardueran baliagarri gerta dakizkiekeen baliabideak proposatu. Esparru honetan ari diren hizkuntzalariek zientzia eta teknikarako hizkuntzaren erabileraren hizkuntz berezitasunak aztertu behar dituzte eta zientzialariekiko elkarlana ere ezinbestekoa dute: batetik, zientzialarien beharrak ezagutu behar dituzte eta, bestetik, hizkuntzalaritzaren esparru desberdinetako datuak aztertuz lortzen dituzten ondorioak zientzialariei helarazten jakin behar dute emankorrak izango badira¹². Azpimarratu beharrekoa da hizkuntzaren erabilera kolokiala eta komuna ia konturatu gabe ikasten ditugula hiztunok, baina erabilera berezituak, aldiz, motibapen eta ikasketa kontzientea eskatzen dutela (ikus Gutiérrez Rodilla, 1998). Hizkuntzalaritza aplikatuaren esparruan sar daiteke terminologia, hizkuntza tekniko-zientifikorako funtsezkoa dena. Terminologia soziolinguistika, morfologia, fonologia, hiztegegintza eta informatika bezalako jakintza-esparruez baliatzen da terminoak sortu, aztertu eta finkatzeko eginkizunetan.

HIZKUNTZAREN ZIENTZIA ETA TEKNIKARAKO ERABILERAREN BEREZITASUNAK

Euskara tekniko-zientifikoaz ari garelarik, euskararen erabilera berezituaz ari gara, zenbait alderditan behintzat erabilera komuna ez bezalakoa dena. Gainera, aldaera idatziaz eta zainduaz ari gara batez ere. Hizkuntza berezituaren artean ere hainbat erabilera egon daitezke, esate baterako, gai baten adituek hizkuntza berezitu mintzatua eta zaindu gabea ere erabil dezakete beren artean¹³. Edonola, hizkuntzalariek aztertu ohi dutena erabilera berezitu idatzi eta zaindua izan ohi da¹⁴.

¹² Euskara Teknikoa izeneko gaien irakasleak dira, beste batzuen artean, profesional egokiak mota honetako eginkizunak aurrera eramateko, hizkuntzalaritzarekin eta euskara tekniko-zientifikoarekin lan egiten baitute. Hizkuntzalaritza aplikatuak hizkuntzalaritza teorikoaren ekarpenak ere kontuan hartu behar ditu eta haren eginkizuna neurri handian erabiltzaileri zuzenduta badago ere, ateratzen dituen ondorioek 'erkagarriak' izan behar dute, hizkuntzalarien bermea edota kritika jaso ahal izateko .

¹³ Ikus, esate baterako, Cabré (1993) eta Gutiérrez Rodilla (1998).

¹⁴ Euskararen kasuan nekez azter dezakegu bestelako erabilerarik, oso mugatuak baitira oraindik. Hona hemen Zalbidek (1993) kontu honen inguruan esaten diguna: «...Kodeztatze-lanari dagokionez normaltasun batera hurbiltzen ari da euskal teknolekto

Aldaera komuna, hizkuntza baten hiztun gehienen hizkuntz ezagutza osatzen duten arau, unitate eta murriztapenen multzoa da, hizkuntza osoaren azpimultzo bat baino ez dena. Zientzia eta teknikarako erabiltzen diren aldaera berezituak, aldiz, erabilera komunaren kodearekin hainbat alderditan bat datozen, baina beste alderdi batzuetan erabilera komun horretatik urruntzen diren azpikodeak dira. Urruntze hori jakintza-esparru bakoitzaren berezitasunei zor zaie. Hizkuntza osoa erabilera guztien bilkura da; erabilera desberdinei dagozkien hizkuntzaren azpimultzoak elkarren artean gainezarrita daude eta azpimultzo guztiek elkarren artean duten lotura hizkuntza komuna da¹⁵. Erabilera komuna funtsezkoa da hizkuntzek bizirik irauteko: batetik, idatziaren errotzea eta hiztunen alfabetatzea eta, bestetik, gramatika eta oinarriko hiztegiaren finkapena. Hizkuntzaren zientzia eta teknikarako erabile-
rak eta hizkuntza komuna gainezarrita daude zati handi batean, baina erabile-
ra berezitu bakoitzak berezko aldea ere badu.

a) Hizkera komunak eta hizkera tekniko-zientifikoek duten gainezarrita-
ko eremu horretan, ezinbestean estandarrak izan behar duten fonologia, orto-
grafia eta morfologia flexiboa ditugu. Sintaxiari eta, oro har, testu-gramatikari
dagokienez, erabilera komunean posible edota gramatikal diren esapide eta
eraikuntza guztien artean zenbait aukera egiten ditu erabilera tekniko-zienti-
fikoak, zehatza, neutroa eta inpersonala izateko helburua dela eta. Testu tek-
niko-zientifikoaren ezaugarriak aipagarriena ohiko logika batetik abiatutako
koherentzia da: helburua ez da irakurlea harritzea edo testu anbiguo baten
aukera guztien funtzio estetikoaz aztertzea bultzatzea; igoerak adierazi nahi
duenaren eta hartzaileak jasotzen duen informazioaren arteko distantzia mini-
moa izatea da helburua. Honek eragina du testuaren antolakuntzan berean:
gaia laburtzen duten izenburu luzeak, testua irakurtzen hasi aurretik horri
ekiteko prestatzen gaituzten laburpenak, ideiak antolatzen dituzten atal,

hori. Ez da, ordea, gauza bera gertatzen hizkuntz aldaera horren egungo erabilera definitzen
duten parametro soziolinguistikoekin... Eskolatik kanpora ia erabiltzailerik ez duen jakintza-
hizkera ez da hasteko egoera "normalean" dagoen jakintza-hizkera [...] Ez da "normala"
teknolekto hori maizenik erabiltzen dutenak, irakasleak eta liburu-prestatzaileak, beren
gastaroko eskolaketaz eta formazioz gai horiek ia beti erdaraz ikasiak izatea...».

Egoera honen argigarri mailakako hizkuntz heriotzaren eragileetako bat den mendekotasun
kulturalaren ondorioak ditugu (Elordui, 1995): hizkuntza menderatua eskolan ez erabiltze-
ak ekartzen du hiztunak haien jardura profesionalerako ama hizkuntza erabiltzeko gai ez
izatea, hizkuntza hori esparru batzuetara zokoratua izatea eta azkenik erabilera berezitu-
tarako garatua ez izatea. Euskararen erabilera berezituak eskolan berreskuratzea ezinbeste-
ko baldintza da etorkizuneko hiztunek beren burua gai ikus dezaten euskara beren lan-esp-
arruetan erabiltzeko eta beraz, esparru horretako euskara gara dezaten.

¹⁵ Honen inguruan argibide gehiago nahi duenak Cabré-ren (1993) lana ikus dezake.

azpiatal eta paragrafoak eta idazleak egindako lotura logikoak garbi ikusten laguntzen diguten testu-antolatzaile ugari.

Ezaguna da euskarak perpausen osagaiak era askotara antolatzea onartzen duela, baina testu tekniko-zientifikoetan perpausen osagaien hurrenkera ere anbiguotasun txikiena dakarrena izan ohi da: testu-antolatzaileak kokagunerik kanonikoenetan erabili ohi dira, harreman logikoak ezartzeko edo osagaiak nabarmentzeko eginkizuna ahal den eta egokien bete dezaten¹⁶; gai-aldaketa bat gertatzen den bakoitzean aldaketa horren berri ematen duen mintzagaia ezarri ohi da perpausaren hasieran, une oro jorratzen ari garen gaia begi bistan izan dezagun¹⁷. Aditza informaziorik garrantzitsuenaren (ezkerrean doanaren) eta bigarren mailako informazioaren (eskuinaldean doanaren) artean kokatzen da askotan irakurlea funtsezkoenetik azalekoenera joan dadin.

Hizkuntza komunak dituen aditz-paradigmatetik pertsona jakin batzuen adizkiak baino ez dira erabiltzen, batez ere testu idatziak eta inperzonalak direlako. Aldiz, modalitateari dagokionean, neutroa izateko helburuak hizkuntza komunean neutralizazio bidean daudekeen zenbait bereizketa aintzat hartzera¹⁸ edo nekez erabiltzen diren adizkiak ustiatzera garamatza. Hizkuntza arruntean nekez aurkitzen ditugun *gertatu dateke*, *gertatu bide da/zen* eta *gertatu zatekeen* adizkien modukoak erruz erabiltzen dira euskara zientifikoaren zenbait esparrutan baieztapen kategorikoetatik alde egiteko. *Omen* partikula modala, aldiz, nekez erabiliko dugu euskara tekniko-zientifikoan ematen dugun informazioaren iturria eta erantzukizuna ezkutatzeari, honelako testuen betebeharren aurkakoa baita¹⁹.

¹⁶ Hasteko, eginkizun nagusi modura perpausen edo paragrafoen arteko harreman logikoak argitzea duten testu-antolatzaileak (*beraz, hala ere, gainera, izan ere ...*) perpausaren hasieran beteko dute hobeto eginkizun hori tartekatuta edo perpausaren bukaeran baino. Bigarrenik, mintzagai kontrastiboak azpimarratzeko eginkizuna duten *aldiz, berriz, behintzat* eta *ere* bezalako antolatzaileak (Osa, 1990), mintzagaiaren eskuinean kokaturik gertatuko dira argigarrien. Azkenik, iruzkinak txertatzeko eginkizuna duten *hau da, alegia, adibidez* eta *bain zuzen ere* bezalako antolatzaileetarako kokagunerik egokiena iruzkinaren hasiera izango da, azalpen bat irakurtzeko prestatuko baikaituzte horrela. Mota honetako testu-antolatzaileen inguruan ikus Zabala (1996c).

¹⁷ Ikus Zabala (1996b).

¹⁸ Mitxelenak (1968) euskara batuan *dezake/lezake* bezalako adizkien arteko bereizketa mantentzearen alde mintzatu zen Arantzazuko txostenean, baina oro har esan genezake euskara komunean nahasirik erabiltzen direla. Euskara tekniko-zientifikoan funtsezkoa da batzuetan adizki horien bereizketa.

¹⁹ Ikus Odriozola (1996).

Nominalizazio eta adjektibaziorako joera handia erakusten dute testu tekniko-zientifikoek eta, ondorioz, hizkera komunean baino izen-sintagma konplexuagoak eratu ohi dira honelakoetan. Batetik, testu-lotura bideratzeko erabiltzen da askotan nominalizazioa, lehenago perpaus modura azaldu den ekintza edo gertaera bati berriro ere erreferentzia egin nahi zaionean izen-sintagma modura trinkotuz. Bestetik, izenburuak, zerrendak, irudien oinak eta terminoak beraiek izen-sintagma konplexuak izan ohi dira. Izen-sintagma horiek eratzeko hizkuntza komunaren gramatika oinarritzen gara, jakina, baina ohikoak baino luzeagoak izateak horien egitura kontzienteki lantzea eskatzen digu²⁰.

Azkenik, hiztegiaren esparruan hiru motatako hitzak aurkituko ditugu testu tekniko-zientifikoetan: 1) hizkuntza komunaren edozein erabileratan aurki ditzakegun hitzak; 2) hiztun gehienek ezagutzen dituzten baina testu tekniko-zientifikoetan maizago agertzen diren hitzak, hiztegi orokor, entziklopedikoetan edo Hiztegi Batua bezalako hiztegi normatiboetan ere aurki daitezkeenak; 3) jakintza-esparru bakoitzari dagozkion termino berezituak, esparru berezitu bakoitzaren adituek bakarrik ulertzen dituztenak eta hiztegi terminologiko berezituetan soilik aurki daitezkeenak. Hiru hitz mota horietatik lehendabiziko biak soilik gainezarriko dira erabilera komunaren hiztegiarekin. Hirugarren atalekoak hizkuntza osoaren zati bat dira, baina ez dira hizkuntza komunarenak. Edonola ere, hiru hiztegi-eremu horiek ez dira finkoak hizkuntzen historian, termino berezituak behin eta berriro iragaten baitira hizkuntza komunera batez ere hedabideek eragiten duten bulgarizazio prozesuaren bidez. Duela gutxi erabat berezituak ziren *berotegi-efektu*, *ozonogeruza*, *immunoeskasia* edo *klonazio* bezalako terminoak hiztun gehienek ezagutzen dituzte egun. Bestetik, terminologiak askotan hartzen ditu hiztegi komuneko hitzak eta adigai berezitu bat adierazteko erabiltzen, zabalkuntza semantikoa deritzon prozesuaren bidez. Euskararen kasuan beti aipatzen den adibidea dugu *ardatz* hitzarena: gurdien zati bat eta iruteko erabiltzen den tresna bakarrik adierazteko balio zuen lehen, eta egun Geometria, Fisika eta Kristalografia bezalako jakintza-esparruetan erabiltzen diren termino ugartan aurkitzen dugu: *ardatz cartesiar*, *biraketa-ardatz*, *simetria-ardatz*...

b) Erabilera tekniko-zientifikoek duten berezko eremuaren zati garrantzitsuena terminologia berezituarena da zalantzarik gabe; areago, hizkuntzalari batzuen arabera horixe da testu tekniko-zientifikoek berezitasun bakarra. Multzon honetan sartzen diren hitzak ez dira hiztegi komunaren parte eta, beraz, esparru bateko zientzialariek baizik ez dituzte erabiltzen. Hori dela eta

²⁰ Ikus Zabala (1996a eta 1999a)

oso erabiltzaile kopuru txikia dute hiztun-komunitate osoarekin erkatuz gero; izan ere, era honetako terminoen ezagutzarako garrantzia duen aurkakotasuna ez da zientzialaria/ez-zientzialaria, baizik eta zientziaren esparru jakin bateko aditua/gainerako hiztun guztiak.

Maila honetan garrantzi handia du, ordea, nazioartekotasunak, komunikazioa hizkuntza batez mintzatzen diren hiztunen artekoa baino areago hizkuntza desberdinez mintzatzen diren jakintza-esparru bateko adituen artekoa baita. Terminoa sortu duen ikertzailearen hizkuntzaz eratzen da askotan eta bestelako hizkuntzetako zientzialariek mailegatu egiten dute, edo, batez ere, jatorrizko terminoa zabalkuntza semantikoaz lortu bada, kalko semantikoa egiten dute hizkuntza bakoitzean, nazioarteko mailan adigai baterako antzeko etiketak izateko asmoarekin. Honek eragiten du mailegutza eta kalko semantikoa hizkuntzaren gainerako esparruetan baino ugariagoa izatea, baina, edonola, erabiltzaileen kopurua oso txikia izateak hizkuntza osoaren gaineko eragina txikia izatea dakar²¹. Termino berezituaren esparru honek duen beste ezaugarri bat da sailkapenerako joera handia, ikertzaileak gai bati buruzko jakintzan sakonduz doazen neurrian sailak eta azpisailak egiten baitituzte eta honek ekartzen baitu terminoak gehienetan konplexuak izatea: aurrizkiak eta atzizkiak daramatzate askotan (*biopolimero, sulfogatz, disolbagaitz...*) eta sarritan izaten dira izen elkartuak (*disoziazio-konstante, kristal-sistema, elektro-dentsitate...*), izena + adjektiboa moduko segidak (*eremu magnetiko, os-era mineralogiko, sienita feldespatoidedun...*) edo are konplexuagoak diren sintagma-hedapenak (*behetik gorako analisi sintaktiko, bitarrear kodetutako hamartarren batutzaille...*). Ondorioz, zientzialariek ondo menderatu behar dituzte beren hizkuntzak dituen hiztegi-sorkuntzarako bideak.

Bestetik, hizkuntza komunak ez bezala, hizkuntza tekniko-zientifikoak erruz erabiltzen ditu ikurrak, siglak eta akronimoak bezalako laburtzapenak, eta ikurrez osaturiko segidak, hizkuntza naturaletik urrun daudenak. Honelako ikurrak nazioarteko adituen komunitate osorako erabakitzen dira

²¹ Hizkuntzaren esparru bakoitzean hartzen diren maileguez hizkuntza osoan izan dezakeen eraginak zer pentsatua eman beharko liguke: bizidunen dietaz ari garelarik, *haragijale* eta *belarjale* hitzak, esate baterako, hizkuntza komunekoak direla onartu beharra dugu, hiztun gehienek erabil ditzaketean adigai baitagozkie eta irizpide horretan oinarrituta bultzatza genitzake, *karniboro* eta *herbiboro* hitzen aldean. *Mikrofago* eta *makrofago* hitzak, aldiz, termino berezituak dira eta mailegatzeak ez du eragin handirik euskara osoari begira. Esparru berezitu horietako zientzialariek, aldiz, argi eta garbi nahiago dituzte termino horiek, euskaraz asma litezkeen *txikijale* edo antzeko zerbait baino adigai berezitu horietarako nazioartean erabiltzen diren terminoen ordain zuzenak baitira. Hortaz, ekonomia eta hizkuntzaren gaineko eraginkortasun txikia kontuan hartu beharrekoak dira maila honetan.

eta berdinak dira edozein hizkuntzatan idatziriko testuetan. Mota honetakoak dira Nazioarteko Sistemako unitateen laburtzapenak, elementu kimikoen ikur-rrak eta formulazioa, eta formula eta ekuazio matematiko eta fisikoak. Honelako ikurrek testu idatziak laburtzeko balio dute, baina irakurtzeko orduan deskodetu egin behar dira hizkuntza bakoitzean. Batzuetan idatzizko segidaren hurrenkera ez dator bat hizkuntza jakin bateko sintaxian dugun hitz-hurrenkerarekin eta irakurketa hizkuntzaren arabera egiten da: *1 cm* idatzi, baina *zentimetro bat* irakurtzen dugu euskaraz²².

Formula edo ekuazio luzeago eta korapilatsuak ditugunean, irakurtzen duguna ikur-segidaren transliterazio moduko bat baino ez da, hizkuntza naturaleko sintaxitik urrun egon ohi dena: irakurketa antzekoa da hizkuntza guztietan eta hizkuntzaz hizkuntza aldatzen den gauza bakarra da ikur bakoitza irakurtzeko modua; adibide bat ematearren, '=' ikurra *berdin* irakurriko da euskaraz, baina *igual a* gaztelaniaz, *égal à* frantsesez, *equal* ingelesez... Hona hemen ekuazio baten euskarazko irakurketa²³:

$$\int_{x_1}^{x_2} \frac{\partial f}{\partial y} \frac{\partial y}{\partial \alpha} dx = \int_{x_1}^{x_2} \frac{\partial f}{\partial y} \frac{\partial^2 y}{\partial x \partial \alpha} dx$$

'Integral, ixa azpi batetik ixa azpi bira, (deribatu) partzial f, y lehenekiko, (deribatu) partzial y lehen, alfarekiko, diferentzial ixa, berdin, integral ixa azpi batetik ixa azpi bira, partzial f, y-rekiko, partzial bigarren y, ixarekiko eta alfarekiko, diferentzial ixa'

Ikus daitekeenez, goiko segidan 'x' ikurra ageri den bakoitzean 'ixa' irakurri behar dela azpimarratu dut, zientzialari eta irakasle askok 'ekis' irakurtzen baitute hizki hori formula eta ekuazioetan. Hizkuntza baten hizkiak irakurtzeko modua hizkuntza komunari dagokion zerbait da eta hizkuntzaren

²² Euskaltzaindiak Arantzazuko bileraren ostean harturiko lehenabiziko erabakietako bat izan zen ehunekoaren ikurra zenbakiaren aurrean idaztekoa (*Euskera*, 1971): euskaraz *ehuneko bost* esaten denez, %5 idatzi behar genuela erabaki zuen Euskaltzaindiak. Horrelako erabakirik hartzeko arrazoirik ez zegoela uste dut, ez %5, ez 5% ez baitira hizkuntza naturaleko segidak eta hizkuntza natural bakoitzaren hurrenkerak segida horren irakurketan izan baitezake eragina, baina ez ikur-adierazpenaren idazkeran. Izan ere, ez dira gutxi Euskaltzaindiaren erabakia aintzat hartzen ez duten zientzialariak.

Antzeko nahaste batetik dator zenbait hiztunek *15 zm* bezalako segidak idaztea: euskal ortografiak ez die eragiten honelako ikur-adierazpenei, laburtzapena erabiltzen dugularik, *15 cm* idatzi behar dugu. Hizkuntza naturala erabiliz, hots, laburtu gabe, idatziko bagenu, aldiz, orduan bai euskal ortografia ezarriko genuke: *15 zentimetro* edo *hamabost zentimetro*.

²³ Matematikan erabili ohi diren honelako formula eta ekuazioen irakurketaz gehiago jakin nahi duenak jo beza Ensunza (1983, 1987) lanetara. Izan ere, hemen eskaini dudana ekuazioa eta irakurbidea Ensunzaren bigarren lan horretatik aterea da. Bestetik, formula kimikoen irakurbidez ikus Odriozola (1994).

erabilera guztietan berdina izan behar du. Euskaltzaindiak 'ixa' izena erabaki du hizki horretarako eta hala erabili behar da hizkuntza tekniko-zientifikoan ere. Goiko ekuazio horretan ageri den gainerako guztia hizkuntza komunetik urrun dago neurri handian eta horrelakoak nola irakurri erabiltzen dituzten zientzialarien erabakia da erabat.

Azkenik, hizkuntza naturaletik urrun dauden esapide hauek hizkuntza naturalaz idatziriko testu batean txertatu behar ditugunean hainbat arazo sortzen zaizkigu deklinabidearekin edo sintaxiarekin zerikusia dutenak: Deklinabide mugatuko edo mugagabeko atzizkia gaineratu behar al dugu? Marratxoa jarri behar al dugu ikurraren eta deklinabide-atzizkiaren artean?²⁴ Formulak edo ekuazioak testu batean txertatzen ditugunean, hizkuntza naturaleko perpausekin bezala jokatu behar al dugu puntuazioari, menderakuntzari eta juntadurari dagokienez?

Laburbilduz, hizkuntza tekniko-zientifikoaren zati handia bat dator hizkuntza komunarekin: batetik, fonologia eta ortografia; bigarrenik, morfologia flexiboa; hirugarrenik joskera, eta azkenik hiztegiaren zati handia. Edonola, joskerari dagokionez, hizkuntza komunean posible diren zenbait baliabide ez ditu erabiltzen hizkuntza tekniko-zientifikoak zehaztasun, argitasun, neutrotasun eta inperzonaltasunaren mesedetan, esate baterako zenbait pertsonari dagozkien adizkiak baino ez ditu erabiltzen. Beste baliabide batzuk, aldiz, hizkuntza komunak baino gehiago ustiatzen ditu zientzia eta teknikaren hizkuntzak: izen-sintagma konplexuagoak, modalitate bereziko zenbait adizki. Hizkuntzaren zientzia eta teknikorako erabilerek duten berezko eremuak, terminologia berezituarena eta hizkuntza naturaletik kanpokoak diren ikur bidezko adierazpideak dira. Berezko eremu hauetan funtsezkoak dira nazioarteko estandarizazio-bideak. Hizkuntza komunarekin gainezarritako eremuan, aldiz, garrantzitsuagoak dira hizkuntza komunaren joerak eta estandarizazio-bideak eta ez da komenigarria bi erabilera-esparruetan hizkuntza eredu desberdinen arabera aldatzea.

EUSKARA TEKNIKO-ZIENTIFIKOAREN EGOERAREN EBALUAZIOA, BEREZKOAK DITUEN EZAUGARRIEN ARGITAN

Hizkuntz galeraren ezaugarrietako bat da hitzun-komunitatean erabilerraren maiztasunagatik eta erabiltzen duten hizkuntzaren kalitateagatik bereiz-

²⁴ Laburtzapenen deklinabidearen inguruan ikus Zabala (1994), formula kimikoen irakurbi-deaz, Odriozola (1994) eta Osasun Zientzietako laburtzapenez, Ugarteburu eta Irazusta (1994) eta Ugarteburu (1997).

ten diren hiztun talde desberdinen multzoak sortzea. Mutur batean hizkuntza galdu duten hiztunak daude, beste muturrean hizkuntza zeregin desberdinetarako eta erregistro desberdinetan erabiltzen duten hiztun osoak, eta azkenik hiztun erdiak edo ele-erasanak²⁵, hizkuntz ahalmenean zenbait hutsune dituztenak.

Euskaldun erdien artean hainbat motatakoak aurki ditzakegu²⁶: batetik, ama hizkuntza euskara izanik ere, irakaskuntza osoa erdaraz jaso dutelarik, euskara estandarra edota beren lan-esparruko euskara menderatzen ez dutenak; bestetik, euskara bigarren hizkuntza modura ikasi dutenak eta lagunarteko esparruetan edota esparru komunetan edota beren lan-esparruetan erabiltzeko gai ez direnak, edo bestela, esparru hauetan guztietan erabiltzen badute ere, jabeakuntza erabat burutu ez izanagatik hutsuneak dituztenak. Euskara erabat normalizaturik ez egoteak posible egiten du irakaskuntzaren esparru guztietan eta baita testugileen artean ere mota hauetako guztietako hiztunak egotea. Honelako euskaldunek etengabeko hobekuntza behar dute baina dituzten hutsune asko eta asko ezin har daitezke 'euskara tekniko-zientifikoaren ajetzat', artikulu zientifiko bat ingelesez idazten duen beste hizkuntza bateko hiztunak egiten dituen akatsak ingeles zientifikoaren hutsunetzat hartzen ez diren bezala. Lan honetan aztertu nahi ditugunak dira hizkuntz ahalmen oneko hiztunek dituzten joera hedatuak, benetan hizkuntza bide batetik aldarazten dutenak. Hiru dira ahuldutako hizkuntzek dituzten ezaugarriak²⁷: a) estilo bakarrerako joera, b) arau bateraturik gabeko aldakortasuna eta c) kode-aldaketa.

Kode-aldaketatzat har daiteke aurreko atalean aipatu dugun 'x' hizkia 'ekis' eta ez 'ixa' irakurtzeko ohitura. Txikikeria iritzi diezaioke norbaitek kontuari, baina ahozkoan garrantzi handia du, Matematikaz edo Fisikaz mintzatzean behin eta berriro agertzen den hizkia baita. Gainerontzean, zailagoa da kode-aldaketa hizkuntza idatzi eta zainduan, mintzatuan eta zaindu gabean baino; batez ere beste hizkuntza batean ikasi ditugun erakundeen edo geografia-izen propioen kasuan gertatu ohi da.

Arau bateraturik gabeko aldakortasuna, aldiz, ez dut uste euskara tekniko-zientifikoaren arazoa denik. Izan ere, batzuetan egokiak diren eta beste batzuetan horren egokiak ez diren ereduak hedatu ohi dira hizkuntzaren erabilera honetan, zientzialarien eta teknikarien 'estandarizaziorako' berezko joeragatik eta bide berriak urratu beharrak eragiten duen edozein argibideren eskaeragatik.

²⁵ Zalbidek (1994) erabiltzen du termino hori.

²⁶ Ikus Zalbide (1994).

²⁷ Elorduiren (1995) tesiari jarraiki gatazka.

Azkenik, estilo bakarrerako joera nabarmendu du Oñederrak (1992) fonologia mailan: euskaldun gehienek berdin ebakitzen dituzte esaldiak lagunarteko egoeretan eta ebakera zaindua eskatzen duten egoera formaletan. Ezaugarri honek bere isla du zalantzarik gabe euskara tekniko-zientifiko mintzatuan, baina idatzian ere suma daitezke estilo bakarrerako joerak. 'Euskara Teknikoaz' hitz egiten dugu askotan euskararen erabilera bakarra bailitzen, baina hamaika erabilera sartzen dira horren barruan, bi ardatzen arabera muga daitezkeenak: batetik, jakintza-esparruari edota gaiari dagokion ardatza dugu eta, bestetik, informazio-trukearekin zerikusia duten baldintzei dagokiena. Jakintza-esparru bakoitzak estilo berezia izaten du, baina, adituak esparru bakar beteko adituak izan ohi direnez, jakintza-esparru bakarreko estiloa menderatu beharko dute²⁸. Jakintza-esparru edota gai bakarra hartuta, batetik, estilo desberdinak behar dira komunikazio idatzirako eta mintzatura-ko eta, bestetik, igorlearen eta hartzailearen ezaugarrien arabera. Esate baterako, mota desberdinetako testuak behar dira lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta unibertsitatean; era berean, desberdinak izan beharko lukete adituek beren artean trukatzeko dituzten testuak eta adituak ez diren hiztunei zuzendutakoak, eta jakina, desberdinak izan behar dute sendagile batek gaixoekin mintzatzen denean erabiltzen duen hizkerak, medikuntza-biltzar batean bere lankideen aurrean aurkezten duen komunikazioak eta kazetari batek telebistan ikusleei medikuntzaren aurrerapen baten berri emateko irakurtzen duen albisteak. Euskaraz erregistro hauek guztiak landu beharrekoak dira, hizkuntza osasuntsua izanen badugu eta zenbait alderditan horiek guztiak elkarrekin aldatu beharko badute ere, beste alderdi batzuetan aldendu egingo dira estilo-aniztasunaren mesedetan²⁹.

Hizkuntza bat beste baten eraginaren pean bizi denean, ahultzearen diagnosia egin ahal izateko ezinbestekoa da ondo bereiztea hizkuntza menderatzailearen sistemak eragindako aldaketak eta sistema horrek eragindakoak ez diren aldaketak. Hizkuntza menderatzaileak eragindako aldaketek bi motatako ondorioak eman ditzakete: hizkuntzen bateratzea dakarten aldaketak eta hizkuntzak bereiztea dakarten aldaketak³⁰. Hizkuntz bateratzeaz mintzatzen

²⁸ Hiztun osoek beren jakintza-esparruko estiloa ez ezik, lagunarteko estiloa ere menderatuko dute. Edonola, Zalbidetik (1993) agerian utzi duenez, badira beren ezagutza-esparruko euskara formala baizik erabiltzen ez duten hiztun erdiak ere.

²⁹ Behin baino gehiagotan entzun dudana da Lehen eta Bigarren Hezkuntzan erabiltzen den euskara urrun samar dagoela unibertsitatean erabiltzen den euskaratik eta horren aurka lan egin beharko genukeela. Urruntze hori sakonkiago aztertu beharko litzateke, ordea: alderdi batzuetan eredu berdintsuak behar dituzte euskararen erabilera horiek, baina beste alderdi batzuetan estilo desberdinak izan beharko dituzte.

³⁰ Ikus Elordui (1995).

gara hizkuntza menderatuak menderatzailearekin berdintzera jotzen duenean, eta hizkuntz bereizteaz, aldiz, hizkuntza menderatuak menderatzailearen erdutik urruntzera jotzen duenean. Kanpo-eragiletzat har daiteke hizkuntza indartsuago batekiko ukipena, baina kanpo-eragiletzat hartu behar dira era berean estandarizazioa eta oro har hizkuntzalarien, zuzentzaileen, estilo-liburuen idazleen e.a.en esku-hartzea. Azkenik, barnetik eragindako aldaketak ere bereizi behar ditugu eta lan honen testuinguruan, batez ere, hizkuntza tekniko-zientifikoaren berezitasunek eragindakoak.

Estandarizazioa izan da azken urteetako testuetan (baita testu tekniko-zientifikoetan ere) ikus daitezkeen aldaketa askoren iturria. Edonola, lotura zuzena dago mota honetako aldaketen eta Euskaltzaindiaren araugintzaren artean, eta honelako aldaketak hizkuntzaren indartzaileak dira zalantzarik gabe, estandar bat izatea hizkuntzak bizirik irauteko ezinbesteko baldintzat hartu dugula kontuan hartuta. Zailagoak dira ikusten batzuetan gramatika- eta estilo-liburuen egileek egindako analisiek eta emandako gomendioek eragindako aldaketak. Askotan aipatzen da, esate baterako, Azkuek (1891) eta Altubek (1929) XX. mendeko testuen hitz-hurrenkeran izan duten eragina³¹, neurri handian ordura arteko ohiturak aldatu zituena (ikus Hidalgo, 1994). Atal honetan, neurri batean behintzat, euskara tekniko-zientifikoari egotzen zaizkion zenbait joeraz edota aldaketaz arituko naiz³².

Erreferentziatzko erdal adjektiboen kontua dugu bereziki azpimarratzekoa. Hirugarren atalean aipatu bezala, hizkuntza tekniko-zientifikoaren berezitasunetako bat da izakiak eta gertaerak sailkatzeko joera handia eta sailkapen horretarako erruz erabiltzen dira euskararen inguruko erdaretan erreferentziatzko adjektiboak. Hortaz, euskara gaurkotzearen lehendabiziko ondorioetako bat izan da euskara 'izena+erref. adjektiboa' moduko segidez betetzea. Euskaltzaindiak (1992) euskal hitz elkartuen osaera eta idazkeraz aritu denean azpimarratu du erreferentziatzko adjektiboak daramatzaten erdal segida gehienen ordain egokiak euskaraz izen elkartuak direla eta gehienetan ez dela beharrezkoa adjektibo horiek mailegatzeta: «...aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal "izen+adjektibo erreferentzial" egiturak ordezkatzeko: *esku-lan* (*trabajo manual/travail manuel*), *aho-literatura* (*literatura oral/littérature orale*) *ekonomi teoria* (*teoría económica/théorie économique*), etab. Bide honi eutsi beharko litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu...» (Euskaltzaindia (1992:

³¹ Euskara Tekniko-zientifikorako ere hitz-hurrenkerari hori hartu izan da inoiz eredu garritzat (Zabala eta Odriozola, 1992).

³² Lan honetan aipatuko ez ditudan zenbait joera aurki daitezke Odriozola eta Zabala (1992) eta Odriozola eta Azkarate (1997) lanetan.

133)). Gomendio horren ondorioak testuetan ikus daitezke³³, baina zenbait kasutan erreferentziazko adjektiboak, edota erreferentziazkoen morfologia bera duten tasunezko adjektiboak³⁴ ezinbestean mailegatu behar ditugu³⁵ eta arrazoi hori erabiltzen dute hainbat hiztunek erreferentziazko erdal adjektiboak erruz mailegatzeko; beste hiztun batzuek aldiz, itsuki erabiltzen dute Euskaltzaindiaren gomendioa, adjektiboa mailegatzeara egokiagoa denean ere horren euskal ordain bat bilatu nahirik. Lehen kasuan ondorioa erdal sistema-
rekiko hurbiltze ahulgarria da eta bigarrenean aldiz, justifikatu gabeko urrun-
tzea, euskararen erabilgarritasuna mugatzen duena. Bi joera hauek batera ger-
tatzeari dakarrena da euskararen barnean urrunduz doazen bi eredu sortzea,
batasunerako kaltegarria dena. Hortaz, beharrezkoa da mota honetako segi-
den artean dagoen kasuistika sakonkiago aztertzea eta hiztunei ikusaraztea
erdal adjektiboak noiz mailegatu behar dituzten eta mailegatzeari noiz ez
den inola ere egoki gertatzen³⁶.

Erreferentziazko adjektibo mailegatuek beste arazo bat ere ekarri digu-
te, hitz-hurrenkerarekin zerikusia duena. Hona hemen EGLU-I gramatikari
Euskaltzaindiak (1985) esaten diguna: «...Eskuarki, hortaz, adjektiboa izena-
ren ondotik doa. Salbuespenak, -dun eta -(t)ar atzizkiez osatutakoak dira (eta
bigarrenen baliokide maileguzkoak³⁷). Honek esan nahi du maileguz hartzen
ditugun gainerantzeko adjektiboek izenaren eskuinetara joan behar dutela.
Bereziki aipatu beharrekoak iruditzen zaizkigu hain maiz gaizki erabiliak
ikusten ditugun "ekonomiko", "politiko", "sozial", "nazional"...Adjektibo
diren neurrian izenaren eskuinetan ipini behar ditugu, lehen esan bezala
(*arazo ekonomiko* (ez **ekonomiko arazo*))...». Harrigarria da hiztunen joera
hau gaztelania eta frantsesa bezalako erdaretan adjektiboak, euskaraz bezala,
eskuinean baitoaz. Oñederraren (1992) arabera hiztunek erdal sistematik
urruntzeko egiten duten aldaketa dateke eta Odriozola eta Canteroren (1992)
arabera aldiz, hiztunen hizkuntz ahalmen murriztaren ondorioa bide da: hiz-
tunek oso hurbil dauden bi kategoria, izena eta erreferentziazko adjektiboa
alegia, nahasten bide dituzte edota erreferentziazko erdal adjektiboaren -*al* eta
-*iko* bukaerak izen elkartuen mugatzaile modura jokatzen dutenean *euskara*
eta *erdara* izenak ematen dituzten *erdal* eta *euskal* horien bukaerarekin edo
-*ko* atzizkia daramaten izenlagunekin nahasten dituzte³⁸. Beste azalpen bat

³³ Ikus esate baterako España (1997).

³⁴ "Tasunezko adjektibo" terminoa erabili dut gaztelaniaren 'adjetivo calificativo' terminaren ordain gisa, Zabalaren (1999a) lanean bezala.

³⁵ Ikus Ensunza (1989), Loinaz (1995), Azkarate (1997) eta Zabala (1997) esate baterako.

³⁶ Ikus Zabalaren (1997) proposamena.

³⁷ *Frantses mutil /mutil frantses* aukerez ari da.

³⁸ Odriozola eta Azkaratek (1997) eragile biak egon litezkeela azpimarratu dute.

ere izan lezake, ordea, gertaera honek. Izan ere, *-tar* daramaten adjektiboak euskarak dituen erreferentziatzko adjektibo bakarrak dira, izenarekiko bestelako harremanak daudenean izen elkartuak erabili ohi baititugu. Horrelako adjektiboak izenaren ezker zein eskuinean joan daitezke (*bilbotar mutila / mutil bilbotarra*) eta laguntzen duten izenarekiko antzeko harremana duten erreferentziatzko adjektibo mailegatuek ere, bi kokagune horiek onartzen dituzte (*frantses mutil / mutil frantses*). Hortaz, orain arte euskaraz tasunezko adjektiboak izenaren eskuinaldean erabili dira beti³⁹, baina erreferentziatzko adjektiboak, bai euskaraz eraturikoak (*bilbotar*) bai mailegaturikoak (*frantses*) izenaren eskuinean zein ezkerrean onartu dituzte hiztunek. Baliteke berriki mailegaturiko adjektiboak izenaren ezkerrean jartzen dutenek hain zuen ere erreferentziatzko eta tasunezko adjektiboak bereiztera helterainoko hizkuntz ahalmen aparta izatea. Edonola, EGLU-I gramatikaren baieztapenak erabateko eragina izan du erreferentziatzko adjektiboak erruz erabiltzen dituzten testu tekniko-zientifikoetan eta oro har onarturiko ideia da ezkerreko kokagunea ez-gramatikala dela. Argi eta garbi ikusten da hemen gramatikagileen eta zuzentzaileen esku-hartzeak hizkuntzaren eboluzioan duen eragina⁴⁰.

Aditzetiko izenen eta adjektiboen kontua da aho-lumetan dabilen gaurko euskararen beste arazo bat, testu tekniko-zientifikoetan nominalizatorako duten joera dela eta areagotuta dagoena. Batetik, euskarak onartzen duena baino harantzago doan izenen erabilera dugu, inguruko erdaren sistema kopiatzetik datorkiguna: *foku baten hurbiltasunean* bezalakoak ikus daitezke *foku batetik hurbil* beharko litzatekeen tokian. Bestetik, maileguak euskal atzizkiez ezkutatzeko joera hedatu zen garai batean, Euskaltzaindiak (1994) zuzentzeko gomendioa eman duenetik neurri handian geldiarazi bada ere; *instalazio*, *ebaluazio* eta *integrazio* izenen ordez *instalakuntza*, *integrapena* eta *ebaluaketa* erabiltzeaz ari naiz. Honen eragilea erdal sistematik urruntzeko saiola bide da. Alderantzizkoa izan da *-garri* eta *-kor* atzizkien erabilera aldatzera eramán gaituena, alegia, euskal *-garri* atzizkia erdal *-ble* atzizkiarekin parekatzea. Halaber, erdal sistemarekiko parekatze horretatik datorkigu erdal hitz bakarrerako hitz bakarreko euskal ordaina nahi izatea: *internacional* —>

³⁹ -Dun daramaten adjektiboek ere bi kokaguneak onartzen dituzte. Edonola, Sarasolaren (1997a) arabera, hauek, *-tar* daramatenek ez bezala, tradizio hobea dute eskuinean. Gainera, erlatibozko perpausetako adizkiekin harremanetan jartzetik ere etor liteke ezkerrean onargarriak izatea.

⁴⁰ Odriozola eta Zabalak (1992) ere 'euskarak nekez onar ditzakeen aldarazpenen' artean sartu dute erreferentziatzko adjektiboak izenaren ezkerrean kokatzeko joera hori.

nazioarteko, nazio arteko segidaren orde; *biáxico* —> *ardazbiko, ardatz biko* segidaren orde ... ⁴¹

Beste ildo batetik, euskal atzizki izen-sortzaileen emankortasunaren arazoa dugu, eta honetan barne-eragileak ikusi behar ditugu kanpo-eragileak baino areago. Alde batetik euskal hiztegiaren ezagutzarik eza dugu: jadanik *geldiera* eta *gelditze* izenak baldin baditugu ez dago arrazoirik *geldiketa* sortzeko. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* eta *Sarasolaren Euskal Hiztegiaren* datuak oso lagungarriak zaizkigu aurreko mendeetan finkatu diren ekintza-izen hauen berri izateko. Edonola, garatuz doazen euskararen erabilera berriek, eta bereziki zientzia eta teknikarako erabilerek areagotu dute aditzetiko izenen eta adjektiboen beharra eta sorrera eta ez da harritzekoa egoera honetan atzizki bakoitzaren emankortasuna aldatu izana⁴². Oro har Euskaltzaindiak (1994) nor motako aditzekin bereziki *-tze* atzizkia erabiltzea gomendatu digu baina badira *erorketa* bezalako izen zaharrak ere. Bestalde, finkatuta dauden izenetan esangura finkatuta egon ohi da; badakigu, esate baterako, *geldiera* izenak gertaera bat adierazten duela baina *idazkera* izenak aldiz idazteko modua adierazten duela; zer gertatzen da, ordea, aditzetiko izen berri bat sortu behar dugunean? Adibide bat ematearren, badugu *drainatu* aditza, ‘Lur eremu batean, lurpeko ubide baten bidez ur soberakina kendu’ esan nahi duena. Ekintza adierazi nahi badugu, *drainatze* izena asma dezakegu, edo *drainatu* nor-nork motako aditza denez, *drainaketa* ere eskuragarri izan dezakegu. Zalantzak sortzen zaizkigu, ordea, lur-eremuaren ur soberakina kentzeko erabiltzen den sistema edo gaixo bati zauri batetik jariakinak ateratzeko jartzen zaion tresna adierazi nahi dugunean, *drainatze* edota *drainaketa* izenek izan al dezakete irakurketa hori?

Bestelakoa da inguruko erdaren ondoan euskarak duen aurrizkien urritasuna Mitxelenak (1968) Arantzazuko txostenean “huts nabarmen”tzat hartu zuena. Amurizak (1978) arazo honi irtenbideak bilatzen saiatu zenetik bide luzea egin dugu eta aurrizkien eskasia hori euskararen tipologiarekin zerikusia duen zerbait dela dakigu: inguruko erdarak ‘burua lehen’ motakoak dira eta euskara aldiz, ‘burua azken’ motakoa; honekin batera ‘burua lehen’ motako hizkuntzetan buruak diren eta modifikatzaileak diren aurrizkiak daudela aintzat hartzen badugu, buruak diren aurrizki horien ondoan bukaeran lotzen

⁴¹ Gai honen inguruan ikus Alberdi et al. (1997).

⁴² Gutiérrez Rodilla-k (1998: 38) zientziaren hizkuntzaz ari delarik azpimarratu duenez, «... Los procesos de derivación tanto de sustantivos como de adjetivos y verbos, están claramente decantados hacia unos cuantos sufijos que, frecuentemente, no coinciden con los de más rendimiento en el registro común...».

den atzizki moduko zerbait aurkitzea espero dezakegu euskaraz⁴³. Esate baterako, *pre-* aurrizkiak modifikatzaile modura jokatzen du *prejuicio* hitzean, beharrezko datuak izan aurretik egiten den *juicio* mota adierazten baitu hitz honek eta horren parean *aurreiritzi* dugu euskaraz. *Prehistoria* hitzean aldiz, *pre-* aurrizkia da hitzaren burua, ez baitu historia mota bat adierazten historiaren aurreko garaia baizik. Hitz honen euskal ordaina *historiaurre* da, burua azken hizkuntza baita gurea. Parasintetikoetan ageri diren erdal aurrizkien ordainek ere postposizioak dituzte askotan euskaraz: *encarcelar* / *espexeratu*; *desnatar* / *gaingabetu*. Areago, askotan horrelako parasintetiko batzuen euskal ordainek *-tu* atzizkia baino ez dute behar: *largo* -> *alargar* / *luze* -> *luzatu*; *viejo* -> *envejecer* / *zahar* -> *zahartu*; *pluma* -> *desplumar* / *luma* -> *lumatu*. Edonola, euskararen jokabideaz ohartu ez ezik, zenbait osagaiari balio berriak ere eman dizkiegu. Esate baterako, izen elkartuen mugatzaile berezitat hartu ohi diren *gain* bezalako osagaiak gero eta hurbilago daude aurrizki bihurtzetik⁴⁴ eta gainera, lehenago lekua baizik adierazten ez bazuten ere (*gainjantzi*, *gaingune*), egun intentsitatea ere adierazten dute zenbait hitzetan (*gainzama*)⁴⁵. Aldaketa hauek euskara erabilera berrietara egokitzeko beharrak eragindakoak dira eta euskara ahuldu gabe aberastu egiten dutela pentsa dezakegu.

Ildo beretik, *begibakar* bezalako adjektibo elkartuen bidea ustiatuz, *zelulabakar*, *atomobakar* edo *mineralbakar* bezalakoak sortu ditugu eta horrelakoak gutxienez bi osagaiko sailkapenen kideak izan ohi direnez, inolako aurrekaririk gabeko *zelulanitz*, *atomoanitz* edo *mineralanitz* ere sortu dira, *zelulaniztasun* bezalako eratorriak ere eman dituztenak. Tradiziorik ezatik abiatuta *zelulanitz* bezalakoak gaizki eratuta daudela aldarrikatu dute zenbaitek, *anitz* adjektiboa ez dela argudiatuz, baina honelakoak baztertu aurretik, sakonki aztertu beharko litzateke exozentrikotasunaren auzia: badira euskaraz zenbatzaileak daramatzaten exozentrikoak (*lauburu*, *ehunzango*...) eta bestetik, honelako hitz elkartuek beren osagaiak ez bezalako kategoria izaten dute maiz ([*hitzontzi*]_{Adj.}, [*buru-belarri*]_{Adb.}...). Era berean, atribuzio-elkarteak edo tautologiak bezalako emankortasun txikiko elkarketa bideak ustiatuz lortu dira beste hainbat termino ere: *arroka ama*, *elementu aztarna*, *lurzoru*, *larruazal*... Termino berrien premiari edota erregistroak bereizteko beharrari erantzuten diote hauek, agian hitz elkartu mota batzuen emankortasuna aurreko ereduakiko aldatu badute ere. Era berean, *-tar* atzizkiaren era-

⁴³ Latinetiko hizkuntzen eta euskararen eratorbideen arteko erkaketaz, ikus Grácia et al. (1999).

⁴⁴ Ikus Grácia eta Azkarate (1998).

⁴⁵ Ikus Odriozola (1999).

bilera berriak dira *hamartar*, *bitar*, *kartesian* edo *nepertar* adjektiboetan ditugunak baina oso baliagarriak zaizkigu zenbait termino eratzeko orduan. Azkenik, euskara komunean ia sinonimoak diren atzizkien arteko ñabardurak aintzat hartuz, ikuspegi funtzionaletik oso egokiak diren sailkapenak lortu ditugu batzuetan. Esate baterako *disolbakor* > *disolbagaitz* > *disolbaezin* sailkapena oso baliagarria dugu kimikan, erabilera komunean *irakurgaitz* eta *irakurtezin* hiztun askorentzat sinonimoak badira ere.

Hiztegi Batua eta terminologia berezituaren arteko harremana ere, gogoeta-iturria dugu. Hizkera tekniko-zientifikoaren barruan bereizi ditugun hiru hiztegi-multzoren artean, lehenengo biak Hiztegi Batuaren eremuan daude zalantzarik gabe baina zientzia eta teknikaren esparru desberdinetako terminologia berezituaren arloan ere erabilera komunean bezala jokatzeko eskatzen al digu Hiztegi Batuak? Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan *kare-harri* idatzi behar dela esan digunean edota **bolkan* hitza baztertu duenean hitz horien erabilera komunaz aritu da. Behinik behin kontuan hartzekoa da *kare-harri* hitza hizkuntza komunean baino askoz ere maizago erabiliko dela Geologian eta hiru osagaiko termino ugari ere ematen dituela. Hortaz, esparru honetan erosoago izan daiteke *kareharri* bezalako idazkera. *Sumendi* hobetsi eta **bolkan* hitza baztertu duenean Euskaltzaindia noizbehinka laba jaurtikitzen duen mendi itxurako izakiari buruz aritu da; Geologian egon daitezkeen espezialitate-erabileretarako ere balio al du erabaki horrek? Erabaki horrek eskatzen al digu *bolkaniko* eta *bolkanismo* bezalako eratorriak ere baztertzea? Bestetik, Euskaltzaindiak *kapela* hitza *kapelu* hitzaren aldean hobetsi du, baina hobespen hori hitz horretatik zabalkuntza semantikoaz lortzen ditugun terminoetarako ere balio al du? Esate baterako *kapela polar* eta *kapela-zona* egin behar al ditugu Geologian? edo, hurrenez hurren *polar cap/ casquete polar/ calotte polaire* eta *cap rock/ zona de montera/ chapeau* terminoen ordaina ematen ari garelarik eta beraz, hizkuntza komunaren erabileratik urrun gauden neurrian, aurrekoak bezain egokiak (edo are egokiagoak) izan al daitezke *kapelu polar* eta *kapelu-zona* terminoak?

Bukatzeko, hizkuntza guztietan neurri batean edo bestean gertatzen den mailegutza aipatu behar dugu. Hizkuntza ahultzen du mailegu gehiegi hartzeak; edonola, bereiztu beharrekoak dira hizkuntzan ditugun hitzak ordezkatzeko dituzten maileguak, askotan hizkuntza aberastu gabe pobretzen dutenak eta bestetik, hizkuntza aberasten dutenak, izenik ez duten adigaietarako etiketez hornitzen baitute hizkuntza. Azken hauek ugariagoak izango dira esparru berezituetan hizkuntza komunean baino. Edonola, esparru berezituetan hartzen diren maileguez askoz ere eragin txikiagoa dute hizkuntza osoan esparru komunean hartzen direnek baino, erabiltzaileen kopurua lehendabiziko

horretan oso txikia baita hiztun komunitate osoarekiko. Mailegua hartzeko beharra eztabaidagarria izan daiteke, termino baten beharra askotan hiztegi komuneko hitz baten zabalkuntza semantikoaz edo eratorpen edo elkarketa bidezko hitz eraketaz ase baitaiteke. Zientzialariek maileguaren alde egiteko erabili ohi duten arrazoa zehaztasunarena da eta haien intuizioa kontuan hartzekoa da, haiek baitira haien esparruko adigaiak hobekien menderatzen dituztenak; edonola, zehaztasunaren auzia askotan ahulduriko hizkuntza baten hiztunak izateagatik hizkuntza menderatzailearen sistemara hurbiltzeko edota horretatik urruntzeko izan ohi ditugun joera mailegu zale edo garbiza-leekin nahasten da⁴⁶. Zenbaitetan, erabilera komunetik urruntzeko joera ere badago esparru berezitetako erabiltzaileak mailegu zaleagoak izatearen azpian⁴⁷. Oro har izena erregea da terminologiaren esparruan eta gehiagotan mailegatu beharko ditugu izenak, aditzak⁴⁸ edo adjektiboak baino. Aditzetik izenak ere, jadanik ditugun aditzetatik eratorri ahal izango ditugu askotan eta beraz, gutxiagotan mailegatu beharko ditugu bestelako izenak baino.

ONDORIOAK

Euskararen iraupenerako ezinbestekoa da batuaren finkapena baina funtsezkoa da, era berean, euskara erabilera-esparru guztietara hedatzea. Euskarak estandarizatzeko bidean eman dituen urratsetan oso garrantzitsua izan da beren jardueran hizkuntza hau erabili duten zientzialari eta teknikarrien ekarpena, estandarra behar duten komunikazio-esparruetan mugitzen baitira. Bestetik, haiek dira esparru desberdinetako euskara tekniko-zientifiko sor dezaketen bakarrak, eta askotan esparru hauetan idatziriko testuen kalitatearen inguruan kritikak plazaratu direlarik, zenbait kontu sakonkiago aztertu behar direla ikusi dugu, zaila baita batzuetan bestelako hizkuntzekiko interferentziak edota oro har hizkuntzaren endekatze prozesuaren ondorio diren aldaketak eta erabilera berrietara egokitzeko beharrak eragingandako aldaketak bereiztea.

⁴⁶ Ikus honen inguruan Zabala (1999 b).

⁴⁷ Erabilera komunetik urruntzeko joera horren azpian egon daiteke, halaber, hizkuntza komuneko hitzetatik apur bat urruntzen diren terminoak sortzeko joera: *azal* → *gainazal*, *lurrazal*, *larruazal* zoru → *lurzoru*.

⁴⁸ Aditzen hautapenez ikus Zabala (1995).

BIBLIOGRAFIA

ALBERDI, Jabier; GARCÍA, Julio eta UGARTEBURU, Iñaki (1997), "Erdal hitz bakarra: euskal hitz bakarra jokamolde mimetikoa euskal terminologian" *Nazioarteko Terminologia Biltzarraren aktak*. UZEI-IVAP: 307-332

ALTUBE, Seber, "Erderismos", *Euskera* X (1929) I-IVzb.

AMURITZA, Xabier (1974), "Aurrizkiak" *Euskera* XIX: 9-104.

ARESTI, Gabriel eta KINTANA, Xabier (1970), *Batasunaren Kutxa*. Lur. Donostia.

AZKARATE, Miren (1997), "Euskal terminologiaren egoeraz". *Nazioarteko Terminologia Biltzarraren aktak*. UZEI-IVAP: 249-266.

AZKUE, Resurrección M^a (1891), *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara*. Bilbo.

CABRÉ, Teresa (1993), *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones*. Ed. Antártida/ Empúries. Barcelona.

ELORDUI, Aran (1995), *Hizkuntz heriotza eta aldaketa morfologikoa: Hegomendebaldeko Bizkaieraren kasua*. EHUko doktoretza-tesia.

ENSUNZA, Martxel (1983), *Alfabetatze Zientifikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea. Iruñea.

— (1987), "Oinarrizko eragiketa matematikoen hitzezko adierazpena". J.C. Odriozola (koord.) *Euskara gaurkotzeko bideak*. EHUko Argitalpen Zerbitzua: 183-191.

— (1989), "Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak" *Euskera* 1989 (2): 577-496.

ESPAÑA, Edorta (1997), "Gaztelaniazko adjektibo erreferentzialen euskal ordainak eta erabilera" *Nazioarteko Terminologia Biltzarraren aktak*. UZEI-IVAP: 349-364.

ETXEBARRIA, Jose Ramon (1972), "Euskera tekniko delata eta". *Anaitasuna* 233: 7.

— (1992), "Zientiaren arloko euskararen batasunaz". *Ele* 11/12zk. (1992), 99-112.

EUSKALZAINDIA (1973), "Aditz laguntzaile batua". *Euskera* 1973: 5-73.

— (1977), "Aditz sintetikoa". *Euskera* 1977: 783-850.

— (1978), "Bergarako biltzarraren erabakiak". *Euskera* 1978 (2).

- (1979), *Euskal Aditz Batua*. Donostia.
- (1985), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak- I* (EGLU-I).
- (1992), *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*.
- (1994), “Eratorpenaz”. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarraren aktak. *Euskera* 1994 (3): 1039-1058.

GOENAGA, Patxi (1978), *Gramatika bideetan*. Erein. Donostia. 2. argiraldia: 1980.

GRACIA, Lluïsa eta al. (1999), *Configuración morfológica y estructura argumental: Léxico y Diccionario* ikerkuntza-proiektuaren ondorioak. EHUko Argitalpen Zerbitzua.

GRACIA, Lluïsa eta AZKARATE, Miren (1998), “Prefixation and the head-complement parameter” (eskuizkribua). *7th International Morphology Meeting*. Viena, 1996.

GUTIÉRREZ RODILLA, Bertha (1998), *La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico*. Ed. Península. Barcelona.

HIDALGO, Bittor (1994), *Hitzen ordena euskaraz*. Doktoretza-tesia. Argitaragabea.

KINTANA, Xabier (1980), *Hiztegia 2000*. Elkar. Bilbo.

LARRINGAN, Luis Mari (1995), *Testu-antolatzaileak bi testu-motatan: testu informatiboa eta argudiapenezkoa*. EHUko doktoretza-tesia.

LOINAZ, Miel (1985), “Adjektibo erreferentzialen erabilera”. *Berba* 16, 1-3.

MAKAZAGA, Jesus Mari (1996), “Perpausen arteko testu-mailako lotura: testu zientifikoak sortzen”. I. Zabala (koord.) *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHUko Argitalpen Zerbitzua: 45-111.

MITXELENA, Koldo (1968), “Arantzazuko Biltzarrean aurkezturiko txostena”. *Euskera* (1968).

ODRIOZOLA, Juan Carlos (1994), “Formulazio kimikoa eta euskal deklinabidea”. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra. *Euskera* 1994 (2): 743-754.

ODRIOZOLA, Juan Carlos (1996), “Euskal baldintzazko adizkiak eta euskal baldintzapenak”. I. Zabala (koord.), *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHUko Argitalpen Zerbitzua: 193-224.

— (1999), “Izen-postposizioak” (eskuizkribua).

ODRIOZOLA, Juan Carlos eta CANTERO, A. (1992), “Euskal izenondoaren kokapenari buruzko zenbait ohar”. *Euskera* 1992 (2): 1035-1048.

ODRIOZOLA, Juan Carlos eta ZABALA, Igone (1992), "Normatibizazioari buruzko zenbait ohar". *Euskera* 1992 (3): 1225-1243.

ODRIOZOLA, Juan Carlos eta AZKARATE, Miren (1997), "Alteraciones simultáneas en la estructura morfosintáctica y en los campos semánticos: Revisión del caso de las lenguas castellano y vasco". I Simposio Internacional sobre Bilingüismo. Universidad de Vigo. Argitaragabea.

OÑEDERRA, Lourdes (1992), "Hizkuntzen osasuna. Neurbide eta diagnosi linguistikoak". *Bat, Soziolinguistika aldizkaria* 7/8: 141-157.

OÑEDERRA, Lourdes eta ELORDUI, A. (1992), "Speech styles and the pronunciation of Basque in TV". ESCA Workshop: *Phonetics and Phonology of Speaking Styles: Reduction and Elaboration in Speech Communication*.

OSA, Eusebio (1990), *Euskararen hitzordena komunikazio zereginen arauera* EHUko Argitalpen Zerbitzua.

SARASOLA, Ibon (1997a), *Euskara batuaren ajeak*. Alberdania. Zarautz.

— (1997b), "Euskal hiztegitzaren eta terminologiaren inguruan". *Nazioarteko Terminologia Biltzarreko Aktak*. UZEI-IVAP: 69-82.

TXILLARDEGI (1958), "Batasunaren bidea". *Euskera* IV. 1959: 150-170.

— (1978), *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas. Bilbo

UGARTEBURU, Iñaki (1997), "Akronimoen lexikalizazioa: HIEStik hiesera". *Nazioarteko Terminologia Biltzarraren Aktak*. UZEI-IVAP: 565-573.

UGARTEBURU, Iñaki eta IRAZUSTA, J. (1994), "Osasun zientzietako laburtzapenak". Euskaltzaindiaren XII. Biltzarra. *Euskera* 1994 (2): 1173-1182.

VILLASANTE, Luis (1970), *Hacia la lengua literaria común*. Editorial Franciscana. Aranzazu-Oñate. 3. argitald. 1980.

ZABALA, Igone (1994), "Laburtzapenen deklinabidea". Euskaltzaindiaren XII. Biltzarra. *Euskera* 1994 (2): 735-742.

— (1995), "Aditzen hautapena euskara teknikoan". *Ekaia* 3: 123-134.

— (1996a), "La traducción al vasco de los sintagmas nominales complejos del lenguaje técnico". *Actes del III Congrès Internacional sobre Traducció*. UAB: 589-603.

— (1996b), "Testu-lotura: lotura tematikoa eta erreferentzia-sareak testu teknikoetan". I. Zabala (koord.) *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHUko Argitalpen Zerbitzua: 13-43.

- (1996c), “Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketen antolatzailerak: *hau da, hain zuzen ere, adibidez, batez ere..*”. I. Zabala (koord.) *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHUko Argitalpen Zerbitzua: 113-130.
- (1997), “Argumentu-harremana/ eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila”. *Nazioarteko Terminologia Biltzarraren aktak*. UZEI-IVAP: 535-556.
- (1999a), “Izen-sintagma konplexuak: adjektiboan eta izenlagunen segidak”. J.C. Odriozola (ed.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- (1999b), “Zehaztasuna eta gardentasuna”. J.C. Odriozola (ed.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. EHUko Argitalpen Zerbitzua (argitara bidean).

ZABALA, Igone eta ODRIOZOLA, Juan Carlos (1992), *Hitz-ordena, galdegaia eta komaren erabilera*. EHUko Argitalpen Zerbitzua.

ZALBIDE, Mikel (1993), “Zientzi hizkuntza irakaskuntzan: euskara teknikoaren izaeraz, iturburuaz eta egungo erabilmoduaz”. *XII Congreso de Estudios Vascos: Estudios Vascos en el Sistema Educativo = Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean. Vitoria-Gasteiz 1993*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. 1995: 281-290.

- (1994), “Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide”. *Euskera* 1994 (1): 153-187.

ZUAZO, Koldo (1988), *Euskararen batasuna*. Iker-5. EHUko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo.

TABULA GRATULATORIA

TABULA GRATULATORIA

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga

Doktorego tesia Julio Caro Barojak zuzendu zion (1985). 1989-1990 ikasurtean, Visiting Fellow izan zen Oxford Unibertsitateko St. Anthony's Collegean eta 1993an Visiting Fellow Florentziako European University Institutuan. Gaurregungo Historia Katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (1995). Eusko Ikaskuntzako buruorde izan da (1991-1997) eta Euskaltzaindiko urgazlea da (2003).

Hambabi libururen egilea da, 35 artikulua euskaraz zientzi aldizkarietan eta beste horrenbeste bestelako hizkuntzetan. Lur editorialeko Euskal Herriko historia nagusia (2004), sei liburukitan zuzendu du.

Bost libururen aipamenak:

- *Vizcaya en el siglo XIX: Las finanzas públicas de un Estado emergente* (1987).
- *Gerra eta bakea Euskal Herrian. Politikagintza lege zaharraren krisaldian* (1993).
- *Matxinoak, langileen erakundetzea, enpresariak eta kultur moldeak lege zaharraren hondamendian (1789-1876)* (1995).
- *La articulación político institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)* (1995).
- *Irudien bidezko bidaia Bilboko historian - Viaje visual por la historia de Bilbao* (2001).

Helbidea:

Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea

644 posta kutxatila
48080 Bilbo
<hcpagzij@lg.ehu.es>

Patxi Altuna

Azpeitia, 1927. Jesusen Konpainiakoa. Euskaltzaina. Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeburu ohia. Deustuko Unibertsitateko irakasle izana. Etxepareri buruzko tesi batez lortu zuen doktoretza. Hainbat autore ikertu ditu. Besteak beste, Etxeberri Ziburukoa, Tartas, Haraneder, Madariaga, Mendiburu, Ubillos eta Oihenart.

Helbidea:
Loiolako Santutegia
20730 Azpeitia

Xabier Altzibar

Filologia Erromanikoan lizentziaduna eta Euskal Filologian doktorea. Euskaltzain urgazlea. UPV-EHUko irakasle titularra da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean (Leioa, Bizkaia). *Bizkaierazko Idazle Klasikoak* liburuaren (1992) eta Peñaforida, Mogel eta Hiriart-Urrutiren edizioen egilea. Euskal Filologia eta Literaturari buruzko artikuluak ere idatzi ditu.

Helbidea:
Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
48940 Leioa
<fvparj@lg.ehu.es>

José Antonio Arana Martija

Gernika, 1931. Licenciado en Derecho por las Universidades de Deusto y Valladolid. Ocupa altos cargos en la empresa privada. En 1966 funda la Ikastola de Gernika. Fundador y director de coros. Ha organizado cursos de cultura vasca, conferencias, investigaciones ajenas y propias, éstas principalmente sobre música del País. En 1979 es nombrado bibliotecario de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia. En 1988 es elegido académico

de número. Es miembro de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y de la Sociedad de Estudios Vascos. Miembro de Honor de la Asociación de escritores vascos en 2002. Pluma de Oro de la Asociación de Libreros de Vizcaya en 2004.

Dirección:
Karmelo Etxegarai, 6
48300 Gernika
Tel. 94 625 07 01

Gotzon Aurrekoetxea

EHUko irakaslea, Diman 1954an jaioa. Filologia Erromanikoan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean eta Euskal Filologian doktorea EHUUn. Ikerketa ildo nagusienak hiztegegintza eta dialektologia izan ditu: hiztegegintzan Adorez hiztegetako taldekide (*Sinonimoen Hiztegia, Euskararako Hiztegia, 3000 Hiztegia...*). Dialektologian *Euskararen Herri Hizkeren Atlas-a-EHHA* egitasmoa arduraduna (X. Videgainekin batera) da proiektuaren hasieratik, euskalkien arteko distantzia eta sailkapenerako Dialektometria metodologia aplikatzen dihardu (*Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, “Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa”, eta abar).

Helbidea:
Iferra etxea
Ziarrusta auzunea 17
48141 Dima
<fvpaulg@vc.ehu.es>

Andoni Barreña

Salamanca Unibertsitateko irakaslea da 1994. urtetik. Euskal Filologiako lizentzia (1983) eta doktoretza (1993) Euskal Herriko Unibertsitatean egin ditu. Bere ikerketa-lerro nagusiak hizkuntzaren jabekuntza, elebakartasunean zein elebitasunean, eta hizkuntzen etnolinguistika dira.

Helbidea:
Filologia Fakultatea
Plaza de Anaya, 1
37008 Salamanca
<andoni@usal.es>

Roland J.-L. Breton

Professeur émérite à l'Université de Paris 8 (Vincennes-St Denis). Né à Paris le 1er novembre 1931, a fait ses études en Sorbonne qui l'ont mené à une Licence d'Histoire-Géographie (1956), l'Agrégation d'Histoire (1960) et un doctorat d'État de Géographie à Nice (1973). Il a passé plus de la moitié de sa carrière à l'étranger, ce qui l'a mené à publier des Atlas des langues de l'Asie du Sud et de l'Afrique Centrale ainsi que des ouvrages de géolinguistique et d'ethnopolitique.

28/60, Les Figuéras
13770 Venelles
France
<breton-roland@wanadoo.fr>

Iñaki Camino Lertxundi

Donostiarra. Euskal Filologian Doktorea. Dialektologia landu du, batez ere. Besteak beste, lan hauek argitaratu ditu eremu horretan: *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa* (1997) eta *Hegonafarrera* (2004). Jean Hiriart-Urrutyren antologia bat plazaratu zuen 1994an: *Gontzetarik jalgiaraziak*.

Helbidea:
Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea
Unibertsitatearen Ibilbidea, 5
01006 Gasteiz
<fvpcalei@vc.ehu.es>

Piarres Charritton

Né à Hasparren le 19 octobre 1921. Directeur du Collège Saint Joseph de Hasparren (1959-1965). Docteur en Théologie, Toulouse, 1973. Docteur ès Etudes Basques, Bordeaux, 1985. Professeur d'Ethique, Université du Pays Basque - Saint-Sébastien, 1985. Membre titulaire d'Euskaltzaindia, 1985. Parmi ses livres: *Le droit de peuples à leur identité*, Fides, Montréal, 1979; *Le docteur P. Broussain, sa contribution aux études basques*, CNRS, Paris, 1985; *De Republica edo politikaz*, Elkar, Donostia, 2003; *Les oeuvres du docteur J. Etchepare* (5 tomes), Elkar, et *Les oeuvres de P. Larzabal* (7 tomes), Elkar.

Helbidea:

3 impasse Port Neuf

64100 Baiona / Bayonne

00-33-559 598 127 – 00-33-559 256 426

<bainaordez@euskaltzaindia.net>

Jean-Baptiste *Battittu* Coyos

Ikerketa karguduna da Baionako IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa taldean (CNRSekko UMR 5478). Maulen (Zuberoa) 1952ko urriaren 15ean sortua da. Bere hizkuntzalaritza ikasketak Sorbonneko René Descartes Unibertsitatea - Paris Ven bururatu ditu eta Linguistika orokorrean doktorea da. Pirinio Atlantiarretako Hizkuntza Politikarako karguduna izan da 1999tik 2003ra. Eskoletako irakaslea da eta Unibertsitateko ikastaro karguduna 1996az geroztik.

Helbidea

Oihanondoa Elizaberri

64990 Mugerre (Lapurdi)

Frantzia

<jean-baptiste.coyos@univ-pau.fr>

Jean-Louis Davant

Ürrüstoin (Zuberoan) 1935ean sortua. Agronomia ingeniaria. Hazparneko Laborantza Eskolako zuzendari ohia. Euskaltzain osoa (1976). Aldizkari anitzetan artikulugilea. Eleberriak (adibidez, *Iparraren bila*, 1987), olerki-sortak (besteak beste, *Harri txintxolak*, 2003) eta pastoralak (esaterako, *Abadia Ürrüstoi*, 1986, edo *Antso Handia*, 2004) idatzi ditu. Historia ere landu du: besteak beste, *Histoire du Pays Basque: le peuple basque dans l'histoire* (1977). *Herria*, *Enbata*, *Maiatz*, *Berria* eta beste kazeta eta aldizkari askotan argitaratu ditu idazlanak.

Helbidea:

Aizagerria

64130 Ürrüstoi-Larrabile

(0)5 59 28 81 67

Kas Deprez (†)

Date of birth: 03/01/1945

Date of death: 17/12/2000

He studied Germanic Philology at the Catholic University of Leuven (KUL) and Sociolinguistics at the University of Pennsylvania, USA. He taught Sociolinguistics at the University of Antwerp (UA) and Leuven (KUL). He was the editor of *Nationalism in Belgium. Shifting Identities* (1998), of which an updated and extended version was published in Dutch in 1999. He was involved in several projects in South Africa aimed at promoting multilingualism.

Andolin Eguzkitza (†)

Santurtzin 1953an sortua eta Bilbon 2004an hila. Euskaltzaina. Deustuko Unibertsitatean Filologia Erromanikoa ikasi zuen. UCLAn doktore bihurtu, Euskal Hizkuntzalaritzari buruzko tesi batez. Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza orokorreko katedraduna zen. Liburu eta artikulu anitzen egilea. Besteak beste: “Ein Versuch zur Beschreibung des Baskischen nach dem Universalienkonzept von Joseph H. Greenberg” (1978); “On the so-called passive in Basque” (1981); *Geografidatutegia: geografi-izen arrotzen ortografia eta ortoepia finkatzeko saioa* (1991), Gorka Palaziorekin batera; *Topics on the syntax of Basque and Romance* (1992); “Postposizioak euskal gramatikan” (1998). Oraintsu (2004) atera da haren *Hizkuntzalaritza orokorra: arazoak eta ikuspegiak*, M. Etxebarriarekin batera egina. Idazlea zen, eta Euskal Idazleen Elkarteko burua zenbait urtez. Literaturaren eremuan aipa ditzagun, adibidez, *Herioaren itzalpeetan eleberria* (1998) edota *Arimaren ondoko ezkien artetik ibilki* olerki-sorta (2004).

Pilartxo Etxeberria

EHUko Euskal Filologia Saileko irakaslea. Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologian Lizentziatua 1981ean. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia Sailean Doktore 1988. urtean. Ikerketa lerroak: Esperimentu bidezko Fonetika, Fonetika Akustikoa: Anlisi teknikak, Euskal Fonetika: Anlisisa eta Sintesia, Ahoskera, Hizketa-narriadurak... Ildo eta esparru haue-tan guztietan ikerketa proiektuetan parte hartua eta hainbat argitalpen eginda-koa.

Helbidea:
Filosofia Fakultatea
Tolosako hiribidea, 70
20009 Donostia
<fvpetmup@sf.ehu.es>

Iñaki Gaminde

EHUko Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea. Deustuko Unibertsitatean doktoratua Euskal Filologian 1992. urtean. Ikerketa lerroak: Dialektologia, Fonetika, Fonologia eta Hizkuntzaren Didaktika. Esparru hauetan guztietan ikerketa proiektuetan parte hartua eta hainbat argitalpen egindakoa.

Helbidea:
Artazuriña 6
48004 Bilbo
<tlpgatei@lg.ehu.es>

Pruden Gartzia Isasti

Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako zuzendaria (Bilbo). Oñatin jaioa 1964ko maiatzaren 13an, Historiako ikasketak egin ditu Donostian (Deustuko Unibertsitatea), Gasteizen (EHU) eta Madrilen (UAM), azken honetan eskuratuz lizentzia (1987) eta doktoregoa (2002). *Udako Euskal Unibertsitatea* (UEU) eta *Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia* (JABM) elkarteetako kide aktiboa. Ondoko liburuaren egilea: *La España metafísica. Lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*, Bilbo: Euskaltzaindia, 2004.

Helbidea:
Aralar Mendiaren kalea 15, 5. ezk.
01010 Gasteiz
<pruden@euskaltzaindia.net>

Ricardo Gómez

Bilbo, 1964. Euskal Filologian lizentziatua eta 1988tik UPV/EHUko Irakaslea (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailari atxikia). Euskal dialektologiaz, testu zaharrez eta gramatika historikoaz jardun du bere ikerketan,

baina bereziki euskalaritzaren historiari buruzko lanak argitaratu ditu. Egun doktorego tesia burutzen ari da, haren gaia xix. mendeko euskal gramatika-gintzaren historia delarik.

Helbidea:

Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea

Unibertsitatearen Ibilbidea, 5

E-01006 Vitoria-Gasteiz

<fvpgolor@vh.ehu.es>

Jean Haritschelhar

Baigorri (Nafarroa Beherea) sortua 1923ko maiatzaren 13an. Saint-Cloud-ko "Ecole Normale Supérieure" delakoan ikasle izana, Sorbonako Unibertsitatean lizentziatura lortua eta gero, gaztelaniaz "agrégation" deritzana (1952). Tesia irakurria Bordelen 1969an eta Bordeleko Unibertsitateko katedradun emerittoa (1969-1986). Euskaltzain osoa (1962), euskaltzainburordea (1967-1988), euskaltzainburua (1989-2004).

Helbidea:

"Elorrieta"

24, rue de Lamigotte

64600 Anglet / Angelu

José Ignacio Hualde

PhD in Linguistics, University of Southern California, 1988, is Professor of Spanish and Linguistics at the University of Illinois at Urbana-Champaign. He is author of *Basque phonology* (Routledge, 1991), *The Basque dialect of Lekeitio* (coauthored, supplements of *ASJU*, 1994), *Euskararen azentuerak* (supplements of *ASJU*, 1997), *Introducción a la lingüística hispánica* (coauthored, Cambridge, 2001), and *The Sounds of Spanish* (Cambridge, forthcoming) and coeditor of *Generative studies in Basque linguistics* (Benjamins, 1993), *Towards a history of the Basque language* (Benjamins, 1995) and *A grammar of Basque* (Mouton, 2003), among other books. He has also published extensively on topics in Basque and Romance linguistics in specialized journals.

Address:

Dept. of Spanish, Italian and Portuguese &

Dept of Linguistics

University of Illinois at Urbana-Champaign
Urbana, Illinois 61801
USA
<j-hualde@staff.vivc.edu>

Xabier Kintana Urtiaga

Bilbon 1946ko urriaren 13an jaioa. Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatua (Hizkuntza Erromanikoak). Euskararen batasunaren aldeko jardueran parte zuzena hartu zuen. Idazle, hiztegegile, ikertzaile eta itzultzailea. 1980. urtean bigarren mailako irakaskuntzako Euskal Hizkuntza eta Literaturaren katedra atera zuen eta hogeitaz urtez Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararako Kabinete Teknikoaren arduraduna izana da, Unibertsitateko irakaskuntzan eta zerbitzuetan euskararen erabilera publikoa bermatzeko lana eginez. Georgian ikasten aritu da, Kaukasoko hizkuntzak aztertzen. Euskal Herriko Unibertsitateko O.H.O.ko Irakasle-Eskolako irakasle titularra da, 1993tik euskaltzain osoa eta 2003tik Akademiaren idazkaria.

Helbidea:
Haritzekieta etxea
Askorbeko-Ugarte bidea, 5
Goierrri-Martiartu
48950 Erandio
94-417 04091; UPV/EHU: 94 601 75 37; 94-601 20 80
<repkiurx@lg.ehu.es>

Henrike Knörr

Tarragonan sortu zen 1947an. Doktore titulua 1987an lortu zuen, Maurice Harrieten (1814-1904) hiztegi argitaragabeari buruzko tesi batez, Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean. Euskal Filologiako katedraduna da 1995az gero, eta Gasteizko Filologia eta Geografia eta Historia Fakultatean irakasten du. Euskaltzain osoa da 1977az gero. Erakunde honetako Iker-sailburua da (2005). Gogokoen dituen gaiak dira leku- eta pertsona-izenak, euskararen historia eta euskal testuak. Koldo Zuazorekin batera, 1998an *Arabako euskara. Ikerketak eta testuak / El euskara alavés. Estudios y textos* izeneko liburua argitaratu zuen. Urte berean *Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Alava / Arabako euskarari buruz jakin behar dena* plazaratu zuen. 1999an Gerardo Gerardo López de Guereñuren *Voces alavesas-en* bigarren argitaraldia prestatu zuen. Artikuluen artean aipa daitezke: "Nombres vascos

de persona: cuestiones históricas y de normalización” (1998); “Astronomy and Basque Language” (2000); “Antroponimia y toponimia en *Ramuntxo*, de Pierre Loti” (2002), eta “Antroponimia en *Guerra y paz*, de Miguel de Unamuno” (2002).

Helbidea:
834 posta kutxatila
01080 Gasteiz
<hk@henrikeknoerr.com>

Joseba Andoni Lakarra

Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna (2005). Euskaltzain urgazlea. Euskararen historia eta Euskararen gramatika historikoaren irakaslea EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. Filologia eta Geografi-Historia Fakultateko Dekanoa eta *ASJU* aldizkariaren arduraduna. Hainbat urtetan baladez, bizkaiera zaharraz eta euskal lexikografia zahararren historiografia eta filologiaz aritu ondoren, azken dozena bat urtetan euskararen erro teoriatz eta estandarra baino aitzineuskara zaharrago baten berreraiketaz ikerketan dihardu.

Helbidea:
Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea
Unibertsitateko ibilbidea, 5
01006 Gasteiz
<fvplaanj@vc.ehu.es>

Juan Carlos Odriozola

1954.ean jaio zen Bilbon. 1976.ean Biologia-lizentziatura erdietsi zuen eta 1984.ean, Euskal Filologiako lizentziatura. 1990.ean Euskal Filologian doktoratu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. 1977.etik 1981.erako tartean, hizkuntza-eskolak eman zituen Bartzelonako Unibertsitateak Leioan (Bizkaia) zuen Informazio Zientzien Unitatean. 1981.etik aurrera, Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu irakasle eta ikertzaile gisa. Euskal Filologia Sailaren barruan, hizkuntzalaritza aplikatuaren esparruan aritu da, funtsean euskararen erabilera berezitzen ezaugarriak deskribatzen: batetik testu mailako kontuak jorratu ditu, bestetik hizkuntzaren alderdi lexikoa aztertu du, eta azkenik, saio-zientzien nazioarteko arauen hizkuntza-ikuspegiak aritu da. Berak argitaraturiko lanen artean, aipatzekoak dira testu-azterketaren ikuspe-

gitik egindakoak, mendeko perpausen pragmatikako balioei buruzkoak. Lexikoaren ikuspegitik, euskararen hainbat hitz eratorri eta hitz-elkarte aztertu ditu, gehienetan Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Gironako Unibertsitatea eta Pompeu Fabra Unibertsitatearekin elkarlanean. Nazioarteko arauen hizkuntzalaritza-ikuspegiari dagokionez, hainbat lan plazaratu ditu kimikako formulazioaren joskera naturalaz eta kimikako nomenklaturek duten morfologia-alderdiaz.

Helbidea:

Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Filologia Saila

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

48940 Leioa (Bizkaia)

<fvpodpej@lg.ehu.es>

Miren Lourdes Oñederra Olaizola

Donostian jaio zen 1958an. Deustuko Unibertsitatearen Donostiako Campusean atera zuen Filologia Hispanikoan lizentziatura eta Filologia Anglogermanikoan diploma. Estatu Batuetako Iowako Unibertsitatean Linguistikazko masterra egin zuen gero (1980-1982 bitartean). Euskal Herriko Unibertsitatean, Filologia eta Geografia Historia Fakultatean lan egiten du 1982aren azkenaz geroztik. 1987an defendatu zuen Fakultate horretan bere doktorego tesia, Koldo Mitxelena maisuak zuzendu zuen azkena. Oñederrak fonologiaren eremuan egiten du gehien bat iker eta irakaskuntza lana.

Helbidea:

Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea

Unibertsitateko ibilbidea, 5

01006 Gasteiz

<fvponoll@vh.ehu.es>

Beñat Oyharçabal

Hizkuntzalaria, CNRSeko Ikerketa Zuzendaria (*IKER* - UMR 5478, Baiona). 1949an Parisen Zuzenbideko eta Hizkuntzalaritzako ikasketak egini, Euskal Estudioetan unibertsitate-doktore (Bordele 3, 1981) eta Hizkuntzalaritzan estatu-doktore (Paris VII, 1987) egin zuten. *IKER* ikerketa zentroko (Bordele 3, CNRS eta UPPA) burua. Euskaltzain 1990az geroz-

tik. Euskal letren gizarte-historia eta euskararen morfosintasia izan ditu azken urte hauetako ikergai nagusiak.

Helbidea:
IKER
28 Lormand karrika
F-64100 Baiona
<b.oihartzabal@wanadoo.fr>

Patxi Salaberri Muñoa

Aramaion jaioa. Euskal Filologian doktorea da eta Euskal Literaturako irakaslea UPV-EHUn. Haren lanen artean aipa daitezke: *Axularren prosa erretorikaren argitan* (1997) eta *Euskal klasikoen atarian* (2004). Lazarragaren eskuizkribuan ageri den artzain eleberriaren edizioa argitaratu du (2005).

Helbidea:
J. Ibañez Santo Domingokoa, 1
01006 Gasteiz
<fvpsamup@vc.ehu.es>

Iñaki Ugarteburu Gastañares

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia Saileko irakaslea. Medikuntza eta Euskal Filologian lizentziatua, azken urteetan Euskara Teknikoa irakatsi du Osasun Zientzietako titulazioetan. Gaur egun EHUko Euskara Errektoreordetzaren Euskara Zerbitzuan ari da lanean. Zenbait lan argitaratu ditu hizkuntzaren didaktika, terminologia edo hizkuntza zerbitzuei buruz.

Helbidea:
Euskara Zerbitzua
Euskara Errektoreordetza
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco
Sarriena z/g.
E-48940 Leioa
<fvpuggai@lg.ehu.es>

Blanca Urgell

EHUko irakasle titularra. Gasteiztarra, 1962an jaioa, EHUn bertan egin zituen bere ikasketak, lehenik Euskal Filologiako lizentziatura (1986) eta gero doktoregoa (2000) erdietsirik. 1987-1996 bitartean Mitxelenaen *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren erredakzio lanetan aritu ondoren, EHUn eskolak ematen dihardu gaur arte. Irakaskuntzan zein ikerketan Hiztegitzintza, Filologia eta Euskararen Historiarekin zerikusirik duten gaietan lan egiten du nagusiki.

Helbidea:

Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea

Unibertsitateko ibilbidea, 5

01006 Gasteiz

<fvurlab@vc.ehu.es>

Andres Maria Urrutia Badiola

Bilbon jaioa 1954. urtean. Zuzenbidean lizentziaduna (1976), notarioa (1981) eta Deustuko Unibertsitatearen irakaslea. Euskaltzain osoa. Euskaltzainburua (2005). Euskara eta zuzenbidea ikertu ditu, legearen eta iurislinguistikaren ikuspegitik. Gaur egun, unibertsitate horretako Zuzenbide Fakultatearen euskara arduraduna da. Besteak beste, *Euskara legebidean* (1990) eta *Euskara, zuzenbidearen hizkera* (1995) argitaratu ditu. Lege testuen bilduma elebiduna prestatzen dihardu, lehen aipatu unibertsitatean. Hartara, Espainiako *Kode Zibilar*en gaztelaniazko eta euskarazko argitalpena egin du berrikitan (2004).

Helbidea:

Notaritzza

Rodríguez Arias, 6, 3 (1. depart.)

48008 Bilbo

<urrutia@garmanur.e.telefonica.net>

Armel Wynants

Teacher of Dutch at the Institut Supérieur des Langues Vivantes of the University of Liège (ULg). He is the author of *Drempelniveau Nederlands als vreemde taal* (Dutch Threshold Level), commissioned by the Council of Europe. He is also Deputy District Commissioner of Fourons where he is in charge of controlling the implementation of the language legislation. He has published many articles on the sociolinguistics of Belgium.

Address:
Institut Supérieur des Langues Vivantes
Université de Liège
Bd du Rectorat, 7 - Bât. B 31
4000 Liège (Sart-Tilman)
Belgique
<armel.wynants@belgacom.net>

Igone Zabala

Alonsotegin (Bizkaia) jaio zen 1961 urtean. Biologia ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. 1986 urtetik EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean Euskara Teknikoa izeneko irakasgaiak irakasten ditu. 1993 urtean Euskal Filologiako doktoretza lortu zuen Pello Salaburu doktoreak zuzendutako Predikazioaren Teoriak Gramatika Sortzailean: euskararen kasua izeneko tesiarekin. 1997 urtetik Unibertsitateko Irakasle Titularra da. Hainbat lan argitaratu ditu euskal sintaxiaz eta morfologia lexikoaz. Argitaraturiko artikulua eta liburu gehienetan zientzia eta teknikarako euskararen hizkuntza berezitasunez aritu da.

Helbidea:
Euskal Filologia Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
644 posta kutxatila
48080 BILBO
<fvpzauni@lg.ehu.es>